



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VI. legegintzaldia

Iruña, 2004ko maiatzaren 20a

43-3. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2003an egindako lanari buruzko txostena ([2. or.](#)).

(Txostena Aldizkari Ofizialaren bost aletan argitaratzen da, 43-1, 43-2, 43-3, 43-4 eta 43-5. zenbakietan).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren erakundeak 2003an egindako lanari buruzko txostena.

43-3 ALEKO AURKIBIDEA

II- 01. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA

NEKAZARITZA

- Getze-lbargoitiko bide batean luberria egitea.

MERKATARITZA

- Sektoreko enpresen zailtasunak, etxe@ kanpainan ordenagailuak erosi eta internet erabiltzeko dirulaguntzak eskuratzeko eskabideak tramitatzeko.
- Saltoki batean erreklamazio orririk ez egotea, eta ondoren horregatik irekitako espedientea.
- Sanferminetako saltzaile ibiltarien postuak esleitzeko sistema.

II- 02. GIZARTE ONGIZATEA

ANTZINAKO UMEZURTZ-ETXEKO DATUEI ETA AGIRIEI BURUZKO INFORMAZIOA

- Lehengo Nafarroako Amen eta Umezurtzen Etxeko datuak eta agiriak eskuratzea, familia jatorriari buruzko informazioa lortzeko.
- Pertsona bati informazioa ematea, lehengo Nafarroako Amen eta Umezurtzen Etxean jaio eta adoptatu edo umeordetutako arreba gaur egun non dagoen jakin dezan.

GARRAIOA ETA LAGUNTZAK

- Pertsona bati bono-taxia ez ematea, adina dela eta.
- Etxez-etxeko laguntzarako dirulaguntzak.

EGOITZAK

- Zaharren egoitzan eginiko egonaldiak eragindako zorrak eskatzea.
- Infanta Elena Zentroan emandako laguntza, langileen greba dela eta.
- Zaharren egoitzetan obrak egiteko dirulaguntzen deialdian ezarritako baldintzak betetzea.

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA

- Ezintasuna duten pertsonentzako babes publikoko etxebizitzetako oztopo arkitektonikoak kentzea.

- Arkitektura oztopoak kentzea hauteslekuetan.

II- 03. KULTURA, KIROLA ETA ELEBITASUNA

KULTURA

- Titulurik ez duten artelanen zaharberritzaileei lanerako baimena ematea.

KIROLA

- Federazioko lizentziaren kopia lortzea.

ELEBITASUNA

- Informazio orriak gaztelaniaz soilik argitaratzea.
- Berriozarko oinarrizko osasun barrutiko gripearen aurkako txertaketa kanpainari buruzko afixen eta diptikoen argitalpena gaztelaniaz bakarrik.
- Nafarroako Gobernuak “El euro, tu moneda” informazio-liburuxka igortzea.

- Euskaraz arretea ematea Bortzirietako osasun etxean (Lesakako oinarrizko osasun barrutia).

- Iruñeko Udalaren bulegoetan euskaraz ematea arretea.

- Euskaraz ez erantzutea Iruñeko Udalari hala eskatu dion herritar bati.

II- 04. HEZKUNTZA

ESKOLATZEA

- Ikasle etorkinen kontzentrazioa Tuterako ikastetxe publikoan.
- Oti 3 urtera bitarteko zikloan ikaspostu nahikorik ez izatea.

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK

- Tuterako eremuan, ezgaitasuna duten haurrei laguntza ematen jarraitzea oporraldian.
- Garun-perlesia duen haur baten hezkuntza-ibilbidea.

IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA

- Atarrabiako “Lorenzo Goicoa” eskualdeko ikastetxe publikoaren banaketa, hizkuntza eredu desberdinen ondorioz.
- BHI bateko zuzendariak proposatutako ordu-tegiaren kontra aurkeztutako errekurtsioari erantzunik ez ematea.

LAGUNTZAK ETA IKASTETXEETAKO MATRIKULAZIOA

- Testuliburuak erosteko dirulaguntzei buruzko informazio urria eta laguntzak atzerapenez ordaintzea.
- Ikasle bat udal musika eskola batean matrikulatzerakoan kontuan hartu beharreko inguruabarrak ez egiaztatzea.
- Familia ugariko kideak matrikulatzerakoan dagozkion onurak ez aplikatzea Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan.

II- 01. NEKAZARITZA, INDUSTRIA, MERKATARITZA ETA TURISMOA**NEKAZARITZA****GETZE-IBARGOITIKO BIDE BATEAN LUBERRIA EGITEA****AURREKARIAK**

Kasu honetan (02/219/A espedientea), ukitutako bilzilagun batek kexa bat aurkeztu zuen Getze-Ibargoitiko Udalak deus ez zuelako egin herriko bide batean luberria egin izanaren inguruan.

Idazkian zioenez, katastroko 3. poligonoko planoaren araberrako [...] lurzatiaren jabea da, eta aldameneko lurzatiaren jabeak, [...] jaunak, poligono bereko [...] lurzatiaren jabeak alegia, lurzatiara joateko erabiltzen zuen herriko bidean, “Masaingo bidea” deitzen den horretan, luberrri egin zuen, eta horren ondorioz lurzati mugakideetara, haien artean interesatuaren lurzatiara, igarotzea galarazten zuen.

Hori dela eta, Getze-Ibargoitiko Kontzejura jo zuen, gertaerak salatu eta eskatzeko erakundeak zerbait egin zezan; hura ikusirik, entitateak, 2000ko urtarrilaren 21ean eta 2001eko ekainaren 19an eginiko bilkuretan, erabaki zuen [...] jaunari

eskatzea herriko bidea lehen zegoen bezala utz zezan.

Aurrerago, eta ikusita arau-hausleak ez zuela betetzen agindutakoa, gaiaren inguruan bi erabaki egonik ere, interesatuak bitan eskatu zion kontzejuari egin beharrekoa egin zezala finken mugaketa egin eta bidea mugatzeko, jabari publikoko ondarena delako eta kontzejuak hura defenditu, kontserbatu eta lehengoratzeko betebeharra duelako. Interesatuak zioen kontzejuak arau-hausleari bidea lehengoratzeko aginduaren berri beste behin eman baizik ez zuela egin, neurri eraginkorragorik hartu gabe. Horren eraginez, interesatuak administrazioaren jardun eza salatu zuen Toki Administrazioiko Departamentuan, 2001eko maiatzaren 2an.

Azaldutako guztiaren ondorioz, Getze-Ibargoitiko Kontzejura jo genuen kexan planteaturiko gaien buruzko informazioa eman zezan, eta kontzejuko buruaren erantzuna hauxe izan zen:

“Aurrekariak: Eztabaidagai diren bi finkak eta bidea duela hamar urte baino gehiagotik hona daude egoera horretan, Getzeko zenbait bilzilagunen lekukotzaren bidez jakin ahal izan dugunez, baina inork ez dio orain arte inongo auziri ekin.

Kontzejuaren jarduketak: Kontzejuak [...] jaunaren erreklamazioa jaso zuenean, bertatik bertara aztertu zituen azaldutako gertaerak, eta egiaztatu ahal izan zuen [...] jaunaren finkarako sarbidea bermaturik zegoela. Ondoren, bi jabeei dei egin zien bilera batean parte hartzeko, garrantzirik gabeko gai bat arazo handi bat bilakarazten ari zirela uler zezaten (Nafarroako Gobernuari eta kontzejuari igorritako idazkiak, etab.) Bilera hartan ohartu ginen bi alderdiek oso kontrako jarrerak zituztela, bileran zehar argi azaleratu ziren aurreitazko bidegabekeriengatik, eta hizpide genuen gaia auzian erabilitako arma bat besterik ez zela.

Edozein modutan ere, kontzejuak ebazpena eman zuen eta bi alderdiek onartu zuten bidea lehengoratzeko duela gutxienez hamar urte zegoen egoerara (kopiak erantsirik daude).

Gure balorazioa:

Gure ustez kontzejua erabiltzen ari dira inolako garrantzi objektiborik ez duen gai batean eta gure iritzia da ez dela inoren eskubiderik urratzen ari.

90 bilzilaguneko kontzeju batek, kontuan harturik gainera legearen arabera zein eskumen urriak dituen, ezin du besterik egin, ebazpenak jakinarazi eta herritarrek beteko dituztelakoan egotea ez bada.

Bi jabeak ondoan dagoen Elo herriko bizilagunak dira, eta beraz Getzeko bizilagunen kasuan eraginkorrek izan daitezkeen beste neurri batzuk ere ezin zaizkie ezarri”.

Erantzunak hainbat agiri erantsi zituen, eginda-ko jakinarazpenaren inguruokak, Toki Administrazio-oko Departamentuari eginiko jakinarazpenari buruzkoak, eta plano bat ere bai, azalpenekin.

ANALISIA

Helarazi zitzaigun kexa ikusirik, uste dugu beharrezkoa dela gogoraraztea zein diren toki entitateen betebeharrak jabari publikoko ondasunen defentsa, kontserbazio eta lehengoratze kasuetan.

Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru legearen 110. artikuluan ezartzen denez, Nafarroako toki entitateak euren ondareko ondasunak eta eskubideak kontserbatu, defendatu, lehengoratu eta hobetzeaz arduratu behar dira, eta beharturik daude horien defentsarako beharrezkoak diren ekintzak gauzatzera. Xedapen horretan oinarriturik, Getze-Ibargoitiko Kontzejua beharturik dago bere ondareko ondasun eta eskubideak zaintzera, eta kategoria horretan sarturik daude herriko bideak.

Urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Ondasunen Erregelamenduaren 26. artikulua, berriz, zehazten du eskubide zibil eta politiko osoak dituen edozein bizilagunek eskatu ahalko diela toki entitateei haren ondasun eta eskubideen defentsarako beharrezkoak diren ekintzak bete ditzan.

Antolamendu juridikoak toki entitateei ondare publikoa defendatzeko ematen dizkien ahalmenen inguruan urriaren 18ko 280/1990 Foru Dekretuaren 37. artikulua haxe ezartzen du:

«1. Nafarroako toki entitateek ahalmen hauek dituzte euren ondasunei dagokienez, Nafarroako toki administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen eta erregelamendu honen ondorioz ezartzen den irispenarekin:

- a) Ikerketarako ahalmena.
- a) Mugaketa egiteko ahalmena.
- c) Ofizioz errekuiperatzeko ahalmena.
- a) Maizter-botatze administratiborako ahalmena.

2. Toki korporazioek halaber, euren ondarearen babeserako eta haren erabilera egokia bermatze aldera, zehapenak zehaztu eta ezarri ahalko dituzte aplikatzeko den araudi sektorialean aurreikusitakoarekin bat.

Horri buruz nabarmendu beharra dago kontzejuak 2000ko urtarrilaren 21ean eskatu ziola [...] jaunari lehengora zezan 3. poligonoan, [...] eta [...] lurzatiaren artean dagoen herri bidea jatorrian zegoen egoerara eta katastroko planoarekin bat; eskaera 2001eko urtarrilaren 12an luzatu zitzaion berriz, eta ohartarazi zitzaion agindua bete ezean kasuan kasuko lege neurriak hartuko zirela.

Era berean, kontzejuko burua eta idazkaria bi jabeekin bildu ziren 2001eko ekainaren 8an, eta bileraren ondotik kontzejuak erabaki zuen 2001eko ekainaren 19an berriz agintzea [...] jaunari bidea libre utz zezan, pertsonak eta ibilgailuak handik igarotzeko moduan.

Beraz, bistan da eztabaidaren gaia dela zehaztea herriko bide batean luberria egin den ala ez, eta arau-hausleak, egitatezko bidea erabiliz, bidearen azalera bereganatu duen, hala gertatu dela dirudielako. Izan ere, kontzejuak berak, 2000ko urtarrilaren 21ean hartutako erabakiaren bidez, behar ziren egiaztapenak egin ondoren, [...] jaunari agindu zion bidea lehengora zezan. Ondoren, agindua luzatu zion berriz ere kontzejuak 2001eko ekainaren 19an hartutako erabakiaren bidez, baina partikularrak ez ziren kasurik egin eskariei. Horrenbestez, agerikoa dirudi kontzejuaren egiaztapenak eta hark Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioari eta Ingurumen Departamentuetan egin dituen hainbat kudeaketak frogatzen dutela partikularrak luberria egin duela bide horretan.

Nafarroako lurralde-argibideetarako sistemak (SITNAK) emandako ortofotoen bidez egiaztatu ahal izan dugu bidea erabat desagertu dela, eta beraz katastroko orriak ez du islatzen eremu horretako egiazko bide sarea, eta horregatik ez dugu dudarik pentsatzeko kexak oinarria baduela.

Arazoa konpontzeko, kontzejuak azkar samar jardun zuen, behin [...] jaunak gertaerak salatu ondoren, eta behar ziren eskariak luzatu zituen, baina ondoren hartutako erabakiak betearazteko betebeharrak ez ditu gauzatu. Dudarik ez da bidea herriarena dela eta egitatezko bidea erabiliz usurpatua izan dela, baina uste du partikularrek haien artean ebatzi beharreko arazo txikia dela, kontzejuak ez baitu baliabiderik bere egintzak betearazteko, eta horregatik eskatu zuen Nafarroako Gobernuko departamentu horien laguntza.

Halere, herriko bideen titularra den aldetik, kontzejuak ezin du pasibotasunez jokatu bere ondarea babesteko orduan; aitzitik, bere egintzak betearazteko behar diren erabakiak hartu behar ditu, edo berriz aztertu behar du auzia, erabakitze bidearen trazadura eta finketarako sarbideak egokienak ote diren. Arlo honetan dituen eskume-

nak bete ahal ditu egoki iruditzen zaizkion aldaketak eginez, betiere, herriko bideek bere eginkizuna modu egokian betetzen badute. Aldaketa horiek egitea komeni dela pentsatzen badu kontzejuak, erabiltzen ez den bide zatia desafektatu behar du legezko prozeduraren bidez.

Baina, edozein kasutan, bidezkoa ez dena da uztea partikular batek beregana dezan, egitatezko bidea erabiliz, bide publikoaren zati bat berak ustiatzeko, hura desafektatzeko inolako espedienterik tramitatu gabe eta, gainera, partikularrak prezioa ordainduta behar bezala erosi gabe. Kasu honetan arau-hauste bikoitza gertatu da: bide publikoa kendu izana eta bidea zegoen lurrez zilegitasunik gabe jabetu izana.

Azaldutakoa dela eta, egokitzat hartu zen Getze-lbargoitiko Kontzejuari LEGEZKO BETEBEHARRREN GOGORARAZPENA zuzentzea, jabari publikoko ondasunen babesaren arloan dituen eskumenak bete ditzan, eta 2000ko urtarrilaren 21ean eta 2001eko ekainaren 19an hartutako erabakiak betearaz ditzan luberrria egindako bidearen jabetza berreskuratzeko, baina ezertan galarazi gabe bere eskumenez baliatuz beste irtenbide batzuk bilatzeko aukera, aipatu dugun ildoan betiere.

Horri erantzunez, kontzejuko buruak adierazi zигun aginduak eman zitzaizkiola entitateko abokatuari kontzejuaren interesen alde kasuan kasuko lege ekintzak abiaraz zitzaiz.

MERKATARITZA

– SEKTOREKO ENPRESEN ZAILTASUNAK, ETXE@ KANPAINAREN BARRUAN ORDENAGAILUAK EROSI ETA INTERNET ERABILTZEKO DIRULAGUNTZEN PROGRAMAN SARTZEKO ESKABIDEAK TRAMITATZEKO.

Kasu honetan (02/163/A espedientea) sektore horretako enpresetako batek jakinarazi zигun haietako batzuek zer arazo eta zailtasun izan zituzten Nafarroako Gobernuak Foru Komunitatean ordenagailuak erosi eta internet erabiltzea sustatzeko ezarritako dirulaguntza programan –Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak apirilaren 10ean emaniko 422/2002 Foru Aginduaren bidez ezarri zuen– parte hartzeko eta eskabideak tratatzeko orduan.

Kexaren idazkian zehatz-mehatz kontatzen zen zer-nolako zailtasun teknikoak izan zituzten horretarako sortutako web orrian euren bezeroen eskabideak sartzeko, datuak ongi paratu arren sistemaren erantzuna, ia etengabea, akatsa baitzen; hori dela-eta, ezinezkoa izan zen alta ematea haietako askori. Arazo horien aurrean, notario bat etor zedila eskatu zen, egoera egiazta zezan; akta hori

kexaren idazkiarekin batera aurkeztu zen, eta gertaera horien fede ematen du.

Hura ikusirik, egilearen ustez Nafarroako Gobernuaren aldetik aurreikuspen txarra egon zen, herritarrek erantzun zabala eman ziotelako dirulaguntzen kanpainari, eta horren eraginez ezarritako web orrirako sarbideek gainez egin zuten, orria ez baitzegoen prestaturik hainbeste eskabide jasotzeko aldi berean. Gertatutakoak ondorio txarrak ekarri zituen enpresa horren ordenagailu salmantan, haren bezeroek –17 guztira, erantsirik zerrendan ageri bezala–ez zutelako aukerarik izan dirulaguntzarik jasotzeko, eta horrek kexa eta erreklamazio mordoa eragin zuen, konponbide zaila dutenak gainera, kanpaina hasi zenetik egun gutxira amaitu zen eta.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari informazioa eskatu genion gai honi buruz, eta haren erantzuna ikusirik beharrezkotzat jotzen dugu zenbait ohar egitea.

Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilariak emaniko apirilaren 10eko 422/2002 Foru Aginduaren bidez ordenagailuak erosteko eta interneteko konexioa eta erabilera sustatzeko dirulaguntzen deialdia onetsi zen. Foru agindu horrek zenbait baldintza ezartzen zituen dirulaguntzak jasotzeko, hala nola eskabidea aurkeztea epe zehatz baten barrenean edo horretarako aurrekontu kreditua ahitu artean, eta eskabidea horretarako diseinaturiko web orrian balidatzeko aukera.

Aipatutako kexan jakinarazten zitzaigunez, web orri horrek huts egin zuen 2002ko apirilaren 25ean, arratsaldean, eskabideen altak ez zituela onartzen; departamentuaren arabera, beste behin ere huts egin zuen, sistema gelditu egin baitzen, eta horren berri eman zuen.

Web orri horretan sartzea eta gero erregistratzea iragarritako dirulaguntza eskuratzeko nahitazeko pausua dela kontuan harturik, balizko erosleengan, nolabait, konfiantza eragin zen aukera horrekiko, eta gure ustez administrazioak erantzuna eman behar dio horri, eta beraz ezin du bertan behera utzi aurreikuspenen edo ezarritako sistemaren funtzionamenduaren balizko akatsengatik, horren ondorioz bidezko konfiantzaren printzipioa urratuko lukeelako.

Kaltetuak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak sustaturiko kanpainak haiengan sortu zuen konfiantzan oinarritu ziren inbertsioa egiteko, kanpainak horretara bultzatzen baitzuen, eta ezarritako prozedurarekin lotutako arazoien gatik laguntzarik eskuratzetik ez izatea administrazioaren eta partikularren arteko harremanetan

nagusi izan behar den fede onaren printzipioaren kontra doa.

Komeni da gogoraraztea bidezko konfiantzaren printzipioak berarekin dakarrela, Europako Erkidegoetako Auzitegiko doktrinaren eta gure Auzitegi Gorenaren arabera, agintari publikoek ezin dutela hartu euren erabakien egonkortasun arrazoizkoak sortutako esperantzaren kontrakoa den neurririk, erabaki horiek partikularren beste erabaki jakin batzuk eragin badituzte (1999ko maiatzaren 10eko Auzitegi Gorenaren epaia), eta aplikatzekoa da baldin eta oinarritzen bada bereziki administrazioak sortutako kanpoko zeinuetan, behar bezain seguruetan, eta horrekin batera zentzuzkoa bazen pentsatzea kalteak ez zirela gertatuko (1999ko azaroaren 15eko AGE).

Auzitegi Gorenaren jurisprudentziaren arabera, printzipio hori onar daiteke Europako Erkidegoko Zuzenbidearen esparrukoak ez diren harreman juridikoetan ere, "Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikuluan ezarria den segurtasun juridikoaren printzipioaren korolario baten gisa" (2002ko uztailaren 8ko AGE).

Kexan aipatzen den kasuari printzipio hori aplikatzeak behartzen zuen, gure ustez, interesatuak etxea kanpainaren babesean eskatu zituzten laguntzak onartzera, betiere frogatuz gero ezarritako epean aurkeztu zirela edo zuzenbidean onarturiko moduan egiaztatuz gero hala egiten ahalegindu zirela, eta horretan ezin dezakete eraginik izan departamentuaren erantzunean aipatzen diren moduko alderdiek, "sarbiderako sare publikoan izandako arazoan edo saltoki horiek interneten sartzeko duten hornitzailearen" ingurukoek alegia, zeren, egia bada ere departamentu horren erantzukizunetik kanpo daudela, ezin baita ahaztu administrazio publikoek, euren jardunean, zaindu behar dutela ezarritako baldintzek eta betebeharrak ez ditzaten zenbait pertsona utzi beste batzuk baino egoera kaskarragoan edozein laguntza eskuratzeari begira. Kontrakoa gure Konstituzioan ageri den berdintasun printzipioaren aurka egitea izanen litzateke.

Horri buruz esan beharra daukagu Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak onartu zituela azkenean "kanpainaren barruan aurkeztutako erosketa eskabide guztiak, eskabidea epe hartan egin zela egiaztatu dutenak, eta, noski, hala zela akta notarial batean agerrarazi dutenak ere".

Jasotako informazioa ikusirik, gure iritzia izan zen departamentuak gorabehera horiek bideratzeko modua zentzuzkoa zela, nolabait onbideratzen zituelako eskatzaileek jasan zituzten ondorioak,

haien erantzukizunekoak ez zen huts egite bategatik. Esan dezakegu beraz erakunde honetan azaldutako arazo zehatz hori modu egokian bideratu zuela Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak.

Halatan ere, ezin ahaztu genuen ordenagailuak erosteko laguntzak eskatu zituztenengan horrelako kasuek eraginen zuten nahasmen egoera, eta logikoa denez, horrelakorik ez litzateke gertatu behar, herritarrei ez dakien tratu desberdinik eman haien eskura ez dauden faktore edo baldintzen arabera (zein saltoki aukeratzen duten, sartzeko sare publikoa nahiz interneteko hornitzailea, etab.) Administrazioa beharturik dago, gutxienez, bitartekoak ezarri eta sustatzera halakorik gerta ez dadin.

Eсандakoagatik, egoki iruditu zitzaigun Nafarroako Gobernuko Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuari IRADOKIZUNA egitea, aurreantzean lehen azaldutakoa bezalako beste dirulaguntza deialdi bat egitekotan, aldeztu aurretik egin dezaten azterketa bat laguntzak eskuratzeko ezarri beharreko prozeduraren inguruan, laguntzen onuradunek kalterik izan ez dezaten, eskabideak aurkezterakoan pertsona batzuk beste batzuk baino egoera kaskarragoan utzi ahal dituzten kanpoko faktoreen eraginez.

Erantzunean, departamentu horretako kontseilariak horren aldeko jarrera erakutsi zuen, eta adierazi antzeko deialdiaren bat egitekotan aurrerago laguntzak eskuratzeko prozedurak behar bezala aztertuko direla, ahal den ekitatiboan eta fidagarrienak izan daitezen.

SALTOKI BATEAN ERREKLAMAZIO ORRIRIK EZ EGOTEA, ETA ONDOREN HORREGATIK IREKITAKO ESPEDIENTEA.

AURREKARIAK

Kontsumitzaileen elkarteak aurkeztu zigan kexak (03/141/A espedientea) helarazten zigan interesatuak bizitako egoera, horren ustez kontsumitzaile gisa eskubidea baitu saltoki batean erreklamazio orriak eskura egon daitezen eskatzeko –Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen erreklamazio orriak arautzen dituen martxoaren 2ko 69/1998 Foru Dekretuan ezarritakoarekin bat–, eta eskubide hori urratu zitzaizkion zegoen.

Gertaerak kontatzean adierazten du 2002ko abuztuaren 1ean salaketa bat aurkeztu zuela Tuterako udaletxean, Nafarroako Gobernuari zuzendua, [...] saltokiaren kontra, eta horren haritik ireki zela [...] zenbakiko espedientea.

Interesatuak helarazitako salaketaren kopian egiaztatu ahal izan genuenez, salatutako tailerren bere [...] ibilgailua gaizki –bere iritziz–erabiltzeagatik beste konponketa bat egin behar izan zion, 1.164,36 euro egin zuena, zenbait pieza ordezteko; [...] enpresak, ibilgailuaren markaren kontzesiodunak, ziurtatu zuen matxura Tuterako tailerlean eginiko lehenbiziko konponketaren ondorioa zela.

Tuterako udaletxean aurkeztutako salaketan, konponketa okerra egin zion tailerrak bigarren konponketak eragindako gastuak ordain zitzan eskatzen zuen eta, horrez gain, saltokia salatu zuen erreklamazio orririk ez izateagatik, legeak eskatu bezala.

Igorritako kexaren oinarri juridikoa zen saltokiak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen erreklamazio orriak arautzen dituen martxoaren 2ko 69/1998 Foru Dekretuan xedatutakoa urratu izana. 1. artikulua ezartzen du saltokiak beharturik daudela kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskura izatera foru dekretu horren eranskinean ageri den ereduaren arabera erreklamazio orriak. 3. artikulua ezartzen du gainera beharturik egonen direla jendarean izateko, ongi ikusteko moduan, kartel bat, erreklamazio orriak eskatzen dituztenen eskura daudela iragarri. Manu horietako edozein ez betezea arau-haustetzat joko da, Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen defentsarako uztailaren 19ko 26/1984 Lege Orokorren 34. artikuluan eta Ikusizun publiko eta josteta jardueri buruzko martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 19. artikuluan ezarritakorekin bat.

Interesatuak adierazten zuenez, “aurrerago Kontsumo departamentuaren jakinarazpen bat jaso nuen, esanez salaketa artxibatu zutela, ikuskatzailea salatutako saltokira bisitan joan zenean erreklamazio orririk ba ote zuen egiaztatzea, erakutsi egin zizkiotelako.”

Horren aurrean, beste idazki bat igorri zion departamentuari, hartutako erabakiarekin ados ez zegoela adierazteko. Idazkian azaltzen zuen 2003ko urtarrilaren 24ko ikuskapeneko bisita hura salatutakoa gertatu eta sei hilabetera egin zela, eta enpresak beta izan zuela hortaz saltokian eduki beharreko erreklamazio orriak eta argibideen kartela eskuratzeko. “Nik orriak eta kartela eskatu nituenean, ordea, ez zegoen horrelakorik, eta Tuterako Udaleko Herritarrentzako Informaziorako udal bulegoari txostena eskatuta frogatu daiteke; bulego horrek ez du eragozpenik txostena emateko, salaketa aurkeztu zen egunean egiaztatu ahal izan baitzuen [...] jauna, enpresa horren arduraduna, udaletxean aurkitu nuela, erreklamazio orrien inprimaki ofizialak eskatzen joana zelako gertatutakoak gertatu ondoren.”

Amaitzeko azaltzen zuen departamentuan salaketa aurkeztu ondoren jaso izanaren arrazoia dela sakoneko gaia konpontzen saiatu zela kontsumo arbitraje baten bitartez eskatuz erreklamazio orriak, lehen aipatutako udal bulegoak iradoki zion bezala. Arbitraje akordio hori lortzerik ez zen izan, enpresak uko egin baitzion onartzeari.

Kexa aztertu ondoren, Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentura jo genuen informazioa eman ziezagun gai honi buruz; zehazki, salaketa artxibatzeiko arrazoiei buruz, eta interesatuak erabaki horren aurrean eginiko idazkian aurkeztutako datu berrien inguruan departamentuak zuen iritzia buruz, bai eta departamentuak Tuterako Udalari egiaztapenak egiteko informazioa eskatu behar ote zion jakiteko ere.

Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan kontseilariak gure eskaerari erantzun zion hauxe zioen txostenean:

“Eskaerari erantzuteko, lehenengo eta behin gertaerak nola joan ziren kontatu behar da:

1. Salaketa-egileak 2002ko abuztuaren 1ean aurkeztu zuen salaketa Tuterako udaletxean, eta honek irailaren 2an igorri zuen departamentu honetara.

2. Salaketa jaso ondoren, argi geratu zen bi afera desberdin ageri zirela bertan: batetik, erreklamazio bat aurkezten zen salaketa egilearen iritziz bere ibilgailuan gaizki egindako konponketa batengatik eta, bestetik, tailerraren kontrako salaketa egiten zen erreklamazio orririk ez izateagatik.

3. Bi eskaera haiek ikusirik, egokitzen jo genuen konponketaren kontrako erreklamazioaz arduratzea lehenengoz. Horretarako, bi aldeen arteko bitartekaritzan aritu ginen, baina emaitzarik lortu ez zenez, erreklamazioa kontsumoko arbitrajearen bitartez bideratzen ahalegindu ginen. Erreklamazioaren xede den enpresak uko egin zion arbitrajea onartzeari, eta beraz, Nafarroako Kontsumoaren Arbitraje Batzordeak emaniko [...] ebazpenaren bidez erreklamazioa artxibatu zen.

4. Erreklamazioa ebazteko adostasunik ez zegoenez, erreklamazio orririk ez izateagatik ezarritako salaketaren tramitazioari ekin genion, eta Kontsumoko Ikuskaritzara igorri zen; ikuskatzailea urtarrilaren 24an joan zen saltokira, eta egiaztatu ahal izan zuen erreklamazio orriak eta kartelak bazirela bertan.

5. Ikuskapenaren emaitza kontuan harturik, [...] jaunari 2003ko otsailaren 5ean jakinarazi zitzaion ezen, kontsumitzailearen babesaren arloko arauhauste administratiborik antzeman ez zenez, salaketa artxibatu behar zela.

6. 2003ko martxoaren 25ean sartu zen [...] jaunaren idazki bat, departamentu honi zuzendua, adieraziz ez zegoela ados hartutako erabakiarekin eta enpresak orririk eta kartelik ez zuela egiaztatzeko modua badela, Tuterako Udaleko herritarrentzako argibideetarako udal bulegora jotzen bada, hara jo baitzuen erreklamazioaren xede den enpresako arduradunak, [...] andreak, eta bertan topo egin baitzuen idazkiaren egilearekin, salaketa aurkeztetik ateratzen ari zelarik". Eskatzen zuen, halaber, espediente berriz irekitzeko eta udal bulego horri galdatzeko egiazta dezan salatutako enpresa bertara joana zela erreklamazio orriak eskatzera eta argi ditzan zein ziren une hartan hara jotzeko enpresak izan zituen arrazoiak.

Gauzak honela, alabaina, ondorengo kontsiderazio hauek egiteari beharrezkoa irizten diogu:

1. [...] jaunaren eskaera bikoitza ikusirik, lehen-goiz erreklamazioa tramitatu zen, betetzen ohi dugun irizpideari jarraikiz; hau da, aldeen arteko adostasuna bilatu eta erreklamazioaren egileak jasandako kalteen ordaina eskuratzen saiatzea. Artxibatu egin behar izan genuen erreklamazioaren xede zen enpresak uko egin ziolako arbitrajea onartzeari, eta ez zen aukerarik izan, hortaz, arazoa sakon aztertzeko.

2. Aldeak ez ziren ados jarri, erreklamazio orririk ez izateagatik salaketa tramitatu zen, eta ikuskapena gauzatu zen, balizko zehapen espediente bat ireki aurretiko jarduketa gisa. Hau bezalako salaketetan, zeinetan elementu bakarra partikular baten lekukotza baita, salatuak uka dezakeena, funtsezkoa da ikuskatzaileak gertaerak egiaztatzea, eta horrek frogatzea balioa izaten du. Ikuskatzaileak salatutako egitate egiaztatzerik izan ez zenez, salaketaren egileari artxibatzearen berri eman zitzaion.

Salaketaren egileak, hurrengo idazkian, aipatzen du orririk eta iragartzeko kartelik berak eskatu zituen unean ez zegoela egiazta daitekeela Tuterako Udaleko herritarrentzako informazio bulegora joz eta bertan eskatuz ziurta dezaten erreklamazioaren xede den enpresa bertaratu zela gertaeren egunean bertan erreklamazio orriak eskatzera. Idazki horretan elementu berriak aurkezten dira, lehendabiziko salaketakoekin batera baloratu behar direnak. Hori dela eta, txosten bat eskatuko zaio Tuterako Udaleko bulego horri eta, hori ikusirik, behar den erabakia hartuko da [...] enpresari zehapen espediente irekitzearen inguruan.

Egindakoaren berri emanen zaio [...] jaunari.

ANALISIA

Departamentuak igorritako txostena irakurrita, ondorioztatzen da, interesatuak berak dioen bezala, ondoko gertaera hauek onartzen zirela, eta nabarmendu behar dira datak bereziki aipatuz: interesatuaren salaketa Tuterako udaletxean aurkeztu zen 2002ko abuztuaren 1ean eta irailaren 2an igorri zitzaion departamentuari. Konponketaren inguruko erreklamazioaren inguruan interesatua eta enpresa salatua kontsumo arbitraje baten bidez ados jar zitezten saiatu ondoren, Kontsumoko Ikuskaritzari igorri zitzaion salaketa, eta ikuskatzailea 2003ko urtarrilaren 24an joan zen enpresara. 2003ko otsailaren 5ean, ikuskapenaren emaitzak ikusirik eta kontsumoaren arloko arauhauste administratiborik egiaztatzerik izan ez zenez, salaketa artxibatu egin zen eta hala jakinarazi zitzaion interesatuari. Interesatuak idazki bat aurkeztu zuen adieraziz ez zegoela ados erabakiarekin; idazkia 2003ko martxoaren 25ean jaso zen departamentuan, eta bertan eskatzen zuen espediente berriz irekitzeko, eta beste gertaera batzuen berri ematen zuen: Tuterako Udaleko herritarrentzako informazio bulegoak ziurta zezakeela interesatuak salaketa aurkeztu zuen egunean bertan enpresa salatuko arduradunak udaletxera jo zuela erreklamazio orriak eta kartela eskutzera. Interesatuak ez zuen administrazioaren erantzunik jaso idazki horren inguruan. Gero, gure esku-hartzearen ondorioz, aurkeztutako kearen inguruan departamentuari informazioa eskatu geniola-eta, departamentuak aintzat hartu zituen datu berriak, interesatuak bere idazkian azaldu zituenak, eta erakunde honi irailaren 16an helarazitako idazkian hitz eman zuen baloratuko zituela eta Tuterako Udaleko herritarrentzako informazio bulegoan txostena eskatuko zuela, "zehapen espediente bat irekitzeari buruzko erabaki egokia hartu ahal izateko; interesatuari emanen zaio beteko diren jarduketan berri."

Beharrezkotzat jo dugu nabarmentzea azaldu-tako egitate bakoitza gertatu zen data, zertarako eta agerian uzteko ezinezkoa dela dagoeneko departamentuak zehapen espediente irekitzearen aldeko erabakia hartzea, herritarrentzako informazio bulegoaren txostenak eta, beraz, salatutako egitateen balorazio berri batek horren aldeko aholkua eman arren. Ezintasun horren arrazoia da arauhauste hori preskribitzeko denbora, legean aurreikusitakoa, iragan egin dela. Baina departamentuak ardua handiagoz jokatu balu ez zen hala gertatuko.

Izan ere, horixe da hizpide dugun arloari buruzko arauak elkar lotuz gero ateratzen den ondorioa. Aurkeztu zituzten keari buruz departamentuari

zuzendutako idazkian aipatu genuen bezala, haren oinarri juridikoa da salatutako saltokiak ustezko arau-hauste bat egin izana kontsumoaren arloan. Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erreklamazio orriak arautzen dituen martxoaren 2ko 69/1998 Foru Dekretuak, Kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babesteko uztailaren 19ko 26/1984 Lege orokorraren 34. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, kontsumoaren arloko arau-hauste administratibotzat hartzen du (9. artikuluan) "Xedapen honetan agertzen diren aginduetako edozein ez betetzea," barne dela, beraz, 1. eta 3. artikuluetan xedatutakoa, alegia, saltokiak beharturik daudela kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskura izatera erreklamazio orriak, foru dekretu horren eranskinean ezarritako ereduaren arabekoak, eta beharturik daudela, halaber, jendaurrean ikusgai jartzera kartel bat, bertan iragarriko delarik erreklamazio orriak eskura dituztela eskatzaileek, bi artikuluko horiek, hurrenez hurren, ezartzen dutenez.

Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erreklamazio orriak arautzen dituen martxoaren 2ko 69/1998 Foru Dekretuaren 9. artikuluko horrek, arau-hauste eta zehapenen arloari dagokionez, Ikuskizun publiko eta josteta jardueri buruzko martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 19. artikuluan ezarritakora igortzen du, eta horrek arau-hausteak hiru multzotan sailkatzen ditu: arinak, larriak eta oso larriak. Arau hori ondoren aipaturiko artikuluek garatzen dute. 23.10 artikuluko arau-hauste larritzat jotzen du honakoa: "Erreklamazio libururik edo orririk ez izatea, edo uko egitea jendearen eskura jartzeari". 21. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, "arau-hauste larriak urtebeteren buruan preskribitutako dira". Azkenik, 2/1989 Foru Legearen 19. artikulua, lehen aipatutakoa, dagokion zehapena ezartzeko bete beharreko prozedurari begira, 28. artikuluan xedatuari lotzen zaio; horrek ezartzen du arau-hauste larri eta oso larrien kasuan aplikatzekoa dela administrazio prozedurari buruzko legean ezarritako zehapen prozedura.

Azaldutako gertaeren eta horien daten ondorioz, urtebete baino gehiago iragan da kontsumoaren arloko ustezko arau-haustea egin zenetik, departamentua orain prest azaltzen bada ere Tuterako herritarrentzako informazio bulegoak eman dezakeen txostena eskatu eta baloratzeko. Urtebete epe hori ez zuen eten ikuskaritzak 2003ko urtarrilaren 24an eginiko bisitak, jarduketa hori "aurretiazko jarduketa" deitutakoetako bat baizik ez delako, hau da, prozedurari ekin aurretik hala egiteko arrazoiak dauden ala ez zehazteko betetzen diren jarduketa horietako bat (zehapen ahalmenaz baliatzeko prozeduraren erregelamendua onetsi zuen abuztuaren 4ko 1398/1993 Errege Dekretuaren 12. artikulua).

Lehen ere esan dugunez, departamentuaren jarduketa edo jarduketa eza, hobeki esanda, erabakigarria izan da legeak ematen dion zehapen ahalmenaz baliatzerik ez izateko. Begi-bistakoa da, batetik, ez zela arduraz jokatu hasieratik gertaerak ikertzen, eta horren frogara da ikuskaritzaren bisita ustezko arau-haustea egin eta sei hilabetera egin izana, eta horrela denbora aski eta sobra eman zitzaion salatutako enpresari erreklamazio orriak eskuratzeko. Baina, dudarik gabe, departamentua gertaerak argitzen nahita saiatu ez izana agerikoa da, inon baino gehiago, 2003ko martxoaren 25ean, hau da, preskripzio epea artean iragan gabe zegoela eta beraz, epea jarduketei ekinez etetea zegoela, departamentuak interesatuaren idatzia jaso zuenean, salaketa artxibatuzko erabakiarekin ados ez zegoela jakinaraziz, eta datu berriak eta horiek Tuterako herritarrentzako informazio bulegoaren txostenaren bidez egiaztatuzko aukera emanez, eta administrazioaren erantzuna isiltasuna izan zenean, 30/1992 Legearen 42. artikulua ezartzen duen erantzun beharra bete gabe, gainera.

Esandako guztiagatik, egokia iruditu zitzaigun LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENA egitea Industria eta Teknologia, Merkataritza eta Lan Departamentuari, batetik interesatuarengana jo eta erantzun ziezaiion martxoaren 25ean bidalitako idatziari, kontuan harturik ere ondoren gertatutakoak, 30/1992 Legearen 42. artikuluan ezarritakoa betetzeko; bestetik, etorkizunean ardura handiagotzat joko dezan zehapen ahalmena baliatzeko dituen eginkizunak betetzean.

Departamentu horretako kontseilariak erantzun zion gure oharrari esanez gogorazpena onartzen zuela, eta horretarako, interesatuari hura betetze aldera igorritako erantzunaren berri ematen zion. Horrez gain aipatzen zuen ez zela bat etortzen departamentuari leporatutako asmoekin eta adierazitako preskripzio epearen interpretazioarekin, eta jakinarazten zion horrelako salaketen tramitazioan bete beharreko irizpidea berraztertuko zutela, salatzailearen testigantza osagai bakarra denean, alegia, eta neurriak hartuko zirela herritarrei eman beharreko erantzunak ez atzeratzeko, kontsumitzaileentzat eta erabiltzaileentzat kexa hau eragin dutenaren moduko eragozpenik gerta ez dadin berriro.

SANFERMINETAKO SALTZAILE IBILTARIEN POSTUAK ESLEITZEKO SISTEMA.

Saltzaile ibiltari batek azaldu zion (02/358/A espediente) zein egoeratan zegoen, Iruñeko Udalak aspaldi honetan Sanferminetan kalez kale-

ko salmentarako postu finkoak esleitzeko erabiltzen duen sistema dela eta.

Idatzian aipatzen zuen kexaren egileak kokalekua aldatu ziotela urte batetik bestera. 1999an [...] zenbakiko postua eman ziotela zioen, eta hurrengo urteetan, berriz, aldatu egin ziotela eta [...] zenbakikoa eman, inongo azalpenik gabe. Orain jarduten duen postu berri hori toki ilunean dago, eta ez oso eskura, hori dela-eta, gutxiago saltzen du eta hautsaren eragina pairatzen du; alergia dio hautsari eta horregatik eman zioten % 33ko minusbaliotasuna.

Kaleko salmenta egiteko postua aldatu ziotenetik hainbat erreklamazio luzatu dizkio Iruñeko udalari, inongo erantzunik jaso gabe. Horrexegatik eskatzen zigun laguntza, kaleko salmentan aritzen direnei tokiak esleitzeko erabiltzen diren arazoiak edo irizpideen inguruko erantzuna jasotzeko eta hasieran zuen postua berreskuratzeko.

Iruñeko Udalak erantzuna eman zion egin genuen lehendabiziko informazio eskeari, adieraziz “saltzaile talde batek aurkeztutako kexa bat zela eta arartekoak aholkatu zigun lehentasunik ez emateko bizitokiaren irizpideari postua lortzerakoan”, horixe baitzen ordura arte erabilitako sistema.

Horren ondorioz, “gomendioa aintzat harturik, 2001. urteaz geroztik, aurreko urtean izandako postu bera ematen zaie, bizitokia kontuan hartu gabe, eta horrexegatik izan du [...] jaunak 2001. eta 2002. urteetan 2000.ean izan zuen postu bera”.

Nolanahi ere, eta aipatzen den arartekoaren iradokizun hori azterturik, ohartu gara hauxe aipatzen zuela: “..postuak eskatzen dituzten guztien artean lizitazio sistema bat ezar dadin, eta kome-nigarriztat jotzen ez bada metodo hori, ezarritako baldintzak –horien artean ez da izanen bizitokiarekin nahiz tailerraren kokalekuarekin zerikusirik duenik– betetzen dituzten guztien arteko zozketa egin dadin”.

Hortaz, berriz jo genuen udal horretara jakiteko, kexaren egileari aurreko urteetako postua berriz egokitu ahal zaion alde batera utzirik, ea aukera ematen zaien postu horien eskatzaileei, haien arteko lizitazioaren bidez edo zozketa bidez, arartekoaren iradokizunean ageri bezala, aurreko urtean egokitutako postuez beste batzuk hautatzeko.

Galdera horri emandako erantzunean hauxe esan zigun udalak:

“Bosquecillo eta Taconera inguruetan, hau da, Sanferminetan saltokiak ezartzeko toki ohikoetan, eremu batzuk hobeak dira beste batzuk baino, teorikoki eta ikuspuntu ekonomikotik.

Eremu on horietako batean postu bat libre geldituz gero, ez zaio esleitzen postua aurrenekoz eskatzen duenari, baizik eta zozketa egiten da tokia eremu okerragoetan eta antzinasun handiago dutenen artean.

Alegia, aukera dago postua aldatzeko, aukera txikia bada ere, ez baita ia bajarik izaten postu onak dituztenen artean.”

ANALISIA

Gai honetaz eskuratu dugun informazio guztia ikusirik, gogorarazten dugu jarduera mota hau arautzeko eskumena udalek dutela, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 artikulua emanik, udalen esku uzten baititu gai hauetako eskumenak:

g) Feriak, azokak eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsa.

b) Pertsonen trafikoaren antolamendua kaleetan.

h) Herri-osasungarritasunaren babesa.

Arau hori garatzeko, Txikizkako Merkataritzaren Antolamendurako urtarrilaren 15eko 7/1996 Legeak, 52. artikuluan, udalei ematen die eskumena zeinek bere udalerrian kaleko salmentan aritzeko baimenak emateko, tokian tokiko arau berariazkoek jarraikiz.

Bestalde, Nafarroaren esparruan Merkataritza ez-egonkorrari buruzko uztailaren 3ko 13/89 Foru Legea eman zen. 5. artikulua ezartzen du toki entitateek onetsi ahal izanen dituztela, foru legean bertan xedatutakoarekin bat, merkataritzako jarduera hau arautzeko bere erregelamendu eta ordenantzak, kasuan kasuko udalerrian ezaugarriak kontuan harturik. Bestalde, foru legearen 7. artikuluan eta hurrengoetan merkataritza horretan aritu behar direnek bete beharreko baldintzak ezartzen dira.

Udalak, beraz, bere erregulazioa ezar dezake (udal ordenantza), eta bertan, lehenengo eta behin, zehaztu beharko du zein diren gutxieneko baldintzak, saltzaileek bete beharrekoak, baimena eskuratzeko, eta baimenaren balio epea. Orobat, zehaztu ahal izanen da zein eremutan aritu ahalko den jarduera horretan eta zeinetan egonen den debekaturik, ordutegiak, etab., eta horrekin batera ezarritako arauak hausteagatik ezar daitezkeen zehapenak.

Arartekoak bere garaian egindako gomendioaren ondorioz, udalak berak ezarri du sistema bat lanpostuak esleitzeko, halako moduan non tokia lortzeko lehentasuna ematen baitzaio aurreko

urteetan baimena izan zuenari, eta ezartzen da halaber baimenak sobran egonez gero horiek eskatzen dituztenei emanen zaizkiela, bizitokiari lehentasunik eman gabe. Azken egoera horretan eskatzaileen kopurua baimenena baino handiagoa balitz, zozketa eginen da eta antzinasuna emanen zaio antzinasun handiena duenari.

Baimenak edo postu hutsak egonez gero udalak zozketa erabiltzeko aukera izatea estatuko arartekoak adierazitakoaren ildotik doa eta ez zaio kontrajartzen egindako iradokizunari. Nolanahi ere, jarduketa horren aurretik badago eskakizun edo betebeharrak bat gure ustez prozedura baldintzatzen duena, alegia, lehentasuna ematea aurreko urteetan postua eskuratu zutenei, eta halatan, udalak dioenez “2001etik aurrera aurreko urtean izan zuten postu bera ematen zaie...”

Horrela jokatzearan, erabiltzen den irizpidea, modu horretan aplikatua, bereziki zorrotza da gutxieneko berdintasuna lortzeko ahaleginean, interesa izan dezaketen beste merkatari batzuek toki publikoaz gozatu eta hura ustiatu ahal izateko garaian. Komeni da gogoraraztea kasu hau jabari publikoko ondasun baten erabilera komun berezi bat dela, lizentzia eskuratzea eskatzen duena eta baimen hori lortzeko bide eman behar dela gutxieneko berdintasunez, interesa dutenek aukera izan dezaten, muga bakarrak izanik udalak berak gutxieneko baldintzak ezartzean paratzen dituenak, eta inola ere ez direnak honenbestearainokoak izan.

Horrez gain, horrelako gune baten erabilera arautzeak hura eskuratzeko aukera bermatu ez ezik zabaldu behar du ere aukera hori udalaren hitzetan “teorikoki eta ikuspuntu ekonomiko batetik besteak baino hobekien diren eremuetan” dauden postuetara. Ezarri beharko litzateke, beraz, sistema bat eremu horretako postuak ere eskuratzeko aukera emanen lukeena, hau da, txandak, zozketak etab.

Badakigu feriak eta festak direla-eta, aldizkako salmentarako gune horiek ongi antolatu eta banatzeko helburuarekin esleitzeko irizpen desberdinak ezar daitezkeela eta gai honetan ez dela erraza bilatzea irtenbide erabat zuzena eta prozesu hauetan parte hartzen duten guztiak gogobeteko dituen.

Baina edozein erabakik izan behar du oinarrian jabari publikoko ondasunen erabilerean eta aprobetxamenduaren gaineko araudiaren errespetua, eta horren arabera ezin da Konstituzioaren 14. artikulua ezartzen duen berdintasun printzipioaren kontrako den murrizketarik egin.

Horregatik guztiagatik GOMENDIOA egin genion Iruñeko Udalarari postu mota hori esleitzeko egun

erabiltzen duen sistema berrikus dezan eta irizpide berriak ezar ditzan –ordenantza bidez ere bai–, ondasun mota honen gozamen eta aprobetxamenduari aplikatzeko zaien araudian ezarritakoarekin bat horrelako eremu eta postuak berdintasunez eskuratzeko aukera bermatuko dituztenak alegia.

Gomendioari erantzunez, udalak adierazi zigun ezen kekek eta gure ebazpenaren ildoak ikusirik, hausnartzen ari zirela 2004ko Sanferminetako saltokietako baimenak enkante bidez adjudikatzeko aukeraz. Erantzun horren aurrean, abiapuntuarekiko aurrerapausoa zela iritzi bagenion ere, udalari eskatu genion adierazitakoa betetzeko neurrien berri emateko, eta orain zain gaude hemendik gutxira beste adjudikazio prozesu bat has dadin, gaiari buruz galde egiteko.

Aurrekoaren antzeko kasua, eta gomendio horren barrenean ere sartu genuena, azaldu zigun andre batek (03/138/A espedientea), 1995etik 1999ra bitarte Bosquecillon salmentarako postu finkoa izan zuela adieraziz. 2000. urtean, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren epigrafe berariazkoetan alta eman ondotik Iruñera etortzeko, senarra gaixotu zitzaion eta horregatik ez zuten ferietara etortzerik izan 2000. urtean ez eta 2001. urtean ere.

Iaz (2002), postu bat eskatzeko dokumentu guztiak aurkeztu zituen berriz, baina osasun txostenak aurkeztu bazituen ere, ukatu egin zioten postua, tokirik ez zela argudiatuta. Berriz saiatu zen 2003an, eta haren egoera berezia eta antzinasuna kontuan har zitzaten eskatu zuen, baina alferrik.

Beste kasuetako batean (03/135/A espedientea) jakinarazi zitzaigun ez zegoela ados Iruñeko Udalak 2003ko Sanferminetarako bertako produktuen postu ibiltarien kopurua murrizteko hartu zuen erabakiarekin; hark zioenez, horrelako postuen kopurua 100 izatetik 30 izatera pasa zen, eta udalak irizpiderik gabe banatu zituen baimenak, saltzaileen antzinasuna kontuan hartu gabe.

Kexa aurkeztu aurretik, haren egilea harremanetan jarri zen udalarekin eskabide baten bitartez, Hiritarren Babeserako zinegotzi delegatuari eskatu baitzion antzinasuna zuten saltzaile ibiltari guzti-entzako baimenak berrezar zitezen; Sanferminetako berezko produktuen saltzaile direla kontuan hartzeko batez ere, eta produktu horiek egun horietan besterik ezin direla saldu; azkenik, eskatutakoa betetzerik ez bazegoen, postuak jendea ibiltzen den tokietan kokatzeko aukera emateko.

Adierazitakoa aztertu ondoren harremanetan jarri ginen Iruñeko Udaleko Hiritarren Babeserako Alorrarekin, gai honi buruzko informazioa eskatze-

ko; informazioaren arabera, zenbait aldaketa egin ziren 2003. urtean postu ibiltariak eskuratzeko baldintzetan, eta baimenak bi multzotan banatu ziren, alde batetik puxiken saltzaileentzako baimenak eta bestetik bertako produktuen saltzaileentzakoak.

Postuen kopurua murrizteari dagokionez, berriz, iaz (2002) 90 postu baimendu egon ziren eta aurten (2003) 80, honela banaturik: 30 baimen puxika saltzaileendako eta 50 bertako produktuen saltzaileendako. Horrez gain, bertako produktuen postuak, kexa aurkeztu zigunarengan eragina zutenak alegia, toki finko batean paratzeko aukera eman behar zuten, eta ez orain arte bezala, 4x2 metroko postutan.

Saltzaileen antzinatasunari dagokionez, kontuan hartzen zen inguruabar hori baimena eskuratzeko lehentasunen artean, eta zozketara jotzen zen soilik baimenak sobran eta eskatzaileen kopurua baimenena baino handiagoa izanez gero. Azken kasu horretan bizitokiak ere ez dakar lehentasunik baimena eskuratzeko.

Aurrekoa esanik, kexaren egileari igorri genion erakunde honek postu mota hori adjudikatzeko moduari buruz eginiko gomendioa, arestian adierazia, zeinetan udala premiatzen baitzen adjudikatzeko sistema berrikus zezan, eremu eta postu mota hori berdintasunez eskuratzeko bide emateko.

Sanferminetako kaleko saltokien kopurua produktuen arabera esleitzearen ondorioz (puxikak saltzeko 30, eta bertako produktuak saltzeko 50) aurkeztu zitzaigun, halaber, Bosquecillo inguruan saltokia lortzeko ezintasunari buruzko beste kasu bat (03/139/A espedientea).

Kexa aurkeztu zutenek ziotenez, urte batez paratu zuten postua saltzeko, baina gero huts egin zuten bi urtez jarraian. Aurten berriz postua paratzen ahalegindu zirelarik, ezarritako baldintzak zorrotzeziak izateak eragotzi zien postua berriz lortzea eremu horretan, ez baitzen kontuan hartzen antzinatasuna eta inolako alternatibarik eskaini ere ez.

Aurreko kasuetan egindako iruzkinak jakinarazi genizkien, hau da, udalarekin harremanetan izan garela egoera hau bideratzeko moduren bat aurkitu nahian, postuak banatzeko irizpide berriak jaientarako denbora gutxi falta zela ezarri baitziren, eta ordurako, sanferminak hasi baino bi egun lehena-go, ukitutako pertsona hauek gehienak Iruñean baitzeuden, saldu beharreko produktuak erosita.

Nabarmendu beharra dago udal horretako hiritarren babeserako zinegotzi delegatuarekin harremanetan jarri ginela eta azkenean baimena eman

zitzaiera pertsona guztiei kaleko salmentan aritzeko 2003ko sanferminetan.

Azkenik, Yanguas y Miranda karrikan egiten den feriari dagokionez, kexa bat aurkeztu ziguten (02/146/A espedientea), Iruñeko feria-esparruan ardoen txosna bat paratzeko baimenik eman ez izateagatik.

Kexaren egileak adierazten zuen alta eman zuela jarduera ekonomikoen gaineko zergaren kasuan kasuko epigrafean, jarduera horretan aritu nahi zuelako Iruñeko Sanferminen kariaz Yanguas y Miranda karrikako orubean paratzen den esparruan, baina ez ziotela tokirik eman horretarako.

Orobat zioen Iruñeko Udalak, Espainiako hiri gehienetakoek bezala, ez duela esku hartzen arazoan, eta feria-esparruko postuen antolaketa eta kokapena Feriazaleen Elkartearen gain uzten du; elkarteak ez du araudi berezirik, eta esparruko tokiak haien artean banatzen dituzten taldeetan jarduten du, beste ezein feriazalari aukerarik eman gabe postua eskuratzeko.

Horregatik guztiagatik eskatzen du behar diren neurriak har daitezten legeria indardunean dauden gabeziak osatzeko eta administrazio publikoek beren eginkizunak bete ditzaten gremioaren esku-bideak errespetatuz eta aukera emanez esparru horietan tokiak berdintasunez eskuratzeko.

Gure informazio eskeari erantzunez, udalak hauxe adierazi zigun:

Yanguas y Miranda karrikan ondoan dagoen orubea, sanferminetan feriaren esparrua paratzen den hori, Erruki Etxeari laga zitzaion aspaldi.

Orube horretan sanferminetan paratzen diren atrakzioen inguruko gai guztiak Erruki Etxearen eskumenekoak dira, eta Iruñeko Udalaren esku-hartze bakarra da atrakzio horiek bete beharreko segurtasuna eta dokumentazioa eskatu eta kontrolatzea.

Informazioa osatzeko eta kexan planteaturiko gaia egokiro aztertze aldera, beste idazki bat igorri genuen udalera jakiteko baldintzarik edo eskakizunik ezarri ote zen aipatutako orubea adjudikatzeko prozesu bat abiarazteko, hartara gune horren erabileran interesa duten pertsonen (fisikoek nahiz juridikoek) lehiatu ahal izateko.

Udalak, beste erantzun batean, honako dokumentazio hau igorri zigun aipatutako lursailak Erruki Etxeari lagatzeari buruz:

- Osoko Bilkurak 1977ko maiatzaren 26an hartutako erabakia lursailak 20 urtez lagatzeko Erruki etxeari, bertan, parkea, kirol eremua, atrakzioak

eta aparkalekua paratzeko, horretarako baldintzekin.

- Osoko Bilkurak 1997ko apirilaren 25ean hartutako erabakia, 2002ko maiatzaren 1era arte luzatzen duena Yanguas y Miranda karrikaren eta Gazteluaren Ingurabidearen artean dauden lursailen aldi baterako lagapena.

- Osoko Bilkurak 2000ko urtarrilaren 20an hartutako erabakia, aparkalekua handitzeari, ezarritako baldintza batzuk aldatzeari eta urteko kanona onesteari buruzkoa.

- Osoko Bilkurak 2000ko urriaren 5ean hartutako erabakia, Erruki Etxeak beste erabilera alternatibo batzuk eman diezazkien Gazteluaren Ingurabideak mugatzen duen lursailaren zati bati, komunen eraikinari eta aparkalekuaren gainerakotik fisikoki bereizten duen zintarriari.

- Osoko Bilkurak 2001eko apirilaren 5ean hartutako erabakia, Yanguas y Miranda karrikako lursailak ustiatzeko kanona berrikustekoa.

- Osoko Bilkurak 2002ko martxoaren 20an hartutako erabakia, 2002ko apirilaren 30ean lursailen lagapena irautsi zela deklaratzeko, Erruki Etxearen esku uzteko lursail horien erabilera antzeko baldintzetan, eta 2002. urterako ustiatze kanon berria ezartzeko.

ANALISIA

Aurkeztutako kexa eta Iruñeko udalak igorritako informazioa aztertuta, gure ustez beharrezkoa da bereiztea, ezer baino lehen, batetik Erruki Etxearen jarduketa, fundazio pribatua den aldetik, hirugarrenekin duen harremanean, kasu honetan Nafarroako feria enpresarien elkartearekin; bestetik, elkarte horren edo antzekoen jarduketa, kexan ere zalantzan jartzen dena; eta azkenik, udalaren jarduketa, zeinaren gainbegiratzea arartekoaren erakundearen eskumenekoa baita, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru legearen 1.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

1. Kexan zalantzak agertzen dira elkarte horren eta antzekoen funtzionamenduari buruz, adjudikatzen zaizkien eremuetako tokiak banatzean; horri dagokionez, kontuan hartu behar da Elkartei buruzko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoa, 40.1 artikuluan, jurisdikzio zibilaren esku uzten duela elkarten trafikotik juridiko pribatutik eta haien barne funtzionamendutik datozen pretentsioez arduratzea, eta horretara jo dezaketela elkartearen kideek edo legezko eskubidea frogatzen duen edozeinek, elkarte horiek hartutako erabaki eta

jarduketak aurkatuz, antolamendu juridikoaren kontrakoak direlakoan badaude –40.2 art.–.

Jakin badakigu zein garrantzitsua den elkartzeko eskubidea, aipatutako legearen babesa jasotzen duena pertsonaren oinarrizko eskubideak babesteko prozedura berezien bitartez eta, beharrezkoa bada, Konstituzio Auzitegiaren aurrean babes konstituzionalerako prozeduraren bidez, hari buruzko lege organikoan ezarritako moduan. Baina ezin dugu oharkabean pasatzen utzi elkartzeko eskubidearen edukia mamitzeko alderdietako bat dela barne antolaketa eta funtzionamendurako askatasuna kanpoko injerentziarik gabe.

Esandakoagatik, horrelako auziak ez dira gure esku-hartzearen xede eta, haiekin ados ez dagoenak, kidea izan nahiz legezko eskubidea frogatzen duena izan, auzitegi zibiletara jo beharko du haien kontra egiteko. Horretarako, eta Nafarroako feria enpresarien elkartearen kasuan, kontuan hartu beharko du elkartearen barneko araudia bera, haren kontrako hausterik egin den jakiteko, eta aipatzeagatik bakarrik nabarmenduko genituzke “Nafarroako feria enpresarien elkartearen estatutua”; 1984ko martxoaren 26an onetsiak, ondoko batzar orokorretan aldatuak eta 1999ko martxoaren 9an eginiko batzar orokorrean berretsiak.

6. artikuluan Nafarroako feria enpresarien elkartearen helburuak aipatzen dira, eta 7. artikuluan eta hurrengoetan kide egiteko modua; kexaren egileak ezagutzen ditu, nonbait, alderdi horiek, bere senarra elkarte kide gisa ageri baitzen elkarte horren erregistroan 1999ko martxotik 2000ko urtarrilera bitarte.

Aipamen horrez gain kontuan hartu beharko da, halaber, badela “Nafarroako feria enpresarien elkarteak adjudikatuak dituen feria esparruen baldintza orokorren plegua” izenekoa.

Hitz batez, elkarte horren funtzionamenduaz edo hark bere eskumenean eta xedearen esparruan hartutako erabakiez izandako desadostasunak esandako moduan bideratu beharko dira aipatu diren barne arau horietan oinarrituz, arau horiek baitira elkarteak gai hauei buruz ezarri dituenak.

2. Nafarroako feria enpresarien elkarteak gai hauetan duen funtzionamenduaz mintzatu gara, elkarte hori delako kasu honetan Nafarroan aritzen dena, eta ez Valladolidekoa: elkarte hori ere kexan aipatzen da, baina gure lurralde eskumenetik kanpo dago; horretaz aparte, interesa du aztertzea zein den Iruñeko udalaren eta Erruki Etxearen artean sortu ohi den harremana feria-esparrua adjudikatzerakoan eta, horren ondorioz, horrek izan lezakeen eragina Erruki Etxearen eta espa-

rruaren adjudikazioa hartzen duen elkartearen arteko harremanean.

Horri buruzko edozein ohar egiteko, oinarria izan behar da udalak Erruki Etxeari egiten dion lurren erabileraren lagapenari aplikatzen zaion figura eta araubide juridikoa, zeren hautatzen den formulak berarekin ekarriko baitu lurren entitate erabiltzailea menpean hartuko duen araubide juridikoa, zeinak entitatearen ondorengo jardunbidean ere ondorioak izanen baititu eta, beraz, erabilerari datzekion eskubide eta betebeharretan.

Zerbitzu publikoak kudeatzeko kontratua, bere baitan lagapena hartzen duena –kasu honetan erabiltzen den figura–, zerbitzu publikoak kudeatzeko modu bat da, zeharkakoa deitzen dena, zuzeneko kudeaketari edo norbere bitartekoekin –ente instrumentalak barne– egindakoari kontrajarrria.

Lagapenaren figura hainbat arautan aipatzen da, eta zerbitzu publikoak kudeatzeko moduetatik ohikoena eta erabiliena da: Nafarroako toki administrazioaren araubidea arautzen duen uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako administrazio publikoen kontratuei buruzko maiatzaren 18ko 13/1995 Foru Legea, ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea, kontratuei buruzkoa ere (Nafarroakoa); Toki entitateen ondasunen erregelamendua, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuaren bidez onetsia eta haren parekoa Foru Komunitatean, urriaren 18ko 280/1990 Errege Dekretuak onetsia; eta Toki korporazioen zerbitzuen erregelamendua, 1955ekoa, 1955eko ekainaren 17ko dekretuaren bidez onetsia, zehatzena eta zabalena gai honen inguruan.

Kontuan hartu behar da halere soluzio honen bitartez lortu nahi dena dela jabari publikoko ondasun baten erabilera pribatibo bat gauzatzea, kasu honetan planeamenduaren ondorio diren gune publikoen lurzoruaren zati bat, alegia Yanguas y Miranda karrikako orubean aparkalekurako den zatia, zenbait egunez feria esparrutarako erabiltzen dena.

Nafarroako toki entitateen ondasunen erregelamenduaren arabera, erabilera pribatibo hori eratzten da jabari publikoaren zati baten okupazioa dakarrena bezala, gainerako interesatuek erabiltzea mugatu edo baztertzen duena, eta haren funtsezko ezaugarria eskusibitate da, eta horren ondorioz indarrrik gabe geratzen da partikularren aldeko berdintasunaren printzipioa, ezaugarri hori erabilera komunari atxikitako ondasunari dagokion arren; bestalde, erabilera pribatiboaren beste adierazpen ohiko bat da, jurisprudentziak esan duenez, okupazio finko edo egonkor baten bidez gau-

zaten dela, beraz, kontzesio administratiboaren menpe dagoela.

Batera ditugu kasu honetan, beraz, zerbitzu publiko baten kudeaketarako kontzesioa eta jabari publikoko ondasun baten erabilera pribatiborako jabari kontzesio bat, eta horren arabera, araudia bera aplikatuz –Nafarroako toki entitateen ondasunen erregelamenduaren 112. artikulua–, toki entitateen zerbitzuak arautzen dituzten xedapenen aldeko lehentasuna dago ezarria, hau da, toki korporazioen zerbitzuen erregelamenduaren aldekoa.

Bestalde, kontzesioa lotu behar zaie bertan ageri diren agindu eta klausulei, non ezartzen baita zein diren kontzesio hartzailearen betebeharrak eta eskubideak, toki korporazioen zerbitzuen erregelamenduaren 115. artikuluan jasotako gutxieneko edukiarekin bat.

Hasieran aipatutako udal erabakiak aztertuta, bertan ezarririk daude funtsean mota honetako kontzesioetan gutxienez hartzen diren baldintzak eta klausulak, xedea, egin beharreko lanak, iraupena, tarifak, udalari ordaindu beharreko kanoa etab. zehazten dituztenak.

Esandakotik ondorioztatzen dugu udalaren jarduketa lotu zaiola aplikatzeko den araudiari, eta kontuan hartu behar da gainera inguru horretan garrantzizko jarduketa bat gauzatuko dela, Iruñeko autobus geltoki berria alegia, eta beraz udala beharturik dagoela behar diren erabakiak hartzera bateratu ahal izateko Erruki Etxeak lursail horiek erabiltzea eta proiektu hori gauzatzea.

Figura hori erabiltzeak dakartzan ondorioei dagokienez, kontuan hartu behar da teknika horren bidez hirugarrenak, kontzesio hartzaileak, ez bestek, bere gain hartzen dituela ustiatzearen arriskuak eta onurak, kasuan kasuko salbuespenak salbu. Kontzesioak badu, hortaz, partikularrek jabari publikoko ondasun batez eskusibotasunez gozatu, baliatu eta hura eskuratzeko duten eskubide errealeko administratibo baten izaera juridikoa –jabari kontzesioa–, baina horrek ez dakar berez kontzesioa lortzeko eskubidea, administrazioak ezartzen dituen eta kontzesio hartzaileak, bere borondatearen autonomia printzipioaren barnean, onartzen dituen baldintza zehatz batzuk bete behar direlako, eta halatan, hitzartzen diren klausula osagarri batzuekin batera, administrazioaren eta kontzesio-hartzailearen artean eskubide eta betebeharrak batzuk sortzen ditu, eta aldeak horiei lotu behar zaizkie.

Horregatik uste dugu Erruki Etxea, eremu horren kontzesio-hartzaile den aldetik, ez dagoela beharturik kontzesioa ematek espresuki datoze-

nez besteko baldintza eta beharkizunak betetzera; zehazki, bete beharko ditu baldintzen pleguan jasotakoak. Plegu horrek ez dakar inolako baldintzarik eremu hori sanferminetan feria-esparrutako ustiatu edo erabiltzeari begira, eta gainera, fundazio pribatua denez, administrazio publikoak menpean hartzen dituzten printzipioei eta jarduketa araei lotu behar ez zaiena, legearen ikuspuntutik ez legoke beharturik jarduketa arau horiek betetzera aprobetxamendu edo erabilera hori adjudikatzekeo prozesuan, ados egon ez arren edo bestelako formulak egokiagoak direla pentsatu daitekeen arren.

Gainera ez da ahaztu behar ezen, udalak zuzenean kudeatuko balu eremu hori, jarduera mota hori arautzeko eta espazio publikoak erabiltzeko baimenak emateko dituen eskumen zabalez baliatuz, erabaki lezakeela adjudikatzekeo erabili beharreko sistema izatea pertsona edo entitate bakar bati adjudikatzea, betiere bermatuta publizitatea eta lehia librea hautapen prozesuan, hala eginez gero jokoan diren interesak hobeki bermatzen direla irizten badio, ez soilik esparru horretara joateko interesa duten feriazaleen ikuspuntutik.

Esandako guztiagatik gure iritzia izan zen ez zegoela inolako oharririk egiterik udalari kasu honetan auziari zegokionez, ez baikenuen antzeman antolamendu juridikoaren kontrako jarduketarik, edo administrazio publiko orok bete beharreko printzipio konstituzionalak errespetatzen ez dituenik; beraz, amaitutzat eman genituen gure jarduketak espediente honetan eta aipatutako iruzkinak jakinarazi genizkion kexaren egileari.

II- 02. GIZARTE ONGIZATEA

ANTZINAKO UMEZURTZ-ETXEKO DATUEI ETA AGIRIEI BURUZKO INFORMAZIOA

LEHENGO NAFARROAKO AMEN ETA UMEZURTZEN ETXEKO DATUAK ETA AGIRIAK ESKURATZEA, FAMILIA JATORRIARI BURUZKO INFORMAZIOA LORTZEKO.

AURREKARIAK

Kasu honetan (01/282/B espedientea), kexaren egileak adierazten zuen ez zegoela ados Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak irailaren —(e) ko —/2000 Ebazpenarekin, haren bitartez uko egiten zitzaizkion bere familia jatorriari buruzko informazioa lortzeko eskatu zituen datuak eta dokumentazioa eskuratzeari.

Interesatuak zioen bere aita, dagoeneko hila dena (1968ko maiatzean), Nafarroako Amen eta Umezurtzen Etxean jaio zela 1909an, eta haren

jaiotza agirian “guraso ezezagunen semea” ageri zela. 2000ko maiatzaren 23an idazki bat igorri zion Gizarte Ongizatearen kontseilariari, berak zeukan dokumentazioarekin batera, bere aitaren berri eskatuz. Urte bereko irailaren 11n hasieran aipatutako ebazpena jaso zuen, informazioa ukatzen ziona, batez ere oinarrituz Prozedura Legearen 37. artikuluan, ezartzen baitu artxibo eta erregistroetara jotzeko eskubidea ukatu ahalko dela besteren interes babesgarriagoak daudenean; Konstituzioaren 18. artikuluan, intimitate pertsonalaren nahiz familiarren errespetua arautzen baitu; eta Kode Zibilaren eta Intimitate pertsonala eta familiarra izateko eskubidearen babes zibilari buruzko Lege Organikoaren zenbait manutan, entitate publikoetan edo erakunde laguntzaileetan aritzen diren pertsonak behartzen baitituzte eskuratutako informazioaren eta hartutakoen edo adoptatutakoen jatorriari buruzko datuak isilpean gordetzera.

Departamentuaren ukoa jaso ondoren Artzapezpikategira jo zuen, eta bertan eman zioten jaiotzen liburuaren fotokopia bat, bere aitaren aldetiko amonaren izena jasotzen zuena. Baina ez du inolako erreferentziarik aurkitu emakume horri buruz Tuterako Erregistro Zibilean, hara bideratu baituzten lortu zituen datuek.

Horregatik eskatzen zuen Foru Komunitateko administrazioaren esku egon daitezkeen artxiboetako datu eta dokumentazioaren berri izateko, uste duelako informazio hori garrantzizkoa dela bere aitaren jatorria ezagutzeko, horixe baita bere interes bakarra.

Gure informazio eskeari erantzunez, departamentuak, kontseilariaren idazki baten medioz, ohar hauek helarazi zizkigun:

“LEHENBIZIKOA. Guraso naturalak nor diren jakitea posible da Erregistro Zibilean ageri baldin badira, adinez nagusia den edozein pertsonak bertan lortu dezakeelako berari buruzko informazio guztia. Arazoa da erregistroan informazio hori ez egotea, eta baldin badago, erakunde publiko nahiz pribatuetako artxiboetan egotea.

Gaur egun, erakunde gehienek ukatu egiten dute daukaten informaziora jotzea, argudio horietan oinarrituz, hain zuzen ere guraso naturalen intimitaterako eskubidea babestu beharregatik.

Katalunian, adibidez, 1991ean arautu zen arlo hau eta interesatuek bide judiziala erabiliz baizik ez dute informazio hori eskuratzeko modurik.

BIGARRENA. Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak, interesatuek aurkeztutako informazio eskabideak tramitatu eta ebazteko eskumena duen organoak, gurasoen intimitatea babestu

beharrak eta ondorengoekin jakin nahiak eragiten duten interes gatazkaren aurrean, informazioa jotzea ukatzen du, lege eta jurisprudentzia arloko argudio hauekin:

Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legearen 37.4 artikulua ezartzen du artxibo administrazioetara jotzeko eskubideaz baliatzea ukatu ahal dela, besteak beste, besteren interes babesgarriagoak daudenean.

Konstituzio Auzitegiak 1991ko urriaren 17an emaniko 197/1991 epaiak adierazten du Konstituzioak 18. artikuluan jasotzen duen intimitate pertsonalerako eskubideak lotura estua duela testu bereko 10. artikulua aitortzen duen pertsonaren duintasunarekin eta berarekin dakarrela badela esparru propioa eta besteen jardun eta ezagutzatik gordea, eta ikuspuntu horretatik dudarik ez da haurra adopzioan eman duenaren filiazioa eta bereziki jatorriaren identifikazioa esparru propio horren parte direla.

Ildo berean, 1988ko abenduaren 2ko epaiak dio intimitate pertsonal eta familiarerako eskubidea nor bere bizitza pertsonalaren alderdiei ez ezik, norberarekin lotura estua eta berezia, esate baterako familiarra, duten beste pertsona batzuen bizitzaren alderdi batzuei ere badagokiela, zeinek, pertsona horiekiko harremana eta lotura direla-eta, eragina baitute Konstituzioaren 18. artikuluko eskubideek babesten duten norbanakoaren nortasunaren esparruan.

Bestalde, Kode Zibila eta Auzipetze zibilaren Legea adopzioaren eta adingabeen bestelako babes moten gaitan aldatzen dituen azaroaren 11ko 21/1987 Legearen Lehen Xedapen gehigarriak ezartzen du entitate publikoetan edo erakunde laguntzaileetan aritzen diren pertsonak beharturik daudela eskuratutako informazioa eta hartutakoek nahiz adoptatuen filiazio datuak isilpean gordetzea, eta batez ere eragotzi behar dutela jatorriko familiak adopzioa ezagutzea.

Era berean, gai hauetan Espainiako estatua-erentzat lotesleak diren nazioarteko tresnetan ez da aitortzen interesatuen eskubidea bere jatorria ezagutzeko, eta bai adierazi, ordea, nahi horren mugak edo baldintzak. Nahi hori ez dago jasorik haurren babesari eta adopzioaren arloko lankidetzari buruzko Hagako Hitzarmenean (1993ko maiatzaren 20koa); ez eta Haurren eskubideei buruzko Nazio Batuen Itunean (1989ko azaroaren 20koa) ere; ez eta Giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen babeserako Europako Itunean

(1950eko azaroaren 4koa) eta Espainiako 1978ko Konstituzioan ere.

Ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra eta norberaren irudia izateko eskubidearen babes zibilar buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren 7.4 artikulua arabera, ez-legezko eskusartzeak dira pertsona batek bere jardura profesional edo ofizialaren bitartez pertsona edo familia bati buruz ezagututako datuak agerian uztea.

HIRUGARRENA. Bestalde, aipatu behar da Auzitegi Gorenak 1999ko irailaren 21ean emandako epaian adierazi duela Konstituzioaren aurreko erregistroen arloko legeria, ama biologikoaren nortasuna isilpean izateko aukera ematen zuena, derogaturik dagoela konstituzio kontraktosunagatik, zehazki LCRren 47.1 artikulua eta harekin lotutako RRCko 167. eta 187. artikulua.

Ildo horretan, 1999ko azaroaren 10eko Aginduren bidez argitara emandako eredu berrian, Erregistro Zibilean jaiotza deklaratzeko galdetegiarenean, bi lauki huts daude amaren hatz markak eta haurrenak jasotzeko, eta desagertu egin da amaren eskaera, bere nortasuna ager ez dadin.

Aurrekoa gorabehera, adopzioa erregistroan agerrarazteari buruzko 1999ko otsailaren 15eko jarraibidearen bitartez, aurreikusirik dago adoptatuaren jaiotzaren jatorrizko inskripzioa bertan behera uztea eta inskripzio berria egitea adoptatzaileek hala eskatzen badute, betiere bermatzen dela gordeko dela aurreko inskripzioa, zeinak publizitate murriztua izanen duen. Inskripzio berriari adoptatzaileak baizik ez dira agertuko, eta aurreko filiazioa jatorrizko inskripzioan; jatorrizkoa formalki bertan behera geratuko da eta berriari aipatuko da. Horrela, alde batetik, bermatzen da erregistroan jasorik egotea pertsonen jatorriari buruzko informazio osoa eta, bestetik, amaren intimitatea babesteko aukera ematen du.

LAUGARRENA. Bestalde, Kode Zibilaren artikuluetan ez da inon aipatzen adoptatuek bere jatorriari buruzko informazioa eskuratu ahal izanen dutenik.

BOSGARRENA. Era berean, gaia beste ikuspuntu batetik azterturik, filiazioa ezagutzeko nahia laguntza bidezko ugalketarako teknikan material genetiko ematen denean gertatzen denarekin pareka daiteke, eta horren inguruan konstituzio Auzitegiak esana du dagoeneko emaileen anonimitasuna ez dela Konstituzioaren kontrakoa.

SEIGARRENA. Arartekoak berak, Justizia Ministeriora 1999ko irailaren 21eko epaia argitaratu eta egun gutxira igorri zuen agirian, proposatu

zuen espedienteetara jotzeko aukerak arautzea eta Erregistro Zibilaren legeria aldatzea, eta beraz, ematen du, onartzen duela, a sensu contrario, datu horiek eskuratzeko modu bakarra estatu mailako legeriaren aldaketa bat egitea dela.

ZAZPIGARRENA. Gogorarazi behar da, azkenik, Foru Parlamentuak 2000. urtean eskatu ziola Espainiako Gobernuari, gai hauetan eskumena duenez, adoptaturiko seme-alabei filiazio datuak emateko beharrezkoak ziren legezko neurriak har zitzan.

Aurreko azalpen guztietan adierazitakoa dela eta, Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizatearen Institutuak ukatu egiten du interesatuek eskatzen dituzten datuak ematea eta galarazi egiten du bere artxiboetara jotzea, gurasoek bere intimitatea eta nortasuna gordetzeko duten eskubidea bermatze aldera, tartean horren inguruan epaile batek emandako autoa egon ezean”

ANALISIA

Kasu hauetan, bateratu behar diren bi interes kontrajarri daudenean, aplikatzekoak diren arauen azalpena egiten da Departamentuak igorritako erantzunean. Alde batetik, hala eskatzen duten pertsonen intimitate pertsonal eta familiarerako eskubidea zorrotz errespetatu beharra eta, bestetik, duintasunerako, seme-alabek legearen aurrean berdintasuna izateko eta amatasuna eta aitatasuna ikertzeko eskubidea.

Interes kontrajarri hauek aztertu ditu hain zuzen aipatutako Epaiak, Auzitegi Gorenak 1999ko irailaren 21ean emanikoak; bertan azterzen zen ama biologiko batek egindako erreklamazioa, berak izan eta entitate publiko batean utzi zuen alabaren amaren aldetik filiazioa zehazteari buruz; emakume hark entitate hartan utzi zuen haurra berehalako zaintza eman ziezaioten, eta ondoren familia bati harreraren eta adopzioan, eta baimena eman zuen espresuki egintza horiek guztiak gauzatzeko, adieraziz bere eskubideen eta ukoaren ondorioen berri bazuela, eta adopzioarekin ados zegoela aurreratuz.

Epai horretan, aplikatzekoa zen araudia aztertu ondoren, Auzitegi Gorenak egia materialaren (biologikoa) alde egitea aukeratu zuen, eta ez formalaren alde (zuzenbidea), lehentasuna emanez, beraz, seme-alabek bere aurrekari biologikoak ezagutzeko duten eskubideari, amak bere amatasuna eta nortasuna ezkutatze duen eskubidearen gainetik.

Epaiaren zuzenbidezko oinarrietan Konstituzioaren aurreko erregistroaren arloko araudia azterten da, ama biologikoari aukera ematen ziona,

hala erabakiz gero, bere nortasuna gordean uzteko. Zalantzan jartzen du soluzio hori, filiazioaren lotura zehaztean dauden interes publikoaren arrazoi larrietan oinarriturik; hain zuzen, gordean uztearen kontrakoak ziren arrazoiak, eta mugaketa horren derogazioa ekarri zutenak 1978ko Konstituzioak indarra hartuz geroztik.

Epaiaren arabera, erregistroaren gaineko araudiak diseinaturiko sistemak kontra egiten die aitatasuna libreki ikertzeko printzipioari (Espainiako Konstituzioaren 39.2 artikulua) eta berdintasunaren printzipioari (14. artikulua), eta horrez gain larriki kaltetzen du Espainiako Konstituzioaren 10. artikulua, ama eta seme-alaben duintasunean berean baitu eragina, duintasunari datxezkion eskubide urraezinetan eta haren nortasunaren garapen librean eta 24.1 artikuluan bertan ere, babesgabetasuna baztertzen duelako. Legezko filiazioak eta aitatasun eta amatasun biologikoak bat etorri behar dute guztiz. Nortasuna ezkutatzea baimentzen duen erregelamenduzko arautzeak horretan oinarriturik galtzen du indarra. Eta oinarri horretatik alderatu behar dira haren osagai murriztaileak. Oro har, Erregistro Zibilaren erregelamenduzko arautzeak kontraesana eragiten du Konstituzioak jasotzen duen berdintasunaren eta aitatasunaren ikerketa librearen printzipioarekin, ama biologikoa jartzen duelako aitaren eta seme-alaben beraien gainetik ere, aitari bortxaz ezarri ahal baitzaio aitatasuna; amak, berriz, libreki erabaki dezakeenez haurdunaldiarekin jarraitu edo jaiotakoarekin dituen harremanak erabat etetea, ez du oztoporik bere betebeharrei itzuri egiteko. Seme edo alaba biologikoak, gainera, bere egiazko filiazioaren berri izateko aukera ematen liokeen lotura erabat galtzen du, amaren borondatezko egintza bat dela-eta, zeinak amatasuna eta hari datxezkion erantzukizunak onartzen ez dituela agertzen baitu. Azkenik, sistemak diskordantzia larriak ditu, aita eta seme-alaba biologikoekiko ez ezik ezkontza loturarekiko ere, zeinetan amak ezin baitio uko egin amatasunari ez eta filiazioa ukatu bere seme-alabei; aita ere, berak besterik gabe ezin du desegin bere aitatasunaren presuntzioa, eta hori ez zen bat etortzen Konstituzioarekin, are gehiago kontuan hartuz gaur egungo ikerketa zientifikoek joera dutela nabarmentzeko aurrekari genetikoetatik datozen elkarrekintza biologikoak eta haien eragina, eta beraz, esan daiteke pertsonen eskubidea dutela bere herentzia genetikoaren berri izateko”

Esandakoaz gain, beste argudio batzuez ere baliatzen da azken erabakiaren lagungarri, hala nola, Haurren eskubideei buruzko Konbentzioa, 1989koa, Espainiak 1990ean berretsia, 7. artikuluan haurrei bere gurasoak ezagutzeko eskubidea

ematen diena, edo gure Konstituzioaren 39.2 artikulua bera, botere publikoei exijitzen diena seme-alaben babes osoa ziurta dezaten, seme-alabok legearen arabera berdinak izanik eta bere filiazioa edozein dela ere, eta irmoki dio, halaber, legeak aitatasunaren ikerketa ahalbidetuko duela.

Interesgarria iruditzen zaigu arreta ematea azalpen horretan antzeman litekeen kontrajartze bati, alegia, auzitegiak egiten duen azken aukera horren eta amaren intimitaterako eskubidearen artean egon litekeenari. Gai horri buruz esan daiteke, lehenengo eta behin, auzitegiak berak 1998ko apirilaren 14an aitaren aldetiko filiazioa deklaratzeko ekintza bati buruz emaniko epai batean, adierazi zuela epaiak ez zuela inola ere urratzen jaunaren intimitate edo ohorerako eskubidea, eta kontrakoa ulertzea “Kode Zibilaren 131. artikuluan eta hurrengoetan filiazioa erreklamatzearen inguruan arautzen diren ekintzak existitzen ez direla esatea litzateke.” Izan ere, ohore nahiz intimitate pertsonal edo familiarerako eskubideak baimena ematen badu amaren (edo aitaren) izaera baldintzarik gabe ezkutatzeko, nahitaez onartu beharko da ekintza horiek eskubide horren kontrakoak liratekeela.

Hori esan ondoren, bereizi beharko genukeena da, eta auzitegiak hala egiten du, datu mota hori ezkutatzea onargarria ez delarik, horietara jotzea publizitate murriztuko araubidearen menpean egotea, Erregistro Zibilean dauden beste informazio batzuekin gertatzen den bezala.

Gai hori aipatzen du espresuki esaten duenean “1999ko otsailaren 15eko jarraibideak adopzioa erregistroan agerrarazteari buruz berriki jaso duen sistema, jaiotzaren inskripzio nagusia bertan behera utzi eta berri bat, aurrenekoari publizitate mugatuko araubidea ezarri, irekitzea ahalbidetzen duena, guri dagokigun esparrura ekarria onargarria litzateke eta bateragarria egun zalan-tzan dauden printzipio konstituzionalen errespetuarekin.”

Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak 2000ko uztailaren 12an emaniko ebazpenak berak ezartzen du amak ezin duela bere nortasuna ezkutatu eta adierazten du “amaren intimitaterako eskubidea eta ezkontzaz kanpoko seme edo alabarena erregistro zibilari buruzko legeriak behar adina bermaturik dagoela, jaiotzaren inskripzioari publizitate murriztua aplikatzen zaiolako (LRCren 51. artikulua eta RRCaren 21. eta 22. artikulua).”

Izan ere, Erregistro Zibilaren Erregelamendu indardunaren 21. artikulua, adopzioko filiazioa, ezkontzaz kanpoko edo ezezaguna dagoenean

edo hala dela agerian uzten duten inguruabarrak daudenean, hura argitzeko datuetara edo horren inguruko artxiboko dokumentuetara jotzeko baimen berezia eskatu beharra dagoela ezarri ondoren, 22. artikuluan baimen horretatik salbuesten ditu inskribatua bera, aurrekoak, ondorengoak edo oinordeak.

Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzien sailak, Bizkaiko Aldundiak datu horietara jotzeari emandako ukoak hizpide hartzean, adierazi du aukera horri buruz adopzioaren eta adingabeen beste babes mota batzuen gaietan “Kode Zibila eta Prozedura Zibileko Legea aldatu zituen azaroaren 11ko 21/1987 Legearen lehen xedapen gehigarriak berak ez duela jotzen orain arte azaldu dugunaz beste norabidera, baizik eta, hain zuzen, errepikatzeaz gain –1/1982 Lege Organikoak egiten duen bezala– edozein esparrutako zerbitzari publikoek oro har bete behar bat daukatela datuak isilpean gordetzeko, erregistro eta artxiboetara jotzearekin berarekin nahastu behar ez dena, azken horretan izan dezakeen eraginaren aldetik, jotzen duela batez ere adopzioko familia babestera, jatorrizkoaren gainetik. Testuinguru horretan “harreran dauden edo adoptatuen filiazio datuei” buruz espresuki egiten den aipamenari dagokionez, ondorio bakarra egon zitekeen, alegia harrera edo adopzio harremana babesten ari dela hirugarrenak tartean sartzeko aukeratik, Erregistro Zibilaren gaineko legeriak ezartzen dituen kautelen ildoan.

Auzipetutako kasuan –zeinetan familia zuzenbidearen figura horien gaiez baliatzen den, adierazirik ez badago ere interesatua horiek xede izan zenik adin txikikoa zelarik, artxiboetara jotzeko aukera horien inguruan arautu den aldetik– atera behar dugun ondorioa finean da ezen jurisprudentzia konstituzionalak eta arruntak nabarmentzen duten arren adoptatuaren filiazioa eta jatorriaren identifikazioa intimitatearen esparruak direla, erre-serba horren subjektu aktiboa norberaren seme edo alaba edo adoptatua dela eta esparru horrek ez du bera baztertuko, besteak baizik.

Ildo horretan, konstituzio epaiak, esate baterako aipatzen den horrek, urriaren 17ko 197/1991 epaiak (RTC 1991/197), aldarrikatzen dutenean printzipio hori loturik eta gatazkan dagoela 20.1.d) artikulua jasotzen duen egiazko informazioa zabaltzeko eskubidearekin, hain zuzen erreferentzia subjektibotzat hartzen ari dira seme-alaben beraien intimitate pertsonalerako eskubideari eragiten diola eta, osagarri gisa, horien adopzio-gurasoenari –3. oinarria–, adieraziz “intimitaterako eskubidea nor bere bizitzaren alderdietara ez ezik norberarekin harreman estua eta familiarra duten

beste pertsona batzuen zenbait alderditara ere zabaltzen da, eta horietatik ezin da ondorioztatu aita naturalaren intimitaterako eskubidea erabili ahal denik umeari galarazteko filiazio harremanaren berri izatea” (2000ko uztailaren 14ko epaiak, eta 2001eko martxoaren 29ko hiru, bat datozenak).

Nafarroaren kasuan, gai hau aztertu izan da antzeko kasu bat zela-eta, non Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko auzien sailak, 2002ko urtarrilaren 18an emaniko epai batean, berretsi egin zuen Iruñeko arlo horretako 1. epaitegiak emandakoa, zeinetan adierazten zen errekurtsioaren egileak eskubidea zuela Nafarroako Gobernuaren artxiboetara jotzeko, bere jatorria, ama eta aitaren aldetik, ezagutzeko.

Sailak, zuzenbideko bigarren oinarrian, hauxe dio: “gai hori –inondik ere berria ez dena (ikus, adibidez, Nafarroako Auzitegi 3. sekzioak 1994-02-24an eta 1995-09-14an emaniko autoak)– ez da halakoa gaur egun, Auzitegi Gorenak 1999-09-21ean emaniko epaian deklaratu baitzuen aipatutako erregelamenduaren 167. artikulua ez dela aplikatzekoa Konstituzioaren kontrakoa delako, laburtuz, haren ustez Konstituzioaren 39.2 artikuluan jasotzen den gurasoak zein diren libreki ikeritzeko printzipioaren kontrakoa delako eta horren 10. artikulua kaltetzen duelako umearen duintasunari eta haren eskubide urraezinei eragiten dielako, bai eta 24.1 artikulua ere, baztertzeko duelako babesgabezia; ondorioztatzen du printzipio konstituzional bat dela gurasoak nor diren libreki ikeritza, eta esan daitekeela pertsonak eskubidea dutela bere herentzia genetikoaren ezagutzeko.

Aipatutako epaiak ezartzen duen doktrinaren laburpen hori adierazgarria iruditzen zaigu ulertzeko zein den gai honen inguruko araudiaren interpretazioa, administratiboa ere bai, nahiz eta, jarraibide horiek gabe ere, zalantzazkoa izan aplikatzekoa den ala ez hau bezalako kasu batean, alegia hirugarrenen interes babesgarriago horiek, administrazioak informazioaren eskubidearen eragozpentzat hartzen dituen horiek, ageri ez direnean.

Departamentuak igorritako txostenean Katalunia aipatzen da, eta erkidego horretan gai honi buruzko araudia badago ere –babesik ez duten adingabeentzako babes neurriei eta adopzioaren erregulazioari buruzko abenduaren 30eko 37/1991 Legea–, Bartzelonako Entzutegia, arau horietan eta bereziki Konstituzioaren 39.2 artikuluan oinarriturik, eskatutako datuei buruzko informazioa eskuratzeko eskubidearen alde agertu da zenbait epaitan, hala nola 1996ko otsailaren 22koan edo 1999ko apirilaren 27koan; azken horretan aipatzen

den kasua guk hizpide dugunaren oso antzekoa da, eskatzaileari aitaren aldetiko amona biologikoa zenari buruzko datuen berri emateko asmoaren ingurukoa baitzen.

Amaitzeko, beste bi alderdi aztertu nahi ditugu afera honen inguruan. Lehendabizikoa, departamentuak txostenean egiten duen aipamen bati buruzkoa da, zehazki 1999ko urriaren 14an arartekoak eginiko gomendioa dela eta, gurasoen intimitaterako eskubidea eta haurrak bere jatorriaren berri izateko duen eskubidezko nahia babesteko lege ekimenak sustatzeko komenigarritasunaren inguruan.

Proposamen hori, Nafarroako Parlamentuak 2000ko maiatzaren 11n onetsitako ebazpenarekin lotzen dena –Nafarroako Gobernuaren premiaz duen nazioko gobernuarengana jo dezan eskatzeko behar diren neurriak har ditzan filiazioa ezagutu nahian dabilzan pertsonen eta familien informazioa emateko–, ez dago gure ustez kontrajarririk planteatzen diren kasuei soluzioa ematearekin eta ez du hori baldintzatzen, araudiaren aldaketa egiten ez den bitartean.

Lehenengo eta behin, arartekoak egiten duen analisia, hain zuzen, Auzitegi Gorenak 1999ko irailaren 21ean emandako epaian ageri denaren antzekoa da, eta proposamenaren xedea da segurtasun juridiko handiagoa ematea egoera mota honi, erregistroen gaineko araudiaren esparruan ez bestetan, gure azterketaren gaia izan den eta, jakina, hobetu daitekeen araudian alegia.

Bestalde, aipatzen den Nafarroako Parlamentuaren erabaki hori gai zehatz bati buruzkoa da, adopzioarena, eta printzipioez ezin da esku artean dugun kasuarekin parekatu.

Gure iritziz, aztertutako araudia eta jurisprudentzia ikusirik, kasu bakoitza ebatzi behar da haietako bakoitzean esku hartzen duten inguruabarrak eta batez ere zein informazio mota eskuratu nahi den neurtuz eta aztertuz. Logikoa denez, honelako arazo asko saihestuko lirateke arartekoaren gomendio horrek adierazten duenaren moduko prozedura bat ezarriko balitz edo Katalunian adoptatuen kasuan arautu denaren ildotik, kontuan harturik nolana ere bi kasuetan erregistro zibilean jasorik dauden datuak eskuratzeaz ari garela.

Halere, erregistroaren gaineko araudiaren arloan ezarri beharreko prozedura hori, informaziora jotzeko aukeraren esparru administratibo hutsean ere, gure kasuan bezala, kontuan har daitekeena, erreferentetzat hartzerik ez den bitartean, gure ustez ezin da irizpide orokorrik ezarri, departamentuak egiten duen bezala bere txostenean informaziora jotzea orokorrean eragozteko, kasuak

mota askotakoak baitira eta horien azterketa bana-ka egin beharko litzatekeelako. Erabat desberdinak dira espediente honetan hizpide dugun kasua, pertsona batek bere aitaren jatorri biologikoaren berri izan duela alegia, eta familiako batek, anai-arrebek, osaba batek-edo, adoptatu den senide bati buruzko informazioa eskuratu nahi duenean sortzen dena.

Kontuan hartu behar da gainera, aztertutako kasuari dagokionez, Ondare historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legeak, 49.2 artikuluan ezarri ondoren zein diren dokumentu ondarearen parte diren dokumentu motak, zehazki edozein garaitako dokumentuak, izaera administratiboko edozein erakunde edo entitatek sortu, gorde edo bildutakoak, 57. artikuluan, horiek kontsultatzeari buruz mintzatzean, 1.c) atalean eta datu pertsonalak jasotzen dituzten dokumentuak aipatzean baimena ematen duela horiek kontsultatzeko baldin eta 25 urteko epea iragan bada kasuan kasuko pertsona hil zenez geroztik edo berrogeita hamar urte dokumentuen datatik hasita; epe horiek bete dira gure kasuan, kontuan hartzen badugu eskatzen den datua dela aitaren jaiotza, 1909ko ekainaren 21ean gertatua, inskribaturik ote dagoen.

Administrazioak, beraz, informazio hori eskuratzeko bidea eman beharko luke, eta departamentuari ezin zaio ezarri bere mende dagoen dokumentaziora trabarik gabe jotzeko aukera ematea ez den beste zereginik bete dezan.

Esandakoagatik, gure ustez bidezkoa zen GOMENDIOA egitea Gizarte Ongizatearen Departamentuari, kexaren egileari utz diezaion dokumentaziora jotzen eta eskura diezazkion departamentuaren artxiboetan dauden datuak eta dokumentuak, baleude, bere aitaren aldetiko ama biologikoaren nortasunari buruzkoak.

Beste kexa batzuk ere jaso genituen gai honen beraren inguruan, egileei ukatu zitzaielako amona biologikoen filiazio datuen berri izateko aukera (02/155/B eta 02/192/B espedienteak), edo ama biologikoaren datuen berri (02/150/B espedienteak). Hortaz, antzeko gomendioa egin genion departamentuari, eta eskatu genion jakinaraz ziezagula ea aukera emanen zien kexaren egileei datu horietara jotzeko.

Espediente horiei dagokienez, aipatu behar dugu inplikaturiko departamentuek ardu handiagoz jardun eta erakunde honekin lan egiteko jarra hobeaz azaldu beharko zuketela. Izan ere, espediente guztietan, Gizarte Ongizate Departamentuarekin harremanetan jarri eta haiei buruzko informazioa ere helarazi ondoren, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Depar-

tamentura bidali gaituzte behin betiko erantzunaren bila, eta kasu batean, gainera, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentura ere jo behar izan dugu.

Hauxe da Gizarte Ongizate Departamentuak horrela jokatzeko eman zuen arrazoia: "Uztailaren 4ko 206/2003 Foru Dekretuaren bidez (uztailaren 5eko 86. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua) Kultura eta Turismo Departamentuaren egitura organikoa ezarri da, eta hortik aurrera Artxiboan eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuari eta Ondare Historikoaren Zerbitzuari dagokie Nafarroako Ume Abandonatuen Etxeko espediente eta gauza guztiak tramitatzeko, kudeatzeko eta gordetzeko eskumena." Hori dela eta, gai horri buruzko kexekin loturiko edozein informazio nahi izanez gero, Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuari eskatu behar genion eta hari eman genion gure gomendioen berri, horiei buruzko jarrera ager zezan, baina ez dugu oraindik erantzunik jaso.

Egia esateko, 2003ko uztailaren 4az geroztik, hau da, lehen gomendioa eman genuenetik, ezin izan dugu jakin zein den Nafarroako Gobernuaren iritzia erakunde honek eginiko oharrei dagokienez; eta larriagoa dena, horrek galarazi digu kexak aurkeztu zituztenei esatea datu horiek eskuratzeko baimenik emango zaien azkenik, guk kasu horietako batzuetan defendatzen genuen moduan.

Egoera guztiz kezagarria iruditzen zaigu eragozten duelako gure zeregina normaltasunez betetzea. Hori dela eta, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari eskatu genion halaber, honen berri bazuenez eta erakunde honekiko harremanen inguruko zereginak dituzenez atxikirik Nafarroako Gobernuak 2001eko ekainaren 4an hartutako erabakiaren ondorioz, bai eta Nafarroako Gobernuaren gainerako departamentuekiko koordinazio zereginak ere, berma zezan erakunde honek erantzuna lehenbailehen jasotzea kasu hauei buruz adierazi dugun iritzia inguruan.

Jarduketa hau, gure iritzi guztiz desegokia gure garaiko administrazio batean, berretsi eta biribildu egin du txosten hau amaitu aurretik Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuak kasu hauei buruz igorri digun erantzunak; espediente hauek izan duten tramitazioaren zentzugabekeriaren adierazgarria denez, hitzez hitz agerrarazi dugu ondotik:

2003ko uztailaren 4ra arte artxibo administratiboa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren egitura organikoaren barrenean egon zen (irailaren 13ko 344/1999 Foru Dekretua), Barne Eraentzako Zerbitzuari atxikia.

Unitate administratiboaren kokapen organikoa hori izanik ere, adopzioaren gaiei buruzko funts dokumentalak Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan zeuden, eta erakunde autonomo horrek jasotzen zituen ordura arte dokumentu horien inguruan sortzen ziren eskaerak edo erreklamazioak; irizpide bat zuen ezarria eskatutako datuak ukatzeko, arartekoaren erakundeak azterturik dauzkan txostenetan oinarrituz.

Ekainaren 17ko 31/2003 Foru Legearen bidez Vianako Printzea Erakunde-Kultura eta Turismo Departamentua sortu zen.

Abuztuaren 11ko 473/2003 Foru Dekretuak aldatutako uztailaren 4ko 206/2003 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Vianako Printzea Erakunde-Kultura eta Turismo Departamentuaren egitura organikoa; 15. artikuluan aipatzen da hitzez hitz Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuaren eginkizuna dela "Nafarroako Gobernuaren Dokumentu Ondarearen agiritegiak eta artxibo teknikoak eratu, mantendu eta kontsultarako antolatzeara".

Nafarroako Gobernuak dokumentu ondareari dagokionez ezarritako betebeharrak gauzatzeko, departamentu honek hainbat gairi heldu behar dio:

1. Lehendabizi, funtsak lekuz aldatzea –egun Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren esku daude oraindik– artxiboentzat segurtasun tekniko eta formazkorako gutxienezko baldintzak beteko dituen gune batera. Arrazoi hori eman zuen hasiera batetik Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak ez betetzeko zuzenean artxiboen zaintza materiala eta, beraz, organo eskudun gisa ez aritzeko horietara jotzeko erabakiari dagokionez.

Artxibo administratiboa Cordovillan Super-Serzenaren lokaletan dago, eta egun duen egoera ez denez batere aldatu, Vianako Printzea-Kultura eta Turismo Departamentuak ezin du bere gain hartu adopzioei buruzko dokumentazioa behar bezala zaintzea ere, eta are gutxiago hura sailkatu eta kudeatzea.

Vianako Printzea-Kultura eta Turismo Departamentuko Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuko teknikariek dokumentazioa aztertu ondoren, ez legoke eragozpenik hura lekuz aldatzeko, edozein dokumenturi dagozkion baldintzetan (30 urtetik gorako dokumentuak, artxibo euskarri egokietan entregatzea, inbentarioa eta entrega eta jasotze orria barne, etab.) Nafarroako Artxibo Nagusiaren egoitza berrira (Nafarroako Errege-erreginen Jauregia, Iruñeko Maiatzaren Bialkalea, z/g), funtsak lekuz aldatzeko prozesuaren barrenean –orain adjudikazio fasean dago– eta

Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuak onetsitako leku aldaketan planarekin bat.

Aurreikuspen administratiboak dira leku-aldatze hori, Nafarroako Gobernuaren zentroetatik egoitza berrira, aurtengo martxo edo apirilera amaiturik egotea.

2. Arazo materialak gaudituta eta dokumentazioaren jabe garenean aurre eginen diogu agiriak sailkatzearen arazo tekniko hutsari eta ondoren arazo juridikoari, dokumentuak libreki eskuratzeko, agiri horiek Nafarroako Gobernuaren Dokumentu Ondarearen partetzat hartu badira edo agiri horietara jotzea murriztua baldin bada, adina edo izaera dela eta pertsonen interes eta eskubideei eragiten badie, hala nola intimitatea, duintasuna edo aitatasunaren ikerketa.

Bi kasu mota horiek ekar dezakete halaber bi departamentu desberdinek parte-hartu beharra, Gizarte Ongizatearen eta Vianako Printzea-Kultura eta Turismoaren, dokumentura jotzeko modua arautzen, eta azkenik eginkizunen banaketa, batetik dokumentuaren zaintza eta bestetik hura eskuratzeko modua lege irizpideen eta gizar-tearen esku-hartze irizpideen arabera.

Lehendabiziko multzoan (libre jotzea) sar daitezkeen agirien kasuan, legeria orokorrak zedarritutako moduan ezarri beharko litzateke eskuratzeko prozedura (erregistro eta artxiboetara jotzea, Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen 30/1992 Legearen 37. artikuluan ezarria eta dokumentu ondarea eskuratzeko, Espainiako ondare historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 57.1 c) artikuluen arabera). Gaur egun, Vianako Printzea-Kultura eta Turismo Departamentua lanean ari da Nafarroako Kultur Ondareari buruzko Foru Legearen aurreproiektua aztertzen eta prestatzen; horren kapitulu bat Nafarroako Gobernuaren Dokumentu Ondareari buruzkoa izanen da, eta jaso litzake, arau hierarkiaren eta teknika juridikoaren ikuspuntutik, aipatutako prozedurarako printzipio orokorrak, aurrerago erregelamenduz garatzeko.

Dokumentuen bigarren multzoa da, bere garrantzi pertsonala edo soziala dela eta, arazo gehiago eragin dezakeena, eta beraz arreta handiagoa eskatzen duena arautzerakoan. Horri buruz, Espainiako ondare historikoari buruzko ekainaren 25eko 16/1985 Legearen 57.1 c) artikulua ezartzen du "datu pertsonalak, polizia, prozesalak, klinikoak edo beste edozein motatakoak pertsonen segurtasunari, ohoreari, bizitza pribatu eta familiarreko intimitateari eta nor bere irudiari eragin ahal dietenak, jasotzen dituzten dokumentuak, ezin izanen dira publikoki kontsultatu ukituek baimen

espresik eman gabe edo hilez geroztik hogeita bost urteko epea iragan aurretik, heriotzaren data ezaguna bada edo, bestela, berrogeita bost urtekoa agirien datatik aurrera". Atal honetan sartzen dira adopzio eta filiazio harreman hurbilak, zeinetan bi alderdi interesatuak (ama biologikoa eta adingabe adoptatua) ustez bizirik dauden eta hala diren aldetik noizbait kontrajarririk egon daitezkeen eskubide eta interesen titular izan daitezkeen. Duela urte gutxi arte kasu horiek ebazteko auzitegietara eta horiek legeria zibil eta konstituzionalaz egin duten interpretaziora jo izan da.

Denboraren poderioz autonomia erkidegoek ezarri dituzte euren baliabideak horietara jotzeko, legeetan adierazi direnak kasu batzuetan (Katalunia, abenduaren 30eko 37/1991 Legea). Lege testuez eta organo jurisdikzionalak egin duten aplikazioaz baliatuz ukitutako aldean arteko bitartekotza sistemak egituratu daitezke, eta jarduera hori gizarte zerbitzuen arloko eskumenak dituzten erakundeei dagokie, agirien zaintza materialaz arduratzen diren organo administratiboei baino gehiago, eta halakoa litzateke Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren kasua.

Eskumen horiek ongi betetzeko beharrezkoa litzateke lan ildoak eta berariazko unitate mistoak, beharrezkoa balitz".

PERTSONA BATI INFORMAZIOA EMATEA, LEHENGO NAFARROAKO AMEN ETA UMEZURTZEN ETXEAN JAIO ETA ADOPTATU EDO UMEORDETUTAKO ARREBA GAUR EGUN NON DAGOEN JAKIN DEZAN.

AURREKARIAK

Kasu hau (02/72/B espedientea) aurrekoen antzekoa zen, baina kexaren egileak bazekien nor zen bere arreba eta datuetara eta dokumentaziora jotzeko aukera eskatzen zuen, bere arreba egun non dagoen jakin ahal izateko.

Bere idazkian jakinarazi zigun bera eta bere arreba biak jaiotze zirela Nafarroako Umezurtzegian. Bere jaiotza agiriaren berri izan zuenez, bila ibili ondoren lortu zuen bere amarekin, [...], harremanetan jartzea. Baina aurrerago, bi urte beranduago alegia, beste bataio agiri baten berri izan duenez, jakin du arreba bat duela, umezurtegi horretan berean jaiotze zena 1956ko urtarrilaren [...].

Hori ikusirik, eta bere arrebarekin harremanetan jarri nahi zuenez, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutura jo zuen, hari buruzko informazioa eskatuz, baina ukatu egin zioten, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak urtarrilaren [...]. Ebazpe-

naren bidez. Uko hori Nafarroako Gobernuak berretsi zuen 2001eko urriaren [...].

Azaldutako guztia dela eta, erakunde honetara jo zuen Gizarte Ongizatearen Departamentuan dauden datuak emateko eskatuz, horien bitartez harremanetan jartzeko bere arrebarekin, eta horrekin batera aipatzen zuen erakunde honek bitartekari lana egin zezakeela bere arrebarekin elkartzeari begira.

Departamentuak, bere erantzunean, lehen osorik eman dugun erantzuna errepikatu zuen.

ANALISIA

Lehendik ere aztertua genuen honelako kasuetan, Nafarroako Umezurtzegian jaiotako pertsona zehatz batzuei buruz dauden datuetara jotzea eskatzen den horietan, azaltzen den gaia, baina kasu honetan planteamendua hein batean desberdina zen, kexaren egileak ezagutzen dituelako datu horiek –pertsona horien nortasuna–.

Ondorioztatu genuen kasu honetan argitu nahi dena dela Gizarte Ongizatearen Departamentuak kexa egin duen pertsonari bere arrebaren, [...].ren, adopzioaz edo umeordetzeaz dauden datuak emateko aukera dagoen, kexaren egileak informazio gaurkotuagoa eskuratu eta hartara arrebarekin harremanetan jarri ahal izateko.

Horrelako egoerak planteatu direnean egin dugun analisisan, desberdinak izan badira ere, esan dugun bezala, ikus dezakegu bi interes kontrajarri ditugula bateratu beharrekoak. Alde batetik, hala eskatzen duten pertsonen intimitate pertsonal eta familiarerako eskubidea zorrotz errespetatu beharra eta, bestetik, duintasunerako, seme-alabek legearen aurrean berdintasuna izateko eta amatasuna eta aitatasuna ikertzeko eskubidea.

Interes kontrajarri horiek zirela eta Auzitegi Gorenak 1999ko irailaren 21ean emaniko epaia aipatzen genuen; epai horretan Auzitegi Gorenak egia materialaren (biologikoa) alde egitea aukeratu zuen, eta ez formalaren alde (zuzenbidea), lehenatasuna emanez, beraz, seme-alabek bere aurrekari biologikoak ezagutzeko duten eskubideari, amak bere amatasuna eta nortasuna ezkatutzeko duen eskubidearen gainetik.

Kasu honetan eta antzekoetan, Auzitegi Gorenaren jurisprudentziak eta Konstituzio Auzitegiaren berarenak ere nabarmendu dute adoptatuaren filiazioa eta jatorria intimitatearen esparrukoak direla, eta erreserba horren subjektu aktiboa ume naturala edo adoptatua dela, eta beraz esparruak ez luke hura baztertuko, beste gainerakoak baizik.

Esan nahi baita, jurisprudenzia horretan oinarriturik adierazi dugu eskubide horren alde gaude-la planteatu denean seme-alabei edo/eta ondorengoei euren jaiotzaren inguruabarrak ezagutzeko bide emanen dieten datuetara jotzeko eskaera, zehazki ama edo amona biologikoaren nortasuna; datu hori agertu ohi da inskripzioetan, baina kasu honetan bestelakoa da planteatzen dena, azterketa berezia eskatzen duena, guregana jo duenak ezagutzen dituelako nortasunaren datu horiek, amarenak ez ezik arrebarenak ere, eta nahi duena da azken arrebarekin harremanetan jarri, bere garaian eginen zen adopzioaz edo umeordetzeaz eman ahal zaizkion datuen haritik.

Illo horretan, eta aipatu ditugun kasu horietan egin genuen bezala, erregistroaren gaineko araudiaren azterketa eta auzitegiek horretaz egin izan duten interpretazioa nahitaezko erreferentzia dira zenbait ohar egin nahi badugu.

Erregistro Zibilaren gaineko Erregelamendu indardunaren 21. eta 22. artikuluetan oro har ezartzen da beharrezkoa izanena dela Erregistro Zibilaren ardura duen epaileak baimen berezia ematea adopzioaren filiazioaren agiria lortzeko, salbu eta eskatzailea adoptatu adinez nagusia edo adoptatzailea denean.

Hau da, kasu horietan, esan nahi duguna da datu horietara jotzeko aukera adoptatuari edo adoptatzaileari dagokiola eta bide horretatik lor daitezkeen datuak direla soilik gurasoen nortasunari dagozkionak, erregistroan ageri direnak.

Publizitate murriztuko araubide hori gure ustez onargarria eta bateragarria da ukituak diren printzipio konstituzionalen errespetuarekin, eta aski bermatzen du amaren eta umearen intimitatea. Erregistroen Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiak berak adierazi du datu horiek ukitutako pertsonaren baimenik gabe zabaltzea baimentzen duen Erregistro Zibilaren gaineko legeria Kontsultazioaren araberkia dela eta eskatutako oreka zailari lotzen jakin duela.

Halere, datu horietara –gurasoen nortasuna– jotzeari dagokionez, kexa espediente honetan planteatzen denaren oso bestelako kasua, aipatutako zuzendaritza nagusiak ezarri du inskribatutakoaren arrebak, amonak edo amak ere ez dutela eskuratzetik hitzez hitzeko agiri bat, publikizitate murriztuko araubidearen peko datuak baditu, eta hala da adopzioko bazter inskripzio baten kasuan. Kasu hauetan, eta adopzioak aurreko familiarekiko loturak haustea dakarrela kontuan harturik, alegatutako ahaidetasun hutsak baimenetik ez duela salbuesten esaten da. Ondorio horietarako ahaide naturalak hirugarrentzat jo ondoren, zuzendaritza

nagusiak adierazi du azkenik ezen, adopzioko familiaren intimitate pertsonal nahiz familiarrari zor zaion errespetua aipatzen duten arrazoi konstituzionalak direla eta, erregistro zibilaren bidez, adopzioa adoptatzaileei eta adoptatu adinez nagusiari ezagutarazi ahal zaiela eta, posible bada, salbuespen gisa beste pertsona batzuen aldeko agiria luzatzen bada, beharrezkoa izanena dela erregistro zibilaren ardura duen epaileak baimena ematea aldeztu aurretik, legezko interes berezia eta arrazoia justifikatu ondoren, eta horien artean ezin da baliatu ahaidetasun natural hutsa, ez baitu izaera juridikorik.

Kontuan hartu beharra dago, Konstituzioaren 39.2 artikulua aplikazioaren ondorioz, adoptatuek bereziki, adin batetik aurrera egiten duten presio gero eta handiagoaren ondorioz, euren jatorriaren berri izateko eskubidea eskatzen baitute, eta azkenik, gai honen inguruan izandako irizpen judizialen ondorioz, zalantzan jarri izan dela arau orokorra, aurreko familiarekiko loturak hautsi edo bertan behera geratzea alegia, gehiegizkoa delakoan. Hasteko, adoptatuari berari aitortzea erregistroan gurasoen nortasunari buruz dauden datuetara jotzeko aukera zalantzan jartzearen adierazgarria da.

Datu horietara jotzeko aukera hori zabaltzen joan da, ondorengoengana ere, adoptatuaren eta adoptatzailearen aurrekoengana nahiz ondorengoengana adopzio sinpleen kasuan.

Analisi honetan, abiapuntua da ez dakigula [...]en kasuan adopziarik edo umeordetzerik izan zen, kontuan harturik bestalde umeordetzeak, Foru berriaren 73. legean ezarritako baldintzetan, umeordeari ematen dion estatusa garai batean “sinple edo ez hain betea” izeneko adopzioan (gerora azaroaren 11ko 21/1987 Legeak kendutakoan, hartutako pertsonen zutenaren parekoa dela. Nafarroan, beraz, adopzioaren gaineko araubide juridiko indarduna eta adopzio sinpleari buruzko aurreko araubidea ditugu batera, lege horren 2. xedapen iragankorrean ezarritakoaren ondorioz eta 73. legean aurreikusitako umordetzearen ondorioz, harreman horrek hamar urte iraun badu eta umeordetzan hartu zuen pertsonak une hartan seme-alabarik edo adopzio erabatekoan hartutako umerik ez bazuen.

Hori dela eta, pentsatzen dugu adoptatuaren filiazio biologikoari buruzko datuak eskuratzeko eskubidea aitortzen bada, kasurik onenean adoptatuaren edo, adopzio sinplearen kasuetan (Erregistro Zibilaren Erregelamenduaren 22. artikulua), adoptatzailearen oinordeei, aurrekoei nahiz ondorengoei, aitortuko litzaiekeela jotzeko aukera, baina kasu hori ez dator bat hizpide dugunean

gertatzen denarekin, adopzioan edo umeordetzan hartutakoaren filiazio biologikoa, esan dugun bezala, ezaguna delako.

Horregatik guztiagatik, gure iritziz, erregistroaren gaineko egungo araudian eta jurisprudentziak horretaz egin izan duen interpretazioan oinarriturik, gai hau planteatu den esparru administratiboari dagokionez, hau da, adoptatuak duela aitortua bere filiazio biologikoari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea, abiapuntua baita badela norbere jatorria ezagutzeko eskubidea, Konstituzioak babestua.

Ohar horietan guztietan oinarriturik, ez dirudi zabaldu daitekeenik aukera hori bestelako datuetara, hirugarrenen eskutik, gainera, ahaidetasunaren medioz kualifikatuak badira ere, kasu honetan bezala, anaia denean.

Esandakoaren kaltetan joan gabe, gure ustez hori ikusirik ez baita gertatzen antolamendu juridikoaren kontrako jarduketak administratiborik edo administrazio publikoak bete beharreko Konstituzioaren printzipioak errespetatzen ez dituenik, aukera bakarra geldituko litzateke, eta azter liteke ukituak direnen egoera aintzat hartuz.

Aukera hori da Ohorea, intimitate pertsonala eta familiarra eta norberaren irudia izateko eskubidearen babes zibilari buruzko maiatzaren 5eko 1/1982 Lege Organikoaren 2.2 artikuluan aurreikusten dena, alegia, balizko datu horiek eskuratzeko ukitutako pertsonak baimen espresa eman dezan ahalegintzea, kasu honetan kexaren egilearen arrebak, [...]k, eman dezan, betiere aurkitzeko modua balego.

Neurri hori Katalunian eta Madrilgo Erkidegoan erabili da antzeko kasuetan, arartekoak berak proposaturik, aplikatzekoa den araudian aldaketak sustatze aldera, eta gure inguruko herrialdeetan, Frantzia, adibidez, aurreikusi izan da; kasu batzuetan bide egokia izan daiteke horrelako egoerak bideratzeko eta aukera ematen du, gainera, adopzioan edo umeordetzan hartutako pertsonak, kasu honetan kexaren egilearen arrebak, anaia biologikoa duela jakinda, harekin harremanetan jarri edo ez jartzeko erabakia har dezan.

Esandako guztiagatik gure iritzia zen aukera hori ere jorratu behar zela eta bidezkoa iruditu zitzaigun IRADOKIZUNA helaraztea Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizatearen Departamentuari bide horretara jotzeko aukera azter zezaten, [...] andrearekin harremanetan jarriz, aurkitzerik balego, eta hark har zezan erabakia baimena emateko ala ez emateko kexaren egileari departamentuak dituen datuak eskuratzeko eta, baiezkoan, harremanetan jar daitezten.

Ohar horren bidea lehenago atal honetan adierazi ditugunen berbera izan da eta jaso duen erantzuna ere antzekoa.

GARRAIOA ETA LAGUNTZAK

PERTSONA BATI BONO-TAXIA EZ EMATEA, ADINA DELA ETA.

Aurkeztu zizkiguten bi kasu desberdinetan (02/105/B eta 02/221/B espedienteak), kexaren egileek adierazten zuten ez zeudela ados Iruñeko udalak bono-taxia eskuratzeko (ezgaituei garraio-bide alternatibo gisa eskainia) ezarritako adin-mugekin.

Lehendabiziko kasuan, kexaren egileak adierazten zuen 91 urte dituela eta edozein mugimendu galarazten dion ezgaitasuna, eta beraz ezin duela garraio publikorik erabili alde batetik bestera joateko. Joan-etorrietarako beharrezkotzat jotzen du gurgildun aulkian ibiltzen diren pertsonak eramateko prestaturiko taxiaz baliatzea, eta horretarako udalak luzatzen duen bono-taxia erosi behar izaten da. Amaitzeko, udalaren bono-taxiaren laguntza eman dakion eskatzen du; haren iritziz, adinagatik ukatzea haren kontrako bereizkeria da.

Bigarren kasukoa 84 urteko pertsona bat zen, % 73ko ezgaitasuna zuena eta haren eritasunaren ondorioz askotan joan behar izaten duena Nafarroako Ospitalera, Vianako Printzea Kanpoko kontsultetarako zentrora eta abarrera, baina gurgildun aulkian mugitzen denez ezinezkoa zaiola garraio publiko kolektiboez baliatzea. Hori dela eta guztiz beharrezkotzat jotzen du gurgildun aulkian ibiltzen diren pertsonak eramateko prestaturik dagoen taxia erabiltzea, baina horretarako udalak luzatzen duen bono-taxia erosi behar izaten da, eta ukatu egin zaiola esanez hura arautzen duten oinarrietan ezarritako adin muga gainditzen duela.

Iruñeko Udaleko Gizarte Zerbitzuen eta Emakumearen Alorrean, bi kasu horiek direla-eta eginitako informazio eskaerari erantzunez, aipatu ziguten oinarriek laguntzak jaso ahal izateko ezarritako lehendabiziko betebeharra, alegia, "5 urtetik 77 urtera bitartekoa izatea, biak barne, edo 75 urtetik gorakoa baldin eta ezgaitasunak 65 urte bete baino lehen jo bazuen. Baliabide honen onuradun izan direnek ez dute galduko 75 urte betetzean. 5 urtetik beherakoak ere aintzat hartuko dira salbu-espenezko egoeretan."

Horrez gain, Gizarte Zerbitzuen eta Emakumearen Alorrak azaltzen zuen bere txostenean nondik datorren zerbitzua, esanez Iruñeko Udaleri Ezgaitu Fisikoen Koordinadorak eginitako eskaeran izan zuela abiapuntua baliabide honek eta 1998az

geroztik hitzarmen eta dirulaguntzarako oinarrien bidez ebazten dela.

Iruñeko Udalak honakoa ere azaltzen zuen: Baliabide honen oinarritzat bere garaian hartu zen filosofia, hura arautzen duten oinarrietan eta xedean jasorik dagoena, batetik bestera ibiltzeko gurpildun aulkiak edo makuluak nahitaez behar dituzten pertsonei garraibide alternatiboa ematera zuzendurik dago, ulertzen baita adineko pertsontzat aukera dagoela beste baliabide batzuk, adinak eragindako ezgaitasunetarako aproposagoak, plan gerontologikoaren bitartez ezartzeko. Nolanahi ere, aurten adin tarte hori 75 urteetara zabaldu da, eta ukitutako pertsonek ziurtatu behar dute, osasun azterketa baten bidez, ezgaitasun hori dutela 65 urte bete baino lehenagotik, horixe baita programa orokorretarako gizarte baliabideen antolaketak ezartzen duen adin muga.

Bestalde, programa honek beharrezkoa du laguntzen xede den populazioa zedarritzea -3, 4. eta 5. idatz-zatietan arautua-, kudeaketa lotu behar zaiolako urteko aurrekontu bati bideragarria izan dadin.

ANALISIA

Kexa honetan eman ziguten informazioaren haritik, gure iritzia izan zen kasu honetan aztertu beharra zegoela Konstituzioaren 14. artikuluan jasotzen den berdintasunaren printzipioa urratu ote zen, honakoa alegia: "Espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta."

Konstituzioaren 14. artikuluen arabera, legearen aurreko berdintasun printzipioa herritarren eskubide subjektibo bat da, haien arteko bereizkeriazko desberdintasunak sustatzen dituzten arauetatik babesten dituena, betiere konparazioaren terminoak egitatezko egoera berdinetatik edo antzekoetatik datozenean; izan ere, egitatezko egoera horiei era bereko tratamendu juridikoa dagokie, zeren eta halakoetan arauak berdina izan behar baitu guztientzat, haren xedapen eta aurreikuspenek ondorio juridiko berak eduki ditzaten. Berdintasun printzipioaren arabera, egoera homogeen aurrean, arauak herritarrentzako eskubide eta betebeharrak berdinak ezarri behar dituzte. Horrela ez bada, printzipio konstituzionala urratzen da.

Arauek tratu berezitua ezar dezakete egoera juridiko heterogeen arautzen dituztenean, betiere egoera horiek, ezaugarri desberdinak izateagatik, ezaugarri horiekin bat datozen erantzunak

ematera behartzen badute. Horretarako, ezinbestekoa da justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa izatea, orokorrean onartutako irizpide eta balio-judizioekin bat datorrena, baita neurriaren xedea eta ondorioak kontuan hartuta beharrezkoa izatea bere aplikazioa ere, betiere proportzionaltasun irizpideak aplikatuta erabilitako baliabideen eta lortu nahi den xedearen artean. Konstituzio Auzitegiak askotan adierazi duen moduan, tratu desberdinak ez dakar arbitrariedade nahitaez; aldiz, tratamendu ezberdina soilik da arbitrarioa "arrazoigabea" bada, hau da, desproporzionatua bada eta herritar batzuei eta besteei tratamendu desberdina, onerako edo txarrerako, ematea justifikatzeko behar adinako funtsik gabea.

Kexaren arrazoiari helduta, aztertu behar dira bono taxia eskuratzeko banakako laguntzen oinarriak, Iruñeko Udalak 2002ko ekitaldirako onetsiak, eta zehazki 3. idatz-zatiaren edukia. Xedapen horrek laguntzen eskatzaileek bete beharreko baldintzen zerrenda ematen du eta, zehatzago, adin mugei dagokienez eskatzen du "5etik 75 urtera bitarte izatea beterik, edo 75 urtetik gora ezgaitasuna 65 urte bete baino lehenagotik izatea. Baliabide honen onuradun izan direnek ez dute galduko 75 urte betetzean (...)."

Kexa honen ildoan dauden inguruabarrak kontuan harturik, hau da arauak aurreikusten dutena: a) ezgaitasunaren deklarazioa duten eta 75 urtetik beherakoak diren pertsona guztiak dute bono-taxia eskuratzeko eskubidea; b) adin horretatik gorakoek ere eskubidea dute, baldin eta ezgaitasunaren deklarazioa 65 urte bete baino lehen egin bada, eta horiek laguntzak bizi guztian jasoko dituzte; c) ordura arte laguntzak jaso dituzten horiek onuradunak izaten segituko dute, edozein izanik ere haien adina.

Beraz, ezgaitasunaren deklarazioa 65 urte bete baino lehenago jaso duten herritarrek eta laguntza horiek lehendik ere dituztenek tratu hobea dute. Bi kasu horietan eskubidea bizi guztirako da. Baina ezgaitasun egoera 65 urtetik gora jasaten dutenek berriz 75 urtera arte baizik ez dute gordetzen eskubide hori, eta gero galdu egiten dute.

Egia da udala libre dela laguntzen xede den populazioa zedarritzeko, eta gainera kasuan kasuko ekitaldian ezarritako aurrekontuek ere mugatzen dutela, baina onuradun izan daitezkeen herritarren multzoak zedarritzekotan laguntzaren helburuekin bat datorren moduan egin behar da eta berdintasunaren printzipioaren barrenean, Iruñeko Udalak beste administrazio publiko guztiak bezala bete behar duena.

Oinarrietatik ondorioztatzen den tratu desberdina, begi-bistakoa, justifikatzeko, udalaren txostenak hauxe adierazten du: "baliabide honen oinarritzat bere garaian hartu zen filosofia, hura arautzen duten oinarrietan eta xedean jasorik dagoena, batetik bestera ibiltzeko gurpildun aulkiak edo makuluak nahitaez behar dituzten pertsonen garraibide alternatiboa ematera zuzendurik dago, ulertzen baita adineko pertsonentzat aukera dagoela beste baliabide batzuk, adinak eragindako ezgaitasunetarako aproposagoak, plan gerontologikoaren bitartez ezartzeko". Nolanahi ere, aurten adin tarte hori 75 urteetara zabaldu da, eta ukitutako pertsonen ziurtatu behar dute, osasun azterketa baten bidez, ezgaitasun hori dutela 65 urte bete baino lehenagotik, horixe baita programa orokorretarako gizarte baliabideen antolaketa ezartzen duen adin muga.

Txostenean kontrakoa adierazten bada ere guk ez dugu ikusten arau horien "oinarriek eta xedeak" justifikatzen duenik bereizkeriaren arrazoia, 1. eta 2. idatz-zatiek ez baitute deus ere aipatzen horri buruz, eta 3. idatz-zatia da tratamendu desberdina arautzen duena. Gerta daiteke, halere, txostenak dioenez, udalak kontuan hartu izana plan gerontologikoan aurreikusitako beste laguntza batzuk eta, zehazkiago, ezgaituei ematen zaien Garraio Egoitu eta Lagundurako Zerbitzuarenak, pertsona horiek eramateko zenbait zentrotara eta programa horretan sartutako jardueretara, ahal den gehiena atzeratzeko egoitzetan sartzea.

Baina udalak kontuan hartu baditu ere plan gerontologikotik datozen laguntzak, ezgaitasunaren deklarazioa 65 urte bete ondoren jaso duten eta 75 urtez gorakoak diren adinekoei ematen zaien tratuak berdintasunaren printzipioa urratzen du nabarmenkiro, alderaketaren terminoak ia homogeneousak direlako: balizko onuradun guztiak ezgaitu larriak dira eta haien zailtasunak antzekoak, baina hartutako soluzioa oso antzekoa eta bereizkeriazkoa. Ez da arrazoizkoa esatea ezgaitasuna 65 urte bete aurretik edo ondoren izateak ondorio juridikoak dituela, hura jasaten dutenen egoera objektiboki berdina baita, bai eta beharrak eta mugitzeko arazoak ere. Ez da arrazoizkoa bizi-lagun batzuk bono-taxiaren onuradun izatea bizi-guztitan eta beste batzuei, aldiz, laguntza hori ukatzea 75 urtez gorakoak izaki haien ezgaitasunaren deklarazioa 65 urte bete ondoren egina delako, arrazoi hori funts gabea delako alderaketari begira. Ezar zitekeen bono-taxia eta plan gerontologikoaren beste laguntza antzekoak, baleude, bateragarriak izatea, baina bateraezintasunaren esparruak onuradun guztiak hartu beharko lituzke bere baitan, adina kontuan hartu gabe, kasu hone-

tan ez duelako inolako funtsik, lehen esan dugun bezala.

Esandakoagatik bidezkotzat jo genuen Iruñeko Udalari GOMENDIOA egitea bono-taxirako laguntzak ukatzeko ebazpena baliorik gabe utzi eta kexak aurkeztu zituzten guztiei emateko laguntza horiek, eta indargabetzeko halaber aipatutako oinarrien 3. atala, 75 urteko adina aipatzen duena, berdintasunaren printzipioa urratzen duelako.

Iruñeko Udalak, gure aldetik hiru aldiz eskatu ondoren esan zezan gomendioarekin ados zegoen ala ez, ez zuen adierazi bere jarrera eta Nafarroako Administrazio Auzitegira igorritako espedientearen kopia bidali baizik ez zuen egin, guk horrelakorik eskatu gabe. Udalak ez zigun beraz jakinarazi espresuki bere jarrera eta beraz, galarazi egin zigun kexen egileei gure jarduketan emaitzen berri ematea.

Udalak gure erakundeari laguntzarik eman ez izana urteko txosten honetan islatzeaz gain —erakundea bera ere ohartarazi genuen horretaz bere garaian— gure jarduketaren azken emaitza da, gure ustez, udalak ez duela gure gomendioa aintzat hartu eta ez duela bere gain hartzeko asmorik, eta hala jakinarazi genion, baina entitateak ez zuen erantzunik eman.

ETXeko LAGUNTZARAKO DIRULAGUNTZAK.

AURREKARIAK

Guregana jo zuen pertsonak kasu honetan (02/375/B espediente) kexa bat aurkeztu zuen bere amaren izenean, 2002ko urrian kendu zizkiontelako 1992az geroztik etxeko laguntzarako jasotzen zituen laguntzak eta harrezkero ez zuelako inolako laguntzarik jasotzen. Horretarako baliatu zen xedapena [...] ebazpena izan zen, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak emandakoa.

Kexan zioenez, haren amak 95 urte ditu eta % 75,5eko ezgaitasun larria du 1988tik, eta hala dela ziurtatzen dute kexari erantsi zizkion agoriek; halaber dio urte hauetan ez dela izan aldaketarik haren ondarean, eta beraz berak uste duela eza-guna ez duen baremoa aplikatuko ziotela, ofiziala ez dena, ez delako argitara eman. Are gehiago, berriki eman zaio lagunduaren kalifikazioa, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri zuzendari nagusiaren [...] ebazpenaren bidez, haren ezintasuna fisikoa eta egoera ikusirik.

Egoera honetan egonik, hirugarren pertsonak kontratatu behar izaten ditu eguneroko eginkizun funtsezkoenak betetzen laguntzeko, eta horrek gastu handia dakar, bere baliabideez bere gain hartzerik ez duena. Adierazten du era berean bizi

den etxea alokairuan daukala, hilero ordaintzen duena, eta gaixoa mugitzeko garabia ere, beste gastu askoren artean –zehazturik ematen ditu–, eta bere dirusarrerak ez direla aski denerako.

Haren iritzia da ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretua dela laguntza hauen inguruko arau bakarra, eta urtetan jaso izan dituela, lehen azal dutako inguruabarrengatik; ez da inolako aldaketarik gertatu ordea hainbeste urteren buruan [...] andrearen egoera zaila hein batean arintzen duen prestazio hori kentzeko. Gertatu den aldaketa bakarra da, agian, haren egoera klinikoa okertu egin dela, bistan denez.

Kexu da, orobat, [...] ebazpenak ez duelako inolako azalpenik ematen, eta laguntzak kentzeko aipatzen duen arrazoi bakarra da Familia Atalak prestaturiko txosten bat, baina edukiaren berri ez du.

Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak txosten bat igorri zigan haren iritzia eskatu ondoren.

Txostenak dioenez, etxeko laguntzarako dirulaguntzak ekainaren 26ko 168/1990 Foru Dekretuaren 8. artikulua bigarren idatz-zatian daude aurreikusirik egun; hauxe dio xedapen horrek: salbuespen gisa, etxeko laguntzarako dirulaguntzak eman ahal izanen dira, hau da, onuradunak etxean bertan eman beharreko zerbitzu pertsonalak jaso ditzan edo haren eguneroko bizitzaren jarduerak betetzeko ezinbestekoak zaizkion ondasun zehatz batzuk eskuratzeko. Agindu hori Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileak emandako 2191/2002 Ebazpenak garatu du, haren bidez onetsi baitziren 2002. urtean etxeko laguntzarako dirulaguntzak ematean aplikatu beharreko irizpideak eta baremoak.

Ebazpen horren arabera, adierazten du dirulaguntza horiek bakarrak direla bizikidetzaren unitate bakoitzeko, zeinahi den ere unitate horretan minusbaliotasunaren kalifikazioa onartua dutenen 65 urtez gorakoen edo gazteagoen kopurua eta haien arteko ahaidetasun gradua, familiako kide guztiak edo elkarrekin bizi diren guztiak baitira onuradunak.

Dirulaguntza horiek eskuratzeko eskubidea izateko egiaztatu behar da eskatzaileak ezgaitasun larria duela, baina aintzat hartzen dira halaber bizikidetzaren unitateko kide diren guztien dirusarrerak, haien adina eta lanean ari diren ala ez, txostenak dioenez. Horretarako, eranskin bat gehitzen da, hiru egoera desberdin islatzen dituena:

A taula aplikatzen da soilik bizikidetzaren unitatean 65 urtez gorakoak baizik ez direnean bizi elka-

rrekin. Kasu horretan, hauexek dira oinarrizko errentak:

PERTSONA KOPURUA	OINARRIZKO DIRUSARRERAK	DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA
1	5.397,00 euro	KOSTU OSOA
2	8.095,50 euro	KOSTU OSOA
3	10.794,00 euro	KOSTU OSOA
4	13.492,50 euro	KOSTU OSOA
5	16.191,00 euro	KOSTU OSOA

B1 taulak, 65 urtez beherakoei aplikatzen zaizkian, honako oinarrizko errenta hauek finkatzen ditu:

PERTSONA KOPURUA	OINARRIZKO DIRUSARRERAK	DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA
1	12.381,60 euro	KOSTU OSOA
2	18.572,40 euro	KOSTU OSOA
3	24.763,20 euro	KOSTU OSOA
4	30.954,00 euro	KOSTU OSOA
5	37.144,80 euro	KOSTU OSOA
6	43.335,60 euro	KOSTU OSOA

B2 taula aplikatzen da 65 urtez beherakoak daudenean eta familiako bi kide behintzat lanean aritzen direnean, muga hauekin:

PERTSONA KOPURUA	OINARRIZKO DIRUSARRERAK	DIRULAGUNTZAREN ZENBATEKOA
2	20.429,64 euro	KOSTU OSOA
3	27.239,52 euro	KOSTU OSOA
4	34.049,40 euro	KOSTU OSOA
5	40.859,28 euro	KOSTU OSOA
6	47.669,16 euro	KOSTU OSOA

Era berean, dirusarreraren baremoan dirulaguntzetatik kanpo daude kapitalak eta horien emaitza diren errentak dituzten 65 urtez gorakoak, muga batzuk gainditzen badituzte:

PERTSONA KOPURUA	KAPITALA/ ONDASUNAK	INTERESAK
1	30.050,61 euro	1.202,02 euro
2	48.080,97 euro	1.923,24 euro
3	60.101,21 euro	2.404,05 euro

Txostenak dio B1 taula A taularekin lotuta aplikatzen dela 65 urtez gorako pertsoez gain bizikidetzaren unitatean 65 urtez beherakoak daudenean eta haietako batek laneko dirusarrerak dituztenean

(txostenak adierazten du kasu hau ez dela hizpide dugun egoerarena), eta B2 taula ere A taularekin lotuta aplikatzen dela 65 urtez gorako pertsonen edo minusbaliatuez gain bizikidetzaren unitatean 65 urtez beherakoak bizi direnean, eta haietako bik edo gehiagok laneko dirusarrerak dituztenean (taula hori ere ez da aplikatzekoa gure kasuan).

Kexa honetan aztertutako kasuari dagokionez hauxe dio txostenak:

Hirugarrena. [...] andrearen kasuan, hauxe da egoera:

1. [...] andrearen kasuan balorazioa azaldutako irizpide horiekin egin da, eta horri jarraituz etxeko laguntzaren 4,5 ordu behar dituela zehazten du. Behar dituen laguntza orduen kopurua jakin ondoren, eranskinen II. taulak jasotzen du interesatuaren beharrak duen kostu ekonomikoa, eta [...] andrearen kasu zehatzean 553,95 eurokoa da hilean (92.170 pezeta). Hori izanen zen laguntza osoa, hura kide duen bizikidetzaren unitatearen dirusarrerak I. eranskinen A taulan unitateko bi kiderentzat ezarritakoak baino txikiagoak izan balira (8.095,50 euro). Tauletan ageri diren zenbatekoak oinarritzko dirusarrerak dira eta bizitzeko gutxieneko moduko bat dira laguntzak emateko irizpide ekonomikoen aplikazioari begira.

2. [...] andrearen beharra zein den jakinik, bizikidetzaren unitatearen dirusarrerak hartzen dira kontuan.

a) Kontuan harturik zein den bizikidetzaren unitatearen kide kopurua eta haien adina (haietako bi 65 urtez gorakoak dira), urteko dirusarreraren kopuruari kendu behar zaio kasuan kasuko urteko oinarritzko dirusarrerarako ezarritako kopurua, hau da, bizikidetzaren unitateak sartu dituen 15.068,90 horiei kentzen zaie A taulan 65 urtez gorako 2 kideren oinarritzko dirusarrera gisa ezarritako kopurua, 8.095,50 euro, eta ateratzen den kopurua kendu behar zaio orduen kostuaren arabera legokiokeen laguntza ekonomikoa. Hortaz, [...] andreari 553,95 euro baldin badagozkio hileroko, etxeko laguntzaren 4,5 ordu direla eta, 6.647,40 euro dira urtean, baina haren dirusarreraren eta oinarritzko dirusarreraren arteko aldea 6.973,4 eurokoa denez, eta legokiokeena baino gehiago denez, ez du laguntzarako eskubiderik.

b) A taulako oinarritzko dirusarrerak aplikatzen dira, elkarrekin bizi diren bi pertsonak 65 urtez gorakoak direlako; 65 urtez gorako bat eta beherako bat izan balira, 2001ean gertatzen zen bezala, oinarritzko dirusarrerak pertsona horientzat izanen ziren $5.397,00 + 12.381,60 = 17.780,60$ euro. Oinarritzko dirusarrera gisa ezarritako dagoen zenbateko hori bizikidetzaren unitateak dirusarreretan izanen

lukeen 15.068,90 eurokoa baino handiagoa denez, balorazio orduen arabera legokiokeen laguntza osoa emanen litzaioke.

c) Baina [...] andrearekin bizi den alabak 65 urte bete dituzenez, aplikatzekoak diren gutxieneko dirusarrerak a) atalean azaldutakoak dira eta ez b) atalekoak; oinarritzko dirusarrerak 8.095,50 euro dira eta ez 17.780,6, eta horregatik murriztu da laguntza, desagertzera ino murriztu ere.

Laugarrena. [...] andreak egin dituen adierazpenak direla eta, berriz, hauxe jakinarazten dugu:

a) Baremoa publikoa dela eta edonoren esku dagoela, prozeduran interesa izan nahiz ez. Urtero baremoak eta aplikaziorako irizpideak onesten dituen ebazpena Foru Komunitateko oinarritzko gizarte zerbitzu eta osasun etxe guztietara igortzen ohi da.

b) [...] andreak, [...]ren alabak, dio ez dela izan aldaketarik laguntzari eragiteko modukorik, aipatu gabe utziz, jakinik, [...] andreari berari azaldu zaio-lako, haren ahizpak (amarekin bizi den ahizpak, alegia) 65 urte betetzean laguntza zenbateko aplikatzekoak diren oinarritzko dirusarrerak beste batzuk direla, eta horrek aldaketak eragiten dituela laguntzan.

c) [...] andrea kexu da laguntza bertan behera uzten duen ebazpenak ez duelako azalpenik ematen, eta esaten du ez duela ezagutzen laguntza bertan behera uzteko oinarritzko hartutako txostenaren edukia. [...] andreak ongi daki zein diren laguntza murriztu eta desagertzeko arrazoiak, entzutea emateko tramitea bera aurrean zela bete baitzen, eta laguntza bertan behera uzteko arrazoi zehatzak eman zitzaizkion. [...] andrea behin baino gehiagotan izana da Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren Familia Atalean, informazioa eskuratzeko eta eztabaidatzen ari garen prozeduraren inguruan komenigarria iruditu zaiona alegatzeke.

Bosgarrena. Etxeko laguntzarako dirulaguntzak banatzeko irizpideak eta baremoak ez dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu. Halere, esan bezala, Foru Komunitateko oinarritzko gizarte zerbitzuetara eta osasun etxeetara igortzen dira, eta zentro horien bidez kudeatu, tramitatu eta proposatzen dira laguntzak, eta bertan daude eskura irizpideak eta baremoak, bai eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan ere. Laguntzak emateko prozedura kasuan kasuko oinarritzko gizarte zerbitzuan edo osasun etxean hasi eta tramitatu behar da, eta organo horiek ematen diete informazioa eskatzaileei laguntzak eskuratzeko bete beharreko baldintzez, dokumentazioaz eta gainerako ezaugarri eta betebeharez.

Halere, erakunde honek ez du eragozpenik etxeko laguntzarako laguntzak emateko aplikatzen diren irizpideak eta baremoak argitaratzeko, baina iruditzen zaigu komenigarria litzatekeela aurretik horiek arauz garatzea, etxeko laguntza berrantolatzeko plana amaitu ondoren.”

ANALISIA

Lehendabizikoa. Jakinarazi zaizkigun gaiak aztertzerakoan aurreratu genuenez, jabeturik gaude etxeko laguntzarako dirulaguntzak jaso beharreko populazioa zehaztu eta zedarritzeak duen zailtasunaz, kontuan harturik gainera Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuak kasuan kasuko ekitaldirako aurrekontuetan ezarritako dagoen diru kopurua duela muga. Horrekin guztiarekin ere uste dugu halaber onuradun izan daitezkeen herritar multzoak zehazteko modua bat etorri behar dela laguntzaren xedearekin eta berdintasunaren printzipioaren esparruaren barruan, administrazio publiko guztiak errespetatu beharrezkoa.

Espainiako antolamendu juridikoak formalki behartzen ditu botere publikoak pertsonen ongizatea sustatzera, premia handiena duen populazioari laguntzeko gizarte zerbitzuen sistema bat ezarri. Ildo horretan, Konstituzioaren 50. artikulua haxe agintzen du espresuki: “Botere publikoek, aldizka eguneratutako pentsio egokien bidez, gutxieneko kaudimena bermatuko diete herritarrei zahartzarotan. Modu berean, eta familiaren betebeharratik kanpo, haien ongizatea bultzatuko dute gizarte-zerbitzuen bidez, beraien arazo bereziei kasu eginez, osasunari, etxebizitzari, kulturari eta aisialdiari dagokienez”

Bestalde, Konstituzioa bereizkeria ekar dezaketen irizpideak, beraz, ez bidezkoak, ezartzearen kontrakoak da etxeko laguntza ematerakoan. Irizpide horiek bilatzen den xedearekin bat etortzea eskatzen du, hau da, premia handiena duenari laguntzea, eta halaber berdintasun printzipioarekin ere, hain zuzen Konstituzioaren 14. artikuluan jasotzen den bezala; izan ere, hark dioenez, “espainiarrak legearen arabera berdinak dira, eta ezin da inolako bereizkeriarik egin, jaiotza, arraza, sexu, erlijio, iritzi nahiz bestelako inguruabar edo egoera pertsonal zein sozialak aintzat hartuta”

Legearen arabera, legearen aurreko berdintasun printzipioa herritarren eskubide subjektibo bat da, haien arteko desberdintasun arbitrarioak sustatzen dituzten arauetatik babesten dituen, betiere konparazioaren terminoak egitatezko egoera berdinetatik edo antzekoetatik datozenean; izan ere, egitatezko egoera horiei era bereko tratamendu juridikoa dagokie, zeren eta halakoetan arauak

berdin-berdina izan behar baitu guztientzat, eta haren aurreikuspen juridikoek ondorio berak eduki behar baitituzte. Berdintasun printzipioaren arabera, egoera homogeneousen aurrean, arauak herritarrentzako eskubide eta betebeharrak ezarri behar dituzte. Horrela ez bada, printzipio konstituzionala urratzen da.

Arauek tratu berezitua ezar dezakete egoera juridiko heterogeneoak arautzen dituztenean, betiere egoera horiek, ezaugarri desberdinak izateagatik, ezaugarri horiekin bat datozen arauak behar badituzte. Horretarako, ezinbestekoa da justifikazio objektiboa eta arrazoizkoa izatea, orokorrean onartutako irizpide eta balio-judizioekin bat datorrena, baita neurriaren xedea eta ondorioak kontuan hartuta beharrezkoa izatea bere aplikazioa ere, betiere proportzionaltasun irizpideak aplikatuta erabilitako baliabideen eta lortu nahi den xedearen artean. Konstituzio Auzitegiak askotan adierazi duen moduan, tratu desberdinak ez dakar arbitrariedade nahitaez; aldiz, herritarrekiko tratamendua arbitrarioa izan da herritar batzuek besteekiko duten desberdintasun “arrazoigabe” batean oinarritzen bada, hau da, proportziorik gabea eta herritar batzuek besteekin alderatuta modu ezberdinean –hobeto edo okerrago– tratatuak izatea justifikatzeko funts nahikorik gabea.

Bigarrena. Kexa eragin duen gaiari helduta, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari nagusiak emaniko [...] Ebazpenaren edukia aztertu behar da, xedapen horren bitartez ezarri baitziren etxeko laguntzarako dirulaguntzak emateko 2002. urtean aplikatu beharreko irizpideak eta baremoak; horrekin batera, igorri zitzaigun txostena eta laguntzen eskaerari uko egiteko ebazpena ere aztertuko ditugu.

Txostenak onartzen du [...] andrea 94 urteko emakume zaharra dela, ezgaitasun larria duena, alabarekin, [...] andrearekin, bizi dena, eta aipatutako araudiaren arabera 553,95 euroko laguntza jaso lezakeela hilean, hau da, 6.647 euro urtean.

Baina elkarrekin bizi diren bi emakume hauek 65 urtez gorakoak direnez, alabak 2002. urtean bete baitzituen, 2191/2002 Ebazpeneko A taula aplikaturik bizitzeko gutxieneko dirusarreratzat 8.095,50 euroko kopurua hartu beharra dago. Ondorioztatzen duenez, bi onuradunen dirusarrerak, guztira, 15.068,50 euro egiten dutenez, ez dute inolako laguntzarik jasotzeko eskubiderik, txostenaren arabera, dirulaguntza gisa jaso litzaketan 6.647 euro horiek sarturik daudelako bizitzeko gutxienekoa gainditzen duten dirusarreretan.

Txostenak onartzen du, halaber, aurreko urtean, eskatzailearen alaba 65 urtez beherakoa

zenez, dirusarrerren mugak ez zuela gainditzen bizitzeko gutxienekoa, eta A taula eta B1 taula aplikatzen zitzaizkiela amari eta alabari hurrenez hurren, eta kasu horretan laguntza osotara jasoko zuten.

Kasu zehatz honetan ikusten dugunez, dirulaguntzak emateko kontuan hartzen den bizitzeko gutxienekoa erdia baino gutxiagora murrizten da familiako kide gazteenak 65 urte betetzearen ondorioz, eta harrigarria da etxeko laguntza osoa hartzeko eskubidea zutenak inolako diru kopururik jasotzeko eskubiderik gabe geratzen direla, 2002. urtean onuradunen dirusarrerak funtsezko aldaketarik izan ez badute ere.

Beraz, tratamendua hobea da 65 urtez beherako kideak dituzten bizikidetzaren unitateetarako, horien kasuan aukera ematen baitzaie 65 urtez gorako kideak dituzten unitateetarako ezarritako bizitzeko gutxienekoa baino %100 handiagoa den bizi-errenta izateko.

Kasu zehatz honetan, gainera, etxeko laguntzarako dirulaguntzak 1992az geroztik jasotzen zituenak ez ditu egun, 10 urte geroago, jasotzen, bere alabaren adina dela-eta, bere dirusarrerak lehengo berak diren arren. Kasua dramatikoa da, Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri zuzendari nagusiak emaniko [...] Ebazpenak [...] andreari eman ziolako laguntza behar duen pertsonaren kalifikazioa, haren ezintasun fisiko larriagatik, eta 2002. urtean, berriz, laguntzak kendu zitzaizkion.

Badirudi Gizarte Ongizatearen Institutuak ego-kiro aplikatu dituela baremo horiek, baina gure ustez baremoak ezarri dituen ebazpenak eragiten duen tratua desberdina arrazoigabea eta justifikaezina da, Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak, gainerako administrazio publikoek bezala, errespetatu behar duen berdintasun printzipioaren kontrako.

Ez da zentzuzkoa 65 urte betetzeak garrantzi juridikoa izatea bizitzeko gutxieneko dirusarrerak kalkulatzeko, etxeko laguntza behar duten pertsonen egoera ez delako hobetzen adinarekin, kontrako baizik. Ez da batere logikoa laguntzak murriztea edo desagertzea onuradunen adina goraka joan ahala.

Aipatutako ebazpenak A eta B1 baremoak 65 urteko adinaren arabera baizik ez ditu bereizten, tratua desberdina justifikatzeko beste inguruabarririk aipatu gabe. Igorri diguten txostenak gehitzen du B1 baremoa aplikatzen dela 65 urtetik beherako adina izateaz gain unitateko kideetako batek "laneako dirusarrerak" dituela frogaturik dagoenean. Baina ez dugu ikusten non dagoen baldintza berri hori, ez delako ageri zehazturik ebazpen horretan.

Ez da ikusten, halaber, zergatik izan behar duen baldintza horrek adinaren arabera bereizketa baterako oinarri: zenbait pertsonak lanean jarraitzen dute 65 urte bete ondoren ere; beste batzuek, kasu honetan bezala ([...] alarguna zen adin hori bete aurretik), pentsioak jasotzen dituzte 65 urte izan gabe ere, edo langabeziaren lansaria jasotzen dute, edo kapital errentetatik datozen dirusarrerak dituzte, eta 65 urte betetzeak ez du horretan eraginik.

Era berean, bazter dauden kasuei buruzko atalak berdintasunerako eskubidea urratzen du, 65 urte betetzea bazter geratzeko arrazoen artean ezartzen duelako, baremoak zehazten dituen ondasunak edo errentak izanez gero. Ez da zentzuzkoa dirulaguntzetatik kanpo geratzeko araubidea aplikatzea adin hori betetzeagatik soilik.

Beraz, ezinbestekoa da dirulaguntza horiek beste modu batez arautzea, haien xedearekin eta berdintasunaren printzipio konstituzionalarekin bat, eta bitartean bere horretan uztea [...] andreak aurreko ekitaldietan jasotzen zituen laguntzak, gure ustez hala ez egitea berdintasunaren printzipioa urratzea delako.

Hirugarrena. Azkenik, departamentua ohartarazi nahi izan genuen formazko alderdi batez, garrantzi handikoa zelako; alegia, aplikatzekoa den araudia eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak egiten dituen urteko deialdiak Nafarroako Aldizkari Ofizialean ez argitaratzea. Igorri diguten txostenean honakoa aipatzen da horren inguruan: "etxeko laguntzarako dirulaguntzak banatzeko irizpideak eta baremoak ez dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu. Halere, esan bezala, Foru Komunitateko oinarrizko gizarte zerbitzuetara eta osasun etxeetara igortzen dira, eta zentro horien bidez kudeatu, tramitatu eta proposatzen dira laguntzak, eta bertan daude eskura irizpideak eta baremoak, bai eta Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuan ere".

Kontuan harturik zer gai mota den, komeni litzateke dirulaguntza hauek, baremoak eta onuradunen betebeharrak erregelamendu bidez arautzea, begi-bistan dagoelako urte batzuetan aplikatzen direla, onuradunen bizi baldintzak nabarmen aldatzen ez badira behintzat. Aztertu dugun kasuak adibidetako balio du, zeren [...] andreak 1992az geroztik jasotzen baitzituen laguntzak, eta beraz, onuradunen bizitzan zehar gutxitan aldatzen den jarraikortasuna dago gai honetan, eta jarraikortasun hori dela eta egokia litzateke xedapen orokorrek arautze egonkorragoa izateko ematen duten aukera.

Jakina denez, erregelamenduak antolamendu juridikoaren parte dira, eta egintza, berriz, antolamendua kasu jakin bati aplikatzera mugatzen da. Egintza administratiboa jasotzaile zehatz bati zuzentzen zaio eta banakako ondorio juridikoak izaten ditu, zuzen eta berehalakoan; erregelamenduak berriz subjektu multzo zehazgabe bati zuzentzen zaizkio. Doktrinak biak bereizteko onartzen duen irizpide bat da egintza administratiboa betetzean bertan ahitzen dela, baina erregelamenduak betetze kopuru mugagabea izan dezake.

Esandakoa gorabehera, [...] ebazpena ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuaren egintza osagarria edo betearazlea dela, beharrezkoa zen halaber Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jasotzailea dirulaguntzen onuradun izan daitezkeen multzoa denez izaera orokorra duelako, eta horrela baizik ez da bermatzen segurtasun juridikoaren printzipioa eta herritarren aukera euren eskubideak ezagutu, erabili eta defenditzeko.

Azaldutakoagatik, Nafarroako Gobernuo Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari GOMENDIOA egin genion, beharrezkoak diren tramiteak egin ondoren dirulaguntza hauek berriz arautu ditzan haien xedearekin eta berdintasunaren printzipio kosntituzionalarekin bat datorren moduan, eta bitartean bere horretan utz ditzan [...] andreak aurreko ekitaldietan jaso dituen laguntzak. Era berean, arautzea erregelamendu bidez egin dezan, eta araua nahiz egintza Nafarroako Aldizkari Ofizialean osorik argitara dadin.

Departamentuko kontseilariak igorritako erantzunean gomendioa onartzen zuela adierazten zuen arren, kexaren egileak jakinarazi zigun ez zela edukia bete haren amak jasotzen zituen dirulaguntzak bere horretan uzteari zegokionez, eta beraz, gomendioak bi helburu zituenez, alegia, araudia aldatzea eta laguntzak bere horretan uztea, beste idazki bat helarazi genion departamentuari azken gai horretaz galdezka, eta orain erantzunaren zain gaude.

EGOITZAK

ZAHARREN EGOITZAN EGINIKO EGONALDIAK ERAGINDAKO ZORRAK ESKATZEA

2002. urteko txostenean aipatu genituen kasu batzuk (02/18/B eta 02/209/B espedienteak) zeinetan jakinarazten ziguten zer arazo zituzten Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuak zahar-etxeetako egonaldiek, zuzeneko ahaideenek, gehienbat aita edo amarenak, eragindako zorra eskatzea zela-eta kexak aurkezten zituzten pertsonen.

2003. urte honetan berriz izan dira kexak gai honen inguruan, eta erakunde honek egindako oharrak 2002ko txostenean luze eta zabal azaltzen badira ere, jaso gabe gelditu zen orduan Gizarte Ongizatearen Departamentuari eskatu zitzaion informazioa; izan ere, galdera egin genion zahar-etxeetako egonaldien zerbitzuak finantzatzeko erabiltzaileek egin beharreko ekarpen ekonomikoa arautzen duen 17/2000 Foru Legearen 15. artikuluan jasotzen den beharkizunari buruz, gure ustez pertsona horiek eta haien senideek horren berri izan behar zutelako eta, halatan, ez dadin gerta deskribatutakoen moduko egoerarik, hau da, bat-batean eskatu ahal zitzaien zenbatekoa zutela ordaintzeko.

Bada, informazio eske zehatz horri erantzunez, departamentu horretako kontseilariak adierazi zigun 15. artikulua, sortutako zorraren komunikazioari buruzkoa, 2002ko abenduan hasi dela aplikatzen, eta zentro gerontologiko guztietako erabiltzaileei jakinarazi zaie zein den metatutako zorra.

INFANTA ELENA ZENTROAN EMANDAKO LAGUNTZA, LANGILEEN GREBA DELA ETA.

Gure esku-hartzea (02/198/B eta 02/235/B espedienteak) aurkeztutako zenbait kexa idazkik eragin zuten, Infanta Elena zentroan, langileek 2002ko maiatzaren 6tik ekainaren 13ra egin zuten greba zela eta, bertan daudenei eman zitzaien laguntza salatzen zutenak.

Idazkietan, salatzailiek aipatzen zuten gutxieneko zerbitzuetan ari ziren langileek emandako laguntza eskasa, botikak emateko atzerapena, jatorduetan aldaketak, langileen gaitasun falta eta adimen gaixoekin izandako utzikeria, behin baino gehiagotan ohetik altzarazi gabe utzi zituztelako.

Gizarte Ongizatearen Departamentuari egin genion eskaeran, gai horiez galdetzeaz gain, beste hauen inguruko informazio osagarria ere eskatu genuen:

Zentroa kudeatzen duen entitatearekin dagoen hitzarmena edo kontratua eta bertan jasorik dauden baldintzak.

Zentro horretan egun lanean aritzen diren langileen kopurua, zehaztuta haietako bakoitza zer jardun edo zerbitzutan aritzen den eta betetzen duen lanpostua.

Aspaldi honetan egin diren ikuskapenen akten kopia, baleude.

Departamentuak zentroaren funtzionamenduaz egiten duen balorazioa antolakuntza, laguntza eta abarren inguruko alderdiez.

Gizarte Ongizatearen kontseilariak bi txosten igorri zituen zentroan 2002ko urriaren 11n lanean ari ziren langileen datuekin eta haien lanbide sailkapenarekin.

Era berean, 2002ko ekitaldian Ikuskaritza Atalean aurkeztutako kexa guztien kopia igorri zигun, eta haietako batzuk zentroko langileen greba garaian eginak dira.

Esan beharra dago kexa hauek jasotzen dutela bertako gaixoei erakunde honi adierazitakoa, alegia, funtsean gaixoei emandako laguntzaren kalitateak okerrera egin zuela langile gutxiago zeudelako, zenbait praktika ez zirela gauzatu, hala nola jarrerak aldatzea, dutxak, siestak eta botikak ezarritako ordutegietatik kanpo ematen zirela.

Halaber, departamentuak Ezgaitasunak dituzten pertsonen Ataleko teknikarien balorazioa igorri zuen; bertan Aspace Navarra Fundazioak Infanta Elena zentroaren kudeaketa teknikoaren arloan betetako jarduerak aztertzen dira, eta adierazi adjudikaziorako lehiaketa publikoan eskatutako baldintza teknikoan pleguan ageri ziren baldintza guztiak betetzen direla eta, are gehiago, hobekuntzak ere egin direla.

ANALISIA

Kexa honetan planteaturiko kasuan, kontrajarri agertzen zaizkigu Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikuluan aitortzen den grebarako eskubidea eta 49. artikulua, botere publikoei agintzen diena aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egin dezaten elbarrientzat, behar duten arreta berezia eman, eta bereziki babes ditzaten, I. tituluak herritar guztiei ematen dizkien eskubideak egikaritu ahal izateko.

Grebarako eskubidea oinarrizko eskubidea bada ere, Konstituzio Auzitegiak berak aitortzen du zenbait epaitan hartaz baliatzea mugatu edo murriztu daitekeela Konstituzioak babesten dituen beste eskubide edo ondasunekin loturik agertzen denean, eta muga eta murrizketa horiek onargarriak izanen dira betiere ez badute grebarako eskubidearen funtsezko edukia gainditzen eta horrela erabilitezina bilakatu, zentzuzkoa denaz haratago eragotzi edo babesik gabe uzten (epaiak: 11/1981, 26/1981, 33/1981, 51/1986 y 53/1986).

Zehazki, Konstituzioak berak aipatzen du muga espresa dela erkidegoaren funtsezko zerbitzuak mantentzen direla bermatu beharra, eta klausula mugatzaile horrek oinarrizko eta hastapeneko bereizketa bat eransten dio grebarako eskubidearen trataera konstituzionalari, funtsezko zerbitzuetan baliatzen dena bereizten baitu herritarrak horretan ukitutako alderdi gisa agertzen direlako,

eta zerbitzuei eusteko interesa babestu behar da. “Zerbitzu horien jasotzailea eta zorduna erkidego osoa den aldetik eta zerbitzuak, aldi berean, erkidegoarentzat funtsezkoak direnez, grebak ezin du inposatu funtsezko zerbitzuen jasotzaileen sakrifizioa. Premiazko prestazio horiek jasotzeko erkidegoak duen eskubideak lehentasuna du grebarako eskubidearen aurretik (11/1981 epaia).

Erkidegoaren interesa, hau da, funtsezko zerbitzuak ematea, dela-eta grebarako eskubideaz baliatzeari mugak ezartzeak interpretazioari dagokionez sortzen duen lehendabiziko arazoa da zehaztu beharra dagoela juridikoki lausoa den kontzeptu hori, alegia “erkidegoaren funtsezko zerbitzuak”; zehaztapena ezin da egin zerbitzu horren titularitate publiko nahiz pribatuaren arabera, baizik era emandako ondasunaren izaeraren bitartez.

Nozio malgu hori definitzeko lanari Konstituzio Auzitegiaren 26/1981 epaiak heldu zion, funtsezko zerbitzuak ulertzeko bi modu daudela esanez.

Kontzeptu zabal batean, grebarako eskubidea mugatzen duen klausulak aipatzen ditu “erkidegoarentzat nahitaezkoak edo bizirako premiazkoak diren prestazioak dakartzaten industria edo merkataritza jarduerak, eta baloratzen da “prestazioak beharrezkoak izatea eta lotuta egotea premiazkoak diren laguntzekin”, hau da, betetzen den jardueraren izaera. Estu ulerturik, zerbitzuaren funtsezko izaera jarduerarekin lotu nahi den emaitzatik dator, halako moduan non “zerbitzua funtsezkoa izateko funtsezkoak behar duten izan emandako ondasun eta interesek”, eta halakotzat hartu behar dira “oinarrizko eskubideak, askatasun publikoak eta Konstituzioak babesturiko ondasunak”. Auzitegiaren ustez, azken interpretazio ildo hori da “kontuan hartu behar dena, Konstituzioak iradokitzen dituen printzipioekin modu egokienean bat datorrena”.

Baina zerbitzu bat funtsezkotzat hartzeak ez du esan nahi zerbitzu horretan aritzen diren langileen grebarako eskubidea desagertzen denik, baizik eta eskubideari eusteko “behar diren bermeak” aurreikustea, eta horrek bazter uzten ditu ohiko funtzionamenduaren inguruko bermeak. Zerbitzu bat mantentzeak berarekin dakar zerbitzuak ematen dituen eskubide, askatasun edo ondasunen gutxieneko estaldurarako beharrezkoak diren lanak egitea, baina ohiko errendimendu mailara ailegatu gabe.

Funtsezko zerbitzuak 28.2 artikuluan ezartzen den eskubideari kalte egin gabe mantentzeko zer nolako “bermeak” hartu behar diren ez da alde aurretik erabaki daitekeen gaia; grebaren eta grebak eragiten duen erkidegoaren inguruabarrak

(lurraldea, iraupena...) eta haren eragina jasaten duten eta Konstituzioak babestuak diren eskubide edo ondasunen izaera kontuan harturik ezarri beharko dira, ordea.

Konstituzio Auzitegiak funtsezko zerbitzuez ezarritako definizioa erabiliz, ez dugu dudarik esateko Infanta Elena zentroko gaixoei, ezgaitasun fisiko larriak dituztenek, jasotzen duten laguntza funtsezko zerbitzua dela, horren xedea izanik ezgaitasunak dituztenen tratamendua, errehabilitazioa eta integrazioa.

Funtsezko zerbitzuen kontzeptuan sartzen denez, Nafarroako Gobernuak apirilaren 29ko 95/2002 Foru Dekretua eman zuen, zentroko langileek maiatzaren 6an eta 26an deitutako greba zela-eta, zentroan bizi direnentzako laguntza-zerbitzu gutxienekoak arautzeko, eta 1. artikuluan ezartzen zuen zenbat langile behar ziren. Aurrerago, ikusirik grebak jarraitu behar zuela maiatzaren 27tik aurrera eta mugarik gabe, 106/2002 Foru Dekretua eman zen, aurrekoaren xede berarekin.

Bi dekretuen zioen azalpenek onartzen dute zerbitzu publiko honen beharra aitorturik dagoela eta atzeraezina dela, eta inguruabar bereziki larriak daudela, berez baliatzeko inolako aukerarik ez duten paziente horien osasunerako eskubidea kalte ahal delako.

Baina departamentuak formalki onartzen zuen arren zentroko erabiltzaileei eman beharreko laguntzaren kalitatea garrantzi handikoa zela, bi foru dekretuetan araututako funtsezko zerbitzu gutxienekoak ez ziren erien eguneroko beharrei erantzuteko adinakoak, bistan zenez eta 2002ko ekainaren 7an laguntzaren kalitatearen jarraipen eta kontrol batzordeak eginiko bileraren aktan jasotako ondorioetan ikusi ahal izan dugunez.

Giza baliabide aski ez zela nabarmen gelditu zen zentroan dauden gaixoei 2002ko maiatzaren 13an aurkeztu zituzten hainbat salaketatan –horien kopiak espedientean daude–, eriei laguntzarik ez emateagatik higienean edo artatzeetan.

Salaketak zirela eta, 2002ko maiatzaren 15ean Gizarte Ongizatearen Departamentuko Ikuskaritza Ataleko teknikari bat zentro horretara joan zen ikuskapena egitera; ondoren, txosten bat prestatu zuen eta bertan agertarazi salatutakoaren errealtatea: bertan zirenak dutxatu beharrean ohean garbitzen zituzten, siestak kendu zituzten eta jarre-ak aldatzeko mugimenduak murriztu, eta halaber jasotzen zuen aurreikusitako gutxieneko zerbitzuak ez zirela aski.

Departamentuak txosten horretan jasotako egoeraren errealtatearen berri bazuen ere eta

jakinik bazirela kexak maiatzaren 26an eta 28an aurkeztuak, Infanta Elena zentroko laguntzaren kalitatearen jarraipen eta kontrolerako batzordearen bilera ez zen egin 2002ko ekainaren 7ra arte, hau da, departamentuak, teknikariaren txostenaren bidez, egoeraren larritasunaren berri izan eta 23 egunera. Batzorde horretan, ikusirik zentroko gaixoei ematen zaien laguntza ez zela behar bezalakoa eta sortzen ari ziren higiene arazo larriak, erabaki zen gutxieneko zerbitzuak gehitzea. Greba ekainaren 13an amaitu zen.

Puntu horretan, beharrezkoa da nabarmentzea departamentuak, jakinik ere egoera zein larria zen, ez zuela behar bezain azkar esku hartu hasieran ezarritako gutxieneko zerbitzuak gehitzeko eta zorrotz bete zitezten eskatzeko, eta horren ordez ez zuen eragotzi bitartekoen eskasia egoera luza zedin. Hortaz, administrazioak utzikieriaz jokatu du funtsezko zerbitzu publiko baten kudeaketa kontrolatzeko eginkizunetan; hau da, ezgaitasuna dutenei Konstituzioaren 49. artikuluan bermatzen zaien laguntza ematea.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuari GOMENDIOA egin zitzaion zertarako eta, ezgaitasunak dituzten pertsonentzako funtsezko zerbitzuak ematean eragina izan dezaketen horrelako egoerak berriz gertatuz gero etorkizunean, ezartzeko errealtatearekin bat datozen gutxieneko zerbitzuak, egokiak direla eta zorrotz betetzen direla begiratzeko eta behar diren neurri guztiak hartzeko zentro mota horretako gaixoei jasotzen duten laguntza behar bezalakoa dela ziurtatzeko, betiere langileen grebarako eskubidea errespetatuz.

Departamentu horretako kontseilariak ebazpenari erantzunez aipatzen zuen, besteak beste, gutxieneko zerbitzuak aurreikusitako zirela grebaren iraupena ikusirik, baina azkenean ez zirela gauzatu greba amaitu zelako; ondoren jakinarazi zigan gomendioa onartzen zuela, zentroak betetzen duen lana delako bertako gaixoei laguntza integrala ematea.

ZAHARREN EGOITZETAN OBRAK EGITEKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIAN EZARRITAKO BALDINTZAK BETETZEA.

Kasu honetan (03/54/B espedientea) aurkeztutako kexak zerikusia zuen Tafallako “San Manuel y San Severino” zaharretxe berria eraikitze lanen inguruan galdeturiko gai batzuei buruzko informazio faltarekin.

Kexaren egileak zioenez, haren enpresa lanean egon zen, [...] enpresak kontratatua; enpresa hori beste enpresa batek, [...] enpresak, adjudika-

zio-hartzaileak alegia, azpikontraturik zegoen, eta lanak amaituta diru kopuru batzuk ordaindu gabe gelditu ziren.

Kexa aurkeztu zigunak hainbat dokumentazio eskatu zuen bere interesen alde egiteko legezko bide guztiak erabili ahal izateko, baina Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentuak horietatik bi besterik ez zizkion helarazi: Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri zuzendari kudeatzaileak emaniko [...] ebazpena, otsailaren 27ko 9/1998 Foru Aginduen bidez onetsitako gizarte zerbitzuen arloko dirulaguntzen deialdiko urte anitzeko espedienteak ebatzi zituena, bata, eta bestea obra horien behin-behineko onarpen-akta.

Horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri Departamentura jo genuen, bai eta Tafallako San Manuel eta San Severino zahar-etxera ere, kexan jasotako gaiei buruzko informazioa izateko.

Gizarte Ongizatearen Departamentuak honako adierazi zigun partikularrak eskatutako agirien inguruan:

Zahar-etxearen lanen adjudikazioan izenpeturiko kontratua eta lanak lizitzatzeko prestatu zen administrazio klausulen plegua ez dago gure esku, zahar-etxeak berak kontratatu zituelako lanak zuzenean. Departamentuak deialdiaren bidez lanen zati bat diruz laguntzen du.

Lanen behin-behineko nahiz behin betiko onarpen aktari dagokionez, behin-behinekoa igorri zen.

Nafarroako Gobernuak lanak egiteko emandako baimenari dagokionez, ez da horrelakorik behar, eta beraz ez dago horrelako agiririk.

Nafarroako Gobernuak ez du espresuki onartzen edo ontzat ematen exekuzio proiektua, eta beraz ulertzen da onarturik dagoela, dirulaguntza ordaintzen denez.

Nafarroako Gobernuak ez ditu espresuki onartzen edo ontzat ematen aldaketak, eta beraz ulertzen da onarturik daudela, dirulaguntza ordaintzen denez.

Ez dago inolako agiririk Nafarroako Gobernuak bere ordezkariak kontratazio mahaian izendatzeari buruz.

Nafarroako Gobernuak lanak onartzean parte hartu zuen ala ez, esan behar da Gizarte Ongizatearen Zuzendaritza Nagusiari jakinarazi behar zaiola onarpen data, baina ez du onarpen horretan parte hartzen.

Lanak finantzatzeko dirulaguntzak emateari buruzko foru aginduei nahiz agiriei dagokienez,

hasierako dirulaguntza emateko ebazpena igorri genuen.”

Interesatuak eskatutakoaz gain, erakunde honek informazioa eskatu zion departamentuari espedientean ageri behar ziren beste agiri edo betebeharrak batzuen inguruan, hala baitago ezarriko gizarte zerbitzuen arloko dirulaguntzen deialdia egiten duen otsailaren 27ko 9/98 Foru Aginduen bederatzigarren eta hamargarren oinarrietan. Dokumentazioa eta jaso genuen erantzuna hauxe da:

“Diruz lagundutako lanen proiektua ez da espresuki onartzen; onartutzat ematen da, emandako laguntza ordaintzen denez gero. Espediente-an ageri dena da obren proiektuaren ale bat, erakundearen esku dagoena, baina ez dugu igorri oso handia delako.

Lanen adjudikazioa edo enkargua egiteko agiria, berriz, dirulaguntzaren hasierako %25 ordaintzeko eskatzen da, baina dirulaguntzen aurrerapean ere eman ahal dira aurrerapen osoaren zenbatekoa estaltzen duen abal bat aurkeztuz gero funtsen erabilera justifikatu arte; halaxe egin zen kasu honetan.

Dirulaguntzaren % 25, % 50 eta % 25 ordaintzeko foru aginduak edo ebazpenak erantsirik daude, bai eta 9.1.1, 9.1.2 eta 9.1.3 oinarrietan eskatutako gainerako dokumentazioa ere.

Diruz lagundutako proiektuaren aldaketak ere erakundearen esku daude.”

Zahar-etxeak gure eskaerari emandako erantzunean hauxe adierazten du:

– “Fundazioa entitate juridiko pribatua da, eta horri ez dio eragiten Tafallako Udaleko bi hautetsik patronatuko batzordeko sortzetiko kide izateak (alkatea eta gizarte ongizateko zinegotzia); bi hautetsi horiek bi boto dira 10 kide dituen patronoen batzordean; izaera pribatu horretan ez du eragiten, halaber, haren babesletza eta ikuskapen lanak Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizatearen Departamentuko Idazkaritza Teknikoaren esku egoteak.

– Fundazioaren gaineko babesletza eta ikuskapen lanak betetzen dituzten organoek eta, jakina, aginte judizialak, baimena eman dezakete intereseko dokumentazioa fundazioarekiko kontratu harremanarekin zerikusirik ez duen hirugarren baten esku uzteko.

– Fundazio honek ez daki zein den aipatzen den negozio harreman hori, [...]ren eta [...]ren artekoa alegia, eta beraz zein den bi sozietate horien

arteko kontratuaren ez-betetzearen errealitatea eta norainokoa.

– Aipatzen den dokumentazioaren zati bat eskatzailearen eskuetan zegoela lehen ere, enpresa horrek parte hartu baitzuen aldi baterako enpresa-elkarte baten barruan zahar-etxean egindako lanaren adjudikaziorako lehiaketan.

– Eskatutako gainerako dokumentazioa (zerbait Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua) eskuratzeko, gure ustez Nafarroako Gobernuak dagokion departamentura jo beharko luke.

Esandakoagatik ukatu zitzaion sozietateari eskatutakoa, eta arrazoi horiek berak dira haren legezko ordezkariari ahoz jakinarazi genizkionak.

ANALISIA

Lehenengo eta behin, kexan azaltzen den gaia aztertu aurretik, egokia iruditu zitzaigun errepikatzea departamentuari eta zahar-etxeari zuzendu genien informazio eskean aipatzen genuen muga edo bereizketa, neurri batean afera honetan esku hartzeko izan dezakegun aukera mugatu egiten baitu.

Orduan genioenez, kasu honetan bi gai ezberdin bereizi ahal ditugu: kexaren egilea zaharretxeko obran hainbat lan egin zitzan kontratatu zuen enpresak zor dituen diru kopuruak ez kobratzeari dagokiona, alde batetik, eta bestetik, Gizarte Ongizatearen Departamentuak eta zahar-etxeak berak erantzun egokirik ez ematea Nafarroako Gobernuak departamentu horrek lanei emandako dirulaguntzari buruzko dokumentazioa eskatu izanari.

Lehen esan bezala, zorretan diren kopuruak ez ordaintzeari dagokiona kontratua izenpetu zuten alderdiek ez bestek bideratu behar dute, haien arteko gatazka pribatua delako, zaharretxeari eta Nafarroako Gobernuari ezin egotz dakiekeena.

Aurrekoa argitu ondoren, kexan planteatzen ziren gaietako beste bat zen Gizarte Ongizatearen Departamentuari eta zaharretxeari zenbait agiri eskatu izanaren ingurukoa; gai horretan pentsatu genuen bidea bazegoela erakunde honek esku hartzeko, bai behintzat departamentuaren jarduketari dagokionez.

Gizarte Ongizatearen Departamentuak esandakoa dela eta, gure zeregina da alderatzea haren jarduketa eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteri kontseilariak otsailaren 27an gizarte zerbitzuen arloko inbertsioen deialdiaren oinarriak onesteko eman zuen 9/1998 Foru Aginduan agintzen dena, bereziki 9. eta 10. oinarrietan.

Horri buruz, partikularrari jakinarazteaz gain lehen esandako informazioa eta Gizarte Ongizatearen Departamentuak adierazitako asmoa, hau da, espediente osoa prozeduran parte den guztia- ren esku jartzea, zenbait zehaztapen egitea ere egokia da:

– a) Obren adjudikazioan izenpeturiko kontratuaren eta obren lizitaziorako egindako administrazio klausulen pleguaren kopiei dagokienez, esaten digutenez, “ez dago gure esku, zahar-etxea bera baita lanak zuzenean kontratatzen dituen eta departamentuak egiten duen gauza bakarra da horien zati bat diruz laguntzea deialdiaren bidez.”

Bada, otsailaren 27ko 9/1998 Foru Aginduaren 9.1.1.b) oinarrian agindutakoaren arabera, dirulaguntzaren hasierako %25 kobratzeko nahitaez aurkeztu beharreko agiritako bat obren adjudikazio edo enkarguarena zen, non adierazi behar baitziren adjudikazioaren eguna, enpresa adjudikazio hartzailearen izen eta datu guztiak eta adjudikazioaren zenbatekoa. Eta, departamentuak dioenez, 9.5 oinarria aplikatuz, ordainketaren aurrerapenak eman ahal badira ere abala aurkeztuz gero, guk ulertzen dugu horrek ez duela esan nahi oinarriak aipatzen duen agiria –ez nahitaez kontratua– ez dela azkenean ageri behar kasuan kasuko espedientearen, bertan jasotzen diren zenbait datu garrantzitsuak baitira departamentuarentzat berarentzat, adibidez, adjudikazioaren zenbatekoa.

– b) Gure ustez antzeko arrazoitzea egin daiteke 9.1.1 oinarriak b), c), d), e) eta f) letretan eta 9.1.3 oinarrian aipatzen den dokumentazioaz, kasuaren arabera garrantzia bera ez bada ere, baina edozein kasutan foru aginduak berak eskatzen duena.

– c) Nafarroako Gobernuak exekuzio proiektua onartu edo ontzat emateari dagokionez, erantzuna da “Nafarroako Gobernuak ez du espresuki onartzen edo ontzat ematen exekuzio proiektua, eta beraz ulertzen da onarturik dagoela, dirulaguntza ordaintzen denez” Horri buruz, eta lehen aipatutako foru aginduaren 9.1.1 a) artikuluan adierazitakolari jarraiki, begi-bistakoa dirudi dagokion organoak espresuki onartu beharko lukeela, nahiz eta ondorioztatzen den berez onarturik dagoela. Gauza bera esan daiteke egindako aldaketak onartzeko modu berdinari buruz, 10.2 oinarriaren hirugarren lerrokadan esaten denez. Espediente horiek eskatzen duten argitasun eta segurtasun juridikoek, kostu ekonomiko handia baitakarte, aski justifikatzen dute tramite horiek behar bezala egin beharra.

Finean, hobetu daitezkeen zenbait alderdi antzeman ditugu, ikusirik gainera departamentuak

berak eskatutakoak direla, laguntzen onuradun izateko bete beharreko baldintzak eta horiek kobratu ahal izateko aurkeztu beharreko agiriak zein diren ezartzean. Beraz, badirudi ezen ezarriarik dauden bezala bete behar direla edo, bestela, aldatu edo ordeztu beharko direla aurreko deialdietan izandako esperientzian oinarriturik, funtsezkoena errespetatuz nolana ere.

Horren ondorioz iruditu zitzaigun Gizarte Ongizate Departamentua ohartarazi behar genuela ildo horretan, formazko alderdi horiek hobetzeari begira, aipatutako espedientean, gure ustez, jarraipen egokia egiteko behar den informazio gehienaz modu batean edo bestean baliatzeko modua izan bada ere; horixe jakinarazi genion kexaren egileari, hark eskatutakoaren ildoan, eta horrekin batera adierazi gure iritziz ez dela izan hor eskubideen urraketa edo kalterik. Esandakoagatik, Gizarte Ongizatearen Departamentuari IRADOKIZUNA egin genion, aurrerantzean honelako deialdietan ezarritako formazko baldintzak, kasuan kasuko alderdiak justifikatzeari dagokionez, ezarritako moduan bete daitezten.

Azkenik, zahar-etxeari buruzko informazioa edo dokumentazioa eskuratzeari dagokionez, administrazio publikoetan aplikatzekoak diren arau eta printzipioak haren jarduketetan ere aplikatu diren ala ez aztertu ondoren, gure ondorioa izan zen ezen, dokumentazio hori bide judiziala erabiliz eskuratzeko aukera baztertu gabe, ez zela hori kasua, fundazio juridiko pribatu mota hori ez baitago sartuta Administrazio publikoaren araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen esparruan, eta ez dira beraz aplikatzekoak lege testu horren 35. artikuluan jasotako aurreikuspenak.

Egindako iradokizunari erantzunez, departamentuko kontseilariak jakinarazi zigun onartzen zuela, eta halaber laguntzen deialdia urtekoa dela eta etengabe aldatzen dela baldintzak egokitzen joateko eta halatan dirulaguntza horien kudeaketa eta kontrol hobek lortzeko.

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA

EZINTASUNA DUTEN PERTSONENTZAKO BABES PUBLIKOKO ETXEBIZITZETAKO OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA.

AURREKARIAK

Kexaren egileak (02/107/B espedientea) bere etxebizitzaren baldintzak azaldu zituen. Bertan bizi da 1993az geroztik, alokairuan, Mendillorriko (Iruñea) [...] kalean. Etxebizitza hori Viviendas Navarra S.A.rena (Vinsa) da, eta ezintasunak dituzten pertsonen errentan emateko erabilera du.

Interesatuak kexan adierazi zigun ezgaitasun larria duenez gurgildun aulkian mugitu behar duela. Berak dioenez, etxebizitzak ez ditu eguneroko elementuak behar bezala egokiturik bainugelan, komunontzia eta bideta ez daude behar bezain altu, bainuontzia dago dutxako platera beharrean, eta horrek garbitzea eragozten dio; halaber, atea zabaltzeko modua ere traba da erraztasunez mugitzeko. Era berean, salatzen ditu eraikinaren akatsak, hala nola sarrera ez dela behar bezain zabala, eta igogailurako sarrera zailtzen du; atezain automatikoa altuegi dago. Esandako traba horiek galarazten diote modu egokian mugitzea eguneroko bizitzan.

Esandakoa egiaztatzeko, salaketarekin batera Nafarroako Minusbaliatu Fisikoen Elkartea egingako txosten bat aurkeztu zuen, zeinaren ondorioetan salatzen baitira Oztopo fisiko eta zentzumenekoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legean eta hori garatzeko erregelamenduan ezarritako baldintzen hainbat ez-betetze. Kexan planteaturiko gaiez gain, txostenak eransten du bainugela barruan ez dagoela behar adina toki, eta leihoetako eskulekuak altuegi daudela erreklamazio egileak erabiltzeko. Dokumentuan aipatutako alderdi guztien neurketa zehatzak ageri dira.

Azaldutakoaz gain, kexaren egileak salatzen du bere etxebizitzaren aurrean dagoen beste batean berrogei bat pertsona bizi direla, etengabe zarataka aritzen direla, igogailua erabiltzen, kiratsa dagoela, borrokak izaten direla, eta hainbeste jende pilatzeak eragiten dituen beste arazo batzuk ere. Etxebizitza horretan daudenek ez dituzte komunitateko kuotak ordaintzen, eta horren ondorioz beste bizilagun guztiek, interesatuak barne, ordaindu behar izaten dituzte gastuak eta eraikinaren osagai komunak egoera onean edukitzeak dakartzan konponketa guztiak.

Inguruabar horiek guztiak Vinsari jakinarazi dizkio, baina ez du erantzun egokirik lortu, eta beraz erakunde honi eskatzen dio irtenbide bat bilatzeko behar diren neurriak har ditzan.

Azaldutakoa ikusirik, Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura jo genuen, interesatuarekin dagoen alokairu kontratu indardunaren baldintzei buruzko informazio eske, egiaztatzeko nori zegokion bere gain hartzea etxebizitzaren egokitzapena, bai eta gizarte alokairuko araubidean dauden etxebizitza publikoaren gaineko egiazko kontrolari ere dagokionez, jakiteko adjudikazio-hartzaileek betetzen ote dituzten kontratuetan ezarritako beharkizunak; kasu honetan, kontrol hori, gainera, partikularrak salaketa egin izanak eragin du.

Departamentuko kontseilariak, eskaerari erantzunez, hauxe adierazi digu:

“[...] andrea bizi den eraikinak duen behin betiko kalifikazioa babes ofizialeko etxebizitzarena da, eta beraz pentsatzekoa da oztopo arkitektonikoak kentzeari buruzko araudia bete egiten dela.

Nafarroako Gobernuak diruz laguntzen du [...] andrearen alokairua, haren zenbatekoaren % 75 ordainduz, baina ez du esku hartzen babes ofizialeko etxebizitzaren auzo komunitateen harreman pertsonaletan.

Vinsaren zuzendari nagusiak kasu honi buruz emandako txostena erantsirik bidaltzen dugu.”

Vinsako zuzendariaren txostenean, berriz, informazio hau eskaintzen zen:

[...] andreak etxebizitza eskaera bat aurkeztu zuen 1992ko urriaren 29an, Vinsak bere garaian Mendillorri eta Txantrea sustatu zuen arabide bereziko alokairuko etxebizitzaren kanpainarako (haren fotokopia bidaltzen dugu).

Etxebizitzarako premia puntuatzerakoan aintzat hartu zen eskatzailearen minusbaliotasuna, % 83koa, eta orduko etxebizitzara sartzeko ezintasuna zuela (etxebizitza amarena da eta Burlatako [...] kalean dago).

Eskatzaileak gehitu zion dokumentazioari Burlatako Udaleko gizarte zerbitzuen udal zentroak emandako txosten bat, Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuko zuzendari kudeatzaileari zuzendua, eta bertan aipatzen zen, [...] andrearen arazo fisikoez gain, amarekin bizitzea oso zaila egiten zitzaioela, ama ere ezindua baitzen eta nortasun arazoak zituenez etxebizitzatik alde egin behar izaten zuela askotan.

Esandako guztia zela eta, [...] andreari alokairuko etxebizitza bat adjudikatu zitzaion Mendillorri. Haren egoera zela eta, adjudikatu zitzaion ezinduentzat egokituriko etxebizitzetako bat, babes ofizialeko etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa lortu zutenak 1993ko apirilaren 15ean, inolako araurik urratzen ez duena edo, hala bada, preskribitu duena, Nafarroako Gobernuak etxebizitza zerbitzuak 2002ko apirilaren 3an eginiko txosten baten arabera.

Puntu honetan azpimarratu nahi dugu Vivendas de Navarra, S.A.k (Vinsa) zorrotz betetzen duela sustapen guztietan ezinduentzat egokituriko etxebizitzaren erreserba, legeak ezarritakoa. Sale-rosketako etxebizitzaren sustapenetan, hasiera-hasi-eratik jakina denez zein diren adjudikazio hartzaileak eta haien inguruabarrak, etxebizitza erabat egokitua dago inguruabar horietara (bainontzia

kenduta, garabietarako erreiak jarrita, entzumeneko arazoak dituztenentzako argi sistemak), eta zenbait sustapen zehatzetan eskatutakoak baino etxebizitza gehiago egokitu dira (minusbaliatuen elkarteko arduradunek badute horren berri).

Baina alokairuko etxebizitzetan, egokitzapenak legeria indardunak eskatutakoak baizik ez dira, etxebizitza errentan hartu duena ez delako ezagutzen etxebizitza eman arte, hots, lanak amaiturik daudenean eta aldatetako egiteko aukera txikiagoa denean. Minusbaliotasunaren maila eta mota bakoitzak behar ezberdinak dituenez, legeria indardunean eskatutakoari lotzen gatazka, horrelako arazoak dituzten ahalik eta pertsona gehien baliatu ahal dadin etxebizitza horiez.

Nolanahi ere, [...] andreak hartu zuen etxebizitza bere egoerara egokitu zen, kontuan hartu baitziren alokairuko lehendabiziko kontratuaren hasierako hilabeteetan luzatu zizkigun iradokizunak.

Etxebizitza Departamentuaren txostenaren arabera une hauetan kontuan har litekeen alderdi bakarrari dagokionez, hau da, atariko txirrinen altuera aldatzeko iradokizuna, beharrezkoa balitz, ez dugu ulertzen zergatik den beharrezkoa aldaketa hori, Fernández andrea delako kontratuaren titular bakarra eta bere giltzak erabiltzen dituelako atarian sartzeko. Bestelakoa litzateke kasua txirrinen erabiltzailea adin txikiko bat balitz, txirrinaren beharra edukiko lukeena atarian sartzeko.

Alokairuko kontratuan ez da aipatzen nori dagokion etxebizitza horiek egokitzea, eta beraz arlo honetako legeria orokorrari lotu behar gatazka.

Titularitate publikoko etxebizitzaren kontrolari dagokionez, alokairuan daudenek hileroko kuotak ordain ditzaten ziurtatzera mugatzen da. Alokairuko komunitate guztietan izaten dira, etxebizitzaren gaineko kontrola egon nahiz ez, bizikidetasun arazoak auzoen artean (droga trafikoa, emakumeen kontrako tratatu txarrak, bortxaketak, auzoek elkarri eragindako lesioak eta abar), eta guk, zorritzarekin ezin dugu ezer egin gerta ez daitezen.

Jasan dugun gatazka horietako bat [...] andrearen komunitatean gertatu zen. [...] andrearen solairu bereko beste etxebizitza alokairuan hartu zuten lehenbizikoek arazo handiak ekarri zituzten komunitate osoaren bizikidetzari begira, bertako prentsan ere agertu ziren eta, ez ordaintzeagatik, maizter-iraizpeneko epaiketa izan ondoren etxebizitza utzi zuten. Etxebizitza hartu zuten hurrengo kasuan ere maizter-iraizpena izan zen ez ordaintzeagatik, [...] andreak behin eta berriz protesta egin baitzuten haien jokabideagatik; egoera hori

errepikatu izan da [...] zenbakiko atarira joandako bizilagun berri guztiekin.

[...] andreak aipatzen dituen bizilagunei dagokienez, ordainketetan izan duten jokabidea eraikineko beste bizilagunenaren antzekoa da, eta eraikinen administrazioari galdetuta, jakin dugu andre horrek ez duela bere gain hartu behar izan inolako zenbateko gehigarririk komunitateko kuotak beste auzoek ez ordaintzeagatik. Egun, aipatzen den komunitatearen zor hori hiru hilekoena da, alokairuan dauden beste askorena baino askoz txikiagoa. Etorकिन familia ugari bat da, askotan Caritasen laguntza jasotzen duena etxebizitzaren gastuak eta komunitatea ordaintzeko, Vinsarekin alokairuko kontratua duten beste askorekin egiten duen bezala.

ANALISIA

Espediente honetan pentsatu genuen gai bakoitzak bere azterketa bereizia behar zuela. Lehendabizikoa, ia izan den Oztopo fisiko eta zentzumenezkoei buruzko uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legearen eta hori garatzeko ekainaren 29ko 154/1989 Foru Dekretuaren bidez onetsitako erregelamenduaren ez-betetzetik, eta beraz eska daitkeen orain etxebizitza egokitzea arau horietan xedatutakora. Bigarren gaia, berriz, Vinsak, etxebizitzen entitate jabea den aldetik, izan ditzakeen betebeharren ingurukoa da, hau da, ea bermatu behar duen bizilagun guztiek behar bezala erabiltzen dituztela etxebizitzak eta beraz ez dela urratzen erreklamazio egileak bere etxean lasaitasuna eta intimitatea izateko eskubide legitimoa.

1. Oztopo arkitektonikoak kentzeari buruzko araudiaren irispena.

Uztailaren 11ko 4/1988 Foru Legearen aplikazio esparrua 1. artikuluan dago arautua; eraikinei dagokienez, agintzen du aplikatu behar dela (2. idatz-zatia) "eraikin berriak egin, edo handitu, eraberritu, egokitu, hobetu edo erabilera aldatzeko lanak diseinatu eta gauzatzeko, betiere jendeak erabili edo ibili beharreko eraikinak eta lokalak badira, bai titularitate edo jabari publikokoak bai pribatukoak". Ikus daitkeen bezala, arauak soil-soilik aipatzen ditu "jendeak erabili edo ibili beharreko" eraikin-zatiak; beraz, arau hori ezin da aplikatu bizitokitza duen jabe edo maizterrak soilik erabiltzekoak diren etxebizitzako eremu edo barne-zerbitzuen diseinu-baldintzak zehazteko.

5. artikulua, bestetik, irizpide gisa errepikatzen du lege horren aplikazio-esparruan daudela "jendeak erabili edo ibili beharreko" eraikinak eta lokalak, eta kontzeptu horren barnean sartzen dituenak zerrenda luze batean biltzen ditu:

eraikinetarako sarbideak, oinezkoen ibilbideak, jendeak erabiltzekoak diren gunetan kokaturiko lokal eta eremuak, erkidegoak erabiltzekoak diren lokalak, jendeak erabiltzekoak diren zerbitzu higienikoak, bai eta erabilera pribatukoak ere, jendeari irekitako establezimenduetan, garaje-plazak eta horietarako sarbideak, komunikazio horizontal nahiz bertikaleko elementuak, hala nola korridoreak, zoladurak, ateak, igogailuak, arrapalak, eskailera eta jendearen zerbitzurako ipintzen diren gainerako altzari-elementuak ere.

Arauk zerrendatzen dituen kasu horiek guztiak legearen aplikazio-eremupean daude, soil-soilik, jendeak erabiltzeko edo ibiltzekoak diren neurrian, hori baita legeko arauketa justifikatzen duen irizpide erabakigarria. Aitzitik, arau horiek ez dira etxebizitzaren barnealdeko eremu eta elementuei aplikatzekoak, ez baitaukate "jendeak erabili edo ibiltzekoak" ezaugarri hori; horrela, bada, administrazio publikoak ezin dira behartu etxebizitzaren eraikuntzan araudi hori aplikatu eta betearaztera, salbu eta, esan dugun bezala, "jendeak erabiltzeko edo ibiltzeko" delako betekizun hori betetzen duten eraikuntza-elementuen, zerbitzuen eta altzarien diseinuan.

Gai hori zedarritu ondoren, kexaren lehen zergatia aztertzeari ekinen diogu, aipaturiko araudia aintzat harturik betiere. Salatzen da atezain automatikoaren txirrinak baimentzen den baino altuera handiagoan daudela: 1,48 metrora, lehen solairukoa; eta 1,60 metrora, azken solairukoa. Zer esanik ez, guztien erabilerarako da elementu hori eta, adierazten den bezala, aipaturiko legea garatzen duen 154/1989 Foru Dekretuak etengailuetarako zehazten duen altueraren (gehienez ere metro bat, zoladuratik neurtua) gainetik kokatua dago. Eztabaidatu ahalko litzateke ea parametro hori atezain automatikoei aplikatu dakiekeen, baina pentsatzen dugu baietz, instalazio horietako txirrin bakoitza teknikoki etengailu bat baita. Gainera, I. eranskinean, zeina parametro antropometrikoei buruzkoa baita, zehazten da aulki gurgildunak erabiltzen dituzten pertsonentzat eroso den gehieneko altuera 70-100 zentimetrokoa dela, eta 140 zentimetrokoak, guztiak manipulatu behar direnean. Ziur aski, Vinsaren txostenak adierazten duen bezala, arazoa ez da hain larria izanen, [...] andreak ere bere giltzaren bitartez sartzeko modua egonen baita, baina, hala eta guztiz ere, aitortu behar da etxe barrura sartzeko sistemaren instalazioa ez dela egokia, eta horregatik administrazioari gogorarazi behar zaio indarreko araudiaren arabera jokatu behar duela, balizko irregulartasunak preskribitzen badu ere.

Halaber, badirudi etxebizitzatik igogailura sartzeko plataformak ez dituela errespetatzen errege-lamenduko 7. artikuluko C-3 atalak zehazturiko neurriak; izan ere, bertan esaten da atearen ibilbideak hartzen duen tokiak gutxienez ere 150 zentimetroko diametroa izan behar duela. Dena den, ezaugarri horri dagokionez esan behar dugu etxea horretara egokitzeko soluzioa oso zaila izan daitekeela, behar den tokia lortu ahal izateko beharrezkoa bailitzateke toki hori etxebizitzari kentzea. Eta baliteke soluzioa ezinezkoa izatea, egiturako elementuak ukitzea beharrezkoa balitz. Beraz, ez da gomendagarria horrelako aldaketak egitea, kontuan izanik igogailura sartzeko orain arte izandako tokia behar bestekoa izan dela azken urteotan. Hori ez da eragozpen, dena den, administrazioari gogorarazteko ezen sustatzen edo baimentzen dituen eraikinen diseinuak betiere bermatu behar duela alor honetan aplikatzekoa den araudia errespetatzea.

Bainugelari dagozkion puntuei buruz, jadanik adierazi dugu Vinsa ez dagoela inolako aldaketa egitera behartua, ez baitira bizilagun guztiek erabiltzekoak diren elementuak; hori dela-eta, aitortu behar dugu araudia bete dela.

Alabaina, gai honetan zenbait gogoeta eginen ditugu, antolamendu juridikoak erdietsi nahi dituen helburuen ildotik.

Oro har, nahiko sinplea eta kostu gutxikoa iruditzen zaigu obrei ekin aurretik gogoan hartzea herritar ezgaituei alokatzera bideraturiko etxebizitzek izan beharreko ezaugarriak; horretarako, zenbait estandar ezar daitezke, ezgaitu gehienei egokituriko etxebizitzak diseinatu ahal izateko. Adibide modura, bainuontzi bat jarri beharrean dutxa-platera hautatu izanak posible egiten du bainugela errazago egokitu ahal izatea ezgaitasun-mota ezberdinei, eta gainera, soluzio merkeagoa da. Ateen eskulekuen altuera axolarik gabeko gai bat izan daiteke ezgaitu askorentzat, baina oso eroso beste batzuentzat, eta abar. Etorkizunari begira, soluzio hori erraza da benetan, eta administrazio publikoek aurreikuspen gehixeagoz jokatzeko berririk ez du eskatzen.

Aurkeztu zaigun kasuari eta egon daitezkeen antzeko beste batzuei dagokienez, badirudi [...] andreari etxebizitzaren erabilera errazteko beharrezkoak diren egokitzapen funtzionalak ez direla bereziki garestiak; izan ere, dirulaguntza publikoak ere badaude, etxebizitza babestuak alokatuak dituzten jabeek ezgaituen mesedetan eraldatu ahal izan ditzaten. Horrela, urriaren 1eko 276/2001 Foru Dekretuak laguntza horiek jasotzen ditu 58. artikuluan eta 91. artikulutik 95. erainokoetan. Hor-taz, administrazio publikoak ez baldin badie ez-

ikusiarera egiten herritar ezgaituek pairatzen dituzten arazoei, badago arrazoirik Vinsari iradokitzeko ezen, etxebizitzan jabea den aldetik, komeni diren eraldakuntza-lanak susta ditzala. Modu egokia izanen litzateke hori Konstituzioko 47. artikulua espainiar herritar guztiei aitortzen dien eskubidea bermatzeko; alegia, etxebizitza duin eta egokia eskuratzeko eskubidea.

2.- Maizterrek etxebizitza babestuak behar bezala erabiltzen dituztela ziurtatzeko etxebizitza horien jabeek daukaten betebeharraren norainokoa.

Bigarrenik, Vinsaren posizioa aztertu genuen, etxebizitzan jabea den aldetik ziurtatu behar baitu etxebizitza horiek esleituak dituzten pertsonak (alokairuaren edo beste edozein moduren bitartez esleituak dituztenek) behar bezala erabiltzen dituztela. Gure ustez, etxebizitzan jabea den administrazioak, hileroko alokairu-sariak jasotze hutsaz haratago, badauka betebeharrak, bizilagun guztiek etxebizitzak behar bezala erabiltzen dituztela zaindu eta babestekoa, kexa-egileak bere etxean lasai eta intimitate giroan egoteko duen eskubide zilegia urra ez dadin. Horretarako, eskubide horri eraso egiten dioten pertsonen aurka jardun behar du, eta soluziorik egokienak bilatu behar ditu, hori guztia uztailaren 24ko 2114/1968 dekretuak ezarritakoari jarraikiz, zeinak onesten baitu Babes ofizialeko etxebizitzan testu bategina garatzeko Errege-lamendua.

Vinsak bidalitako txostenean adierazten da ezen beste maizter batzuei maizter-iraizpeneko epaiketa egin zitzailela. Beraz, organismo horrek aitortzen du ez dela mugatzen kuotak kobratzera soilik, hasiera batean esaten duen bezala. Lehen aipaturiko erregelamendu berak, zeina oraindik indarrean baitago, maizter-iraizpeneko sistema bat ezartzen du, eta horretan kausa zilegia da kuotak ez ordaintzea eta bizikidetasun-arauak larriki urratzen dituzten ekintzak egitea.

Konturatzen gara administrazioak behar adina bitarteko juridiko dituela egoera hau normalizatu ahal izateko, eta ez duela soilik mugatu behar kuotak kobratzera. Iritzi horretakoa da Vinsa bera ere, etxe horretan bertan lehenago ere beste maizter-iraizpeneko kasu batzuk izan direla adierazi baitu; beraz, interesdunak aipaturikoa bezalako egoerak gertatzen direnean ere modu horretan bertan jardun behar duela deritzogu.

Dena den, arretaz eta zorroztasunez jokatu behar da horrelako arazoekin jardutean, egoera hauek pairatzen dituzten pertsonen ezaugarriak gogoan izanik; horrek behartzen du baliabide federaileak erabiliz egiaztatzea ea, kexan esaten

den bezala, etxebizitzan egiazki 40 pertsona bizi diren eta bizikidetzak kaltetzen duten askotariko anomaliak erregulariki gertatzen diren; izan ere, baiezkoan, bestelako soluzio batzuk bilatu behar-ko lirateke, ukiturikoen gizarteratze egokia sustatu ahal izateko eta bestalde, [...] andreak duen esku-bide zilegia, bere etxean lasai eta intimitatean egotekoa, bermatzeko. Laburbilduz, baldin eta salaturiko gertaerak frogatzen badira, administrazio publikoak eraginkortasunez esku hartu behar du egoera konpontzeko; horretarako, arlo horretan espezializaturiko bestelako erakunde eta funtzionarioekin koordinatzeko urratsak ere eman ditza-ke, neurririk egokienak har daitezten.

Azaldutakoa dela-eta, Nafarroako Gobernuak Etxebizitza Departamentuari LEGEZKO BETEBEHARRREN GOGORARAZPENA egin zitzaion, eraikinean guztiek erabiltzekoa den zatia oztopo fisiko eta zentzumenezkoen arloko indarreko legedira egokitu dezan, eta aurrerantzean etxebizitzak sustapen berrietan legedi hori errespetatu dadila ziurta dezan.

Bigarrenik, IRADOKIZUN bat egin zen, proiektuan dauden eta herritar ezgaituei alokairuan ematekoak diren etxebizitzak barne-diseinua egin dadin etxebizitzak funtzionalki egokitzeko haien egoerari, eta gaur egun alokairuan emanda dauden etxebizitzak –besteak beste, erreklamazio-egilearen etxebizitzaren– barne-eraldaketa sustatu dezan, haiek ere estandar horietara egokitzeko eta duten funtzionaltasuna betetzen dutela ziurtatzeko.

Departamentu horrek ohar horiei erantzun zien txosten baten bitartez, non esaten baitzen espediente honetan egin genituen legezko betebeharren gogorazpenean eta iradokizunean esandakoa beteko zela. Horretarako, jakinarazten zuen ezen Vinsa entitateari eskatuko ziola ezkaratzeko txirri-rik jar zitzaion zoladuratik 1,40 metro baino gutxiagoko altuera batean, eta, ahal zuen neurrian, bizilagun batzuek sortzen dituzten bizikidetasun-arazoak konpontzeko esku har zezan. Halaber adierazten zuen etxebizitza-sustapen berriak egiten zirela oztopo fisiko eta zentzumenezkoen arloko legeak errespetatuz, begi-bistakoa den bezala.

Azkenik, adierazi zitzaigun onartu egiten zela eginiko iradokizuna, alegia, herritar ezgaituei alokatzera bideraturiko etxebizitzak eraikitzea araudi orokorrean ezarritako estandarren arabera; dena den, gaur egun alokairuan emanda dauden etxebizitzak barruko egoerari dagokionez, esaten zitzaigun ezen, kapital publikoko Vinsa enpresaren sustapenetan behintzat, ahaleginak egiten direla etxebizitzak barrutik egokituak egon daitezten zentzumenezkoen arloko legeak errespetatuz, begi-bistakoa den bezala.

OZTOPO ARKITEKTONIKOAK KENTZEA HAUTESLEKUETAN.

Minusbaliatu fisikoaren kolektibo batek bere kezka adierazi zigun (03/41/B espediente), datoren maiatzeko hauteskundeetan ustez hautesleku izanen diren eremu batzuen irisgarritasun-eza dela-eta.

Adierazi dizkiguten egoeren erakusgarri, honako hau: alkate batzuek, gai hau aipatu zaienean, erantzun dute esanez ezen, beharrezkoa izanez gero, eskaileretatik igotzerik badagoela, Gurutze Gorriko laguntzaileek sorbalda gainean hartuta.

Horrelako egoerak gogoan izanik, eta ikusirik nolako zailtasunak zeuden 2003ko maiatzeko hauteskundeetarako aldatu ahal izateko hautesleku izanen ziren lokalen kokalekua, bai eta haietan behar diren egokitzapenak egiteko ere, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakariari gai honen berri eman genion, entitate horrek kezka hau nolabait helaraz ziezaien Nafarroako udalei, geroago haiek, egoki denean eta ahal den neurrian, behar diren soluzioak har ditzaten, pertsona horiei ahalbidetzeko botoa emateko duten eskubidea irisgarritasun-baldintza egokietan gauzatzea, eta horrela lortzeko, maiatzeko hauteskundeetan edo, gutxienez ere, 2004rako aurreikusitako hauteskundeetan, azaldu digutena bezalako egoerak ez gertatzea.

Ikuspegi horretatik, pentsatu genuen ezen entitate horren bitartez arazoaren berri emanez Nafarroako udalei, lortuko zela azalduriko problematika ezagut zezaten eta, gainera, entzuteko jarrerarik onena izan zezaten.

Guk eginiko lankidetzak-erakari, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioko lehendakariak erantzun zion esanez: “toki entitate guztiei adierazi diegu, astero posta elektronikoz igorri ohi diegun gure aldizkari digitalaren bitartez, arartekoaren erakundeak kezkatua dagoela pertsona ezgaituek botoa emateko eskubidea baldintza egokietan gauzatzeko daukaten eskubidea bermatu behar-arekin eta horretarako ahaleginik egin gabe ez uzte-arekin.”

Halaber, idazki horretan jakinarazten zitzaigun Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak (NUKF) urte asko daramatzala era askotako gune eta erakundeetan bere kezka plazaratzen, bereziki Gizarte Ongizate Departamentuan dagoen Oztopo fisiko eta zentzumenezkoen departamentu-arte-ko Batzordean (bertako kide da), eraikin, zerbitzu eta azpiegiturek ezgaituentzat daukaten irisgarritasunari buruz eta eraikin eta zerbitzu publikoei dago-kienez hura hobetzeko neurriak hartu behar-arekin buruz.

Gai hori jorrazteko eskatuz guregana jo zuten pertsonen informazio hori igorri ondoren, Estellerriko udalerrietako (Lizarra, San Adrián, Andosilla, Villatuerta eta Deierri) hautesleku jakin batzuetako egoera zehatzaren berri eman zitzaigun, eta hori ikusirik, idazki bat bidali genuen udal horietara, bakoitzeko kasu zehatza ezagutzeko eta galdetzeko ea ba ote zegoen asmorik arazo hori konpontzeko inolako neurririk hartzeko; funtsean, 2004an izanen diren hauteskundeetara begira.

Udalek bidalitako erantzunetan, baten batek jakinarazi zigun erabakita zegoela hurrengo hauteskundeetarako hauteslekuak herriko ikastetxe publikora lekualdatzea, irisgarritasun-baldintza egokiak betetzen zituelako; beste batzuek zioten behar ziren obrak eginen zitzutela, hauteslekuan arrapala bat jartzeko edo bertan zeuden oztopoak kentzeko; azkenik, besteren batek adierazi zigun jadanik aztertzen ari zela zer aukera zegoen sorturiko arazoa konpontzeko, hurrengo hauteskundeak gogoan izanik, eta behar ziren neurriak hartuko zirela, edozein hauteslek bere boto-eskubidea gauzatu ahal izateko.

II- 03. KULTURA, KIROLA ETA ELEBITASUNA

KULTURA

TITULURIK EZ DUTEN ARTELAN-ZAHARBERRITZAILEEI LANBIDE-GAIKUNTZA EMATEA.

Bi profesional artelan-zaharberritzailek, zeinak funts publikoekin artelanak zaharberritzeko lehenago zenbait aldiz kontratatuak izan baitziren, kexa bat aurkeztu zuten (02/73/C espedientea), artelanak zaharberritzeko xedez enpresei kontratuak esleitzeko metodoa zela-eta.

Horri buruz, azaldu ziguten zer-nolako arazo sortu ziren interes kultural eta artistikoko ondasun higigarriak Iruñeko Artzapezpikutzak zaharberritu zitzaizkion emandako laguntzen eta horri buruz Compotos Ganberak 1998ko otsailean eman zuen txostenaren ondorioz (txosten horretan zenbait gomen dio egin zituen; besteak beste, komenigarria zela arau orokorrak ematea, laguntza-eskaeretan erantsi behar ziren aurrekontuen edukia eta kopurua zehazteko; halaber, hautaketa-batzorde teknikoaren osaketan izandako irregulartasun batzuk aipatzen zituen; izan ere, bertan Iruñeko Artzapezpikutzak parte hartzen zuen, zeina dirulaguntzak eskuratzeko alderdi interesatua baitzen). Ondasun horien kontserbazioa eta zaharberritzea kontratatze aldera Vianako Printzea Erakundeak aplikaturiko irizpide eta prozeduren berri ere ematen zuen.

Azaltzen zutenez, laguntzak ematean eta lanak esleitzean izandako irregulartasun batzuk salatu

ondoren, Vianako Printzea Erakundeak eskatzen hasi zen obra-zuzendariak zaharberritze-lanetan lizentziatuak edo diplomatuak izan zitezela, lizitazioetan parte hartu ahal izateko. Hasiere batean, eskaera horri erantzun ahal izan zioten zuzendari tituludunak ezarri. Hala eta guztiz ere, geroago zaharberritze-taldeetako kide guztiek titulazioa izan zezatela eskatu zen; horrela, lehiaketetan parte hartzea eragotzi zaie titulaziorik ez daukaten enpresa edo profesionalen, nahiz eta arlo honetan esperientzia luzea eta baliotsua daukatela erakutsi duten.

Halaber adierazten zen Nafarroako Parlamentuak aho batez onetsi zuela Hezkuntza eta Kultura Batzordearen mozio bat, zeinak, sorturiko problematika aztertu ondoren, titulaziorik ez daukaten artelan-zaharberritzaile profesionalen gaikuntza profesionaleko prozedura bat ezartzearen aldeko jarrera azaldu baitzuen. Mozioa talde politiko guztiek onetsi zuten, aho batez. Alabaina, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, orain arte, ez dio jaramonik egin Parlamentuaren eskaerari.

Horregatik eskatzen zuten Nafarroako Parlamentuak onetsirik lanbide-gaikuntza eman zekielako eta ondasunen zaharberritzea kontratatze arau argiak ezar zitezela, berriro lanari ekin ahal izan ziezaioten.

Hezkuntza eta Kultura Departamentutik bidali ziguten txostenean hauxe esaten zen lehenbiziko gaiari, alegia, zaharberritze horiek kontratatze moduari, dagokionez: orain dela zazpi urte ingururik departamentu horrek bere gain hartzen duela zaharberritze-lanen kontratazioa, eta horrela ordeztu egin dela dirulaguntzak emateko aurreko sistema, halako moldez non gaur egun bere gain hartzen baititu Nafarroan egiten diren horrelako ondasunen zaharberritze-lanak.

Halaber, Nafarroako Kultur Kontseiluko Ondare Batzordea eratu zela jakinarazi zitzaigun. Aipaturiko organoak duen zeregina da ondasun higigarri garrantzitsuenen (erretaulak, organoak, urrelanak eta bestelako piezak) zerrenda bat egitea, interes kulturalako ondasun gisa deklaratzeko balio artistikorik handienekotzat jotzen direnak. Deklarazio hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen da. Adierazten denez, ondasunen kontserbazio-egoera zehazteko beharrezkoak ziren ikuskapenak egin ondoren, egin beharrekoak ziren zaharberritze-lanak eta enpresa espezializatuak lehiaketa publiko bidez kontratatzea erabaki zen, hori guztia Kontratuei buruzko Foru Legean ezarritako prozedurei jarraikiz.

Administrazio publikoarekin ondasun higigarrien zaharberritzeak kontratatu ahal izateko eskaturiko titulazioari dagokionez, esaten zen "gogorarazi behar dugu Europar duela urte batzuetatik mugimendu integratzaile profesional bat gauzatu ari dela, ondasun kulturalen kontserbatzaileen eta zaharberritzaileen lanbidea definitzeko lanean diharduena, bai eta kode deontologiko bat sortzeko eta europar ikuspegi batetik zuzenbide, lanbide eta prestakuntza arloetako gaiei heltzeko ere. Aurreko egoeraren ezaugarri dira ondasun kulturalen kontserbatzaile eta zaharberritzailearen lanbide profilarren heterogeneotasuna, definiziorik eza eta sakabanaketa.

Espanian, ondasun kulturalen kontserbazio eta zaharberritzearen arloan lan egitea ahalbidetzen duen titulazio ofiziala oso zehatza da, eta bi bide eskaintzen ditu:

A) Batetik, Ondasun Kulturalen Kontserbazio eta Zaharberritze Diplomatura, zeina irakasten baitute Madril, Bartzelona, Pontevedra eta Huescako goi mailako kontserbazio eta zaharberritze eskoletan. Titulazio hori Hezkuntza Ministerioak arautu zuen irailaren 18ko 1387/1991 Errege Dekretuaren bitartez (1991-10-30eko Estatuko Aldizkari Ofiziala), zeinak onesten baititu ondasun kulturalen kontserbazio eta zaharberritzeko curriculumeko gutxieneko irakaspenak, bai eta ikasketa horietarako sarbidea arautu ere, eta 1991ko urriaren 28ko Ministerio Aginduaren bitartez (1991-11-01eko Estatuko Aldizkari Ofiziala), zeinak ondasun kulturalen kontserbazio eta zaharberritzeko irakaskuntzetako curriculumak onesten baitu eta irakaspen horiek arautzen baititu. Ikasketa horiek egin ahal izateko eskatzen da batxilergo titulua edukitzea eta sartzeko proba gainditzea.

B) Bestetik, Arte Ederretako Lizentziaturako zaharberritze espezialitatea dago. Ikasketa horiek egin daitezke Arte Ederretako Fakultateetan (Madrilgo Complutense Unibertsitatea, Valentziako Unibertsitate Politeknikoa, Euskal Herriko Unibertsitatea...). 1987an arautu ziren, azaroaren 27ko 1497/1987 Errege Dekretuaren bitartez, zeinak unibertsitate-ikasketen araubide orokorra ezartzen baitu, eta Hezkuntza Ministerioari urriaren 26ko 1432/1990 Errege Dekretuaren bitartez, zeinak ezartzen baititu Arte Ederretan lizentziatuaren unibertsitate-titulua ofiziala eta hura lortzera bideraturiko ikasketa-planei dagozkien jarraibide orokor berekiak. Europar Batasuneko titulu baliokideak ere onartzen dira.

Ondare historikoa osatzen duten lan eta objektuak kontserbatu eta zaharberritzeko eginkizunen ardura eman behar zaien profesionalak prestatzera bideraturiko ikasketetako curriculumak eta arau-

bidea horrelaxe daude, bada, ezarrita. Hala Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak nola autonomia erkidegoek printzipio hori aplikatzen dute; hain zuzen ere, kontratazio publikoetan titulazio horiek eskatzea erakartzen duen printzipioa.

Titulurik gabeko zaharberritzaileei gaikuntza profesionala emateko balizko sistema bati dagokionez, abiapuntu gisa hartu behar dugu akademi eta lanbide titulazioak eskuratu, luzatu eta homologatzearen arloan estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko eskumen-banaketa egiten duten arauen analisia. Arau horiek dira Espainiako Konstituzioa eta Foru Hobetzea. Horietako lehenak 149.1.30 artikuluan dioenez, honako gai hauek estatuaren eskumen eskusibokoak dira: "30. Titulu akademikoak eta lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzak arautzea".

Horri jarraikiz, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Legeak 47. artikuluan xarri ezartzen du: "Nafarroak eskumen osoa du irakaskuntzaren arauak eta administrazioan, bere zabalera, maila eta gradu, mota nahiz espezialitate guztietan, deusetan ukatu gabe gai honi buruzko manu konstituzionaletan ezarritakoa, ez horiek garatzen dituzten lege organikoak, ezta ikasketa nahiz lanbide tituluak eskuratu, eman eta baliokidetzeko, hala nola berauek bete eta bermatzeko estatuak duen goi-ikuskaritzaren baldintzak arautzeari dagokionez estatuak dituen eskumenak ere."

Bi artikuluen irakurketatik argi eta garbi ondorioztatzen da titulu akademikoak eta lanbide-tituluak arautzeko eskumena estatuaren eskumen eskusiboa dela, eta Nafarroako Foru Komunitateak ez daukala horretarako eskumenik."

ANALISIA:

Bidali zitzaigun txostenetik ondorioztatzen zen Nafarroako Gobernuak bere gain hartzen ari dela interes kulturalerako deklaraturiko ondasun ia guztien zaharberritzea, eta ildo horretatik, zaharberritze-lanez arduratuko diren enpresak edo profesionalak hautatze aldera, Kontratuei buruzko Foru Legeak jasotako bitartekoak erabiltzen dituela. Hezkuntza eta Kultura Departamentuari dagokio zehaztea lanak behar bezala egiten direla ziurtatze aldera lizitatzaileek zein betekizun bete eta frogatu behar dituzten, legeak horretarako ematen dion erabaki-ahalmen handia erabiliz.

Horri buruz, gogorarazi behar da ezen zuzenbidearen arabera ahalmenak erabili behar direla zuzenbideko printzipio orokorren arabera, eta arbitrarotasunerako tarterik ezin dela utzi kontratista egokiena hautatzeko balio duten irizpideak zehaz-

tean. Irizpide horiek hautatu beharko dira zaharberritze-lan bakoitzaren izaera eta ezaugarriak aintzat harturik, lanen zailtasuna eta eskatzen dituzten jakintza teknikoak behar bezala neurtu ondoren. Kasu bakoitzak trataera berariazkoa behar du, eta ez da zilegi irizpide orokor bat inposatzea, zeina gehiegizkoa edo urriegia izan baitaiteke zaharberritze-lan bakoitzaren eskakizunekin alderatuta, zeren eta irizpideen hautaketak neurrikoa izan behar baitu: ez da beti beharrezkoa izanen eginkizun horiek goi-mailako tituludun adituen eskuetan ipintzea, eta modu berean, ez da beti posible izanen haiek gabe jardutea kasu batzuetan, hots, zaharberritze-lanaren konplexutasunak horretara behartzen duenean.

Esandakoa ez da oztopo izanen administrazio publikoek ondasun higigarrien zaharberritzearen arloan gaitasuna eta esperientzia daukatela frogatu duten profesional adituak kontratatu ahal izateko, baita unibertsitate-titulaziorik ez dutenean ere. Aitzitik: batzuetan gomendagarria izan daiteke haiek kontratatzea, lanen zailtasunak eskakizun zorrotzagoetara behartzen ez duenean. Kasu horietan, zilegi da titulaziorik ez duten profesional-taldeak kontratatzea, baldin eta arlo honetan behar adinako gaitasuna eta jakintza, zaharberritze-lan bakoitzaren ezaugarriak aintzat harturik, daukatela frogatu badute; halaber eska daiteke zaharberritze-lan gauzatzea goi edo erdi mailako teknikariek ikuskatzea. Esan dugun bezala, kasu bakoitzak behartzen du administrazioak eskatu behar dituen lanbide-ezaugarriak baloratzera.

Azken batean, garbi utzi nahi duguna da titulurik gabeko horrelako profesionalak kontratatzea ez dela legearen kontrakoa eta, halaber, ez dela arlo honetan intrusismoari mesede egiteko modu bat. Izan ere, zaharberritze-langintzan haiek eginiko lana erdi edo goi mailako tituludunek egiten dutena bezain zilegia da. Gure aburuz, profesional batzuk ala besteak hautatzeak soil-soilik zaharberritze-lan bakoitzaren ezaugarrien arabera behar du izan.

Alabaina, badirudi Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuak azkenaldi honetan kontrataturiko ondasun higigarrien zaharberritze-lan guztiak arlo honetan titulazio ertain edo goi-mailakoa izatearen baldintza betetzen zuten enpresa edo profesionali adjudikatu zaizkiela, nahiz eta eskakizun horretatik ezin dugun ondorioztatu halako baldintza koherentea denik ezarritako eginkizunen zailtasunaren norainokoa-rekin. Hala eta guztiz ere, gure iritzia adierazi nahi dugu Nafarroako ondasun higigarrien kontserbazio eta zaharberritze lanak arautzeari dagokionez departamentu horrek dituen aukera juridikoei

buruz, titulaziorik gabeko zaharberritzaileentzat irtenbide bat aurkitzearen, azken urteotan jasaten ari diren egoera kezagarria dela eta –izan ere, egin den txostenetik ondorioztatzen den bezala, zaharberritze-lanetarako deialdietara aurkezteko aukerarik gabe geratu bide dira, funts publikoekin finantzatzen direnetarako bederen; baina horrelakoak dira, txostenak dioenez, dauden ia guztiak–.

Nafarroako Parlamentua izan zen 2000. urtean ohartarazi zuena ezen profesional horiek, interes kulturalako ondasun higigarrien zaharberritze-langintzan urte askoz aritu ondoren, langabeziara bultzatuak izan direla, nahiz eta, lehenago, beren lanak Vianako Printzea Erakundearen beraren oniritzia izan zuen, kexa honetan erakutsi duten bezala. Horregatik, Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza eta Kultura Batzordeak mozio bat onetsi zuen, honakoa dioena: “Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du lanbide-gaikuntzako prozedura bat ezar dezan espezialitate honetako titulazio akademiko bat sortu baino lehenagotik lanbide honetan diharduten titulurik gabeko zaharberritzaileen egoerari irtenbidea emateko”. Mozio hori aho batez onetsi zen. Hala ere, Nafarroako Gobernuak ez du hori bete, eta hori da kexa honetan egiten zaigun eskaeraren arrazoia.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak arlo hau arautzeari emandako ezetzaren oinarri gisa, txostenak dio interes kulturalako ondasunen kontserbazio eta zaharberritzearen alorrean lan egitea ahalbidetzen duten titulazio ofizialen arauketa oso zehatza dela, eta bi bide eskaintzen dituela: Ondasun Kulturalen Kontserbazio eta Zaharberritze diplomatura, batetik, eta Arte Ederretako lizentziaturako zaharberritze-espezialitatea. Titulazio horiek orain dela nahiko denbora gutxi sortu ziren, txostenean ikus daitekeen bezala. Halaber zehazten da Nafarroako Gobernuak ez daukala eskumenik titulurik gabeko zaharberritzaileei gaikuntza profesionala emateko sistema bat arautzeko, akademi eta lanbide titulazioak eskuratu, luzatu eta homologatzearen arloan estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean eginga dagoen eskumenbanaketaren arabera. Esaten du arlo hau estatuaren eskumen eksklusibokoa dela, Konstituzioko 149.1.30 artikulua xedatuaren arabera.

Hala da; ez dugu zalantzan jartzen titulazioen arloko eskumen eksklusiboak estatuari dagozkiola, arau horrek dioenari jarraikiz; baina horrek ez du esan nahi zaharberritzaile gisa lan egin dezaketenak soilik Ondasun Kulturalen Kontserbazio eta Zaharberritze diplomatura edo Arte Ederretako lizentziaturako zaharberritze espezialitatea daukatena direnik.

Badirudi arazoa konpon daitekeela titulu akademikoen eta lanbide-jardueraren artean arauak finkatzen duten lotura ezberdina kontuan hartuz, lanbide batzuetan aritzeko ez baita beti nahitaezkoa gaikuntza-tituluak edukitzea. Badaude lanbide batzuk erabat lotuak daudenak titulazio jakin batzuetara, eta lanbide horietan ezin da titulazio horiek izan gabe jardun, arau batzuek espresuki debekatzen baitute (abokatutza, medikuntza, arkitektura...); beste lanbide batzuetan, ordea, prestakuntzarako eta jakintza gehiago eskuratzeko, eta horrela lanbide bat lortzea errazteko, balio du tituluak, baina titulurik ez edukitzeak ez du ezinezko egiten lanbidean jardutea, kasu hauetan ez baitago titulurik ez daukatenei horrelakorik debekatzen dien araurik (eskultoreak, aktoreak, errealizadoreak, eta, besteak beste, jarduera artistikoekin zerkusia daukaten gainerako lanbideak). Oro har, berriki sorturiko titulazioak dira, ezaugarri jakin batzuetako lanbideekin zerkusia daukatenak; hain zuzen ere, lanbide horietan jarduteko aukera dutenak ez dira soilik prestakuntza-ziklo ofizialak burutzen dituztenak. Lanbide horiek sailkatu behar dira "ez-arautu" gisa.

Gai honi buruz, Europar Batasuneko Auzitegiaren 1999ko uztailaren 8ko epaiak honakoa adierazten du: "14. Gogorazi behar da, dena den, lanbide arautua delako kontzeptuaren definizioa, 89/48 eta 92/51 zuzentarauak erabilitako moduan, Europar Batasuneko zuzenbideari dagokion gai bat dela (...).

16. 89/48 zuzentzaruko 1. artikuluko d) letraren eta 92/51 zuzentzaruko 1. artikuluko f) letraren arabera, lanbide arautu bat lanbide-jarduera bat da, zeina, lanbidea eskuratzeko edo lanbidean jarduteko baldintzei dagokienez, xedapen juridikoek zuzenean edo zeharka arautua baitago; alegia, lege, erregelamendu edo administrazio-xedapenak arautua (ikus 1996ko otsailaren 1eko epaia, Aranitis, C-164/1994, I-135, 18. atala).

17. Lanbide bat lortzea edo hartan jardutea joko da xedapen juridikoen bitartez zuzenean arautua dagoela baldin eta estatu kideko lege, erregelamendu edo administrazio xedapenak badaude, araubide bat ezarri eta horren ondorio gisa dakartenak lanbide-jarduera hori espresuki erreserbatzea baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten pertsonen eta jarduera hori debekatzea baldintza horiek betetzen ez dituztenei (ikus Aranitis epaia, lehen aipatua, 19. atala):"

Bestalde, Konstituzio auzitegiaren 1989ko ekainaren 6ko epaiak zehaztu du Konstituzioko 149.1.30 artikulua nola interpretatu behar den kexa honetan azaldutako egoerarekin nolabaiteko antza izan ahal duen kasu bati dagokionez, eta honako

hau adierazi du: "3. Aipaturiko Konstituzio-aginduari eman beharreko interpretazioari dagokionez, auzitegi honek beste batzuetan adierazi izan du jadanik bere ikuspegia. Horrela, abenduaren 22ko 42/1981 epaian adierazten zenez, Konstituzioko 149.1.30 artikulua horrek estatuarentzat gordetako eskumenak bere barnean hartzen du «hezkuntzako maila eta ziklo bakoitzari dagozkion titulu motak ezartzeko eskumena, titulu horiei gaikuntza-indarra emanez, hala ikuspegi akademikotik nola titulaturiko lanbideetan jardun ahal izatearen ikuspegiatik, hau da, jardun ahal izateko titulua beharrezkoa duten lanbideak (ad ex: eskola-graduata, batxilergoa, diplomatua, arkitekto tekniko edo ingeniari tekniko, kasuko espezialitatean, lizentziatua, arkitektoa, ingeniaria, doktorea); halaber, barnean hartzen du kasu bakoitzeko tituluak luzatzeko eskumena eta estatuak luzatzen ez dituenak homologatzeko». Doktrina hori bera errepikatzen da Konstituzio Auzitegiaren 82/1986 epaian. Beraz, argi dago estatuko organo zentralak duten eskumena, lanbide-tituluak eskuratu, luzatu eta homologatzeko baldintzak arautzeko, zuzenean lotua dagoela lanbide tituludun deiturikoen existentziara. Kontzeptu hori Konstituzioak berak erabiltzen du 36. artikuluan, eta inplizituki onartzen du, begi-bistakoa dirudenez, oro har lan-jarduera, lanbide edo ogibidetzat hartzen diren guztiak ez direla tituludun lanbideak. Auzitegi horrek 83/1984 epaian adierazi duenez, lanbide tituludun horiek existitzen dira jarduera jakin batzuei "titulu akademiko zehatzak edukitzearen" baldintza ezartzen zaienean, eta, zentzu oraindik zehatzago batean, Konstituzio Auzitegiaren 42/1986 epaiak lanbide tituludunak honela definitzen ditu: "jardunean aritzeko nahitaezko dituztenak tituluak, eta titulutzat hartuko da goi-mailako ikasketak burutuak izatea eta ikasketa horiek berrestea egoki den ziurtagiri edo lizentzia erdietsiz". Azken epai horretan adierazten genuenez, legegileari dagokio zehaztea, interes publikoaren eskakizunak eta gizarte-bizitzak sorturiko datuak aintzat hartuz, noiz pasa behar duen lanbide batek lanbide tituludun izatera. Eta zalantzarik ez dago ezen, Konstituzioko 149.1.30 artikulua testuari jarraikiz, estatuko legegilea dela eskumen eskusibo hori duena.

Aurreko zehaztapen horiek eginda eta, horrela, aztertu berri dugun Konstituzio-arauaren norainokoa zedarriz, derrigorrez adierazi behar da, aurreko horren guztiaren ondorio natural gisa, bi gauza arraz ezberdinak eta bestelakoak direla lan edo lanbide jarduera jakin bat egin ahal izateko baldintza batzuk edo betekizun jakin batzuk bete behar izatea, batetik, eta lehen adierazitako zentzuan lanbide tituludun bat sortzea, bestetik. Horrela, posible da botere publikoek esku hartzea

lanbide-jarduera batzuen araubidean, lanerako eskubideari eta lanbide edo ogibidea askatasunez aukeratzeko eskubideari zor zaien errespetuaren mugen barrenean (Konstituzioko 35. artikulua) eta interes orokorrak babesteko nahitaezko bitarteko gisa, eta jarduera haiek baldintzatzea alde aurretik administrazio baimen edo lizentzia bat lortzera edo gaitasun proba batzuk gainditzera. Baina, adierazi berri dugun bezala, halako betekizun, baimen, gaikuntza edo probak eskatzea ezin da inola ere parekatu lanbide-tituluak sortu edo arautzearekin –gai hori jorratzen du, hain zuzen, Konstituzioko 149.1.30 artikulua–, eta ez dauka zerikusirik Konstituzioko arau horrek estatuari gordetzen dion eskumenarekin.

(...) azken agindu horrek arautzen duen gaikuntza ez da lanbide-titulu bat, eta hori lortzeko baldintzak arautzeari dagokionez estatuak duen ustezko eskumena ezin da oinarritu Konstituzioko 149.1.30 artikuluan. Aitzitik: turismo-jarduerarekin lotura daukaten trebetasun eta jakintza batzuk frogatu ondoko lizentzia bat da, eta lizentzia hori ematearen zergatia da turismoa antolatzearen inguruko interes publikoa, autonomia erkidegoak bere lurraldean zaindu behar duena.”

Beraz, abiapuntu gisa harturik titulazio ertain edo goi mailakorik gabeko profesionalek ez daukatela debekaturik zaharberritzaile-lanbidean jardutea, kexa honetan azaldutako kasuak, gure ustez, modua ematen dio Hezkuntza eta Kultura Departamentuari gaikuntza emateko arlo honetan behar adinako jakintza eta esperientzia daukatela frogatzen duten profesionalei, nahiz eta haiek titulurik ez eduki, horrela Nafarroako ondare artistiko eta kulturala antolatu eta kudeatu ahal izateko, arlo guztietan, baita kontserbazio eta zaharberritzearenean ere; horretarako, Nafarroako Gobernuak badauka, eduki ere, eskumenik, LORAFNAko 49.9 artikuluan oinarriturik; eta horrek ez du esan nahi era horretan zaharberritzaile-titulu akademiko berririk eratzen denik.

Horregatik, GOMENDIO formala egin zitzaion Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuari, lanbide-gaikuntzako prozedura bat ezar zezan, espezialitate honetako titulazio akademiko bat sortu baino lehenagotik lanbide honetan diharduten titulurik gabeko zaharberritzaileen egoerari irtenbidea emateko.

Guk eginiko gomendioari departamentuak eman zion lehen erantzunean, aurreko txostenean aipatu zizkigun argudioen antzekoak errepikatzen zituen; hain zuzen ere, gure ebazpenean oso-osorik jasota utzi genituenak. Dena den, eransten zuen eskaturiko gaikuntza ez dela nahitaezko betekizuna artelanen zaharberritzailearen lanbide-

an jarduteko, “alde batera utzirik administrazio-kontratazioaren izapidean kontratuaren izaeraren arabera ezartzen diren gaitasun teknikoko maila zehatzak”, eta amaitzen zuen gure gomendioa ez onartuz.

Dena den, komenigarria iruditzen zaigu esatea kexa hau dela-eta izan dugun jarduera guztia zuzendu dugula erreklamazio-egileek pairatzen dituzten lan-arloko ondorioak saihestu edo samurtzeko adostasun-puntu bat lortzera; izan ere, administrazioak deitzen dituen zaharberritze-lanetarako lizitazio guztietatik kanpo utziak izan dira, nahiz eta, lehenago, eginkizun horietarako hamai-ka bider kontratatuak izan ziren. Hori zela-eta, komenigarria iruditu zitzaigun Hezkuntza eta Kultura Departamentuari zenbait gogoeta helaraztea, zeinetan, nolabait, berriro ere azpimarratzen baitziren zenbait puntu, hala nola horrelako jardueretako zuhurtzia-ahalmena eta horrek lanaren zailtasun-mailaren eta jakintza teknikoaren eskakizunarekin duen erlazioa.

Bukaeran adierazten genuen harrিতa ginela erreklamazio-egileak kontratazioetarako hautaketa-prozesu guztietatik kanpo utziak izan zirelako, kasu guztietan lizitatzailerei titulazio ertain edo goi mailakoa eskatzen zitzaizenez gero, nahiz eta, adierazi dugun bezala, foru administrazioak askotan kontratatu izan dituen horrelako baldintzak beteaz gabe eta emaitza onak lortuta. Azken batean, nahi genuena zen departamentuak gogoan har zitzala, artelanen zaharberritzerako aurrerantzean deituko dituen kontratazioak arautuko dituzten baldintza-pleguak onesten dituenean, erreklamazio-egileak bezalako pertsonen egoera eta haiek erakutsi duten esperientzia aipagarria; horrekin ez dugu asmorik, alabaina, departamentuak arlo honetan dituen ahalmenak inola ere mugatzeko; izan ere, profesional horien existentziaz ohartarazi besterik ez genuen egiten, eta daukatena baino jakintza eta esperientzia gehiagorik beharrezkoa ez duten lizitazio batzuetan haiek parte hartu ahal izatea kontuan har zedila eskatzen genuen.

Azkenean, departamentuak gogoeta horiei emandako erantzuna jaso genuen, zeinean departamentuak, nahiz eta pertsona horiei sorturiko lan-arazoa ulertzen zuen eta horri buruz egin genituen oharrekin ados zegoen, adierazi baitzigu ez zela bidezkoa kexa aintzat hartzea, dituen eskumenak, dioenez, Nafarroako ondare historiko eta artistikolari babesik onena emateko diren neurrian; horrela, bada, onartzen ari da ezen ukituriko ondasunen babes egokiak ezinezkoa egiten duela erreklamazio-egileek modurik izatea arlo horretako kontratuen bat adjudika diezaieten.

Horrenbestez, jotzen dugu gure gomendioa ez dela aintzat hartua izan, eta, gure erakundea arautzen duen legeak ezarritakoa betez, aintzat ez hartze horren berri ematen dugu urteko txosten honetan.

KIROLA

FEDERAZIOKO LIZENTZIAREN KOPIA LORTZEA.

Klub batek kexa bat aurkeztu zuen (02/392/C espediente) Nafarroako Futbol Federazioaren eta bere lehiaketa batzordearen jokabidea zela-eta; izan ere, ez zioten eman nahi izan kluba ukitzen zuen espediente baten kopiarik.

Azaltzen zitzaigunez, klub horrek ontzat eman zuen jokalaria baten fitxako sinadura, itxura zenez faltsua izan zitekeena; eta, horren ondorioz, klubari zehapena eta kasuko jokalaria, berriz, jokatzeko debekua ezarri omen zitzaion.

Hori horrela, zehapenaren aurkako errekurtsioa aurkeztea erabaki zuen, eta horretarako espedienteko dokumentazio jakin bat behar zuenez (zehazki, eztabaidaturiko fitxaren kopia), peritu-proba proposatze aldera, Nafarroako Futbol Federazioko bulegoetara jo zuen, behar zituen fotokopiak eman diezazkioten.

Federazioak hori ukatu egin zion, eta hantxe bertan dokumentazioa erakutsi besterik ez zion egin.

Hori zela-eta, interesdunak jotzen zuen urratu egin zutela Administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35. artikuluko hari aitortzen dion eskubidea, espedienteak eskuratatu ahal izatekoa.

Nafarroako Futbol Federazioak, bere lehendakariaren bitartez, guk egin genion informazio-eskari honakoa esanez erantzun zion:

“Otsailaren 13ko zure idazkiari dagokionez, zein informazioa eskatzen baitzenuen [...] jaunak [A] Kirol Klubaren izenean aurkezturiko kexari buruz, espediente horretan ageri zaizkigun idazki eta jarduketan berri ematera natorkizu:

1.- Joan den urriaren 21ean, [B] Kirol Klubak lehiaketa batzordearen aurrean alegatu zuen [A] Kirol Klubak okerreko alineazioa izan zuela urriaren 19an jokatu zen Kadete Ligako partidari; lehiaketa batzordeak, ordea, ezetsi egin zuen alegazio hori.

2.- Beranduago, azaroaren 1ean, errekurtsioa aurkeztu zion apelazio batzordeari, eta hark erreklamazioa aintzat hartu eta [A] Kirol Klubak okerreko alineazioa izan zuela ebatzi zuen, nahiz eta

[B] Kirol Kluba premiatu zuen jokalariai baja eman diezaiola.

3.- Azaroaren 23an, apelazio batzordeak ebazpena eman aurretik, [B] Kirol Klubak errekurtsioa aurkeztu zion kirol diziplinako batzordeari, batzorde haren ebazpenaren zain egon gabe (ebazpena azaroaren 28an eman zuen).

4.- Abenduaren 4an, [A] Kirol Klubak espediente osoa eskatu zion federazioari, eta lehiaketa batzordearen bidez helarazi zitzaion, nahiz eta une hartan jadanik haren konstantzia bazegoen Nafarroako kirol diziplinako batzordean, [B] Kirol Klubaren errekurtsioa zela-eta eginiko eskaeraren ondorioz.

Klubari bidali zitzaizkion hasitako espedientean zeuden dokumentuak, salbu eta jokalaria lizentzia ([B] Kirol Kluba), zeren eta federazioak ulertzen baitu ezen, arau orokor gisa, lizentziak bere bulegoetan bertan azter daitezkeela, baina ezin direla ez fotokopiatu ez eta kanpora bidali ere, klub bakoitzari dagozkion dokumentuak direnez gero.

5.- Klubak behin eta berriro zioenez dokumentazio guztia ez zitzaiola bidali, lehiaketa batzordeak baimena eman zion bere bulegoetan aztertu ahal izan zezan.

6.- Beraz, gure iritziz ez da izan Administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35. artikuluko inolako urraketa, espediente bera ez baita existitu [A] Kirol Klubak errekurtsioa aurkeztu arte, eta, gure estatutuetan ezarritako prozedura arruntari jarraikiz, Nafarroako kirol diziplinako batzordera iritsi da.

7.- Egiazta daitekeen bezala, ezarritako prozedura bete ez duten zenbait jarduketa izan dira, eta horren frogara da Nafarroako kirol diziplinako batzordearen ebazpena, honekin batera doana”

ANALISIA

Bai interesdunak bai Nafarroako Futbol Federazioak aurkeztu duten dokumentazioa ikusirik, erabaki genuen kasu honetan argitu beharreko oinarriko puntua zela ea kexa aurkeztu duen [A] Kirol Klubak eskubiderik duen, ala ez, eskatzen duen dokumentua ikusteko, alegia, jokalaria [B] Kirol Klubean duen federazio-lizentzia, eta horren kopia eskuratzeko; izan ere, gainerako dokumentuak klubera bidali zitzaizkion, federazioak bere txostenean adierazten duenez.

Lizentzia horren kopia ukatu izana oinarritzeko, Nafarroako Futbol Federazioak dio klub bakoitzari dagozkion dokumentuak direla federazio-lizentzi-

ak, eta beraz, bere bulegoetan ikus daitezkeela, baina ez, ordea, fotokopiatu edo kanpora bidali.

Kexaren egileak eta federazioak puntu horri buruz egiten duten interpretazio ezberdina izanik aztergaia, aplikatzekoa den araudiaren arabera bietatik zein nagusitu behar den argitzeko nahitaez aztertu behar da kirol federazioen izaera juridikoa eta haien jarduketei kasu bakoitzean aplikatu behar zaien araubidea.

Urriaren 15eko Kirolari buruzko Legeak bereziki hartzen ditu kontuan kirol federazioak, eta gure legerian aurreneko aldiz ezagutzen du federazio horien izaera juridikoa pribatua dela, aldi berean eginkizun publiko administratiboak emanez.

Maiatzaren 19ko 189/1992 Foru Dekretuak, kirol federazioei buruzko arauak onesten dituenak, adierazpen hori 1. artikuluan errepikatzen zuen, baina ez zuen zehazten zein diren administrazioak eskuordeturik federazio horiek betetzen dituzten eginkizun administratiboak. Gai horiek, azkenean, apirilaren 14ko 80/2003 Foru Dekretuan jaso dira. Foru dekretu horrek Nafarroako kirol entitateak arautzen ditu, eta aurrekoa ordeztu du.

Nafarroako Kirolari buruzko uztailaren 5eko 15/2001 Foru Legea izan da, Nafarroako kirol federazioak arautzen dituen III. kapituluaren bitartez, horiek berez dituzten eginkizunak eta Foru Komunitateko kirol administrazioak koordinatuta eta zainduta eskuordeturik bete behar dituztenak zehazteaz arduratu dena.

Lege horren 42. artikulua honelaxe definitzen ditu: “Elkarte gisako eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuak dira, helburu nagusitzat Foru Komunitateko lurraldean aitormena duten kirol jarduerak sustatu eta garatzea dutenak;” eta 4. puntuan gehitzen du “Nafarroako kirol federazioek, berezko eginkizunaz gain, administrazio kutsuko eginkizun publikoak ere hartzen dituzte delegazioz, eta kasu horretan Foru Komunitateko administrazioaren lankide aritzen.” Beraz, federazio horiek, elkarte pribatuak badira ere, ezaugarri berezi batzuk dituzte, haien eginkizunak administrazio eskudunak berak mugatzen baititu eta baliabide ekonomikoen parte handi bat administrazioetatik ateratzen delako. Konstituzio Auzitegiak berak (maiatzaren 24ko 67/1985 epaia), “elkarte pribatutzat” hartu ditu, “bere gain eginkizun publiko administratiboak dituztenak.”

Foru lege horren artikuluekin jarraituz, 49. artikuluan, federazioen eginkizun berezkoak ezartzean, horien artean aipatzen du “Kasuko kirol modalitateak oro har sustatzea, bai lehia-kirolari dagokionez eta bai guztientzako kirolari dagokionez.” Era berean, federazioei dagokie, eskuordetu-

rik baitituzte, Foru Komunitatearen kirol administrazioak koordinaturik eta zaindurik, bestelako eginkizun publiko batzuk betetzea administrazio publikoaren lankide gisa jardunez, hala nola beren kirol modalitateetan Nafarroa barneko lehiaketa ofizial ez profesionaletarako baimenak edo gaitasun agiriak ematea.

Horiek guztiak apirilaren 14ko 80/2003 Foru Dekretuan ere jaso dira.

Ildo honi eutsirik, garrantzitsua da jurisprudentziak afera honi buruz egindako gogoetak azpimarratzea; izan ere, entitate horien jarduerari buruz –zehazki, federazio-lizentziak emateari buruz– eginkizun azterketa dela-eta, ebatzi egin du eztabaida bat; hain zuzen, ea eskuordeturiko botere horren esparruan, zeinetan federazioek administrazioaren lankide edo agente gisa jarduten duten, sartuta ote dagoen kirol-lizentziak emateari buruzko ebazpen-ahalmena.

Erantzuna baiezkoa izan da, zeren eta aipaturiko jurisprudentzia, aplikatzekoa den araudian oinarriturik egoteaz gain, ez baitator bat jokalarien lizentziek soilik lan-arloko eraginak dituztela dioen iritziarekin, zeinaren arabera, gainera, lizentzia horiek ez luketen inolako loturarik izan administrazio-zuzenbideak berezko dituen gaietako batekin, hots, gaikuntza edo baimenekin; eta hori, hain zuzen, federazio-lizentzia titulu gaikuntza-emailea delako estatu mailako kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartu ahal izateko, eta, ondorioz, lizentzia emateak, bai eta lizentziaren edukiak berak ere, estatu mailako kirol-txapelketen antolaketan eragiten du. Gaikuntza-emaile den titulu hori, “mutatis mutandi” egoitza-baimen baten antzekoa da, adibidez; hori ere eskatu egiten baita atzeritarrek lan egin ahal izateko. Titulu horren norainokoa eta edukia txapelketen “esparru orokorraren” zati dira, eta enplegua sustatzeko langintzaren barrenean kokatu behar dira; estatuak sustatu eta bermatu behar duen helburua da hori, Konstituzioko 43.3 artikuluari jarraikiz.

Jokalariaren lizentzia, “federazioak luzaturiko dokumentua, kirol hori federatu gisa egitea eta partida eta txapelketa ofizialetan alineatua izatea ahalbidetzen duena” gisa hartua, administrazio korporatibo deritzonaren agerpen bat da, eta haren jarduera administrazio-zuzenbidearen eta bere errekurso-araubidearen menpekota da, halako moldez non kirol administrazioak eginkizun delegatua betetzen ari zela gauzatu dituen egintzen aurka errekurtsua aurkez baitaiteke Kirolen Kontseilu Nagusian, zeinaren ebazpenek administrazio-bidea agortzen baitute.

Entzutegi Nazionaleko administrazioarekiko auzien salak 2001eko azaroaren 6an emandako epaiak hori bera berresten du, honako hau esaten baitu: “Horri jarraikiz, Kirol federazioei buruzko abenduaren 20ko 1835/1991 Errege Dekretuak antzeko moduan taxutzen du, 2. eta 3. artikuluetan, haien jardueraren izaera bikoitza, eta administrazio-izaerako eginkizun publiko horien artean jasotzen ditu: estatu mailako jarduera eta txapelketa ofizialak kalifikatu eta, kasua bada, antolatzea. 4. artikulua, txapelketen kalifikazioa eta haien izaera irekia arautzen duenak, ezartzen du parte-hartzaileek kirol-lizentzia izan behar dutela, eta horri esker, kasuko federazioak lizentzia horiek ematearen jarduera sar daiteke txapelketen antolaketa orokorraren esparruan eta, beraz, jarduera hori izaera administratiboko eginkizun publiko gisa kalifika daiteke, kasuko administrazio-egintzan gauzatzeko dena, 1835/1991 Errege Dekretuko 3.3 artikulutik eratortzen den bezala; ikuspegi horretatik, jarduera horrek baliodun izatearen presuntzioa dauka, 30/1992 Legeko 57.1 artikuluan ezarria, apelazio-egileak esaten duenaren aurka; ondorioz, eraginkorra izan da deuseztatzen ez duten bitartean, horretarako inpu gnazioa edo berrikuspena egin ondoren. Horrela, bada, eman den lizentziak, bitarte horretan, ondorio guztiak eragiten ditu, apelaturiko epaiak zehazten duen bezala eta apelazio-egileak dioenaren aurka. Beraz, salatutako okerreko alineazioa ez da aintzat hartzen.”

Antzeko azalpenak agertzen dira Administrazioarekiko Auzien Epategi Zentralak 2001eko otsailaren 27an emandako autoan: “Ez dirudi ondorio horrek inolako arazorik ekartzen duenik zenbait gairi dagokionez, hala nola, besteak beste, dopajea, ordena publikoa edo diziplina-ahalmena, zeren eta legeak argi eta garbi ematen baitie izaera hori. Baina arazoa sortzen da auzi hau erabakitzerakoan: alegia, federazio-lizentzia bat ematea sar ote daitekeen ala ez eginkizun publiko horien artean. Demandatzaileak ezetz dio, bere aburuz ez baitago, kasu honetan, babestu beharreko inolako interes publikorik, eta soilik lan-arloan eragiten duen gai bat izan den litzatekeelako. Ezin gada os egon iritzi horrekin; izan ere, federazio-lizentzia da estatu-mailako kirol-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko titulu gaikuntza-emaitza —Kirolari buruzko Legeko 32.4 artikulua eta Federazioei buruzko Errege Dekretuko 7.1 artikulua—, eta beraz, begi-bistakoa da gai honek eragin argi eta garbia duela estatu-mailako kirol-txapelketen antolaketan. Zehazki, lizentzia ematea jokalar nazional, Europar Batasuneko edo atzerritar gisa, hori txapelketen “esparru orokorrari” dagokio, ezin baitugu ahaztu espresuki araturik dagoela kategoria bateko zein besteko zenbat jokalar alineatuta daiteke-

en aldi berean partida bakoitzean, eta horren arrazoia da badagoela, zalantzarik gabe, interes publiko bat gai honetan, zeharkako eragina baitauka selekzio nazionaletan eta, beraz, kirola sustatzeko jardueran, zeina estatuari esleitzen baitio Espainiako Konstituzioko 43.3 artikulua. Defendatzen ari garen iritzia berretsi egin du Auzitegi Gorenak, bere Hirugarren Salak 1996ko abenduaren 5ean emandako epaiak ezarritako doktrinaren bidez; epai horretan, honakoa esaten da.”

Laburbilduz, esan daiteke ezen, horrelako jarduketari dagokienez, administrazio zuzenbidearen esparruaren barrenean gaudela, eta jokalar bati federazio-lizentzia eman edo ukatzearen egintza kokaturik dagoela esparru horretan; hori dela-eta, jarduera hori administrazio-zuzenbidearen menpean egoteak esan nahi du gauzatuko den jardunak egintza administratiboari aplikatzekoak zaizkien arau eta baldintzak bete behar dituela.

Horretarako aintzat hartu beharreko araua, batez ere, Administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko Legea da; 2.2. artikuluan, aplikazio esparruaz aritzean, ildo hori jorratzen du; dena den, kontuan hartu behar da aipagai dituenak nortasun juridiko berekia daukaten zuzenbide publikoko entitateak direla, edozein administrazio publikoren menpekoak edo haiekin loturikoak direnak. Horiei, administrazio publikoen tratamendua ematen die. Entitate horiek, arau horrek dioenez aurrerago, administrazioaren ahalak erabiltzen badituzte, lege honetako arauak beteko dituzte; gainerako kasuetan, ordea, beren sortze-arauak diotena beteko dute.

Zentzu horretan, legearen aplikazio esparru horretaz mintzatzen den doktrina ugari dago, bereziki bigarren lerrokadaz, eta ezartzen du zuzenbide pribatuko enteei ere aplikatzeko zaila, “botere publikoen” lankideak diren aldetik eta horiengan eragina duten printzipio konstituzionalen menpe dauden neurrian, entitate horiek ahal publikoak betetzen dituztenean, kasu honetan bezala.

Horrenbestez, gure iritzia da ezen kexaren arrazoia, hau da, arazoan zuzeneko interesa duen klub bati federazio-lizentzia hori ez ematea, jarduera-mota honi aplikatzeko den araudiaren aurka doala; zehazki, interesduneko administrazio-espeditentea eskuratzeko duten eskubideaz diharduten arauen aurka; hau da, Administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 35. eta 37. artikuluen aurka. Biek jasotzen dute ez soilik herritarren eskubidea edozein unetan jakiteko zein tramitazio-egoeratan dauden haiek interesdun izaera daukaten prozedurak, baizik eta proze-

dura horietako dokumentuen kopiak eskuratzeko eskubidea ere.

Baina, orain arte azaldu dugun guztiaz gain, gogoan izan behar da eskubide hori egikaritzeak lotura estua duela, halaber, babes judizial eragin-korrerako eskubidearekin eta horrekin batera doan babesgabetasunaren debekuarekin. Izan ere, dokumentu horren kopia ukatzeak, abian dagoen prozedura batean, eragina izan dezake interesdunaren asmoen defentsa egokia egiteko egiazko aukeretan, eta gai hau, gure iritziz, oraindik ere garrantzitsuago bilakatzen da administrazio-zuzenbidearen esparrukoak diren jarduera haue-tan.

Horregatik guztiagatik, eta gai zehatz honi dagokionez, GOMENDIOA egin genion Nafarroako Futbol Federazioari, Estella Kirol Klubari eman dakion, bere ordezkariaren bitartez, Alexander Baztanek Izarra Kirol Klubarekin duen kirol lizen-tziaren kopia bat.

Federazio horrek, bere lehendakariaren bitar-tez berriro ere gure oharrari erantzun zionean, jakinarazi zigun kexa egin zuen klubari azkenean eman egin ziotela eskaturiko federazio-lizentziaren kopia.

ELEBITASUNA

NAFARROAKO JAIALDIEI BURUZKO INFORMAZIO-LIBURUXKEN ARGITALPENA GAZTELANIAZ BAKARRIK EGITEA.

Nafarroako Parlamentuari aurkeztu genion 2002. urteari buruzko txostenean jasota utzi genuen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentuari gomendioa egin zitzaio-la, aurrerantzean eredu elebidunari jarraikiz argi-tara ditzan Nafarroako Jaialdiei buruzko informazio liburuxkak, edo bestela, bereizirik, euskaraz eta gaztelaniaz. Eta hori, 2001eko Nafarroako Jaialdiei buruzko informazio-liburuxkari buruz egin zitzaigun kexaren ondorioz (01/239/C espe-dientea), liburuxka hura soilik gaztelaniaz egin baitzen.

Alabaina, gure txostenean ezin izan genuen jaso aipaturiko departamentuak gure oharrari emandako erantzuna, txostena amaitu genuene-an oraindik erantzun hura jasotzeko zain bai-kinen.

Bada, gomendio horri dagokionez, departa-mentu horrek azkenean adierazi zigun gomendioa onartzen zuela, eta kontseilariak aginduak ema-nak zituela, programa hori hala gaztelaniaz nola euskaraz argitara dadin.

BERRIOZARKO OINARRIZKO OSASUN BARRUTI-KO GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA KANPAI-NARI BURUZKO AFIXEN ETA DIPTIKOEN ARGITAL-PENA GAZTELANIAZ BAKARRIK.

Zenbait pertsona zuzendu zitzaizkigun (02/100/C espedientea) kexa egiteko soilik gazte-laniaz argitaratu zirelako Berriozarko oinarrizko osasun barrutian gripearen aurka 2001ean egin zen txertaketa kanpainari buruzko afixak eta dipti-koak (barruti horretan sartuta daude Txulapain, Atetz, Itza eta Berriozar).

Interesdunek azaltzen zutenez, abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuko 16. artikulua-k xedatzen du Nafarroako Foru Komunitateko admi-nistrazioiko zerbitzu nagusiek egiten dituzten infor-mazio liburuxkak, kanpainetako material grafikoa, argitalpenak edo antzeko idazkiak idatzita egon ahalko direla gaztelania hutsean, edo edizio bakar elebidunean, edo gaztelania eta euskarazko edizio bereizietan, kasuen arabera, argitalpenaren ardura duen departamentuko kontseilari titularraren era-bakiari jarraikiz.

Haien ustez, gripearen aurkako txertaketa-kan-painari buruzko afixa eta diptiko horien argitalpena da aipaturiko arauan jasotako kasuetako bat, haiek Nafarroako herritar guztiei zuzentzen bai-tzaizkie, ez soilik erdaldunei, baita euskaldunei ere.

Ildo horretatik, ez zuten ulertzen nolatan, herri-tar guztiei zuzenduriko informazio bat izanik, Osa-sun Departamentuak afixa eta diptiko horiek soilik gaztelaniaz argitaratzeko erabakia hartu duen; hain zuzen ere, beste urte batzuetan formatu ele-biduna erabili izan denean eta, horrela, Nafarroako herritar guztien hizkuntza-eskubideak errespetatu direnean, haiei zuzenduak baitira horrelako kan-painak.

Salatzen zutenez, horrela jokatzek esan nahi du ez direla errespetatzen ari Euskararen Foru Legeak 1.2 artikuluan herritar euskaldun guztiei aitortzen dizkien hizkuntza-eskubideak; horregatik, behar diren neurriak har daitezen eskatzen dute, afixa eta diptiko horiek formatu elebidunean argita-ra daitezen, bai eta aurrerantzean argitaratzekoak direnak ere.

Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentu-ari informazio eskea luzatu genion, eta bertako kontseilariak hauxe adierazi zigun, idazki baten bidez:

“Kexa horretan aipaturiko kanpainarako afixa eta diptikoak Osasun Publikoaren Institutuak pres-tatu eta banatu zituen, Nafarroako oinarrizko osa-

sun barrutietako osasun-etxe eta kontsultategietan.

Berriozar herria eta izen bereko oinarrizko osasun barrutiko gainerako herriak eremu mistoan kokaturik daude, euskararen erabileraren ikuspegitik, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen arabera (Nafarroako arartekoaren idazkian ez da modu argian ematen kokaleku horren berri, eta, bertako seigarren lerrokada ikusirik –?.. eremu euskalduneari bizi diren Nafarroako herritarren eskubideak..?–, badirudi are Berriozar eremu euskalduneari dagoela, nahiz eta, errealitatean, eremu mistoan kokaturik egon).

Abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuak, zeinaren bitartez euskararen erabilera arautzen baita Nafarroako administrazio publikoetan, eremu mistoko irudi, ohar eta argitalpenei buruzko bosgarren atalean ezartzen du: “Xedapenak, oharak, argitalpenak, iragarkiak eta mota guztietako publizitatea gaztelaniaz izanen dira”.

Dekretu horretako 16.3 puntuan hauxe adierazten da: “aurreko idatz-zatian ezarritakoa galarazi gabe, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio-ko zerbitzu nagusiek biztanle guztientzat egiten dituzten informazio foiletoak, kanpainetako material grafikoa, argitalpenak edo antzeko idazkiak gaztelania hutsean, edo edizio bakar elebiduneari, edo gaztelania eta euskarazko edizio berezietan idatzita egon ahalko dira, kasuen arabera, argitalpenaren arduraren duen Departamentuko kontseilari titularraren erabakiari jarraikiz”.

Nafarroako Gobernuak 2001eko urtarrilaren 8an hartutako erabakiak, zeinaren bitartez “euskararen erabilerari buruzko araudia eremu mistoan aplikatzeko ekintza-plana” onesten baita, hauxe ezartzen du argitalpen, iragarkiak eta publizitateari buruzko 3.3 puntuan: “Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren menpeko erakunde autonomoen organoen xedapen, jakinarazpen, argitalpen, iragarki eta publizitate modu guztiak, edozein euskarri grafikokoak, gaztelania hutsean emanen dira. Salbuespen gisa, argitalpenaren kontseilari arduradunak idatziz espres aginduko balu, elebiduna izan liteke. Puntu honi buruzkoa ere berehala betetzen hastekoa da”.

Oinarrizko Osasun Laguntzako eta Adimen Osasuneko Zuzendaritzak behar diren jarraibideak eman dizkie oinarrizko osasun barrutietako zuzendariari, betiere bete dadin euskara administrazioan eta administrazioaren eta administratuen arteko harremanean erabiltzeko buruzko araudi indarduna, eta ulertu izan du, kasuan kasuko organoek irizpide hobea izan ezean, ezen, hizpide dugun gaian, gainerako guztietan bezalaxe, gaur egun

indarrean dagoen legediari jarraikiz jardun izan dela –ezin liteke bestelakorik onar–, eta euskaldun guztien hizkuntza-eskubideak, Euskararen Legeak jasoak bai eremu euskalduneari bai eremu mistoerako –hortxe du kokalekua, hain zuzen, Berriozarko oinarrizko osasun barrutiak–, errespetatzen ari direla. “

ANALISIA

Kasu honetan helarazi zaigun gaia aztertzeari ekitean, hasi behar dugu gogoraraziz Espainiako Konstituzioko 3. artikulua lehenik eta behin gaztelania hartzen duela espainiar guztien hizkuntza ofizial gisa, hura ezagutzeko betebeharrak eta erabiltzeko eskubidea baitaukate, ezertan galarazi gabe Espainiako gainerako hizkuntzak, horiek ere ofizialak izanen baitira autonomia erkidegoetan, tokian tokiko estatutuaren arabera.

Ildo horretatik, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 9. artikulua ezartzen du gaztelania dela Nafarroako hizkuntza ofiziala, baina euskara ere ofiziala izanen dela Nafarroako eremu euskaldunetan, zeinak foru lege baten bidez zehaztuko baitira. Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan euskararen erabilera arautzen duen abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeak hiru eremu ezartzen ditu, euskal eremua, eremu ez-euskalduna eta eremu mistoa, haietako bakoitzean euskararen duen ezarpen mailaren arabera. Nolanahi ere, lege horren 1. artikuluan jasorik daude haren funtsezko helburuak, hauexek alegia:

a) Herritarrek euskaraz jakiteko eta erabiltzeko duten eskubidea babestea eta hura gauzatzeko tresnak zehaztea.

b) Nafarroan euskararen berreskurapena eta garapena babestea, haren erabilera sustatzeko neurriak ezarri.

c) Euskararen erabilera eta irakaskuntza bermatzea borondatezkoatasun, graduatasun eta begirunean oinarriturik, Nafarroako errealitate soziolinguistikoarekin bat.

Lege hori garatzeko eman zen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua, Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duena. Informazioa zabaltzeko argitalpen eta foiletoei buruz hauxe ezartzen du 16.3 artikuluan: “Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateko administrazio-ko zerbitzu nagusiek biztanle guztientzat egiten dituzten informazio foiletoak, kanpainetako material grafikoa, argitalpenak edo antzeko idazkiak gaztelania hutsean, edo edizio bakar elebiduneari, edo

gaztelania eta euskarazko edizio berezietan idatzita egon ahalko dira, kasuen arabera, argitalpenaren ardura duen Departamentuko kontseilari titularraren erabakiari jarraikiz.”

Osasun kontseilariaren txostenak adierazten duen bezala, Berriozar herria eta izen bereko oinarrizko osasun barrutiko gainerakoak eremu mistoan daude, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen arabera.

Txostenak ederki dioten bezala, Nafarroako Gobernuako departamentuen titular diren kontseilari dagokie hizkuntza ofizialen erabilera hautatzea informazio liburuxka horiek argitaratzean, baina agindu horrek ez du ematen ahalmen arbitrario bat erabakitzeke nola argitaratu behar diren liburuxka horiek, organo eskudunari diskrezio-ahal bat baik, hartutako neurrien arazoizkotasunak jartzen duen mugarekin balia daitekeena, eta baztertu beharreko arbitrariotasunaz jokatzen dute bere xede juridikoetatik –hala nola, objektibotasunez guztien interesen alde jokatzea (Espainiako Konstituzioaren 105. artikulua)– urruti dauden arazoi subjektiboetan oinarritzen diren ebazpen administratiboek. Horregatik diskrezio ahalaren erabilera objektibotasunaren eta interes kolektiboen arazoizko defentsaren barrenean egin behar da, hori gabe arbitrariotasun bihurtzen baita.

Afixa eta liburuxka batzuk argitaratze hutsak, nolnahi ere, horiek jaso behar dituen populazioaren ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartzea eskatzen du. Ez da hautaketa libre bat, txostenak dioten bezala, Osasun kontseilariak besterik gabe balia dezakeena afixen eta diptikoen argitarapena gaztelaniaz egin dadila aukeratzeko: horrela jokatzean, diskrezio ahal bat erabiltzen ari da, eta horrek liberaltasun hutsarena ez den beste esparru batean kokatzen du afera. Jakina, baldin eta afixak eta liburuxkak soilik erdaldunentzat baldin badira, hizkuntza hori aukeratzeko erabat justifikaturik dago. Baina material grafiko hori banatzen bada euskara erabiltzen den tokietan, eremu mistoan eta euskal eremuan, hautaketa horrek ez du juridikoki justifikatzen afixak eta liburuxkak erdaraz soilik argitaratzea.

Berriozarko oinarrizko osasun laguntzako barrutia, Osasun kontseilariaren txostenak adierazten duen bezala, eremu mistoan dago euskararen erabilerari dagokionez, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeari jarraikiz; horrela, bada, txertatze-kanpaina hori eremu mistoan bizi den populazio bati zuzendua dagoenez gero, liburuxkak eta afixak ele bitan argitaratu behar dira, edo gaztelaniaz eta euskaraz, berezita, baina ez gaztelaniaz soilik, hala eginez gero ez baita betetzen Euskararen Legean argi eta garbi adierazitako irizpidea,

jarduera administratiboa Nafarroako errealitate soziolinguistikora egokitu beharra alegia.

Ildo horretan, komeni da gogoraraztea Eremu urriko hizkuntzen Europako Gutunaren 12. artikulua aipatzen duela hizkuntza horiek mintzatzen diren lurraldeetan, administrazio publikoek konpromisoa hartu behar dutela modu egokian integrazteko “eremu urriko hizkuntza eta kulturen ezagutza eta erabilera haien ekimeneko jardueretan edo haien sostengua jasotzen dutenetan”, hizkuntza horiek mintzatzen diren eremu edo lurraldeetan. Aipatutako foru legeak bezala errealitate soziolinguistikoaren irizpidea aipatzen duen agindu hori osoki hartu du bere gain Espainiako estatuak, 1992/18285 berrespen tresnaren bidez.

Gure ustez eztabaidaezina da eremu mistoan gaztelaniaz eta euskaraz mintzatzen dela, nahiz eta euskaraz mintzatzen direnak gutxi diren; beraz, eremu horretako errealitate soziolinguistiko dela-eta, administrazio publikoak behartuta daude bi hizkuntzak erabiltzeko aukera ematera harreman administratiboetan, baita txertaketa-kanpainei buruzko afixak eta liburuxkak banatu behar direnean ere.

Ondorioz, 2001eko txertaketen kanpaina bukatuta zegoelarik –hura ezagutaraztea zen afixak eta liburuxkak argitaratzearen helburua–, egin zitekeena zen, soilik, aurrerantzean argitalpena bi hizkuntzetan egin dadin gomendatzea, eremu mistoan bizi diren herritarrek informazioa jaso ahal izan dezaten aukeratzeko duten hizkuntzan.

Azaldutakoa dela-eta, Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentuari GOMENDIO bat egin zitzaion, hemendik aurrera eredu elebidunean edo berezirik, euskaraz eta gaztelaniaz, argitara ditzan txertaketa-kanpainei buruzko afixak eta liburuxkak, eremu mistora zuzendutakoak.

Geroago, Osasun kontseilariak erantzun bat bidali zigun, zeinean esaten baitzigun gomendio hori aintzat hartzen eta onartzen zuela.

NAFARROAKO GOBERNUAK “EL EURO, TU MONEDA” INFORMAZIO-LIBURUXKA IGORTZEA.

Kasu honetan (03/15/C espediente), kexaren arazoia izan zen kexa-egileak aurretiaz liburuxka horren inguruko eskaera bat egin zuela, eta eskaera horren aurrean administrazioak izandako isiltasunari buruzko ziurtagiri bat galdatu zuela, eta orduan ere ez zitzaiola erantzun.

Kexa egin zuen pertsonak azaldu zigun Nafarroako Gobernuako lehendakariak herritarrei bidalitako eskutitz bat euskaraz jasotzea eskatu zuela,

eta baita “El euro, tu moneda” izeneko liburuxka bat ere, hori ere gaztelaniaz egina baitzegoen.

Geroago, eta erantzunik jaso ez zuenez, administrazioaren isiltasuna frogatzeko ziurtagiri bat eskatu zuen, eta eskaera hori hiru aldiz ere errepikatu zuen; foru administrazioak, baina, ez zion inolako erantzunik bidali.

Horregatik guztiagatik eskatzen zuen Nafarroako Gobernuko lehendakariari gogoraztea behartuta dagoela herritarrek egiten dizkieten eskaerei erantzuna ematera, legeak ezartzen duen bezala, eta, ezezkoan, administrazioaren isiltasunari buruzko ziurtagiria eman behar duela, interesdunek hala eskatzen dutenean. Halaber eskatzen zигun bai eskutitza bai liburuxka euskaraz bidal zekizkion, bere garaian eskatu zuen bezalaxe.

Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak, guk egin genion informazio-eskaerari erantzunez, honakoa adierazi zigun:

“Goian zehazturiko arazoari buruz arartekoak 2003ko otsailaren 28an eginiko idazkian oinarrituz, Zuzendaritza Nagusi honek ulertzen du kexak bi zati dituela: bata, liburuxka jakin bat euskaraz bidaltzeari buruzkoa, eta bestea, administrazioaren isiltasunari buruzko ziurtagiria bidali ez izanari buruzkoa. Jarraian, bi gai horiei helduko diegu:

1.- Kexa egin zuen pertsonak azaldu zigun 2001eko abenduaren 27an eskatu zuela Nafarroako Gobernuko lehendakariak herritarrei bidalitako eskutitz bat euskaraz jasotzea, bai eta “El euro, tu moneda” izeneko liburuxka bat ere, hori ere gaztelaniaz egina baitzegoen.

Zuzendaritza Nagusi honen iritzia da kexa-egileak “El euro, nuestra moneda” liburuxkaz ari dela, zeina Espainiako Bankuak argitaratua baita, honekin batera bidali dugun ale batek erakusten duen bezala. Liburuxka hori Nafarroako Gobernuak etxeetara bidali zuen, eurorako sarrerari buruz estatuak egin zuen kanpainaren barrenean. Horrela, bada, ez da Nafarroako Gobernuak eginiko argitalpen bat eta, beraz, gobernu horrentzat loteslea den hizkuntza-araudiaren eraginetik at dago.

Hori alde batera utzirik, [...] jauna Iruñean bizidenez, [...] kalean, eskubidea dauka administrazioarengana euskaraz jotzeko eta erabakitzeko zein hizkuntzatan nahi duen tramita daitezela interesdun izaera dueneko administrazio prozedurak (eta hori ez da kasua, jarraian azalduko dugunez).

2. [...] jaunak eginiko eskaera ezin da jo zuzenbidea aplikatzeko eskaera bat denik, Administrazio prozedura erkideari buruzko legeari jarraikiz tramitatu beharrekoa. Izan ere, ez da arau batean jasotako eskubide orokor baten gauzatze partikularra,

kasuan kasuko administrazio ebazpenaren bitartez herritar bati aitortu behar zaiona.

Gure ustez, [...] jauna egiten ari dena da norbanakoak eskea egiteko duen eskubidea egikaritzea, postontzietara banatzen den argitalpen bat euskaraz bidal dakion.

Hortaz, hori ez da azaroaren 26ko 30/1992 Legeari loturiko harreman bat: bere datoren arabera –2001eko abenduaren 27a–, jadanik aplikatzen zena Eskea egiteko eskubidea arautzen duen lege organikoa, 2001eko azaroaren 13koa.

Aipaturiko lege organikoko 3. artikuluko bigarren lerroak ezartzen duenez, eskaerak, kexak edo iradokizunak ez dira eske-eskubidearen xede izanen, baldin eta antolamendu juridikoak berarizko prozedura bat, lege organiko honek arautzen duenaz bestelakoa, ezartzen badu haiei erantzuteko.

Kontrako zentzuan esanda, administrazio-egintzen sorrera arautzen duena Administrazio prozeduraren legea da. Begi-bistakoa da informazio-liburuxka bat materialki igortzea, hizkuntza batean zein bestean, ez dela administrazio-egintza bat; beraz, hura ez du Administrazio prozedura erkidearen legeak arautzen.

Eskea egiteko eskubideak bestelako tramitazio bat dauka, administrazio prozedurarena ez dena, eta hartan ez dago administrazioaren isiltasunari buruzko ziurtagiririk.

Eskea egiteko eskubideari buruzko lege organikoak epaileen kontrolak ezartzen ditu botere publikoek eskeei dagokienez agertzen duten jokabiderako, eta kexa-egilearen salaketaren arabera izan ez den administrazio-tramite hori ez da ezein kasutarako ezarri.

Ondorioak:

1.- [...] jaunak salaturiko arazoan, ez da bidezkoa administrazioaren isiltasunari buruzko ziurtagiririk egitea.

2.- “El euro, nuestra moneda” liburuxka, Espainiako Bankuak argitaratua, banatu da Nafarroako Gobernuak eskueran izan duen bertsio bakarrean.

ANALISIA:

Lehenik eta behin zehaztu eta argitu behar izan genuen kexa-egileak aipatzen zuen liburuxka “El euro, tu moneda” izeneko zela, Nafarroako Gobernuak euroari buruzko informazio-kanpainarako argitaratua, erreklamazio-egileak praktikan frogatu zuen bezala, haren kopia bat aurkeztu baitzuen; alegia, ez zen Espainiako Bankuak argitara-

turiko eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuaren txostenari erantsitako liburuxka.

Zehaztapen horren ondoren, adierazi genuen ezen, bidali ziguten txostenaren arabera, [...] jaunak euskaraz zuzentzeko eskubidea duela soilik interesdun izaera dueneko prozeduretan. Ondorioztatu genuen ez zela hori kasua, eske-eskubideari dagokion berriazko prozedura erabili baitzen.

Gure iritziz, gogoeta horrek ez dauka [...] jaunaren eskaera baliogabetzeko adinako zorroztasunik, zeren eta, oro har, Nafarroako herritarrek Euskararen Foru Legetik eta hori garatzen duen erregelamendutik erortzen diren eskubide guztiak baitituzte euskaraz edo gaztelaniaz jasotzeko administrazio publikoek kaleratzen dituzten argitalpenak, lege horrek zehazten dituen esparruen arabera, geroago ikusiko dugunez. Gainera, eskea egiteko eskubidea arautzen duen azaroaren 12ko 4/2001 legeak berak, txostenean aipatuak, jasotzen du, halaber, herritarrek daukaten eskubidea beren eskaerak aurkezteko hizkuntza ezberdinen erabilera arautzen duten lege autonomikoei jarraikiz (5. artikulua). Eske-egile orok eskubidea du edozein eskaera egiten duenean administrazio publikoek erantzun diezaioten eta, gainera, bidezkoa den hizkuntzan, araudi autonomikoa aplikatuz.

Bigarrenik, txostenak adierazten zuenez, eske-eskubideak administrazio-prozedura erkideaz bestelako tramitazio bat dauka, eta eskubide horren egikaritzeari dagokionez ez dago arauetan jasoa administrazioaren isiltasunari buruzko ziurtagiria egin dadin eskatzeko aukera. Hala da: eske-eskubidea arautzen duen azaroaren 12ko 4/2001 legeak ez du aipatzen ustezko egintzaren ziurtagiririk, baina aipamenik ez egite horrek ez du balio administrazioaren ezezkua oinarritzeko horretarako eskaera egiten zaion kasuetan; izan ere, arauturik ez agertzearen zergatia da nahitaezkoa dela erantzutea eskubide hori erabiltzen den bakoitzean, eta, beraz, erantzunik ez ematea legea urratzea izanen litzatekeela. Legeko 11. artikulua ezartzen du administrazioa betiere behartua dagoela hiru hilabeteko gehieneko epean erantzutera, eta erantzunik ez ematearen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkez daitekeela, oinarritzko eskubideak babesteko prozedurari jarraikiz (12. artikulua).

Behar den epean erantzunik ez bada ematen, Administrazio publikoaren eta administrazio prozedura erkidearen araubide juridikoari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 43. artikuluan ezarritakoa aplikatu ahalko da. Artikulu horren arabera, isiltasuna, eske-eskubidea erabili denean, negatibotzat hartu behar da. Aplikatzekoak dira, halaber,

arau bereko 5. zenbakian ezarritakoa (ustezko egintzei buruzko ziurtagiriak dihardu, gehienez ere 15 eguneko epean eman beharrekoa), bai eta 58. artikulua ere, bidezkoak diren errekurtsioei, epeei eta haiek zein organori aurkeztekoak izateari buruzko informazioa herritarri eman beharraz denaz bezainbatean.

Gure iritziz, okerra da ulertzea Administrazio publikoaren araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legea ezin zaiola aplikatu eskeak egiteko eskubideari, bere lege berezian jadanik berriaz arautua egoteagatik. Egia da lege horretan arauturikoa lehentasunez aplikatu behar dela, baina horrek ez du baztertzen 30/1992 Legea ere aplikatu ahal izatea lege berezi hark espresuki arautzen ez dituen gaietan. Antolamendu juridikoa ez dute osatzen elkar baztertzen duten arau-irla batzuek; aitzitik, bloke bat da, arau-multzo batek osatua; arau horiek elkarrekin loturik daude lehentasun-irizpideak ezartzen dituzten zuzenbidearen printzipio orokorren arabera, eta printzipio horiek aplikatzeko beharrezkoa da gutxieneko hermeneutika-langintza bat, arau-sistema osoaren egituraren koherentzia bilatzearen.

30/1992 Legea erabat aplikagarria zaio eske-eskubideari, gai ugarian: printzipio orokorrak eta eskumenari buruzkoak; abstentzioa eta errefusatzeari; ordezkaritza, herritarrek duten informaziorako eskubidea eta dokumentuen kopiak eskuratzeari; administrazio-isiltasunaren zentzua; terminoei eta epeen zenbaketari buruzko arauak; egintzen forma; jakinarazpenari buruzko arauak; deuseztasuna eta deuseztagarritasuna; eta abar. Gai horietan, bai eta eske-eskubideari buruzko legean espresuki araututa ez dauden beste batzuetan ere, 30/1992 legea, zalantzarik gabe, zeharo aplikagarria da.

Ondorioz, gogorarazi behar dugu administrazioa behartuta dagoela erreklamazio-egileak eskaturiko ustezko egintzari buruzko ziurtagiria ematera.

Jarraian, aztertuko dugu ea, indarreko legediaren arabera, interesdunak eskubiderik ote duen liburuxka hori euskaraz jasotzeko. Horretarako, txosten honetan lehenago azaldu ditugun kasuetan eginiko gogoeten antzekoak egin genituen; horrela, Espainiako Konstituzioko 3. artikulua gaztelaniari eta Espainiako gainerako hizkuntzei buruz ezarritakoa gogoratzen dugu, bai eta Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 lege organiko 9. artikuluan ezarritakoa ere, eta, halaber, abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 1. eta 15. artikuluetan xedatutakoa, Nafarroako Foru Komu-

nitateko administrazioan euskara erabiltzeari dagokionez, azken kasu horretan.

Azken lege hori garatzeko, abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua eman da, Nafarroako administrazio publikoetan euskara erabiltzeari buruzkoa. Informazioa zabaltzeko argitalpen eta liburuxkei buruz hauxe ezartzen du 16.3 artikulua: "Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioko zerbitzu nagusiek biztanle guztientzat egiten dituzten informazio foiletoak, kanpainetako material grafikoa, argitalpenak edo antzeko idazkiak gaztelania hutsean, edo edizio bakar elebidunean, edo gaztelania eta euskarazko edizio bereizietan idatzita egon ahalko dira, kasuen arabera, argitalpenaren ardura duen Departamentuko kontseilari titularren erabakiari jarraikiz".

Beraz, Nafarroako Gobernuako departamentuen titular diren kontseilariak dagokie hizkuntza ofizialen erabilera hautatzea informazio-kanpainetarako eskutitzak edo liburuxkak argitaratzean, baina agindu horrek ez du ematen ahalmen arbitrario bat erabakitzeke zein hizkuntzatan argitaratu behar diren liburuxka horiek, organo eskudunari diskrezio-ahal bat baizik, hartutako neurrien arrazoizotasunak jartzen duen mugarekin balia daitekeena, eta baztertu beharreko arbitrariotasunaz jokatzeko dute bere xede juridikoetatik –hala nola, objektibotasunez guztien interesen alde jokatzeko (Espainiako Konstituzioaren 105. artikulua)– urruti dauden arrazoi subjektiboetan oinarritzen diren ebazpen administratiboek. Horregatik, diskrezio-ahal oren erabilera betiere kokatu beharko da, nahitaez, objektibotasunaren eta interes kolektiboen defentsa onargarriaren esparruan; eta horrelakorik frogatzen ez bada, arbitrariotasun bihurtzen da.

Liburuxka edo eskutitz batzuk argitaratze hutsek, nolana ere, horiek jaso behar dituen populazioaren ezaugarri soziolinguistikoak kontuan hartzea behartzen du. Ez da hautaketa libre bat, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak besterik gabe balia dezakeena liburuxken argitarapena gaztelaniaz egin dadila aukeratzeko: horrela jokatzeko, diskrezio ahal bat erabiltzen ari da, eta horrek liberaltasun hutsarena ez den beste esparru batean kokatzen du afera. Jakina, foiletoak soilik erdaldunentzat baldin badira, hizkuntza hori aukeratzeko guztiz justifikaturik dago. Baina material grafiko hori banatzen bada euskara erabiltzen den tokietan, eremu mistoan eta euskal eremuan, hautaketa horrek ez du juridikoki justifikatzen liburuxkak erdaraz soilik argitaratzea.

Euroa sartzeko kanpaina Nafarroako populazio osoari zuzenduta badago, non sarturik baitaude eremu euskalduneko eta euskara erabiltzea auke-

ratu duten eremu mistoko biztanleak, liburuxkak eta eskutitzak ele bitan argitaratu behar dira, edo gaztelaniaz eta euskaraz, bereizita, baina ez gaztelaniaz soilik, hala eginez gero ez baita betetzen Euskararen Foru Legean argiro adierazitako irizpidea, administrazio publikoen jarduera Nafarroako errealitate soziolinguistikora egokitu beharra, alegia.

Ildo horretan, komeni da gogoraraztea Eremu urriko hizkuntzen Europako Gutunaren 12. artikulua aipatzen duela ezen, hizkuntza horiek mintzatzeko diren lurraldeetan, administrazio publikoek konpromisoa hartu behar dutela modu egokian integratzeko "erregioetako edo eremu urriko hizkuntza eta kulturen ezagutza eta erabilera, horren baitako ekimenekoak diren jardueretan edo haien sostengua jasotzen dutenetan", hizkuntza horiek mintzatzeko diren eremu edo lurraldeetan. Aipatutako foru legeak bezala errealitate soziolinguistikoaren irizpidea aipatzen duen agindu hori osoki hartu du bere gain Espainiak, 1992/18285 berrespen tresnaren bidez.

Alabaina, esandakoa gorabehera, ez dugu ahaztu behar euroa ezartzeko kanpaina aspalditxo bukatu zela, eta ez litzatekeela zentzuzkoa izan Nafarroako Gobernuari eskatzea liburuxka euskaraz argitara dezan, erreklamazio-egileari helarazteko, bere garaian betebeharra izan zena berandu betetz; hori dela-eta, gure erabakiak ukituko ditu soilik etorkizunean gerta daitezkeen antzeko jarduketak.

Hori guztia dela-eta, Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuari LEGEZKO BETEBEHARRAREN GOGORARAZPEN bikoitza egin genion: a) [...] jaunak eginiko eskaerari erantzun espresa eman diezaion, edo, bestela, hainbestetan eskatu izan duen ustezko egintzari buruzko ziurtagiria bidal diezaion; eta b) etorkizunean egitekoak diren antzeko kanpainetan, Nafarroako populazio osoari zuzendurikoetan, argitalpen, liburuxka eta inprimakiak gaztelaniaz eta euskaraz argitara ditzan, edo ele bitan, eremu euskaldun eta mistoetako biztanleei bidaltzeko, eskaeraren arabera.

Departamentu horrek hasiera batean bidali zigun erantzunean adierazten zuen ezen, salatu bezala, egia zela nahasmen bat izan zela kezaren gaia zen liburuxka zein zen zehaztean; izan ere, oker baten ondorioz, ulertu zen guk aipaturiko liburuxka Espainiako Bankuak bidalitako bat zela, nahiz eta, benetan, Nafarroako Gobernuak berak bidalitakoa izan.

Hala eta guztiz ere, esaten zuen ezin zela onartu legezko betebeharrari buruz eginiko gogorazpena, alegia, eskaturiko ziurtagiria, ustezko

egintzari buruzkoa, partikularrari eman beharrari buruzkoa, haien iritziz eske-eskubidea ez baitzegoen Administrazio publikoen araubide juridikoari eta administrazio prozedura erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeko xedapenei lotua; horrela, bada, administrazio-egintzarik ez zegoez, ez zen bidezkoa ulertzea ustezko egintza negatibo bat gauzatu zela. Azkenik, eremu misto eta euskaldunetarako liburuxkak ele bitan argitaratu beharrari buruz, adierazten zuen arau orokorra dela gaztelaniaz argitaratzea eta, edozein kasutan ere, bidezkoagoa izanen zela gomendio bat helarazi izana, eta ez legezko betebeharren gogorazpen bat.

Erantzun hori zela-eta, departamentuari adierazi genion egia zela gure ebazpenean aztertu genuela prozedura-legeak eske-eskubidean duen eragina, administrazioaren txostenean agertzen ziren argudio guztiei erantzuna ematearren; dena den, kontua da azterketa juridikoaren hasieratik ohararazi genuela ez zela zuzena esatea [...] jaunak ez zeukala eskubide edo interes zilegirik euskarazko liburuxkak eskatzeari zegokionez, eta aipatu genuen iritzirik ez zeukala behar adinako zorrotasunik [...] jaunaren eskaera baliogabetzeko, zeren eta, oro har, Nafarroako herritarrek Euskararen Foru Legetik eta hori garatzen duen erregelamendutik eratorritako eskubide guztiak baitituzte administrazio publikoek kaleraturiko argitalpenak euskaraz edo gaztelaniaz jasotzeko. Beraz, kontua ez zen eske-eskubide soil bat egikaritzeari buruzkoa, baizik eta foru arauak aitorturiko eskubide bat, argitalpenak hizkuntza aukeratu jasotzekoa, egikaritzeari buruzkoa.

Eskea egiteko eskubideari dagokionez, Konstituzio Auzitegiaren uztailaren 14ko 249/1993 epaiak honakoa dio: "hizpide dugun eskubidea hezurramitzen deneko eskea neurri handian herritarren partaidetzarako tresna bat da, nahiz eta iradokizuna egitearen bidetik izan, eta neurri apalagoan, adierazpen-askatasunaren egikaritzea ere bada, iritzia emateko aukera gisa. Hondar-kontzeptua izaki, baina ez ordea historiako hondar bat, Konstituzioan aitorturiko eginkizun bat betetzen du, eta hura zehazteko, agian adierazkorragoa litzateke zedarritze negatibo bat egitea. Ikuspegi horretatik, kontzeptutik kanpo gelditzen da bereziki babesturiko interes zilegi edo eskubide subjektibo baten alegazioan oinarrituriko edozein ekimen (...)".

Aztergai dugun kasua ez zen oinarritzen euskarazko liburuxkak jasotzeko interes orokor soil batean, zeina nahierara erabaki daitekeen onartu edo ez onartzea, lehenagotik existitzen diren eskubide edo interes zilegietatik eratortzen ez den beste edozein eskaera bezala; halaber, ez zen gai

publikoetan herritarrek parte hartzeko eskubidea egikaritzeari buruzko kasu bat, hori baita eskea egiteko eskubidearen oinarria eta zergatia; hori guztia ez, baizik eta antolamendu juridikoak eremu misto eta euskaldunetako herritar euskaldunei aitortzen dien eskubide bat egikaritzea zen kasuaren muina. Horrexegatik, egokia iruditzen zaigu administrazio publikoari gogoraraztea eskaerei erantzun behar diela eta ustezko egintzaren ziurtagiria egin behar duela; zer esanik ez, prozedura-lege arrunta aplikagarria da.

Bestalde, liburuxkak idaztean gaztelania erabiltzera behartzen duen arau orokorrari dagokionez, euskara Nafarroako administrazio publikoetan erabiltzeari buruzko abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuko 16.3 artikuluan argitalpen eta informazio liburuxkei buruz xedaturikoa gogoratu behar da, bai eta gure ebazpenean egiten genituen gainerako gogoetak ere, diskrezio-ahal horren onargarritasunaren mugari buruzkoak eta dokumentu horiek jomuga duten populazioaren ezaugarri soziolinguistikoei buruzkoak.

Ondorioz, kontua ez da arau orokorrari lehenatasuna ematea arau bereziaren gainetik, baizik eta bakoitza aplikatzea legeak kasu bakoitzean ezarritako esparruan; beraz, bi horien artean ezin da kontraesanik egon.

Azkenik, legezko betebeharren gogorarazpenaren orde zela gomendio bat egitea egokiagoa izateari buruz, adierazten genuen ezen bereizketa horrek ez zuela inolako problemarik sortzen; izan ere, gogorarazpena dela edo gomendia dela, kontua da foru administrazio horrek onartzea aurrerantzean euskarazko edo ele bitako argitalpenak egitea, gaztelaniazkoaz gain, eremu misto eta euskaldunetako herritarrei bidaltzeko, hautatzen duten hizkuntzaren arabera, horretarako eskubidea baitute.

Gogoeta horiek berriro departamentu horretara bidali ondoren, departamentuak adierazi zuen, azkenean, eskaerari ezezkoa ematen zion ebazpena jakinarazi egin ziola kexa-egileari; horrela, bada, puntu honetan onartu egiten zen administrazio horri egin genion legezko betebeharren gogorarazpena, aurkezten dizkioten eskaerei espresuki erantzuteko betebeharrari buruzkoa.

Alabaina, gure ebazpenean aipatzen genuen beste gaiari dagokionez, alegia, Nafarroako Gobernuak duen betebeharra informazio-liburuxkak ele bitan edo gaztelaniaz eta euskaraz, bereizita, argitaratzeko, eremu euskaldunean edo mistoan banatze aldera, departamentuak adierazten zuen ez zuela onartzen legezko betebeharrei buruz guk eginiko gogorarazpena, ulertzen baitzuen ezen ez Euskarari buruzko Foru Legeak eta ez

hura garatzeko erregelamenduek ere ez diotela betebeharrak ezartzen adierazi zitzaion moduan jokatzeko, baizik eta Nafarroako Gobernuako kontseilari bakoitzari dagokiola bere diskrezioaren arabera erabakitzea nola argitaratu behar diren liburuxkak: gaztelaniaz soilik edo euskaraz ere bai. Adierazten zen ezen, ahal hori baliatuz, kasu bakoitzean komeni dena erabakiko dela, eta arauak ez dutela foru administrazioa behartzen gure ebazpenean adierazten genionari jarraikiz jokatzera.

Horrenbestez, azken puntu horretan guk egini-ko legezko betebeharren gogorazpena aintzat ez zela hartu jotzen dugunez, erabaki dugu, gure erakundea arautzen duen legeak ezarritakoa betez, aintzat ez hartze horren berri ematea urteko txosten honetan.

EUSKARAZ ARRETA EMATEA BORTZIRIETAKO OSASUN ETXEAN (LESAKAKO OINARRIZKO OSASUN BARRUTIA).

Zenbait kexa-idazkiren bitartez (02/31/C, 02/32/C, 02/121/C eta 02/123/C espedienteak), Lesakako oinarrizko osasun barrutian kokaturiko herrietako zenbait biztanlek beren desadostasuna agertu zuten Bortziritako biztanleei osasun-arloan ematen zaien zerbitzuarekin, haien iritziz ez baitaukate langile euskaldunen (medikuak, erizainak, administrari laguntzaileak eta abar) zerbitzua eskueran izateko bermerik.

Horri buruz, adierazten zuten ezen, irailaren 5eko 154/1994 Foru Dekretuaren bitartez, Nafarroako Gobernuak zehaztu zuela zein ziren Osasunbideko plantilla organikoko plazak, eremu euskaldunekoak, euskara jakitea nahitaezkoa zeukatenak. Hartan xedatzen zen, halaber, euskara merezimendu berezia izanen zela gainerako plazetan. Geroago, abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretuaren bitartez, arau horiek aldatzea erabaki zen, halako moldez non euskarak eremu euskaldunetan merezimendu gisa zeukan balorazio berezia ezabatu zen, eta hizkuntza hori beste merezimendu bat izatera pasa den, Europar Batasuneko gainerako hizkuntzekin batera baloratua izanen dena.

Halaber aipatzen ziren Lesakako osasun etxe-ko plantillako postu zehatz batzuk, administrari laguntzaile batena kasu, edo mediku baten beste bat kasu, zeinetan euskara jakitea ez zen nahitaezkoa, edo eskaturiko jakintza-maila haien iritziz erabat eskasa zen.

Hori guztia zela-eta, eskatzen zuten aintzat har zedila beren kexa, osasun-laguntzaren arloan euskaldunen hizkuntza-eskubideak berma daitezen.

Kexa-idazki horretan adierazitakoa ikusirik, hasiera batean jakin nahi izan genuen zein eratan ari zaion Nafarroako Gobernuako Osasun Departamentua gai honi aurre egiten eremu euskalduneko landa-eskualdeetan, kontuan izanik eskualde horietako batzuetan euskaraz baizik ez dakiten pertsona elebakarrak egon daitezkeela; zehazki, Bortziritako (Lesakako oinarrizko osasun barrutia) kasuaz galdetu genuen, eta informazioa eskatu genuen horrelako egoerei erantzun ahal izateko tokian tokiko plantilletan eskueran dauden langileei buruz.

Departamentuko kontseilariak bidali zигun lehen erantzunean adierazten du ezen "Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren jarduerak, biztanleek zerbitzua langile euskaldunengandik jasotzeko dagokionez, honakoetan xedatutakoari lotu zaio: Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzen duen abenduaren 11ko 372/2000 Foru Dekretua, Gobernuak 2001eko urtarrilaren 8an hartutako Erabakia, euskararen erabilera buruzko araudia eremu euskaldunetan aplikatzeko jarduketak-plana onetsi zuena, eta uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretua, agertzen duena Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoko zein lanpostu –Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakaskuntzako langileak salbu– eskuratzeko den beharrezkoa euskara jakitea –jakintza-maila zehaztuta– edo euskara merezimendu gisa hartzea, beste batzuen artean.

Erantzun guztiz eskas hori ikusirik, zenbait gogoeta helarazi genizkion kontseilari horri, eta jakinarazi genion arartekoaren erakundeak ez zuela zalantzan jartzen departamentu horrek eta Osasunbideak berak aztergai dugun arloari aplikatzekoa zaion araudia betetzen dutela. Izan ere, egiten ditugun jarduerak ugaritan ikusten dugu herritarrek aurkezten duen kexa ez dagoela nagusiki oinarrituta administrazioaren jokabide "legez kontrako" batean.

Alabaina, jakinarazi genion, bestetik, topo egiten genuela egoera batzuekin zeinetan, ezein arau-hausterik gertatu gabe, herritarren eskubide eta askatasunen betetze-maila ez den guztiz asegarria.

Bestalde, eta kexa-espediente honetan adierazi zitzaigun gaiari dagokionez, hots, biztanleek langile euskaldunen zerbitzua izatea, jadanik aukera izan dugu esateko guregana jo duten guztiei, Osasunbideak postu ezberdinetarako egini-ko deialdiak zirela-eta kexa orokorra adierazi izan digutenean, administrazio publikoek ahalmen handiak eta garrantzitsuak dituztela beren burua antolatze-ko eta, beraz, lanpostuetarako deialdiak taxu-

tzeko. Horrela, bada, administrazioek euskaraz zuzentzen zaien herritarrei erantzuteko modua ahalmen horien agerri bat besterik ez da; edo nola ere, ahalmen horiek aplikagarria den araudian herritarrei aitortzen zaizkien eskubideak bermatu beharko dituzte betiere.

Orokorrean, deialdi jakin batzuk era zehatz batean taxutuak izanagatik, hizkuntzen ezaguerari dagokionez, ezin da alde aurretik juzgatu hizkuntza eskubideak urratzen direla. Aldiz, kasuz kasu aztertu beharko da herritarrei egiaz nola erantzuten zaien, haiei aitortzen zaizkien eskubideak kontuan hartuta. Administrazio publikoekiko harremanean hizkuntza eskubide horiek egiazki urratzen direnean soilik esku har dezake arartekoaren erakundeak, dagoeneko zenbait aldiz egin izan duen bezalaxe, aztertzeko ea herritarrek jakinarazi izan dizkiguten kasu zehatz batzuetan eskubide horiek errespetatu diren ala ez haiek administrazioarekin izandako harremanetan, eta betiere jokatzeko araudiak gure erakundeari ematen dizkion ahalmen zabalen esparruan, zeinak antolatutik baitaude gure Konstituzioak eta LORAFNAk jasotzen dituzten eskubide eta askatasunen babes-maila babesu eta hobetzeko langintzaren inguruan.

Zehaztapen horiek egin ondoren, eta arartekoaren erakundeak esleituta duen eginkizuna betezen segitu ahal izateko, behartuta egon ginen aurretik egin genuen informazio-eskaera errepikatza, horrela zehaztu ahal izateko norainoko zerbitzua ematen zaien zerbitzua modu horretan eman diezaieten eskatzen duten herritarrei, premia horiei erantzun egokia ematen ari ote zaien eta, azkenik, arartekoaren erakundearen aurkezturiko kexak funtsik ote duen ala ez.

Azkenik, informazio eskaera lau aldiz egin ondoren, departamentuko kontseilari berria izan zen erantzuna bidali ziguna. Erantzunean xehetasunez agertzen ziren osasun-etxe horretan dauden langileak, bai osasun-arlokoak bai arlo horretakoak ez direnak ere, eta haien plazaren zenbakia eta hizkuntza-eskakizuna ere zehazten ziren. Datuak hauek dira: plantilla osatzen duten 26 profesionaletatik, 21ek euskaraz badakite, eta beraz, hizkuntza horretan ematen dute zerbitzua, horretarako eskaera egiten bazaie.

Kopuru horrek langile horien % 80,76 egiten du, eta kontuan hartu behar da, gainera, haietako beste hiruk jakintza-maila baxua daukatela, ikasketa-fasean dauden arren; horrela, bada, bi profesional dira hizkuntza hori hitz egiten ez dutenak; bata, medikuen taldekoa, eta bestea, erizainen taldekoa.

Hortaz, aipatu departamentuak justifikatu egin dituen informazioa eskatu zaioneko puntuak, jasotako informazioa kexaren egileari igorri genion eta amaitutzat jo genuen kexa horren inguruko gure jardura.

IRUÑEKO UDALAREN BULEGOETAN EUSKARAZ EMATEA ARRETA.

Nafarroako Parlamentuari aurkeztu genion 2002. urteari buruzko txostenean jasota utzi genuen Iruñeko Udaleri eginiko gomendioa, arlo honetan dituen beharrak aztertu ondoren neurriak har zitzan, herritarrek zerbitzua gaztelaniaz edo euskaraz, haien aukeraren arabera, jasotzeko daukaten eskubidea bermatzeko, zenbatekoaren aldetik muntadun diren eta jendeari irekita dauden administrazio-unitateetan. Horren arrazoia zen guri aurkezturiko kexa bat (01/348/C espediente), udal horretako erregistroan zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna zuen langilerik ez zegoela salatzen zuena.

Alabaina, gure txostenean ezin izan genuen jaso udalak gure oharrari emandako erantzuna, txostena amaitu genuenean oraindik erantzun hura jasotzeko zain baikin.

Bada, udal horrek, gomendio hura zela-eta, azkenean adierazi zigun aintzat hartuko zuela, udalaren hurrengo plantilla organikoa antolatzeko eta onesteko unean baloratu eta aztertu ahal izan zezan, betiere euskara erabili eta sustatzeari buruzko ordenantzako 6. artikuluari eta V. kapituluari jarraikiz.

EUSKARAZ EZ ERANTZUTEA IRUÑEKO UDALERA HIZKUNTZA HORRETAN JO DUEN HERRITAR BATI.

Kasu honetan (03/17/C espediente) adierazten zitzaigun kexa-egileak eskaera bat aurkeztu zuela, euskaraz, Iruñeko Udalean. Eskaera hura zen Iruñeko Udaleko Toponimia Batzordeak beste bilera bat egin zezan eta osoko bilkurak udal dermioaren euskarazko zehaztapen geografiko, toponimiko eta kartografikoak onets zitzan. Udalak erantzun ez zuenez, administrazio-isiltasunari buruzko ziurtagiria eskatu zuen, euskaraz ere. Kultura arloko zinegotzi delegatuak erantzun zion azkenik eskaerari. Erantzuna euskaraz eta gaztelaniaz helarazi zitzaion.

Adierazten digunez, azken puntu hori, alegia, erantzuna gaztelaniaz eta euskaraz helarazi zitzaiole, da bere kexaren zergatia, eta ez du baloratzen ebatzitatearen edukia; horrela, hauxe dio:

“Iruñeko Udalaren euskarari buruzko ordenantzako 6. artikulua arautzen duenez, euskaraz aurkezturiko eskaerei emandako erantzunek hizkuntza horretan behar dute idatzita egon.

Hortaz, oker bat egin da: gaztelaniaz ere erantzun izana.

Eskatzen dut:

Lehenbizi: Iruñeko Udalarari gogoraraztea erantzun hori soilik euskaraz bidali behar dela, eta ez gaztelaniaz eta euskaraz.

Bigarren: Iruñeko Udaleko euskararen ordenantzako 6. artikulua urratzea ohiko jokabidea denez, Iruñeko Udalarari gogoraraztea euskaraz behar diela erantzun (eta ez euskaraz eta gaztelaniaz) euskaraz egindako eskaerei.”

Bestalde, hauxe eskatzen du:

“Iruñeko Udalak administrazio-prozedurari buruzko legea urratu duenez, lege hori bete behar duela gogoraraz dakiola.

Hau da, erantzuteko epea hiru hilabetekoa denez gero, gogoraraz dakiola epe horren barrenean erantzun behar duela.

Halaber, gogorazi behar zaiola ezen, aipaturiko epean ez badu erantzunik ematen eta administrazio-isiltasunari buruzko ziurtagiria eskatzen bazaio, horretarako epea hamabost egunekoa dela.”

Kexa aztertu ondoren, eta erakunde honek esku hartzeko dituen aukera zehatzak argitzearen, Iruñeko Udalarari jo genuen, kexan salatutako arazoari buruzko informazioa eman ziezagun.

Azkenik, Kulturako zinegotzi delegatuak informazio hori bidali zигun, eta hauxe adierazi zигun:

“2002ko apirilaren 18an, [...] jaunak instantzia bat aurkeztu zuen udal honetan, udal dermioaren euskarazko zehaztapen geografiko, toponimiko eta kartografikoak ezartzea eskatzeko, bai eta hiriko auzo eta kaleen izenak ere.

Uztailaren 23an, administrazio-isiltasunari buruzko ziurtagiria eskatu zuen, ez baitzitzaion inolako erantzunik eman.

Abuztuaren 13an, zinegotzi delegatuak ebazpen bat onetsi zuen, eskaerari ezezkoa ematen ziona, eta komunikazio bat igorri zen jakinarazpenetarako adierazitako helbidera. Itzulpeneko oker bat zela-eta, ezkaratzaren zenbakia aldatu zen, halako moldez non 5. ezkaratzeko 4. solairua nahastu eta 4. ezkaratzeko 5. solairua izatera pasa baitzen; hori zela-eta, ez zen lortu ebazpen hori kexa-egileari helarazterik.

Urriaren 1ean, udaleko idazkariak Kultura arloari jakinarazi zion gora jotzeko errekurtoa aurkeztu zela, eskaerarekin administrazio-isiltasunaz jokatzearen ondorioz. Errekurtoa aurkeztu eta egun bat geroago ebazpen espresa eman zen.

2002ko abenduaren 20an, Nafarroako Administrazio Auzitegiko lehendakariak errekurto horren ebazpenaren berri eman zuen; ebazpen hartan, udala premiatzen da behar bezala jakinaraz diezaion errekurto-jartzaileari Kultura arloko zinegotzi delegatuak 2002ko abuztuaren 13an emandako ebazpena.

2003ko urtarrilaren 2an jaso zen jakinarazpen hori, eta jaso izanaren baieztapena ere sinatu zen, horretarako [...] jaunak adierazia zeukan helbidean.

Jakinarazpen hori euskaraz egin zen, ordenantzak adierazten duen bezala, eta gaztelaniaz –ez ele bitan– ere, bi euskarri ezberdinetan baitzegoen, Nafarroako Administrazio auzitegiak berak aitortu duenez: “ele bitan” dago bi hizkuntzak batera agertzen baldin badira euskarri berean.

ANALISIA:

Kexan adierazitako bi punturi buruz, azterketa berezia egin zen:

1.- Bata da Iruñeko Udalaren esparruan euskara erabili eta sustatzeari buruzko ordenantzan herritarrei aitortzen zaien eskubidea, haiek aukeratzaren duten hizkuntzan (gaztelaniaz edo euskaraz) administrazioaren zerbitzua jasotzekoa.

Bertako 5. artikulua hauxe dio: “Hiritarrek Iruñeko Udalarari gaztelaniaz nahiz euskaraz egiteko eskubidea dute.” Eta 6. artikulua, honakoa: “Idatziz, administrazioari euskaraz egitea hautatzen duten hiritarrei halaberean erantzunen zaie. Horretarako, euskara itzultzailea arituko da eta horrexek emanen ditu bertsio ofizialak, bai hiritarren eskaerena gaztelaniaz, bai hari eman behar zaion udal erabaki edo erantzunarena.”

Aztergai dugun arazoa jadanik lehenago tratatua izan da, erakunde honetan tramitaturiko zenbait espedientetan, eta horri esker aukera izan dugu ezagutzeko nola aplikatzen ari den udala xedapen horiek, herritarrei udalarari euskaraz zuzentzeko aitortzen zaien eskubidea gauzatzeko, bai eta, horrekin lotuta, eskubide horrek administrazioari dakarkion betebeharra ere, hari euskaraz erantzutekoa. Azken batean, haietan agerian jarri da udalak horri buruz duen jarrera.

Udalak errepikatu izan duen irizpidearen inguruko interesa dela-eta, komeni da hemen jasotzea udalak 2002ko abuztuaren 14an zuzendu zигun

idazkian adierazitako gogoetak (idazki hori arartekoaren erakundetik eginiko gomendioari bidalitako erantzuna izan zen –176/2001/3 espedientea–):

“ LEHENA.-Euskararen erabilera eta sustapenari buruzko ordenantzak, III. eta IV. kapituluetan, bi oinarrizko jarduera-mota eta horiekin batera doazen eskubideak (eta/edo konpromisoak), bakoitzaren ondoriozkoak, arautzen ditu:

1. Herritarrak udalera jotzen duenean (III. kapitulua), eta

2. Alderantziz, administrazioa denean herritarrengana jotzen duena (IV. kapitulua)...

“Azkenik, alderdi batek eskatuta hasitako banakako espedienteek dagokienez, hau da, herritarra denean administrazioa jotzen duena (eta ez alderantziz), praktikan ez luke baliorik ereduzko inprimaki batean adierazpen orokor bat –udalak ele bitan erantzun diezaion herritarrari– txertatzeko gomendioak; are gehiago, ez litzateke beharrezkoa izanena, herritarren eskubidea haratago doalako eta euskararen sustapena arautzeko ordenantzen III. kapituluko 6. artikulua bermatzen duelako erabat, beste modu batean bada ere, administrazio honetara euskaraz jotze hutsak berarekin dakartzalako administrazio honek euskaraz erantzuteko eskubidea eta betebeharra, eta hala egin izan du Iruñeko Udalak erabateko normaltasunez (ez ele bitan, euskaraz baizik), udalaren itzulpen zerbitzuen bidez, herritarrak eginiko eskabidearen eta jakinarazi behar zaion udal erabakiaren edo erantzunaren gaztelaniazko bertsio ofizialak prestatzen dituenak...”

Ondorioz:

a) “.. Herritarrak udal honetara jotzen duen kasu eta prozeduretan... administrazio honetara euskaraz jotze hutsak berarekin dakar, automatikoki, erantzuna hizkuntza horretan izatea (ez ele bitan, aukera hori ez baita aurreikusten, euskaraz baizik), udalaren itzulpen zerbitzuen bidez; izan ere, horixe izaten ari da jokatzeko modua...”

Interesdunak azaldutako gertakariak eta udalak eginiko gogoetak –jadanik adieraziak– kontuan harturik, esan behar dugu ezen, nahiz eta udalak emandako erantzunak, bi hizkuntzak (gaztelania eta euskara) erabiltzen dituenak, ez duen gorpuzten herritarrak euskaraz artatua izateko duen eskubidearen aurkako jarduketa bat –hizkuntza horretan eman baitzaio erantzuna–, kontua da, alabaina, ez dugula aurkitzen inolako justifikazio-arrazoirik udalak araudia aplikatzeko zeukan irizpi-

dea aldatzea azaltzen duenik. Ados gaude irizpide horrekin, eta pentsatzen dugu argudio sendoetan oinarritua dagoela, eta egokiago erantzuten diola ordenantzako 6. artikulua testuari. Hori guztia dela-eta, GOMENDIOA egin genion udalari, aurreantzean ere irizpide horri eusteko, eta interesdunek euskaraz aurkezten dizkioten eskaerei euskaraz ere erantzun diezaien, horrela behar bezala betez ordenantzako 6. artikulua.

2.- Ebazpena emate aldera lege ezartzen diren epeak ustez Iruñeko Udalak ez betetzeari dagokionez:

Puntu honetan, komeni da gogoraraztea ezen Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Foru Legeko 47. artikulua honakoa xedatzen duela epe-mugak eta epeak bete beharri buruz: “Gaiak izapidetzeko eskumena duten administrazio publikoetako agintari eta langileek eta gai horietako interesdunek bete egin behar dituzte lege honetan nahiz besteetan ezarritako epe-mugak eta epeak.”

Lege horretako 42. artikulua hiru hilabeteko epe orokorra ezartzen du ebazpena emateko; eta 43. artikulua amaieran dio ezen administrazioaren isiltasuna egiaztatzeko ziurtagiria gehienez ere hamabost eguneko epean eman behar delako.

Azalpen honen hasieran zehazturiko gertakariak agerian uzten dute, bai interesdunak bai udalak adierazi dutenarengatik, udalak ez dituela bete lege ezarritako epeak.

Horregatik, egoki jo genuen Iruñeko Udalari LEGEZKO BETEBEHARREN GOGORAZPENEA egitea, aipaturiko xedapenak, zehazturiko epeetan ebazpena emateko betebeharra ezartzen diotenak, bete ditzan aurreantzean.

Udal horri hiru aldiz ere eskatu ondoren erantzun zezala, azkenean erantzuna bidali zitzaigun, eta hartan adierazten zen onartu egiten zela eginiko gomendioa, eta bat zetorrela Nafarroako herritarren eskubideen errespetuan, indarreko legeen betetzean eta, bereziki, administrazio-prozeduren tramitazio eta ebazpenean.

Ildo horretatik, adierazi zitzaigun gomendio hori aintzat hartuko zela, udalari euskaraz aurkezten zaizkion eskaerei euskaraz soilik erantzutearen irizpidea mantentzeari zegokionez, eta horrela, behar bezala beteko zela ordenantzako 6. artikulua.

II- 04. HEZKUNTZA**ESKOLATZEA****IKASLE ETORKINAK KONTZENTRATURIK EGOTEA TUTERAKO IKASTETXE PUBLIKOAN.****AURREKARIAK**

Tuterako Virgen de la Cabeza ikastetxe publiko gurasoen elkarteak (03/48/E espedientea) azaldu zigun ikastetxe horretan zer-nolako egoera sortu zen ikasle etorkinen kontzentrazio gero eta handiagoaren ondorioz.

Idazki batean adierazten zigunez, "ikasle txostenen ezaugarri tradizionala izan da jatorriz herrialde, etnia eta kultura ezberdinetakoak diren ikasle biziak harmoniatsua ahalbidetzea, guztien arteko lotura bat zela medio: auzokoak izatea. Azken urteotan, ordea, etorkin diren biztanleen gorakada nabarmena izan da, eta horrek ekarri du beste etnia batzuetako ikasle kopuruak ere gora egitea. Baina egoera hori ez da modu berean gertatzen ikastetxe guztietan. Tuteran ikusi ahal izan da ikastetxe batzuek ez dituztela ikasle horiek onartzen, edo beste ikastetxe batzuetara bideratzen dituztela, honakoak bezalako aitzakiak erabiliz: "ez daukat irakasle laguntzailerik, eta zure semeak/alabak laguntzak beharko ditu; laguntzabaliabide horiek ikastetxe publikoan dituzte", "bai, hasiera batean onarturikoen zerrendan zegoen, baina eskolako kontseiluak aldatu egin ditu puntuazio-irizpideak, eta dagoeneko ez dauka plazarik", "ikasle txostenak kopuru bat ordaindu behar da hilabete bakoitzean, zeren eta...", "ikasle txosten hau zure etxetik urrun dago; hobeto letorkizuke hurbilago dagoen beste bat, hala nola...", "ez dauka behar bezalako mailarik ingelesean, eta hau ikastetxe elebidun bat da"... Esaldi horiek guztiak aipatu izan dizkigute seme-alabak gure ikastetxean matrikulatu dituzten gurasoek, aurretiaz beste ikastetxe batzuetan onartuak ez izan ondoren. Hezkuntza Departamentuak begiak ixten ditu horrelako jokatzearen aurrean, eta, bereak diren arduetan utzikeriaz jokatzeari, gure ikastetxean ghetto berri bat sor dadin uzten ari da."

Kexa arartekoaren erakundeari aurkeztu baino hiru hilabete lehenago, gurasoen elkarteak idazki bat bidali zion Hezkuntza Departamentuari, ikastetxean sortzen ari zen egoera larria agertzeko. Hala eta guztiz ere, ez zuen inolako erantzunik jaso. Halaber, bilera bat egin zuen ikastetxeko inspektorearekin, eta hark adierazi zion arazo horren eskumena Eskolatzeko Batzordearena eta Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiarena zela.

Departamentutik bidali zitzaigun lehen informazio batean txosten labur bat erantsi zen, eta bertan

honako hau adierazten zen: "ikasle etorkinen eskolatzeko Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren urtaririlaren 25eko 7/2002 Foru Aginduan antolatua dago; foru agindu horrek arautzen du ikasle onartzeko prozesua 2002/2003 ikasturterako. Ikasle horien eskolatzeko arautzen duten irizpideak dira gainerako ikasleena arautzen duten berberak: plaza esleitzen da eskatzen den tokian, postu hutsek egonez gero, kontuan izanik ikastetxeen zonifikazioa. Beraz, ez da egiten ikasle etorkinak ikastetxe jakin batzuetan kontzentratzeko inolako politikarik; ikasleak ikastetxe batzuetan edo beste batzuetan banatzen dira aintzat harturik ikasle gurasoek dituzten eskubide konstituzionalak, ikastetxea askatasunez hautatzeko eta beren seme-alabentzat nahi duten hezkuntza moral eta erlijio-soa aukeratzeko. Horri buruzko datu oso argigarri bat da hiru urteko haurren % 98 inguru eskolatu direla beren gurasoek lehen aukera gisa adierazitako Foru Komunitateko ikastetxean." Txostenak amaieran esaten zuen ezin dela inola ere esan ikasle etorkinak ikastetxe jakin batzuetan kontzentratu daudenik, eta hori arrazoiatzeko, datuak ematen zituen Tuteran dauden ikastetxeetako bakoitzean 2003ko otsailaren 1ean matrikulatuta zeuden ezaugarri horietako ikasle guztizko kopuruari buruz.

Ezinezkoa izanik, bidalitako txostenaren edukiarengatik, kexan salaturiko ikasle etorkinen balizko kontzentrazio hura egiaztatzea, eta kontuan izanik beharrezkoa dela bi datu elkarrekin erlazioan ipintzea, baldin eta ikastetxe batean ikasle etorkin kontzentrazioa dagoen ala ez baloratuko bada (kasuko udaleko ikastetxe bakoitzean dauden haur etorkin kopurua, batetik, eta haietako bakoitzean matrikulaturiko ikasle guztizko kopurua, bestetik), berriro ere Hezkuntza Departamentura jo genuen 2003ko uztailaren 2an, emandako informazioari buruzko xehetasun gehiago eskatzeko.

Zehazki, eskatu genituen datuak hauexek zirenen, 2002/2003 ikasturteari buruzkoak:

1.- Hitzarturiko ikastetxe publiko eta pribatuetan haur eta lehen hezkuntzan matrikulaturiko ikasle guztizko kopurua.

2.- Ikastetxe bakoitzean haur eta lehen hezkuntzako ikasketak egin dituzten haur etorkin kopurua, haien jatorrizko lurraldeari buruzko aipamen orokorarekin batera.

3.- Onarpena eskatu zuten haur etorkin kopurua eta ikastetxe bakoitzean onartu egin zirenen kopurua.

Hezkuntza Departamentuak honako informazio hau helarazi zigun txosten zabal eta zehatz bate-

an, zeinak kexa-idazkian salatzen den egoera aztertzea ahalbidetu digun:

1.- 2002/2003 ikasturtean haur eta lehen hezkuntzako zikloetako talde bakoitzean dauden ikasleen guztizko kopurua.

2.- Ikastetxe bakoitzean denbora-epe horretan haur eta lehen hezkuntzako ikasketak egin dituzten haur etorkinen kopurua, haien jatorrizko herrialdearen arabera adierazia.

3.- Guk eskaturiko hirugarren informazioari dagokionez, hots, ikastetxe bakoitzean onarpena eskatu zuten haur etorkinen kopurua, batetik, eta azkenean onartuak izan zirenen kopurua, bestetik, departamentuaren erantzuna izan da ezen, Eskolatzeko Batzordeak dituen datuen arabera, Nafarroako ikastetxe guztiak kontuan harturik ez dela kasu bakar bat izan non eskaerak gehiago izan diren soziokulturalki egoera behartsuan zeuden eskatzaileentzat ikasgela bakoitzean erreserbatutako plaza bakoitzeko. Ildo horretatik, Hezkuntza eta Kultura Kontseilariak emandako urtarrilaren 25eko 7/2002 Foru Aginduak, zeinak arautzen baitu Nafarroako Foru Komunitatean diru publikotik ari diren irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetan Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ikasleak 2002/2003 ikasturtean onartzeko prozedura, honako hau xedatzen du 18. artikuluan:

1. Sozialki nahiz kulturalki defaboratutako ikasleak eskolatzeko segurtatzeko, ikasle talde baimendu bakoitzeko bi toki erreserbatuko dira gutxienez ere, ikasleak Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehen ikasmilan onartzeko prozesu arruntan, irakaskuntza horiek ematen dituzten eta diru publikotik ari diren ikastetxe guztietan. Halaber, gutxienez ere bi toki erreserbatuko dira ikasle horienentzat, ikastoki hutsik badago, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko bigarren ikasmilako talde bakoitzean.

2. ...sozialki nahiz kulturalki defaboratutako taldeetako familiek izanen dute aukera toki horiek eskatzeko, espainolak edo Europako Batasuneko herritarrak izan nahiz etorkinak...

3. Erreserba horretako tokiak lortu nahi dituzten eskatzaileek hala eman beharko dute aditzera aurreinskripzio inprimakian, eta harekin batera beren herriko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko txostena ere aurkeztu.

ANALISIA:

Lehenik eta behin, Tuterako haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikastetxeei buruz Hezkuntza Departamentuak emandako datu guztien (2002/2003 ikastaroa) azterlan bat egin genuen, datu haien arteko loturak eginez; haietatik, ondorio batzuetara iritsi ginen, eta bigarrenik, hausnarketa batzuk egin genituen; azkenik, eta oraintxe bertatik iragar dezakegu, jarduketa-gomendio batzuk egin genizkion Hezkuntza Departamentuari.

1.- Egungo egoeraren diagnostikorako azterlana:

Azaldu dugun bezala, Hezkuntza Departamentuak emandako datuetatik aztergai ditugunak dira joan den ikasturtean (2002/2003) Tuteran haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan matrikulaturiko ikasleei buruzkoak, hala ikastetxe publikoetan (Elvira España, Griseras, Monte San Julián eta Virgen de la Cabeza) nola pribatu itunduetan (Anunciata eta Compañía de María) matrikulaturikoei buruzkoak.

Ikastetxe horietan guztira 2.551 ikasle daude matrikulatuta, eta horietatik 1.314 (ikasleen % 51,5 egiten dute) ikastetxe publikoetan matrikulatuta daude, eta 1.237 (% 48,5), ikastetxe pribatu itunduetan.

Ikastetxe horietan guztira 259 ikasle etorkin daude matrikulatuta (alegia, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako ikasle guztien % 10), eta horietatik 190 (ikasle etorkinen % 73 egiten dute) ikastetxe publikoetan matrikulatuta daude, eta 69 (% 27), ikastetxe pribatu itunduetan.

Matrikulatuak, guztira	I. Pub.	% I. Pub.	I. Prib.	% I. Prib.
2.51	1.314	% 51,5	1.237	% 48,5

Ikasle etorkinak, guztira	I. Pub.	% I. Pub.	I. Prib.	% I. Prib.
259	190	73 %	69	% 27

Datu orokorren lehen behaketa bat eginez, ikusten da ikastetxe publikoek eta pribatu itunduek haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako plazen eskaintza orokorrean garrantzi bera dutela (hezkuntza-maila horietako ikasle guztiak ia erdibanaturik agertzen dira ikastetxe-mota horien artean), baina titulartasun pribatuko ikastetxe itunduetan eskolatutako ikasle etorkinen ehunekoa (% 27) nabarmen baxuagoa dela titulartasun publikoko ikastetxeetan eskolatutakoena (% 73) baino.

Ikastetxe ezberdinei buruzko banakako datuak elkarrekin erlazionatuz, hauxe ikusten da:

Ikastetxea	Ikasleak, guztira	Ikasle etorkinak	%
Elvira España	275	76	% 27,6
Griseras	435	43	% 9,9
Monte San Julián	448	39	% 8,7
Virgen de la Cabeza	156	32	% 20,5
Anunciata	514	38	% 7,4
Compañía de María	723	31	% 4,3

Zentro horietako biri dagokienez (Elvira España eta Virgen de la Cabeza), eskueran genituen datuak nahasiak ziren, Hezkuntza Departamentuaren bi txostenetan adierazitako ikasle etorkinen guztizko kopuruari buruzko datuak ez baitzetozen bat. Departamentuak eginiko lehen txostenean, zeinak, halaber, 2002/2003 ikasturtea baitu aztergai, adierazten da Elvira España ikastetxeak 105 ikasle etorkin dauzkala, eta ez 76, bigarren txostenak adierazten duen bezala, eta Virgen de la Cabeza ikastetxeak 70 dituela, eta ez 32, bigarren txostenean esaten den bezala.

Bi ikastetxeekin telefonoz harremanetan jarri ondoren, egiaztatu ahal izan genuen ezen, Virgen de la Cabeza ikastetxearen kasuan, aurreko ikasturtean guztira 32 ikasle etorkin egon zirela matrikulatuta; dena den, lehenbiziko txostenean ematen zen datuak (70 ikasle) sartuta zeuden, jatorriz etorkinak diren ikasleak ez ezik, egoera soziokultural behartsuetan dauden ikasle guztiak. Azken kolektibo horretan sartuta daude, halaber, beste gutxiengo etnikoetakoak diren ikasleak, batez ere ijitoak, ikastetxean laguntza-neurri bereziak behar dituztenak. Era berean, Elvira España ikastetxean jatorriz etorkinak ziren 76 ikasle zeuden arren, egoera sozial eta kultural behartsuetan egoteagatik laguntza-neurriak behar zituzten 105 ikasle zeuden guztira. Horrela, egiaztatu ahal izan genuen kexa-idazkian jadanik adierazten zitzaigun errealitate bat: gutxiengo etniko jakin batzuetakoak diren ikasleen kolektibo bat, laguntza pedagogiko gehigarriak behar dituena, jadanik badaukaten ikastetxeetan, horrez gain ikasle etorkinen kontzentrazio handiagoa dago. Horrela, ikasleen kolektibo horien guztizko kopurua aintzat hartzen badugu, honako datu hauek ikusi ahaliko ditugu:

Ikastetxea	Ikasleak, guztira	Gutxiengo etnikoak	%
Elvira España	275	105	% 38,2
Virgen de la Cabeza	156	70	% 45

Datu horiek agertarazten duten errealitate soziala zinez kezagarria da, ikastetxe jakin batzuen pixkanakako marjinalizazio-prozesu baten zantzuk agertzen baitituzte. Ikastetxe horien kokaleku geografikoak zerikusia dauka prozesu horrekin. Baldin eta neurririk hartzen ez bada, marjinalizazio-prozesu horrek gizarte eta hezkuntza arloetako bazterketa eta bereizkeriako egoerak ekar ditzake, gizartearen baitako bizikidetzan eragin biziki larria izanen luketenak, etniari eta arrazari dagozkien osagaiak baileudeke tartean. Kexa-idazkian salatzen den bezalaxe, ikastetxe horiek hezkuntzaren arloko egiazko ghetto bihurtzeraino irits daitezke, non soil-soilik eskolatuko liratekeen gutxiengo sozial behartsuenetakoak diren ikasleak. Era horretan, ikasle horiei murriztu eginen litzaizkieke gizarteratzeko eta gizartean aurrera egiteko egiazko aukerak, eta marjinazioa pairatzera kondenatuak leudeke.

Hezkuntza Departamentuak emandako datuen azterketa amaitzeko, merezi du azpimarratzea ezen, ikasle etorkinen jatorriari dagokionez, haietatik % 70 Hego Amerikako herrialdeetatik datoze-la, % 15 Afrika iparraldetik (Maroko eta Aljeria), % 7 Europar Batasuneko kide diren herrialdeetatik, eta gainerako % 8, hainbat herrialdeetatik, hala nola Europako ekialdekoak, Txina, Ginea, Estatu Batuak eta beste.

Kexa-idazkian salatzen diren jokabide batzuk –ikasle horiek ikastetxe batzuetan ustez ez onartzea edo beste ikastetxe batzuetara bidaliak izatea– alde zuzenetik juzgatzeko asmorik gabe, ez baita halako jokabiderik frogatu, ez genuke nahi, hala ere, analisi honetan aipatu gabe utzi ezen, etorkinen jatorriari buruz adierazi ditugun azken datuen arabera, Hego Amerikako herrialdeetakoak izanik ikasle etorkinen % 70, ez dirudiela ikastetxe pribatu itunduen izaera erlijioso katolikoak gogogabetze-eragina izan dezakeenik ikastetxea hautatzeko eskubidea gauzatzean. Gogogabetze-eragin hori, ustez, nabaritu ahalko litzateke baldin eta ikasleen % 70 hori beste herrialde batzuetakoa balitz, hala nola Maroko eta Aljeria.

2.- Gogoetak:

Departamentuak emandako datuak aztertzeak dagoeneko kezagarria den errealitate bat ikusarazten digu. Guk eginiko informazio-eskearen ondorioz jaso ditugun txostenetan Hezkuntza Departamentuak adierazten du ikasle etorkinen eskolatzea urtarrilaren 25eko 7/2002 Foru Aginduan arautua dagoela, 2002/2003 ikasturterako ikasleak onartzeko prozesua arautzen duen horretan.

Foru agindu horrek prozedura orokor bat ezarritzen du diru publikotik ari den ikastetxe batean

lehen aldiz sartu nahi duten ikasleen onarpena arautzeko. Ikastetxea askatasunez hautatzeko eskubidetik eratorritako eskakizunen arabera da agindu horretan jasotako araubidea, nahiz eta, haietako bakoitzean plaza-kopuru mugatua dagoenez gero, onartzeko lehentasun-hurrenkera bat ezartzen den, zenbait irizpide biltzen dituen baremo bat aplikatuz zehazten dena: urteko errenta, bizi deneko etxea hurbil egotea, ikastetxe berean matrikulatutako anai-arrebak izatea. Horrez gain, egoera sozial eta kultural behartsuetan dauden ikasleak eskolatzea ere bermatze aldera, arauak plaza-erreserba bat ezartzen du, diskriminazio positiboko neurri gisa. Ikasle horiek eskolatu ahal izateko haien hezkuntza-arloko beharrian bereziei behar bezala erantzutea ahalbidetuko duten baldintzetan, eta gogoan izanik normalizazioa eta integrazioa direla ikasle horiek hezkuntza-sisteman txertatzeko errespetatu behar diren printzipioak, plaza-erreserba horrek adierazten du gutxieneko kopuru bat ikasgela bakoitzeko, talde bakoitzeko bi plaza, haur hezkuntzako bigarren zikloko lehen eta bigarren mailetan.

Bigarren txostenean, Hezkuntza Departamentuak adierazten digu: "Eskolatze Batzordeak dituen datuen arabera, Nafarroako ikastetxe guztiak kontuan harturik ez da kasu bakar bat izan non eskaerak gehiago izan diren soziokulturalki egoera behartsuan zeuden eskatzaileentzat ikasgela bakoitzean erreserbatutako plazak baino".

Azken batean, eta Hezkuntza Departamentuak azaltzen digunaren arabera, esan daiteke arau hori ez dela aplikatu, eta ez hori bakarrik: kontuan izanik arau hori aplikatu behar zaion errealitate sozialaren ezaugarriak, argi eta garbi erakutsi du hankamotz dela sozial eta kulturalki behartsuak diren ikasleak ikastetxe jakin batzuetan kontzentratzea eragozteko.

Dagoeneko gertatzen ari den benetako kontzentrazio egoerak eskatzen du lehenbailehen hezkuntza neurriak hartzea, gure erkidegoko hainbat ikastetxetan jada gertatzen ari diren marginalizazio prozesuei irimotasunez aurrea hartzeko eta aurre egiteko, modu horretan gizarte arazoekin loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak ikastetxe batzuetan biltzea saihestu eta interklasismoa eta ikasleen arteko nahasketa susta dadin. Neurri horiek hartu bitartean, beharrezkotzat jotzen dugu ukitutako ikastetxeek hezkuntza baliabide bereziak izatea, ikasle horien hezkuntza premia bereziei modu egokian erantzun ahal izateko, eta horretaz gain, baliabide horiek aipatu ikasleek hezkuntzaren arloan jasaten duten diskriminazio eta desberdintasun egoera konpentsatzeko balio izatea.

Hori horrela, onartezina da esatea formalki ez dagoela konstantziarik soziokulturalki desfavoratuak diren eskatzaileentzat ikasgela bakoitzeko erreserbatutako plaza-kopurua gainditzen duen eskatzaile-kopurua egoteari buruz, eta aipatu gabe uztea ezen, ikastetxe batean, postu horietara aurkeztu ahalko lirakekeen ikasleak ia matrikulatuen erdiak direla dagoeneko.

Hezkuntzaren Kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoko Zioen Azalpenak berak aitortzen du erronka berri bat dagoela, Espainiako gizarte-hezkuntzaren alorrean bat-batean agertu dena, eta tratamendu egokia beharrezko duena. Hala da: jatorriz etorkinak diren eskola-ikasleen gehikuntza azkarrak hezkuntza-sistema behartzen du arau-izaerako tresna berriak eskuratzea, beste herrialde batzuetatik datozen eta maiz asko beste hizkuntzak hitz egiten dituzten eta bestelako kulturetako partaide diren ikasleen egiazko integrazioa erraztu ahal izateko, hezkuntzaren eta gizartearen arlokoa. Izan ere, helduen integrazio sozial eta ekonomikoaren norainokoa, epe ertain eta luzean, hezkuntza-sistemak jatorriz etorkin diren haur eta nerabeak integratzeko duen ahalmenaren baitakoa izan ohi da".

Aztergai izan diren datu guztiak haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako maileri buruzkoak dira, eta hezkuntza-maila horiek, zioen azalpenaren arabera, garai erabakigarriak dira pertsonaren prestakuntzan, hain zuzen ere urte horietan oinarriak ezartzen baitira hizkuntza, kalkulu eta atzerri-tar hizkuntzako funtsezko trebetasunak irmoki bereganatu ahal izateko, eta horrez gain, bizitza guztirako ohiturak hartzen dira, lanekoak, irakurtzekoak, taxuzko bizikidetasunerakoak eta bestee-kiko errespetua izatekoak".

Ezin zaio ez-ikusiarrena egin aztergai dugun arazoaren garrantziari: sozialki eta kulturalki desfavoratuak eta jatorriz etorkinak diren ikasleak hezkuntza-sistemara ekartzea integrazio-tresnarik eraginkorra baita, zalantzarik gabe, gizarteak eskueran dituen guztien artetik. Soil-soilik kulturantzatasunarekiko begirunean eta eskola barneko kulturen arteko bizikidetasun-giro positiboan heziz lortu ahalko da bizikidetzaren soziala aniztasunean gauzatzeko moduko ohiturak eskuratzea. Horregatik, garrantzi erabakigarria daukate hezkuntza-sisteman sartze hori gauzatzen deneko baldintzek.

Ikasleak datorren ikasturterako matrikulatzeko prozesua berehala hastear dagoenez, gaurko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu da prozesu hori antolatzen duen 14/2004 Foru Agindu berria. Haren edukia aztertuz, hauxe ikusten da: nahiz eta bertako zioen azalpenean esaten den beharrezkoa dela berariazko erantzunak ematea

ikastetxeetan ikasle etorkin gero eta gehiago sarztearen fenomenoari, kontua da foru agindu horretan zehazturiko araubideak errepikatzen duela 7/2002 Foru Aginduan ezarritakoa, soziokulturalki desfaboratuak diren ikasleentzat gordetako plazak gehitzen badira ere. Zioen azalpenean adierazita-koarekin bat, seigarren xedapen gehigarriak ezartzen du tokian tokiko eskolatze-batzordeak antolatuko direla, nahiz eta ez diren funtzionatzen hasiko, zehazten denez, 2004/2005 ikasturtea hasi aurretik. Bestalde, haien egitura, funtzionamendua, kopurua, kokalekua eta osaera ere ez dira zehazten, "ikasturte honetan zehar ezarriko baitira"; horrez gain, ikasle berrien familiei aholkuak eta orientabideak emateko eginkizuna besterik ez zaie, printzipioz, esleitzen.

Gure aburuz, azaldutako datuek begi-bistan uzten duten errealitateak behartzen du erantzun berriak berehala antolatzea, zeinak gauzatuko baitira soziokulturalki desfaboratuak diren ikasleak ikastetxe publiko eta pribatu itunduen artean modu orekatuan banatzen direla bermatzeko neurrietan; adibidez, matrikulazio-araudia berrikustea halako moldez non, behar denean, ikasle horiek modu bidezkoago batean banatzeko tresnak edo bitartekoak kontuan hartuko baititu, eta, bestalde, ikasleak onartzeko eta ikastetxetik aldatzeko prozesuak ikuskatzeko eta eraginkorki kontrolatzeko prozedurak ezartzea, bidezkoak ez diren birkokapenak edo ikasleen egozpen mozorrotuak antzeman ahal izateko.

Azken batean, ez da ahaztu behar hezkuntza ez dela soilik gizabanakoaren gizarteratzea errazten duen bitarteko bat, gizabanakoa heziketa-lanaren xedetzat hartzen duena: pertsonaren oinarriko eskubide bat ere bada. Horrela, hezkuntzarako eskubideak, Konstituzioko 27. artikuluan bermaturik dagoenak, herritar guzti-guztietan aitortzen die botere publikoei exijitu ahal izatea haien nortasunaren erabateko garapena ahalbidetuko duen prestakuntza eskuratzea, jaiotza, arraza, sexua, erlijioa, iritzia edo beste edozein inguruabar personal edo sozialen ondoriozko inolako bazterketarik jasan gabe. Horixe ondorioztatzen da Konstituzioko 27. eta 14. artikulua erlazionatuz gero. 14. artikulua da, hain zuzen, I. tituluko II. kapituluko 1. atalean aitorturiko eskubide guztien atari antzeko bat, bere itzala haietako bakoitzaren gain luzatzen duena. Horretan guztian ez da ahaztu behar Konstituzioko 9.2 artikulua "gizarte-eraldakuntzako klausula" deritzonaren bitartez botere publikoei erantzukizun hau ezartzen diela: inguruabar zehatzak sustatzea, gizabanakoaren eta berak osatzen dituen taldeen berdintasuna benetakoa eta eragin-garria izan dadin.

Horregatik, Hezkuntza Sistemaren Antolamenduko Orokorrari buruzko urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko 63. artikulua –zeinak indarrean segitzen baitu– ezartzen du ezen, hezkuntzarako eskubideaz berdintasunez baliatzeko printzipioa gauzatzearren, botere publikoek konpentsaziozko ekintzak beteko dituztela egoera okerrean dauden pertsona, talde eta lurralde esparruekin, eta horretarako baliabide ekonomikoak bideratuko dituztela. Halaber, xedatzen du konpentsazio-hezkuntzako politikek hezkuntza-sistemaren jardura indartuko dutela, era horretan saihesteko faktore sozial, ekonomiko, kultural, geografiko, etniko edo bestelakotatik eratorritako desberdintasunak. Arau hori garatzen dute hurrengo bi artikuluek –horiek ere indarrean segitzen dute–, haur hezkuntzari eta lehen hezkuntzari dagokienez.

Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organiko berriak, "Kalitatezko hezkuntzarako aukera-berdintasuna" idazpuruan, eta zehazki, 40. artikuluan, ezartzen du ezen, kalitatezko hezkuntzarako eskubide individuala ziurtatzearren, botere publikoek behar diren ekintzak burutuko dituztela, eta beharrezko baliabideak eta laguntzak bideratuko dituztela, desabantaila sozialeko egoeren ondorioei aurre egiteko eta, horrela, hezkuntza-sisteman aurreikusitako helburuak, hezkuntzari eta prestakuntzari dagozkionak, erdiesteko.

Gainera, 41. artikulua ezartzen du hezkuntza-administrazioek prozedura bereziak ezarriko dituztela biztanleen ezaugarri sozioekonomiko eta soziokulturalak direla-eta hezkuntza-arloko eskuhartze berariazkoa beharrezkoa duten ikastetxe edo eskualdeetan.

Azkenik, 42. artikulua ezartzen du hezkuntza-administrazioek erraztuko dutela jatorriz atzerritarak diren ikasleak hezkuntza-sisteman sartzea; batez ere, nahitaezko eskolatze-adinean daudenak. Atzerriko ikasleek espainiar ikasleen eskubide eta betebeharrak berberak izan behar dituzte. Hezkuntza-administrazioek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte, atzerriko ikasleen gurasoei behar den aholkularitza helarazteko Espainiako hezkuntza-sisteman sartzeak dakartzen eskubide, betebeharrak eta aukerei buruz.

3.- Gomendioak:

Aurretik azaldutako guztiari jarraikiz, eta lehen-tasunezko helburua izanik immigraziokoak eta bestelako egoera sozio-kultural behartsuetakoak diren ikasleen egiazko eta zinezko integrazioa erdiestea, lehenik eta behin neurri-multzo bat ezarri behar da diru publikotik ari diren ikastetxeen eta ikastetxe pribatu itunduen artean ikasle horiek

modu orekatuan banatzea lortzeko; izan ere, guzti-ek hartu behar dute ikasleen kolektibo hori integratu edo hartzeko ardura.

Ondorioz, ondokoa gomendatzen dugu:

– Behar bezalako informazioa eman dakiela ikasle horien gurasoei, berariazko kanpainak antolatuz edo egokituz hartzen den beste edozein bitarteko erabiliz, ikastetxe pribatu itunduetan eskolatzea doakoa dela eta ikastetxe guztietan ikasleak onartzeko irizpideak berberak direla jakin dezaten. Horrela, helburua da behar den informazioa helaraztea ikastetxeetan sartzeko baldintzei buruz, hori nahitaezko abiapuntua baita askatasunez hautaturiko ikastetxean berdintasun-baldintzetan sartzeko eskubidea bermatzeko.

– Horretarako, gainera, hezkuntza-arloko agintari-ek gehiago kontrolatu behar dute diru publikotik ari diren ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozesua, prozesu horren gardentasuna bermatzearen. Ikuskapen eraginkorra gauzatzeko neurri berriak ere hartu behar dira, ikasleak onartzeko eta ikastetxez aldatzeko prozesuetan birkokatze bidegabekak edo egozpen mozorrotuak antzeman eta eragozti ahal izateko.

– Beharrezkoak diren neurri zehatzak hartu behar dira, bai arau-izaerakoak bai antolamenduari buruzkoak ere, egoera sozioekonomiko behartsuetan dauden ikasleak ikastetxe publiko eta pribatu itunduetan zehar eskolatzean eta birbanatzean joka dadin plaza-eskaintza orokorrean ikastetxe horiek daukaten garrantziaren arabera.

Goian aipaturiko neurriak antolatu eta praktikan jarri bitartean, eta jatorriz etorkinak diren eta beste gutxiengo etnikoetakoak diren ikasleen nolabaiteko banaketa orekatua lortzen ez den bitartean, laguntza-neurri bereziak hartu behar dira dagoneko egoera larrian dauden bi ikastetxeetan; alegia, Virgen de la Cabeza ikastetxean, non ikasleen % 45 ezaugarri horietakoa baita, eta Elvira España ikastetxean, non ikasle horiek % 38,2 egiten baitute.

Horretarako, honako gomendio hau egin genion Hezkuntza Departamentuari, aipaturiko bi ikastetxeei dagokienez:

– Hezkuntza Departamentuak, ahalik eta azkarren, honakoekin bilera bana egiteko deia egin dezala: Virgen de la Cabeza ikastetxeko zuzendaritzarekin, bertako irakasleen ordezkariekin eta bertako ikasleen gurasoekin, batetik, eta Elvira España ikastetxe publikoekin, bestetik. Xedea da haiek departamentuari jakinarazi ahal izatea zein diren ikastetxe horietan dauden egiazko

beharrizanak eta, ondorioz, departamentuak berehalakoan har ditzala behar diren laguntza-neurri zehatzak: irakasleei laguntzea, material didaktikoa, pedagogikoa, baliabide jakin batzuk ugaritzea eta abar. Hori guztia, salaturiko egoeraren ondoriozko gabeziei aurre egiten saiatzeko.

Txosten hau amaitu dugun unean, guk eginiko oharrek direla-eta departamentuak duen jarrera ezagutzeko zain gaude. Horrez gain, Iruñeko ikastetxeei buruz lorturiko datuetan oinarrituz eginiko azterketa amaitzeaz daukagu, eta horren berri emanen dugu datorren urteko gure txostenean.

OTIK 3 URTERA BITARTEKO ZIKLOAN IKASPOSTU NAHIKORIK EZ IZATEA.

AURREKARIAK

Bi haur dituen ama batek kexa helarazi zigan (, Iruñeko Udalak Arrotxapea auzoan duen haur eskolan lekua eskatu eta eman ez ziotelako.

Idazkian adierazten zuenez, ez omen zioten osasun egoera kontuan hartu, salbuespen gisa, eta ez zegoen horrekin ados –osasun egoera mediku-txostenaren bidez frogatzen zuen–, dituen lau seme-alabez arduratzeko ez baita gauza (titiko bi biki eta bost urte baino gutxiagoko beste bi biki). Era berean, esaten zuen ez ziotela baloratu zein zuen familia egoera; izan ere, ez aitaren aldeko aitona-amonek ez amaren aldekoek ere ezin diote haurrak zaintzen lagundu, duten osasun egoera dela-eta. Auzo unitateak, aldiz, hori kontuan hartu eta etxeko laguntza eman zion; aipaturiko udal zerbitzuaren txosten bat ere aurkeztu zuen, non haur eskolan lekua izateko lehentasuna behar zuela jotzen baitzuen.

Udalak hasieran helarazi zigan informazioa ikusita, informazio gehiago eskatu genion, eta, azkenik, hau adierazi zigan:

“Haur eskoletan behar adina tokirik ez dagonez, baremoko “beste irizpide batzuk” atala salbuespen gisa baizik ez da aplikatzen haurrak hartzeko eskoletan. Zuhurtziaz aplikatzen da familia egoera benetan larrietan, batez ere haurrak behar bezalako laguntzarik jasoko ez duela aurreikusten denean. Hizpide dugun kasuan, haurren sarrera oro har arautzen duen baremoa aplikatu zen, eta bikiei, familia ugariari eta abarri dagozkien puntuazioak eman zitzaizkion kasuari, salbuespenezko egoera ez zelakoan eta haurrek laguntza egokia jasoko zutelakoan udalaren haur eskoletan tokirik ez izanagatik ere.”

ANALISIA

Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoak 10. artikuluan eta hurrengoetan ezartzen duenez, eskolaurreko hezkuntzaren helburua da hezkuntza eta laguntza ematea lehen haurtzaroan; hiru urte bitarteko haurrei emanen zaie eta borondatezkoa izanen da gurasoentzat. Ezartzen du, halaber, administrazio eskudunek erantzuna emanen dietela familietan dauden beharrei eta eskariari aurre egiteko behar adina toki eskaintzen dela koordinatuko dutela.

Nahiz eta haur hezkuntzari dagokionez –hirutik sei urtera bitartekoa– ondoriozta daitekeen gure Komunitateak gaur egun dituen beharrezan sistema publikoak funtsean erantzuten diela, ez da gauza bera gertatzen eskolaurreari dagokionez.

Horrela, Iruñeko auzoetan badira zenbait udal haurtzaindegi, baina, azken aldian, horietan sartzeko eskariak asko ugartu dira. Egoera hori nabarmenagoa da bikote gazte gehiago dituzten auzoetan –Arrotxapea, Sanduzelai, Mendillorri eta beste batzuk–, horietan, jaiotza tasa, datu demografiko hori oinarri, hiriko beste auzo batzuetan baino handiagoa baita.

Eskari gero eta handiagoari erantzuna emateko xedez, abenduaren 30eko 18/1999 Foru Legeak, 2000ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, hogeita batgarren xedapen gehigarrian ezartzen zuen Nafarroako Gobernuak era nabarmenean handituko zuela, 2000/2001 ikasturterako, toki entitateekin hitzarmenak eginez, 0 eta 3 urte bitarteko haurrez arduratzeko tokien eskaintza publikoa; helburua zen legegintzaldiaren bukaeran bete ahal izatea LOGSEk gai horretan ezarritako egitekoak. Baina, hala ere, eskaintako toki kopurua ez da nahikoa Iruñeko biztanleen eskariari aurre egiteko.

Aurrekoa gorabehera, uste dugu aipamen labur bat egin behar dela gaur egun erabiltzen den baremoaren interpretazioari buruz, kexa-idazkian ezbaian jartzen baita. Kexa-egilearen esanetan, ez zaio punturik eman “beste irizpide batzuk” atalean, nahiz eta auzo unitateko gizarte langilearen txosten bat bazen, eta, punturik eman baliote atal horretan, bere seme-alabek tokia izanen zuten haur eskolan.

Horri dagokionez, eta familia egoera zaila dela ulertu arren, ikusi dugu horretaz arduratzen den batzordeak zehatz aplikatu ziola baremoa, eta kexa-egileari zegozkion puntuak eman zizkiotela eskaria egin zuenean; beraz, ikuspuntu horretatik, uste dugu ez dagoela ezer esaterik Udalaren jokabideari buruz.

Interesdunak, bestalde, ahal bezain laster berriro lanean hasteko asmoa zuela adierazi zuen, eta horretarako, bistan da, kanpoko laguntza behar zuen edo haurrak uzteko leku egoki bat. Hala ere, eskaria egin zuenean, ez zen lanean ari. Horregatik ezin izan zitzaion eman bi gurasoak lanean dituzten familientzat baremoan jasotako puntuazioa; hori gehi familiaren osaera zela-eta zegokiona izan balitu, ziurtatua zukeen nahi zuen haurtzaindegian sartzea.

Geroago, ordaindutako lan batean hasiz gero, lan egoeran izandako aldaketa aurkez zezakeen eta berriro eskatu bi haur txikiak udalak Arrotxapean duen haur eskolan har zitzaten, hori baitu oraingo bizilekutik gertueneko haur eskola.

Hala ere, egoera presazkoa zela ikusita eta gai hori ahalik eta modurik arinenean eta egokienean konpondu nahi genuenez, kasuaz arduratu zen Iruñeko Udaleko gizarte langileari deitu genion telefonoz, eta hark baremoko e) ataleko puntuak emateko erabiltzen diren irizpideen berri eman zigun. Eman zigun erantzuna bat zetorren, funtsean, Iruñeko Udalaren haur eskolen erakunde autonomoaren kudeatzaileak adierazi zigunarekin. Horrela, azaldu zigunez, atal hori erabiltzen omen da familia desegituratuentzat, bizikidetzara arazoak dituztenentzat, edo alkoholismo arazoak, nahikoa baliabide ekonomiko ez duten amen seme-alabentzat, etab. Kasu honetan ez omen zegoen horrelako ezer, eta, beraz, batzordeak erabaki zuen, duen diskrezio-ahala erabiliz, familia horri punturik ez ematea atal horretan.

Azpimarratu nahi genuke, baita ere, baremoko atal guztietan ezarritako puntuazioa nahitaez eman beharra dagoela baldintza guztiak betez gero, baina e) atalean puntuazio handiagoa emateak administrazioa behartzen duela aukera hori kontuan hartuzera soilik gizarte behar oso larriak ikusten dituen eta haurra arretarik gabe geldi daitekenean.

Gure ustez, beraz, baremoko e) atalean interesdunari punturik ez ematea erabakita, Iruñeko Udalak ez du gaitzesteko moduko jokabiderik izan, atal hori aplikatzeko nahikoa arrazoi ez baitzegoen kexa-egilearen egoera beste pertsona batzuen egoera larriagoarekin alderatuz gero. Erreklamazioak, gainera, lortu du tokia Nafarroako Gobernuaren beste zentro batean, eta, bizi den lekutik urrunago badago ere, zuen arazoa nolabait ere konpondu edo arindu dela pentsa daiteke.

Hori ikusirik, udala ohartarazi nahi izan genuen kexak planteatzen duen arazo zabalagoaz –erakunde honi igorritako txostenean berariaz onartzen zena–; alegia, udal haurtzaindegietan dagoen

toki kopurua eta sartzeari eskatzen duten haurren kopurua ez datozela bat. Egoera horrek agerian uzten du aldea dagoela tokien eskaintzaren eta bizilagunek dituzten behar errealean artean, eta horrek administrazioaren erreakzioa piztu beharko lukeela gizartearen eskaerari erantzun beharraz.

Horrelako aldeak, administrazioak eskaintzen duenaren eta gizarteak arlo honetan benetan eskatzen duenaren artean daudenak, Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ikuspuntutik bideratu behar dira; izan ere, lege horrek exijitzen die administrazio publikoei berma dezaten eskolaurreko hezkuntzan behar adina toki eskaintzen dela, seme-alabei irakaskuntza hori eman nahi dieten gurasoek aukera izan dezaten etxetik gertu dauden ikastetxetara eramateko haur horiek.

Hori dela eta, gure iritziz, Iruñeko Udalak, aitzindaria izan baita kalitate handiko haur eskolak ezartzen, ildo hori jorratzen jarraitu beharko luke, eta sakon aztertu zein diren egiazko beharrak eta etorkizunerako aurreikus daitezkeenak. Lortutako datuetan oinarrituz, Iruñean ikastetxe horien eskaintza zabaldu beharko litzateke haurren kopurua nabarmen handitzen joan den tokietan eta, bereziki, epe laburrean hirigintza aldetik hazkuntza izanen dela aurreikusten den tokietan, arlo honetan etor daitezkeen premiei erantzun egokia eman dakien.

Azaldutakoagatik, Iruñeko Udalarik IRADOKIZUN bat egin genion: beharra dagoela atzematen den lekuetan beharrezkoak diren ekintzak egin eta neurriak har daitezela, zerotik hiru urtera bitarteko haurrentzako tokien eskaintza publikoa handitzeko, betiere gai hori gaur egun arautzen duten xedapenen eta arlo horretan Nafarroan dauden aurreikuspenen esparruaren barnean.

Eskakizun horri erantzunez, udalak adierazi zigun, haur eskolen erakunde autonomoaren kudeatzailearen bidez, beste haur eskola bat zabalduko dela Arrotxapean, eta beste bi ere aurreikusirik daudela, bata Mendillorri eta bestea Azpilagañan. Era berean, aztertzen ari omen dira haur eskolak zabaltzea lanaldi murriztuarekin, 4 edo 5 ordutarako, beste ikastetxe batzuetan dauden lokalak horretarako egokitu ondoren.

Gainera, eta kasu zehatz horri zegokionez, jakinarazi zitzaigun onartu zutela udalak Arrotxapean duen haur eskolara aldatzea kexa-egilearen seme-alabak, eta ondorioz, gai horri buruzko eginbideak amaitutzat eman genituen.

AURREKARIAK

Guraso batzuek, era berean, kexa bat aurkeztu zuten (02/267/E espedientea) alaba ez zutelako eskatutako haur eskola publikoan hartu eta, gehienbat, ez dagoelako behar adina toki egungo eskaerari aurre egiteko.

Azaltzen zutenez, Nafarroako Gobernuaren Sanduzelaiko haur eskolan eskatu zuten alabarentzat tokia, eta, bigarren aukera gisa, Ama Birjina Aingeruena izeneko haurtzaindegia jarri zuten. Beste haur eskola batzuetan ere eskatu zuten tokia: Iruñeko Udalararen Donibanen eta, han ezin bazen, Mendebaldean.

Interesdunen esanetan, baremoaren aplikazioaren ondorioz, eta nahiz eta deialdiko baldintza guztiak bete, itxaron zerrendan gelditu ziren (60. zenbakiarekin Sanduzelaiko haur eskolan, eta 15. zenbakiarekin Donibaneko haur eskolan); izan ere, dauden tokiak baino askoz ere eskari gehiago aurkeztu ziren.

Kexa horretan azaltzen zen gaia ikusita, informazioa eskatu genien Iruñeko Udalarik eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari.

Departamentu horrek helarazitako informazioaren arabera, Iruñeko haur eskola publikoetan 1.107 toki daude guztira, eta 2002/2003 ikasturterako aurkeztutako eskariak 1.284 izan dira. Zerbitzu hori ematen den Nafarroako herriei buruzko zenbait taula ere aurkeztu zizkigun, bai eta hurrengo ikasturterako aurreikuspenak ere; udal batzuekin hitzarmenak sinatuz gauzatu nahi dira aurreikuspen horiek, 3086/2001 Ebazpenaren babesean.

Iruñeko Udalak, bere aldetik, informazio hau igorri zigun:

«1. Datuen egunean Iruñean Oti 3 urtera bitarteko zikloan, Nafarroako Gobernuaren 14 haur eskola publiko daude eta 9 udalarenak. Guztira, 1.016 toki.

2. Ikasturte honetarako 1.284 eskabide aurkeztu ziren, eta horietatik 363 onartu ziren udalaren haur eskoletan eta 164 Nafarroako Gobernuarentan.

3. Asmoa dago datorren ikasturtean Arrotxapean beste haur eskola bat irekitzeko, eta eskaturik dago Azpilagañan beste haur eskola bat eraikitzeko proiektua. Era berean, aztertzen ari dira haur eskolak zabaltzea lanaldi murriztuarekin, 4 edo 5 ordutarako, beste ikastetxe batzuetan dauden lokalak horretarako egokitu ondoren»

ANALISIA

Berriro gogorarazi ondoren zer ezartzen den LOGSEn eta Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoan Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako hezkuntzari buruz, lege organiko horretako 10.2 artikuluan hau ezartzen dela ere aipatu genuen: "autonomia erkidegoen zeregina izanen da hezkuntza etapa horretako haurrentzako laguntza antolatzea eta hura ematen den ikastetxe eta erakundeen bete beharreko baldintzak zehaztea, gobernuak etapa horren hezkuntza alderdiei buruz ezarriko duen oinarrizko araudiari jarraikiz. Era berean, egokitzen jotzen dituzten gainbegiratze eta kontrol prozedurak ezarriko dituzte."

Eta 4. idatz-zatian hau ere esaten da: "eskolaurreko hezkuntza borondatezkoa da gurasoentzat. Administrazio eskudunek erantzuna ematen diete familietan dauden beharrei eta eskariari aurre egiteko behar adina toki eskaintzen dela koordinatuko dute." Bestalde, hezkuntza hori 2004/2005 ikasturtean ezarriko dela dago hasieran aurreikusia, baina gerta daiteke, Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren aurreikuspenen arabera, autonomia erkidegoek hurrengo ikasturtean ezartzea.

Horrela, Nafarroa aitzindaria izan da hezkuntza zikloak legeak eskatu baino lehen abian jartzen; hala gertatu zen derrigorrezko bigarren hezkuntzarekin, uste izan baitzen irakaskuntza hobetzeko ahalegin guztiak egin behar zirela Nafarroako Foru Komunitatean. Nafarroa aitzindaria izan zen, halaber, haur eskola publikoak ezartzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak emandako datuek erakusten dutenez; izan ere, hogeitau bost baina gehiago daramate eskola horiek irekita Iruñean, eta, autonomia erkidegoen artean, Nafarroa izanen da, seguruenik, haur eskola gehien eta hoberenak dituenetako bat.

Hala ere, administrazio publikoek Iruñean ematen duten zerbitzua ez da nahikoa, argi eta garbi. Horrela, Iruñeko auzoetan guztira 14 haur eskola badaude ere, agerian geratu da, aspalditik geratu ere, eskola horietan tokia izateko eskakizunak nabarmen egin dutela gora. Eskakerak gora egin badu ere, eskaintzak ez du neurri berean gora egin, igorritako txostenek erakusten dutenez. Egoera hori nabarmenagoa da bikote gazte gehiago dituzten auzoetan –Arrotxapea, Sanduzelai, Mendillorri eta beste batzuk–, horietan, jaiotza tasa, datu demografiko hori oinarri, hiriko beste auzo batzuetan baino handiagoa baita.

Behar gero eta handiago horiei erantzuteko, Nafarroako Gobernuak, 2000/2001 ekitalditik aurrera, urteroko aurrekontuen bidez, neurri handi-

an handitu du zero eta hiru urte bitarteko haurrak hartzeko toki publikoen eskaintza, toki entitateekin eginiko hitzarmenen bidez. Baina, hala ere, toki eskaintza ez da inondik ere nahikoa eskariari aurre egiteko: Iruñeko Udalaren txostenaren arabera, Iruñeko haur eskoletan guztira 527 toki eskaini ziren 2002/2003 ikasturtean, eta eskariak, aldiz, 1284 izan ziren. Beraz, eskaeraren % 41i baino ez zaio aurre egin, eta hiru urtez beheitiko 757 haur geratu dira zerbitzu hori jaso ezinik.

Departamentuak eginiko txostenean, 2003an hitzarmena izanen dutela aurreikusten den udalei buruzko zenbait datu ematen dira, bai eta haur eskolak eraikitzeako proiektuak egiten ari diren beste udal batzuei buruzko datuak ere. Azpimarratu beharra dago, hala ere, departamentuak igorritako txostenean aipatzen diren haur eskoletako bat ere ez dagoela Iruñean edo Iruñerrian kokaturik, eta beraz tokien kopuruaren hazkundeak ez du eraginik izanen eskualde horretan, hau da, eskabideen kopuruaren eta dauden tokien kopuruaren arteko aldea handiena den tokian. Bestalde, udalaren txostenean aipatzen bada ere datorren ikasturtean beste haur eskola bat irekiko dela Arrotxapean, ez dirudi asko aurreratuko denik halere arazoaren konponbidean, eskaera handia baita. Eta bistan da, halaber, ez dela konponduko, Azpilagañako ikastetxea 2004/2005 ikasturtea hasi aurretik eraiki eta jardunean hasten bada ere.

Horregatik iruditu zitzaigun egokia ohartaraztea Hezkuntza eta Kultura Departamentua, gai honetan eskuduna baita, eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentua eta Iruñeko Udala, kexak aipatzen duen arazoaz –erakunde honetara igorritako txostenetan berariaz onartua–, hau da, haur eskola publikoetan dagoen toki kopurua eta sartzeari eskatzen duten haurren kopurua ez datozela bat.

Horrelako aldeak, administrazioak eskaintzen duenaren eta gizarteak arlo honetan benetan eskatzen duenaren artean daudenak, Hezkuntzaren kalitateari buruzko abenduaren 23ko 10/2002 Lege Organikoaren ikuspuntutik bideratu behar dira; izan ere, lege horrek exijitzen die administrazio publikoei berma dezaten eskolaurreko hezkuntzan behar adina toki eskaintzen dela, seme-alabei irakaskuntza hori eman nahi dieten gurasoek aukera izan dezaten etxetik gertu dauden ikastetxetara eramateko haur horiek.

Hori dela eta, Nafarroako Gobernuak eta Iruñeko Udalak, aitzindariak izan baitira giza eta gauza baliabideez ongi hornituriko haur eskolak ezartzen, ildo hori jorratzen jarraitu beharko lukete, eta sakon aztertu zein diren egiazko beharrak eta etorkizunerako aurreikus daitezkeenak. Beraz,

ikastetxe horien eskaintza zabaldu beharko da haurren kopurua nabarmen handitzen joan den hiriko tokietan eta, bereziki, epe laburrean hirigintza aldetik hazkundera izanen dela aurreikusten den tokietan, arlo honetan etor daitezkeen premiei erantzun egokia eman dakien. Era berean, aurreikuspenetan kontuan hartu beharko dute eskolaurreko hezkuntza ezartzeko egutegia bete behar dela eta 2004/2005 ikasturtean behar adina ikastetxe dagoela bermatu. Ildo horretan, gure iritzia da udalak dituen aurreikuspenak –alegia, Arrotxapean ikastetxe berri bat irekitzea eta Azpilagañarako proiektu bat onestea– ez direla aski izanen populazioaren egiazko beharrei erantzuteko.

Azaldutakoa dela eta, GOMENDIOA luzatu zitzaizen Hezkuntza eta Kultura Departamentuari eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Departamentuari, Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako tokien eskaintza publikoa handitzeko eta halatan gurasoek beren seme-alabei irakaskuntza emateko duten eskubidea bermatzeko behar diren ekintzak gauza ditzaten.

Departamentuak nahiz udalak jakinarazi ziguten onartzen zutela eginiko gomendioa. Departamentuak adierazi zigunez, haien asmoa zen jarraitzea familien eskaerari aurre egiteko eta Nafarroako gizartearentzako zerbitzu hori hobetzeko ekindako bideari; berriro aipatu ziguten aurreikusita dutela beste haur eskola bat irekitzea Arrotxapean eta beste bana dituztela proiektatuta Mendillorri eta Azpilagañan, eta, gainera, aztertzen ari omen direla haur eskolak zabaltzea lanaldi murriztuarekin, 4 edo 5 orduarako, beste ikastetxe batzuetan dauden lokalak horretarako egokituz.

HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK

TUTERAKO EREMUAN, EZGAITASUNA DUTEN HAURREI LAGUNTZA EMATEN JARRAITZEA OPORRALDIAN.

AURREKARIAK

Guraso batzuek zortzi urteko semearen kasua aurkeztu ziguten (02/87/E espedientea). Nafarroako Gobernuak haurrari % 82ko minusbaliotasuna aitortu zion, eta aitorten hori egoera bertsuan dauden haurrentzat ere zabaldu zuen (21 haur Erriberan eta 88 Nafarroa osoan, gutxi gorabehera).

Azaldu zigutenez, semeak fisioterapia tratamendua hartzen du ikastetxean, ikasturte guztian zehar; Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroak (CREENA) ematen omen dio tratamendua. Hala ere, adierazten dutenez, oporretan zerbitzurik ez

diote ematen, eta hori kaltegarria gertatzen da haurraren bilakaerarentzat.

Aipatzen dute 2000ko maiatzaren 25ean Nafarroako Parlamentuak mozio bat onetsi zuela, non Nafarroako Gobernuak premiatzen baitzen ikastetxeetako fisioterapia koordinatzeko arauak eman zitzaizkien; orain arte, Hezkuntza eta Osasun departamentuek, gai horretan eskudunak baitira, ez diote eskari horri kasurik egin.

Uste dute Konstituzioko 49. artikuluan jasotako eskubidea urratzen ari dela, eta administrazio publikoa premiatzen dute jarduketako protokolo bat ezar dezan ikastetxeko fisioterapeuten lana errehabilitazioko mediku batenarekin koordinatze aldera; horrela, ikasturte hasieran eta amaieran modua legoke haurrak banan-banan ebaluatu, jarraipen bat egin eta fisioterapeuten zako programa egokia jartzeko. Era berean, behar duten haurrei oporretan ere zerbitzua ematen jarraitzeko eskatzen dute.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuari eta Osasun Departamentuari informazioa eskatuta, lehenbizikoak jakinarazi zigun ezen, gaur egun, mugitzeko urritasuna izan eta errehabilitazio fisiko iraunkorra behar duten ikasleei departamentuaren menpeko fisioterapeutek ematen dietela laguntza, kasuan kasuko medikuaren irizpideei jarraituta; errehabilitazioa ikastetxean bertan egiten omen da, ikasle horien integrazioa errazte aldera, bestela beste norabait joan beharko bailukete: eskola orduak galduko lituzkete eta horrek eskola erritimoa hautsiko lieke.

Departamentu horrek esan zigun, orobat, oporretan zerbitzurik gabe gera ez daitezkeen, Osasun eta Hezkuntza eta Kultura departamentuen arteko koordinazio mekanismoak ezarri beharra aztertzen ari direla, fisioterapiako errehabilitazioa behar duten haurrei laguntza ematean izan daitezkeen akatsak konpontze aldera; horretarako, bilera batzuk egin omen dituzte hurrengoan artean –azkena, 2001eko urriaren 30ean–: plan soziosanitarioaren koordinatzailea, Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Hezkuntza Bereziko Unitatearen burua, Mugimendu Moduluko arduraduna eta CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko fisioterapeuta bat.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak, amaitzeko esaten zenez, bermatzen die haur hauei mediku errehabilitatzaileak patologiarentzat beharrezkoa duten tratamendua jarriko diela –eta beste espezialista batzuek ere bai–; medikuak errehabilitazio tratamendua jarri eta gero, Hezkuntzako fisioterapeuten lana kontrolatuko du. Era berean, ikastetxeetako fisioterapeuten oporraldie-

tan, eta medikuen irizpideei jarraikiz betiere, haur horiek Osasunbideko fisioterapeuta zerbitzuarekin jarrai dezakete tratamendua, eta, hori helburu, eskura jarri zaizkie erakunde horren azpiegiturak eta instalazioak.

Osasun Departamentuak, berriz, igorri zuen erantzunean lehenbizi esan zuen behin eta berriz izan direla Osasunbidearen eta Hezkuntza Departamentuaren arteko kontaktuak arazoa zehaztu eta behar diren ekinbideak abian jartzeko. Osasun Departamentuaren ustez, Hezkuntza Departamentuaren ardura da ikasleei laguntza ematea, nahiz eta hori ez izan eragozpen Osasunbideak Hezkuntza Departamentuaren esku jartzeko beharrezkoak diren azpiegiturak ikastorduetatik kanpo haur hauek ohiko jardurekin jarraitu ahal izan dezaten.

Tratamendua Hezkuntza Departamentuari dagokiola irizteko arrazoiak, oro har, hauek dira:

1.- Osasun prestazioa eskuratzeko, Osasunbideko fakultatibo batek kasua aztertu eta beharrezkoa dela agindu behar du. Bistan denez, talde bateko kide batzuei ezin zaie modu generikoan agindu errehabilitazio jarduera jakin bat; bakoitzari eginiko definizio diagnostikoa behar da eta errehabilitazioaren bidez lor daitezkeen onuren balorazioa.

2.- Osasunbidearen menpeko errehabilitazio zerbitzuek ezgaitasun prozesu ororen diagnostikoa, balorazioa eta tratamendua egiten dute.

3.- Errehabilitazio tratamendu orok, berez, hasiera eta amaiera izan behar du, eta inola ere ezin da modu kronikoan luzatu. Horrek erakusten duena da tratamenduak emaitza jakin batzuk eta hobetze funtzionalaren maila jakin batzuk lortzea duela helburu, gai honi buruz eskura dagoen ebidentzia zientifikoak ezartzen duenez.”

Eta, amaitzeko, hau esaten da txostenean: “kexa ikusita, irudipena daukagu ikastetxean egiten diren tratamenduak ez dituela inongo mediku errehabilitatzailek agindu. Hala ere, zalantzan jarri ezin dena da gure osasun sistema unibertsala eta denentzat berdina izatea, eta gaixoez zuzenean jo dezaketela horretara edozein patologia edo disfunzio tratatzeko. Beraz, osasun sistemako medikuek errehabilitaziorik agindu ez izanaren zergatia da ez diotela beharrezkoa iritzi, irizpide klinikoak oinarri hartuta; eta fakultatiboek, esan gabe doa, ez dute inongo jarraibiderik jasotzen hartu beharreko erabaki profesionaleri buruz.

Edonola ere, adierazten da ikasleari aldizka kontrolak egiten zaizkiola Nafarroako Unibertsitate Klinikako Neuropediatria Unitatean eta Tuterako Reina Sofia Ospitaleko Errehabilitazio Unitatean;

horrela, osasun sistemak arlo horretan erantzun egokia ematen dio haurrari, bereziki haztean gertatzen diren aldaketa ortopedikoak kontrolatzeari dagokionez.

Era berean, Errehabilitazio Zerbitzuko buruak eta zerbitzuburu horren Haur Errehabilitazioko ondokoak 2002ko maiatzaren 21ean sinatutako txosten bat ere aipatzen da, eta txosten horren ondorioak hauek dira:

1.-) Osasunbidearen menpeko errehabilitazio zerbitzuek ezgaitasun prozesu ororen diagnostikoa, balorazioa eta tratamendua egiten dute; tratamenduak hasiera eta amaiera du, eta inoiz ez da modu kronikoan luzatzen.

2.-) Errehabilitazio zerbitzuek 0tik 3 urtera bitarteko haurren errehabilitazio tratamendua egiten dute. Behin Osasunbidearen egitekoa amaituta, Gizarte Ongizate Departamentura eta/edo Hezkuntza Departamentura bideratzen dira eginkizunak.

3.-) Haurra eskolan hasten denean, Hezkuntza Departamentuaren menpeko fisioterapeutek egiten dute fisioterapia, Osasunbidearen kontrolik gabe.

Epe horretan, Osasunbideko mediku errehabilitatzaileak azterketak egiten dizkio aldizka haurrari, haztean gerta daitezkeen aldaketa ortopedikoak kontrolatzeko, eta horietarako berariazko tratamendua gauzatzen du (ortesiak, toxina botulinikoa edo, behar izanez gero, ebakuntza kirurgikoak, Traumatologia eta Kirurgia Ortopedikokoekin batera).

4.-) Osasunbideko mediku errehabilitatzailea osasun arloan agindutako errehabilitazio tratamenduz arduratuko da, beharrezkoa bada eta espezialitateko adostasun zientifiko-teknikoaren arabera.

5.-) Garun-lesioa duten haurrek, udan fisioterapia tratamendua jasotzeari utzita, ez dute okerrera egiten; prozesu kronikoa da, izan ere, eta gurasoen eta familiartekoen lankidetzara funtsezkoa da, haurra jaiotzen denetik erakutsi behar baitzaizkio higie arauak, jarrera egokiaren tratamendua eta mobilizazioak, eta nahitaezkoa da horiekin jarraitzea, kanpoan jasotako fisioterapia-laguntza gorabehera.

Salbuespen gisa, pertsona horiek Osasunbideak eman beharreko laguntza espezializatua behar dute (adibidez, kirurgia ortopedikoa, toxina botulinikoarekiko tratamendua, kirurgiaren ondoko errehabilitazioa, ortesiak, etab.). Horrelakoetan, kasuan-kasuan egoki den moduan jokatu da, prestazio hori behar duten gainerako nafarrek egiten den bezala.”

Departamentu horren ustetan, arazoa ez da koordinazio falta, eta, beraz, eraginkortasun politiko falta; irizpide medikoarekin zerikusia duen gai bat da gehiago; txostenak azpimarratzen duenez gakoa da fisioterapia hartzea “mantentzerako aholku” kontzeptu gisa; hori argitzea funtsezkoa da ustezko arazoa zehazteko. Iritzi hau guztiz iritzi tekniko da eta, honen arabera, egiten den fisioterapia ez da aholku kliniko edo osasun aholkuek ezarritako jarraibideen arabera; pedagogiaren eta hezkuntza bereziaren tekniken arloan haurrentzat egokitzat jotzen diren jardueren multzo baten zati bat da. Horregatik jo behar dira jarduera horiek hezkuntza arlokotzat, eta ez klinikoki ebaluatutako behar baten ondorio”.

Txostenean orobat jakinarazten da ezen, aztertutakoaren antzeko kasuen eskarmentuak erakutsi duenez, udan langile espezializatuen bidezko fisioterapia gutxiago jasotzea ez omen dela kaltegarria azken lorpenei begira eta ez omen duela bilakaeran atzerapenik eragiten, betiere ikasturtean zehar haurraz arduratzen den fisioterapeutak diseinatutako ariketa programa egiten jarraitzen badute gurasoek. Ohar garrantzitsu hori, erabakigarria gurasoen lasaitasunerako, espresuki jaso ohi da Reina Sofía ospitaleko mediku errehabilitatzaileek aita-amei haurren bilakaerari buruz igortzen dizkieten txostenetan.

ANALISIA

Kasu honetan aurkeztutako gaia aztertzen hasiteko, beharrezkoa iruditzen zaigu aipatzea Espainiako Konstituzioan jasota daudela, I. tituluko III. kapituluaren hain zuzen, gizarte- eta ekonomia-politikaren printzipio gidariak; aipamen berezia egiten zaio osasunaren babesari (43. art.) eta, horrela, botere publikoei dagokie aurreneurrien bidez eta beharrezkoak diren zerbitzu eta prestazioen bidez osasun publikoa antolatu eta babestea; era berean, kapitulu horretan bertan (49. art.) botere publikoei ezartzen zaie aurreneurri-, tratamendu-, bizkortze- eta gizarteratze-politika egiten dutela urritu fisikoentzat, zentzumen-urrituentzat eta urritu psikikoentzat, eta horiei behar duten arreta berezia emanen zaiela.

Eskubide konstituzional horiek garrantzi berezia hartzen dute kexa honetan aurkeztutako kasuen modukoetan. Pronostiko eta tratamendu zaileko minusbalioetasuna da; aparatu psikomotorrean kalte larria du, eta, horrekin batera, zenbait nahasketa, hala nola garapen afektiboarena, ikaskuntzarena, gizarte trebetasunena eta abar; bereziki garrantzitsua da espezialistek zuzendutako prebentzio eta errehabilitazio tratamendu egoki bat izan dadila, norbanakoaren egoerari egokitutako

hezkuntza programa batekin koordinatuta egonen dena, eta gizarte laguntzako berariazko programekin, haurra gizarteratu dadin bizi den gizarte-inguruan.

Aurkeztutako kasuari dagokionez, kontuan izan behar da bi nahi ageri direla kexan:

Koordina daitezela Hezkuntza eta Kultura Departamentuko fisioterapeutak –hau da, CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroko fisioterapeutak– eta errehabilitazioan espezializatutako zerbitzu medikoak, eta horretarako ados daude ikastetxeak erabiltzearekin; baina eskatzen da haurrei urtero ebaluazio kliniko bat egitea, programa bat izatea, fisioterapeutek gauzatuko dutena fakultatibo baten zaintzapean, eta jarraipen medikoa izatea, ikasleek zer bilakaera izan duten baloratzeko, ikasturte amaieran bereziki.

Fisioterapiak jarraipena izan dezala oportetean ere, orain arte eten egiten baita garai horretan.

Zerikusia duten bi departamentuek emandako txostenak xehetasunez aztertuta, ohartu gara aipatutako koordinaziorako –alegia, CREENA Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroan integraturik dauden Hezkuntza eta Kultura Departamentuko fisioterapeuten eta Osasunbideko zerbitzu mediko espezializatuen arteko koordinaziorako– oztopo nagusia dela Osasunbideak medikuntzari dagokionez duen iritzia; horrek ez du esan nahi osasun sistema erreklamatzailen semearen osasunaz eta egoera bertsuan daudenenaz arduratzen ez denik. Baina Osasun Departamentuaren txostenak adierazten duenez, zerbitzu medikuak gaixoa “kronikoa, mantentzeko” sailkatzen ez denean bakarrik ematen dira, hau da, tratamenduak hasiera eta amaiera duenean eta ebidentzia zientifikoaren arabera emaitza ebaluagarri bat. Irizpide horiek oinarri, kexan azaltzen diren arazoak hezkuntza arlokoak baino ez dira.

Irizpide hori egokia izan daiteke arloak bereizteko, baina baditu hutsune batzuk, eta arazoak ekarriko ditu zorrotz eta osasun arlokoak diren beste balio batzuk bazter utzita aplikatu nahi bada; izan ere, osasuna eta hezkuntzaren arteko muga ez da hain erabakigarria aurkeztutakoaren moduko kasuetan, eta hain muga estua ezartzen bada ez da aukerarik hor osasunaren kontzeptu osoa sartzeko. Osasunaren arloak, gaixoak sendatze hutsaz gain, baditu beste helburu osagarri batzuk ere. Badira gai batzuk ez dutenak zerikusirik gaixoen sendatze hutsarekin baina, hala ere, osasun arlokoak direnak: prebentzio-medikuntza, lan arloko medikuntza edo elikagaien osasungarritasunari dagokiona. Baina gainera, praktikan, tratamendu kliniko asko ez dira amaitzen gaixoa sendaezintzat

jotzen denean, baizik eta, sarritan, iraun egiten dute, nahiz eta amaierarik ez ikusi. Medikuntza gerontologikoa horren adibide argia da; gizakiaren pixkanakako hondatzea du oinarri, hondatze itzulezina sarritan, eta hala ere kronikotzat jo daitezkeen gaixo horientzat izaten dira fakultatiboek kontrolaturiko tratamendu aringarriak. Osasun sistemak, modu batean edo bestean, zaharrak artatzen ditu, nola ez, nahiz eta adinaren ondoriozko ajeek ez duten sendabiderik.

Hots, erabilitako irizpidea ez da nahikoa egungo osasun jarduera azaltzeko, eta ez da nahikoa justifikazio, ezta ere, ikasle horiek jasotzen duten fisioterapia medikuek kontrolatua egon ez dadin.

Argudio ildo horri jarraikiz, esan behar da bi departamentu horiek saiatu direla, txostenean esaten zaigunez, hezkuntzako fisioterapeutak eta Osasunbideko medikuak koordinatzen, eta horrek erakusten du zerbitzu horietako arduradunek beharrezkoa irizten diotela koordinazio horri. Aipatzen zaigu, halaber, mediku errehabilitatzaileek egiten dutela fisioterapeuten lanaren nolabaiteko jarraipena, nahiz eta ez den gehiago zehaztu.

Osasun Departamentuko kontseilariak, gai honi buruzko parlamentu-galdera bati emandako erantzun idatzian, 2001eko otsailaren 8an, hau zioen: "Osasun Departamentua zenbait aukera aztertzen ari da Nafarroako ikastetxeetara joaten diren ikasleentzako fisioterapia-laguntzan dauden disfuntzioak konpondu ahal izateko. Laguntza hori gaur egun ematen dutenak Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko fisioterapeutak dira." Era berean, esaten zuen beste neurri batzuk hartu bitartean Osasunbideko mediku errehabilitatzaileek bermatuko zutela tratamendua eta, ondoren, Hezkuntzako fisioterapeutek egin beharreko errehabilitazio-tratamendua kontrolatuko zutela.

Azken batean, Hezkuntza eta Osasun departamentuak jabetuta daude, ez dugu zalantzarik, gai honi heldu eta profesionalen koordinazioa lortu beharra dagoela, beraien ardua dela sentitzen baitute kexa honetan azaldutako arazoa; hala ere, koordinazio hori gauzatzeko neurri egokiak hartzea falta da. Horretarako, Osasun Departamentuko txostenak dioten gisan, arazoa ez da giza eta gauza baliabiderik ez dagoela, baizik eta koordinazio irizpiderik ez dagoela. Kontuan izanda haur horiei mediku errehabilitatzaileek aldizka azterketak egiten dizkietela, hala esaten dute txostenean [...] eta [...] doktoreek, ez dirudi bereziki zaila, kontuan izanda horrelako arazoak dituen haur gutxi dagoela, azterketak urtean behin egitea eta fakultatiboek jarraibideak ematea Hezkuntza Departamentuko fisioterapeutei kasuan kasuan komentatu den tratamenduari buruz; era horretan, harreman

funtzionala sortuko litzateke profesionalen artean, eta ahalik eta emaitzarik hoberenak lortuko lirateke. Osasun Departamentuko txostenean esaten den moduan, "tratamenduak emaitza jakin batzuk eta hobetze funtzionalaren maila jakin batzuk lortzea du helburu"; eta hobetze hori eta maila egokia lortzeko modu bakarra da ziurtatzea medikuaren jarraipen eta kontrol egoki bat izanen dela.

Azkenik, fisioterapeuten zerbitzua eskolako oporraldian ez eteteko eskaerari dagokionez, aztertu eta gure ondorioa da ezin dela konponbide orokorrik eman, baizik eta kasuan kasuan hartu beharko direla hartu beharreko konponbideak. Zenbait hurrek, kexan esaten den moduan, tratamendua etenda atzerapena izan dezakete behar bada, baina kalte hori ez da nahitaez kasu guztietan gertatuko; haur bakoitzak duen koadro klinikoaren baitan dago hori. Horrenbestez, medikuari dagokio erabakitzea tratamendua etetea kaltegarria izan daitekeen ala ez; baina erabaki hori, diogunez, haur bakoitzaren egoera aztertuta hartu beharko du medikuak.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuako Hezkuntza eta Kultura nahiz Osasun departamentuei GOMENDIO bat egin zitzaien: beharrezkoak ziren koordinazio neurriak har zitzatela bermatzeko Hezkuntza eta Kultura Departamentuko fisioterapeutek egiten duten errehabilitazio tratamendua aldiro gainbegiratzen dutela arloko langile fakultatibo adituek, bereziki eskolako oporraldian zerbitzua etetea klinikoki egokia den erabakitzeari dagokionez, eta beharrezko neurriak har zitzatela bermatzeko tratamendua jarraituko dutela halakorik behar dutenek.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak igorri zigun erantzunean berriro esaten zen fisioterapeuten parte hartzeak zuen helburu bakarra zela "mugitzeko urritasunaren ondorioz hezkuntza premia bereziak zituzten ikasleei curriculumera sartzeko bidea erraztea." Nahiz eta onartzen zen garrantzitsua dela Osasun Departamentuko mediku errehabilitatzaileekin kontaktu sistematikoak izatea. Aitzitik, Osasun Departamentuak esan zigun "dagoeneko egiten dela kasuen jarraipen medikua, Hezkuntza Departamentuko zerbitzu teknikoekin koordinatuta, eta ziurtatuta egoten dela tratamendua; betiere, tratamendu jarraitua izanen dela, etenik gabea."

Ondorioz, eta helarazi zitzaizkigun informazioek kontraesankorrak ziruditez, Osasun Departamentuari eskatu genion adieraz ziezagula zer neurri zehatz ezarri ziren bi departamentuetako zerbitzuen artean, horrela gure kudeaketen azken emaitzak zehaztasunez ezagutu eta interesdunei helarazteko.

Erantzun horretan adierazi zitzaigunez, ez zen kontraesanik Osasun Departamentuaren eta Hezkuntza Departamentuaren artean, bi departamentuen eginkizunak argi zehaztuta baitaude. Osasun Departamentuaren esanetan, gainera, haren betebeharra eta ardura omen da “haurren osasun egoerak hala eskatzen duenean, haur horiek artatzea, indarrean dagoen antolamendu juridikoa izanik muga bakarra”.

Azken argudio gisa, aipatutako departamentuak zioen haur horiek errehabilitazioa behar izanez gero Osasunbideko errehabilitatzaileak arduratuko direla zerbitzu hori emateaz, beti egin den moduan.

Beraz, ulertu genuen ez zutela onartzen erakunde honek gaiari buruz egindako gomendioa, han jasotako ikuspegia; horrenbestez, ez-onartze hori urteko txostenean jaso eta kexa-egileei informazio guztia helarazi ondoren, amaitutzat eman genituen espediente horri buruzko jarduketak.

GARUN-PERLESIA DUEN HAUR BATEN HEZKUNTZA-IBILBIDEA.

AURREKARIAK:

Haurraren amak kexa bat aurkeztu zuen (03/70/E espediente), kezkatuta baitago garunperlesia (tetraplegia ataxikoa) duen 11 urteko semeak Lehen Hezkuntza amaitutakoan (6. maila: 2002/2003) jarraituko duen hezkuntza-ibilbideari buruz.

Haurra Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan sartu zen Burlatako Hilarión Eslava ikastetxean (1999/2000), mugitzeko ezgaitasuna duten ikasleentzako lehentasunezko ikastetxea baita. Ikasturte hau (6. maila) amaitu baino hilabete batzuk lehenago, kexa-egileak idatziz jo zuen ikastetxeko zuzendariarengana jakiteko zer proposamen egiteko asmoa zuten semearen eskolatzeko motari buruz. Eskari horri emaniko erantzun idatzian, ikastetxeko orientatzaileak jakinarazi zion haurra Bigarren Hezkuntzara igotzearen aldekoa zela. Ama ez dator bat irizpide horrekin, uste baitu haurraren beharretarako egokiagoa dela 6. maila errepika dezan; izan ere, Burlatako Institutuan ez dago unitate espezifikorik, eta haurrak beste urtebete eman dezake bere inguruan. Behin betikoagoa izan daitekeen konponbideari begira, egokiagoa iruditzen zaio semearentzat ASPACeren menpeko zentro batean sartzeko aukera.

Hezkuntza kontseilariak, gure informazio eskareri erantzunez, hau azaldu zigun:

“Hezkuntza sistemaren antolamendu orokorrerako 1/1990 Lege Organikoko 36. eta 37. artikulue-

tan, berariaz aipatzen dira hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko erabiliko diren printzipio eta prozedura orokorrak. Zehazki, 36.3 artikulua hau dio: “normalizazio eta eskola-integrazio printzipioek gidatuko dute hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei eskaintako arreta”. Bestalde, 37.3 artikulua zehazten duenez, “ikaslearen premiei ikastetxe arrunt batean erantzutea ezinezkoa denean bakarrik eskolatuko dira hezkuntza bereziko ikastetxeetan. Egoera hori aldizka berraztertuko da, ahal den neurrian laguntzeko ikasleak integrazio handiagoko araubidean sar daitezten”.

Ikastetxeen parte-hartze, ebaluazio eta gobernamenduari buruzko 9/1995 Lege Organikoko bigarren xedapen gehigarriak ezartzen duenez, funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxeek hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko betebeharra dute.

Nafarroako Foru Komunitatean, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzeko hurrengo testuetan dago araututa:

– 39/2001 Foru Agindua, otsailaren 20koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, ezintasun psikiko, mugimenezko eta sentimenezkoen ondorioz hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko prozedurari buruzkoa.

– 153/1999 Foru Dekretua, maiatzaren 10ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan Hezkuntza Orientazioa arautzen duena.

– 76/1993 Foru Dekretua, martxoaren 1ekoa, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren menpeko Hezkuntza Berezirako Baliabideen Zentroa sortzen duena.

– 56/1994 Foru Dekretua, otsailaren 28koa, diru publikoaren kargura diharduten Nafarroako Foru Komunitateko irakaskuntza ez-unibertsitarioko ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozedura arautzen duena.

– 133/1998 Foru Agindua, maiatzaren 8koa, Hezkuntza eta Kultura kontseilariak emana, ezgaitasun psikiko, zentzumenezko eta mugimenezkoen loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak Bigarren Hezkuntzako ikastetxe arruntetan Oinarrizko Hezkuntzarekin jarrai dezaten eskolatzeko eta laguntza emateko prozedurari buruzko jarraibideak ematen dituena.

Beste kexa bat ere izan da, [...] andreak aurkeztua, 2002/2003 ikasturtearen amaieran semea dagoen egoerari buruz; Hezkuntza Departamentuko zerbitzuek, horri dagokionez, aipatutako araudiaren arabera irizpideak erabili dituzte.

Horrela, etapa amaieran egin beharreko balorazio psikopedagogikoa otsailean hasi eta Hilarión Eslava ikastetxe publikoko orientatzaileak emaniko txosten indibidualarekin amaitu zen; [...]-(e)k, orientatzailearen proposamenaren arabera, adimenezgaitasuna duten ikasleak hartzeko curriculum berariazkorako unitatea duten ikastetxe arrunt batean jarrai dezake, eta haren iritziz, egokia litzateke, gainera, zaintzaile bat jartzea, haurrari ikastetxe barruko joan-etorriak errazte aldera.

Balorazio psikopedagogikoan adierazten den iritziaren arabera, [...]-(e)k prestakuntzan eta garapen pertsonalean egin ditzakeen aurrerapenak handiagoak izanen dira laguntza egokiak dituen etxetik gertuko ikastetxe arrunt batean, dena mugatuagoa duen eta haurraren girotik urrunago dagoen batean baino, hau da, hezkuntza bereziko ikastetxe batean baino.

Diagnostikoa garun-perlesia da eta, horrekin batera, adimenezgaitasun arin edo ertaina. Hezkuntza bereziko ikastetxe batean (Iberoko Isterria edo ASPACEren Orreagako Ama Birjina) sartu ordez, gizarte- eta hezkuntza-integrazio handiagoko hezkuntza-ibilbide bat jarraitzearen gomendioa kontuz aztertu zuten Hilarión Eslava ikastetxe publikoko orientatzaileak, Hezkuntza Bereziko Unitate Teknikoak, ikastetxeko ikuskatzaileak eta Eskolatzeko Batzordeak.

Hala ere, amak ez dio egoki irizten hezkuntza-ibilbide normalizatzaile hori hautatzeari, ez baitu uste hori denik hoberena [...]-(r)en giza- eta gizarte-garapenerako ezta ikasketetan aurrerapenak egiteko ere. Hori horrela, proposamen normalizatzailea aintzat hartu gabe, semeak hezkuntza bereziko ikastetxe bat lukeela egokiena aipatzen du behin eta berriz.

Haurrak orain amaitu duen zikloan beste ikasturte batez jarraitzea ez da egokitzat jotzen; izan ere, proposamen hori egin zitzaion amari aurreko zikloetan, ikasketen oinarriak finka zitzaion, eta hori ez zen posible izan ama ez zegoen-eta ados. Azken ikasturte honetan, gainera, [...] aurreko zikloetan baino pasiboago egon da eta gutxiago lagundu du aurrera egiten, nahiz eta hezkuntza-aurrerabideari begira baliabide eta laguntza berariazkoak eta arruntak antolatu diren. Ondorioz, Hilarión Eslava ikastetxe publikoan beste urtebete emateak ez dio onura handirik ekarriko.

Amari adierazi zitzaion ikastetxeak Curriculum Egokituaren Unitatea behar zuenez bigarren hezkuntzako institutu hauetakoren batean egin behar zuela [...]-(r)en aurrematrikulazioa: Donapea eta Nuestra Señora de la Compasión. Azkenik, amak Nuestra Señora de la Compasión ikastetxe-

an egin du aurrematrikula, nahiz eta ez dagoen oraindik ere ados aipatutako hezkuntza zerbitzuek eginiko balorazio eta aipamenekin.

Aipatutako jarduketa guztien ondorioz, gure iritziz, hartutako erabakia, hots, Hilarión Eslava ikastetxe publikoak, bertako orientatzaileak eta gainerako espezialistek hartutakoa, bat dator hezkuntzak eman beharreko integrazioarekin, normalizazioarekin eta pertsonalizazioarekin, eta [...]-(e)k bermatuta izanen ditu heldu den ikasturtean (2003/2004) bere hezkuntza-beharretara egokitutako baliabideak eta laguntzak.

2003/2004 ikasturteko amaierako balorazioan, txosten psikopedagogikoa ez bada positiboa edo egokia hezkuntza ikuspegitik, eta bertan eskolatzemota aldatu eta hezkuntza bereziko ikastetxe batera aldatzea gomendatzen bada, horrela jokatu da.”

ANALISIA:

Kexan aurkeztutako gaia egoki aztertzeke, gai horrek araubide duen esparru juridikoaren oinarriko alderdiak aipatuko ditugu laburki, eta, ondoren, [...]-(r)en eskolatzemotari buruz Hezkuntza Departamentuak hartutako erabakia aztertuko dugu. Azkenik, zenbait iritzi emanen ditugu departamentuaren txostenean aipatzen diren zenbait alderdi bereziki interesgarri buruz.

1. Hizpide dugun gaiaren esparru juridikoa zehazten duten arauen oinarriko alderdiak azaltzeko, Konstituzioa hartu behar dugu, nahitaez, abiapuntu. Konstituzioko 27. artikulua (I. tituluak) guztiek hezkuntzarako eskubidea dutela aitortzen eta bermatzen du, gizabanakoaren oinarriko eskubidea baita; eta oinarriko hezkuntza nahitaezkoa eta doakoa dela adierazten du. Arau horretan aitorturiko eskubideak, derrigorrez, beste bi xedapenetan ezarritako adierazpenekin lotu behar dira: 14. artikulua, I. tituluaren bermatutako eskubide guztien ataria eta nahitaezko interpretazio-erreferentzia, non berdintasun eskubidea aitortzen baita eta ezin dela inongo bereizkeriarik egin edozein inguruabar edo egoera pertsonal zein sozial aintzat hartuta; eta 49. artikulua, non botere publikoei ezartzen baitzaie gizareratze-politika egiten dutela urritu fisikoentzat, zentzumen-urrituentzat eta urritu psikikoentzat, I. tituluaren herritar guztiei aitortzen zaizkien eskubideen gozamina hartuz bereziki oinarri.

Konstituzioaren agindu hori garatuz, LOGSEK hezkuntza premia bereziak zituzten ikasleentzat integrazio eta normalizazio eredu baten alde egin zuen erabakitasunez. Ikuspegi zaharra gainditu zuen, hau da, haur ezgaituak hezkuntza prozesu-

tik sistematikoki baztertzen zituen ikuspegi hura, eta hezkuntza arloan haur ezgaituek gainerako haurren eskubide berak zituztela adierazi zuen; horren ondorioz, lege horretan ezarri zen ikastetxe arrunt batean ikasleen beharrei ezin zitzaizkion erantzun soilik eskolatuko zirela ikasle horiek hezkuntza bereziko ikastetxeetan. 37.1 artikulua, horrela, hezkuntza sistemak ikastetxeen ezaugarri fisikoak eta materialak ikasle horien beharretara egokitu beharko dituela ezartzen du, eta curriculumen egokitzapena eta dibertsifikatzea egin beharko dela.

2. Hezkuntza Departamentuak txostenean zioenez, [...]-(e)k adimen-urritasun arin edo ertaina du, eta integrazio handiagoko hezkuntza-ibilbidea komeni zaio, unitate espezifikoa duen ikastetxe arrunt batean, hala baitio adituek emaniko irizpeneak.

Nafarroako araudiak, aukera ematen baitu hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzeko motak erabakitzen dituzten oinarrizko irizpideak ezartzeko, hau xedatzen du modu orokorrean: "DBHn, ikastetxe arruntetan eskolatzeko ahal dira ezgaitasun psikiko edo adimen-urritasun arina edo ertaina duten ikasleak, horrekin batera jokabide nahasterik ez badute eta duten curriculum-gaitasunaren mailak ikastetxe arrunt batean integratuta jarraitzeko moduan izanen direla pentsarazten badu." Zehaztu egiten da, gainera, zer maila eska dakiekeen Lehen Hezkuntza amaitzean, gaitasunei eta ohiturei dagokienez, ikastetxe arrunt batean berariazko curriculum bat ikasi ahal izateko integrazio araubidean. Lehen Hezkuntza amaitzean legean ezarritakoari jarraituz egindako laburpen txostenean eginen da horren aipamena.

Horiek horrela, badirudi, gainetik begiratuta, administrazioak zuzenbidearen arabera jokatu duela, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzeko buruzko arauak aplikatu baitira, kontuan hartuz, erabakia hartzean, ikaslearen egoera pertsonala, dituen hezkuntza behar bereziak, teknikoekin eginiko ebaluazioa eta bere eremuko ikastetxeetan dauden giza eta gauza baliabideak. Ez dagokio, bestalde, instituzio honi, adituek erabilitako irizpide teknikoak epaitzea; hezkuntza administrazioa da, azken batean, eta indarrean dauden arauekin bat, haurri dagokion ikastetxe motari eta irakaskuntza motari buruzko azken erabakia hartu behar duena, hezkuntza orientazioko taldeetako profesionalen emaniko irizpenak oinarri betiere, eta alde aurretik gurasoak entzunda. Azken alderdi hori da arreta berezia merezi duena, azalpen honen hasieran aipatzen gure moduan.

3. Egia da haur ezgaituak eskolatu izateko duen eskubidea aldeztu duela LOGSEK eta fun-

tzeko oinarrizkat hartzen duela hori –horrela adierazten du departamentuak txostenean; lege horretako 37.3 artikulua aipatzen du–; baina egia da, baita ere, arau horrek berak haurren beharrei hobekien egokitzen zaien irakaskuntza mota erabakitze esku hartzeko eskubidea aitortzen diela familiei, eta ikastetxe egokiena aukeratzeko erabakian esku hartzeko eskubidea ere bai. Horrela, 37.4 artikulua honakoa ezartzen du: "hezkuntza administrazioek hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzeko eragina duten erabakietan gurasoek edo tutoreek izan beharreko parte hartzea arautu eta bultzatuko dute."

Horiek horrela, erakunde honek oinarrizko premisa hauek aintzat hartuta esku hartu du aurkeztutako gaian: lehenik, haurren interesen erabateko lehentasuna; bigarrenik, adituen erabakiaren errespetu osoa, horiek baitira azkeneko hitza dutenak horrelako gaitetan; saiatzea, gainera, familien iritzia eta nahiak aintzat hartuak izan daitezkeen behin betiko erabakia hartzean; eta, azkenik, saiatzea azkenean hartutako erabakiak, ahal den heinean, zerikusia duten alde guztien adostasuna eta onarpena izan dezan.

Departamentuak eginiko txostenean argi eta garbi azaltzen denez, ordea, erabakia ama aurka egonda hartu zen. Aipatzen da amak "behin eta berriz" diola semeak hobereana hezkuntza bereziko ikastetxe bat lukeela. Badirudi, aipatzen den moduagatik, gehiago hartu zela amaren funtsik gabeko tematzat, legea babesten saiatzen den guraso-iritzi zilegitzat baino. Gauza bera esan daiteke amak seigarren maila errepikatzeko egin zuen proposamenari buruz adierazten den iritzari dagokionez; izan ere, haurrak ikasturtean zehar izandako jarrera eta ikastetxetik aldatzeko egokitasuna kontuan hartu beharrean, haurarentzat komenigarriena zer den aztertzean hau erabili zen argudio erabakigarri gisa: "Haurrak orain amaitu duen zikloan beste ikasturte batez jarraitzea ez da egokitzen jotzen; izan ere, proposamen hori egin zitzaion amari aurreko zikloetan, ikasketen oinarriak finka zitzaizkion, eta hori ez zen posible izan, ama ez zegoen-eta ados."

Amaitzeko esanzen dugu departamentuak [...]-(r)en eskolatzeko motari buruz hartutako erabakiak ez dituela urratzen haren eskubideak, eta eskubide horiek babestea dagokio erakunde honi; baina ikusita zein egoeratan hartu zen erabakia, hots, amaren iritzia aurka, egoki iritzi genion departamentuari IRADOKIZUN bat egiteari: bai departamentuak berak, bai dagokien profesionalen, [...] egoera berrira egokitze prozesuaren jarraipena egin dezatela, ikusteko haurrak zer jarrera duen, zer aurrerapen egin dituen, halako moduz non,

egokia izanez gero, orain egokiena jotzen den eskolatzeko mota berrikusteko modua egonen litzatekeen, baita ikasturtea amaitu aurretik ere; era berean, elkarrizketa eta komunikazio giroa sortzen saia dadila [...] andrearekin, eta semearen bilakearan gertatzen direnen berri eman eta azal diezakiola, eta era berean joka dezala jarduketa-aurreikuspenekin.

Azkenean, Hezkuntza Departamentuak erantzun zigun, kontseilariaren bitartez, ebazpen hori guk eman bezalaxe onartzen zuela.

IKASTETXEEN FUNTZIONAMENDUA

ATARRABIako "LORENZO GOICOA" ESKUALDEKO IKASTETXE PUBLIKOAREN BANAKETA, HIZKUNTZA EREDU DESBERDINEN ONDORIOZ.

AURREKARIAK

Atarrabiako "Lorenzo Goicoa II" ikastetxe publiko guraso elkarteak kexa bat aurkeztu zuen (02/280/E espediente) "Lorenzo Goicoa" eskualdeko ikastetxe publikoa banatu eta Atarrabiako Lorenzo Goicoa II" ikastetxe publiko berria sortzeko prozesuari buruz; bigarren ikastetxe horrek hartzen ditu D ereduko ikasleak.

Aurkeztu zuten idazkian, banaketa hori egiteko arrazoiak zalantzan jartzen ziren eta kezka, bereziki, ikastetxe berriak autonomiaz funtzionatzeko gutxieneko bermeei buruzkoa zen, hau da, espazioen banaketa eta egokitzapenari buruz; ikastetxe berriari, izan ere, ez omen zitzaion behin betikoz espazio propiorik esleitu, eta eraikinak, gainera, gabeziak zituen, ziotenez, eta irizpide argirik ere ez omen zegoen bi ikastetxeentzat ziharduten langileak elkarrekin banatzeko.

Esaten zen, era berean, gurasoen iritzia ere ez zela batere kontuan izan banaketari buruzko erabakiak hartzean, eta ez zitzaizela parte hartzen utzi banaketa batzordean, ezta batzorde horrek hartutako erabakien berri eman ere. Kexan, amaitzeko, erakunde honek parte har zezan eskatzen zen, arazoa konpontze aldera.

Hezkuntza Departamentuak gai honi buruz helarazi zigun erantzunean, honakoa esan zitzaigun:

Atarrabiako "Lorenzo Goicoa II" ikastetxe publiko ekainaren 3ko 117/2002 Foru Dekretuaren bidez sortu zen. Aurreko udan, batzorde bat espazio banaketa egiteaz arduratu zen. Kide hauek zituen batzordeak: Inbertsio Zerbitzuko burua, ikuskatzailea eta bi ikastetxeetako zuzendaritzak, hots, "Lorenzo Goicoa I" eta "Lorenzo Goicoa II" ikastetxeetakoak. Aldi berean, Hezkuntza Zuzendaritza Nagusiko Inbertsio Zerbitzuak obra batzuk

egin zituen azpiegiturak hobetzeko; hain zuzen ere, D ereduari esleitutako zatian, terraza bat estali eta 60 metro koadroko gela berri bat egin zen, bost gela egokitu ziren haur hezkuntzako eskola unitateetarako –zoru eta zokalo berriak jarri ziren, adin horretako haurrentzat egokiak diren materialak erabiliz–, harraskak dauden lekuan zoru goratu zen eta egiturazko kableak jarri ziren bulego eta beste gela batzuetan. A-G ereduari esleitutako zatian, psikomotrizitate gela bat banatu eta bi gela egin dira; argiztapen banaketa berriak egin dira beste gela batean, bitan banatu eta idazkaritza, zuzendaritza eta irakasle gela gisa erabiliko baita; gela baten egokitzapen elektrikoa egin da erreprografia gela izan dadin, eta telefono deien banagunea eta telefono berriak jarri dira.

Gainera, ikastetxe biak erabiltzekoak diren espazioei dagokienez, jantokia handitu eta sukaldaria egokitu egin da, eta Atarrabiako Udalari dirulaguntza eman zaio patioaren zati bat hobetzeko, zolatzeko eta urbanizatzeko hain zuzen; izan ere, ikastetxeak berak eta "Idoskia" gurasoen elkarteak hala eskatu zuten 2001eko azaroan, hizkuntza ereduaren banaketaren aurretik alegia.

"Lorenzo Goicoa II" ikastetxe publikoaren hornidurei dagokienez –344 ikasle ditu, Haur eta Lehen Hezkuntzako D ereduko 18 taldetan–, ikastetxeak 19 gela arrunt ditu, bitan banatzeko moduan dauden beste bi, eta musikarako, erlijiorako eta liburutegirako berariazko gelak. Gainera, "Lorenzo Goicoa I" ikastetxearekin batera erabiltzen ditu informatikako eta ingeleseko gela. Ikastetxeak, azkenik, hauek ditu: irakasle gela, 4 bulego, jantokia eta beste zenbait espazio, hala nola biltegia, atezaindegia etab.

Familiek banatze prozesuan izan duten parte-hartzeari dagokionez, ikastetxeko ikuskatzaileak 3 bilera izan ditu prozesuan zehar "Idoskia" gurasoen elkarteko ordezkariekin (2002ko urtarrilaren 25ean, martxoaren 15ean eta ekainaren 18an) eta bilera bat "Idoskia" gurasoen elkarteko batzarrarekin (2002ko irailaren 9an); gainera, zenbait telefono elkarrizketa izan ditu gurasoen elkarte horrekin eta idazki bat ere igorri zien. Aipatzekoa da, orobat, ikasturte hau hasi baino lehen, 10 bilera egin zirela oraingo zuzendariekin, eta sarritan aritu zirela telefonoz, faxez eta posta elektronikoz.

Edozein modutan, Gobernuari dagokio, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bidez, hezkuntza plangintzaren ardura. Gogora dezagun, baita ere, "Lorenzo Goicoa II" ikastetxe publiko sortzearen aldeko txostena eman zuela Nafarroako Eskola Kontseiluak, Nafarroako gizarteak hezkuntzaren arloan parte hartzeko duen organo goren.

Eskola komunitateak ikastetxearen gobernamentuan parte hartzeko dituen organoei dagokienez, "Lorenzo Goicoa II" ikastetxean gutxi barru hautatuko dira eskola kontseiluko ordezkariak, urriaren 25ean Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako arauarekin bat.

ANALISIA

Kexa honek bi gai dakarzkigu, eta, ezberdinak direnez, banan-banan aztertuko ditugu. Lehenik, Nafarroako Gobernuak "Lorenzo Goicoa" ikastetxe publikoa banatzeko –gaztelaniazko eta euskarazko hezkuntza eskaintzen zen– zer arrazoi edo oinarri izan dituen aztertu behar da, zergatik sortu diren bi ikastetxe, "Lorenzo Goicoa I" eta "Lorenzo Goicoa II"; bi entitate juridiko dira, hizkuntza ereduaren arabera bereizita, kudeaketa guztia banatuta dutenak, nahiz eta badiren bi ikastetxeek erabiltzen dituzten espazioak eta badiren bietan lan egiten duten langileak, atezaina eta administrari bat hain zuzen, ikastetxe bakoitzaren zuzendaritzaren pean baitaude. Bigarrenik, giza eta gauza baliabideak irakaskuntzarako egoki antolatuta eta banatuta ote dauden aztertu behar da. Hori egiaztatzeko, erakunde honetako zerbitzuek ikastetxera joan behar izan dute, bertatik bertara ezagutzeko salatuakotako gertakariak.

Lehenbiziko gaiari dagokionez, administrazioak igorri digun txostenean, egia esan, ez du aipamenik txikiena ere aurkitu "Lorenzo Goicoa" ikastetxea banatzeko zergatiei buruz; esaten den bakkarra da Nafarroako Gobernuari dagokiola, Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren bidez, hezkuntza plangintzaren ardura. Txostenean ere aipatzen da Nafarroako Eskola Kontseiluak ikastetxea banatzearen aldeko txostena eman zuela, eta, horrenbestez, organo horrek gaiari buruz emaniko irizpena aztertu dugu (5/2002 irizpena).

Irizpenak zenbait atal ditu: araudia, kontsultatutako dokumentazioa, foru dekretuaren deskripzioa eta iradokizunak eta oharrak. Baina txostenean ez da arrazoitzen zergatik den komenigarria ikastetxea bitan banatzea. Irizpenean, gai horri buruz ageri diren argudio bakarrak bi boto partikularretan ageri dira, STEE-EILAS sindikatuak eta "Herrikoa" ikasleen guraso elkarten federazioak eginikoetan hain zuzen; horiek ikastetxea banatzearen aurka agertu ziren.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariak gai honi buruzko parlamentu-galdera bati eman zion erantzuna ere aurkitu dugu; Nafarroako Parlamentuko Mahaiak galdera hori 2002ko apirilaren 8an onartu zuen. Banaketa justifikatzeko arrazoi hauek erabili ziren: "batez ere bideak erraztea hizkuntza erkidego bakoitzak bere ahaleginak bidera ditzan proiektu

pedagogiko berezkoak gauzatera eta bere lana oinarri dezan koherentzian eta autonomian eta eskaintzen duen hezkuntza aukeran sakontzean."

Azalpen hori oso generikoa da; ez da nahikoa, beraz, ez baititu hartutako erabakiaren funtsezko arrazoiak argitzen, eta hurrengo arrazoiengatik ezin gara ados egon: lehenik, esan bezala, ez dugu ikusi hezkuntza agintariak ikastetxeak banatzeko azalpen nahikorik eman dutenik; egia da administrazioak gauzak antolatzeke ahalmena duela eta horrek aukera zabalak ematen dizkiola, baina, juridikoki, hartzen den erabakia arrazoitu beharra dago, hala ezartzen baitu Herri administrazioen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeko 54.1 artikulua. Bigarrenik, Parlamentuari emaniko erantzunean esaten den bezala, ikastetxeak hamahiru urte egin ditu ikastetxe bakar gisa, eta ez da hezkuntza-arazo larririk izan; ez da ulertzen orain, hain denbora luzez batera egon ondotik, ikastetxea lehenbailehen bitan banatzea erabaki izana. Eta, hirugarrenik, departamentuak ez ditu hezkuntza arrazoiak erabiltzen ia berdina diren beste kasu batzuetan; izan ere, egiaztatu dugunez, Nafarroan badira bi hizkuntza eredu izan eta arazorik gabe ari diren ikastetxe publikoak, edo, gutxienez, aldean artean hitz eginda konpontzeko moduko arazoak besterik ez dutenak. Hala gertatzen da, adibidez, antzeko beste ikastetxe publiko batzuetan, hala nola Antsoainen, Berriozarren etab.

Gure ustez, anzitasuna, dibertsitatearekiko errespetua, tolerantzia eta bazterkeria eza dira ikastetxeetan lehentasunez bermatu beharreko hezkuntza balioak, horiek baitira gure sistema demokratikoaren oinarria, eta horiek bultzatzen baitute, eta bermatzen, azken finean, gizartearen kohesioa. Hezkuntzak, egiaz, balio horien indartzea ziurtatu behar du; balio horiek dira, seguruenik, ikasgaien edukiaren irakaskuntza hutsaz gain, hezkuntza eginkizunaren gidari nagusi izan behar dutenak.

Gure ustez, hartutako neurriaren gisakoek eragin kaltegarria dute, modu batean edo bestean, ikasleengan, eta, zalantzarik gabe, gurasoengan eta irakasleengan, eta herritarren konfiantza eza sustatzen dute, bai eta ezberdinak diren pertsonen edo taldeen buruzko aurreiritziak ere, zergatik eta hezkuntza eskubidea hizkuntza jakin batean gauzatze hutsagatik.

Bizikidetzarako oinarrizkoak diren printzipio horiek betetzen direla behatu behar dute hezkuntza agintariak, eta, hezkuntzaren azken buruko xede horiek bermatzeko, anbiguotasunik gabe jokatu behar dute; gatazketan bitartekari aritzeko

eskaini behar dute beren burua eta era batean edo bestean herritarren arteko bazterketa bultzatzen saiatzen direnen aurka azaldu.

Arazorik izan bada irakasleen, gurasoen, zuzendaritzako kideen eta ikastetxearekin zerikusia duten gainerako pertsonen artean, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak aktiboki esku hartu behar zuen; departamentuak baditu nahiko tresna juridiko, izan ere, arazo horien konponbidea elkarriketaren bidez, parte hartzearen bidez eta behar diren neurriak hartuz bilatzeko, eta, horrela, errespetatu daitezkeen, betiere, aipatu ditugun balio horiek. Horrelako arazoak konpontzeko ez zaigu egokia iruditzen ikastetxeak formalki banatzea. Epe laburrera konponbide erraza bada ere, epe ertainera edo luzera ez ditu arazoak konponduko, leku asko bi ikastetxeek erabiltzekoak baitira eta horrek aurretik zeuden arazoen modukoak eragin bainitu. Konponbide horrek ahazten du balio demokratikoetan hezteak esan nahi duela elkarriketa jartzeko delat jarrera baztertzailen gainetik, gatazka duten aldeak saia daitezkeen, horrela, akordioak lortu eta bat etortzen, eta ikas dituzaten joko demokratikoaren oinarriko arauak; besteak beste, gehiengoek erabakitzen dutela, baina gutxiengoek arazua bermatuta dituzten eskubideak errespetatu betiere.

Ondorioz, gure ustez, ikastetxea bi hezkuntza lerrotan banatzea ez da konponbiderik egokiena ikastetxeetan hezkuntza balioak bultzatzeko, eta, gainera, ez ditu konponduko irtenbide horrekin konpondu nahi diren arazoak; izan ere, zuzendaritza banatzean, desadostasunak eta tentsioak sortuko dira bi ikastetxeen arteko zuzendaritza taldeen artean, eta aldean arteko errezeloak nork bere interesen alde egitean. Horrenbestez, iritzi genion Hezkuntza eta Kultura Departamentuari ikastetxea banatzeko erabakia berraztertze gomendatu behar zitzaioela.

Bigarrenik, banatzearen baldintzei dagokienez, ikastetxea aztertu ondoren, zenbait hutsune atzeman genituen, nahiz eta prestasunez konpontzekoak ziren. "Lorenzo Goicoa II" ikastetxeak haur irakaskuntza, bigarren zikloa eta Lehen Hezkuntza ematen ditu, eta zenbait gela eta espazio erabiltzen ditu "Lorenzo Goicoa I" ikastetxearekin batera: ingelesko gela, informatikakoa eta jantokia –lehenbizi aipatutako ikastetxean baitaude–, patioa eta kanpoko espazio estaliak. Atezainak eta administrari batek, teoriarik, bi ikastetxeetarako egiten dute lan.

Ikastetxea bisitatuta, hutsune hauek atzeman genituen:

a) Itoginak nabarmenak dira bost gelatan, eta gehienak azken ikasturtean sortu dira. Horietako batean bada oso itogin handia, zortzi urte daramatzana konpondu gabe. Itogin horrek baditu zenbait zulo, nahiko handiak, eta, zalantzarik gabe, euria egiten duenean ura sartzen da gelan.

b) Iturri-instalazioek eta komunek nahiko itxura eskasa dute. Ikastetxean ez da ur berorik, nahiz eta haur hezkuntzako ikasleak eduki; komunak gaizki argizatuta daude eta gutxi dira, erabiltzen dituzten haurren kopurua kontuan izanda; Lehen Hezkuntzako haurrek erabiltzen dituzten pixatokiak altuegi daude haur txikiagoentzat; Haur Hezkuntzako ikasleek erabiltzen dituzten komunek ez dute konketa egokirik txikieneztat, nahiz eta kanila iritsi ezinezko harraska altu batzuk badauden. Horrek denak 1004/1991 Errege Dekretuan ezarritakoa urratzen du.

c) Ikastetxea goizez garbitzen dute, ikastorduetan, eta ez da gutxienezko segurtasun neurririk izaten. Bisitan, garbiketa-produktuz betetako ontziak ikusi genituen, edozein haurren eskueran, erraz hartu eta erabiltzeko moduan. Hain zuzen ere, haur hezkuntzako bi haur ikusi genituen inork behatzen ez zituela komunak erabiltzen.

d) Haur Hezkuntzako haurrek ez dute jolasera-ko patio bereizi eta babesturik.

e) Berogailuaren galdara Lehen Hezkuntzako gela baten ondoan dago, eta ez dakigu aztertu ote den horrek izan dezakeen arriskua.

f) Ikastetxeko aparkalekua, autobusek erabiltzen dutena, ibilgailu partikularrak uzteko ere erabiltzen da; ez dago jolasgunetik argi bereizita, eta haurrentzat arriskutsua gerta daiteke ikastetxeko sartzeko eta irteeretan izaten den ibilgailu mugimenduagatik.

g) Liburutegirik ez dago, beharrezkotzat jotzen diren beste gauza eta jardura batzuetarako erabiltzen baita espazio hori; egia esan, ez dago liburutegirik.

h) Azkenik, oro har, eraikina irakaskuntzarako nahiko ongi diseinatuta dagoela iruditu zitzaigun; gela zabalak ditu eta argi natural dezente dute. Hala ere, aipatutako hutsuneak gorabehera, azpimarratu nahi dugu, orobat, eraikinak ez dituela betetzen oztoko fisikoak desagerrarazteko arauak, eta horiek betiere errespetatu beharrekoak dira.

i) Langileei dagokienez, atezaina gaztelaniazko ikastetxeko atezain bera da, eta ez daki euskaraz; duen ordutegiari jarraikiz, 13:00etatik 16:15era bitarte ikastetxetik kanpo egoten da, denbora tarte horretan ez baitago haren beharrik, eta ez du haurrak autobusera nola igotzen eta jaisten diren kon-

trolatzen laguntzen, nahiz eta eginkizun hori baduen. Era berean, lehen bazen administrari bat bi hezkuntza lerroetarako; hala ere, ikastetxeak banatu zirenean, langile hori gaixo jarri, baja hartu eta, haren ordeztu, pertsona bat bakarrik hartu zuten, lanaldi erdian, gaztelaniazko ikastetxerako; ez du zerbitzurik ematen "Lorenzo Goicoa II" ikastetxean.

Laburbilduz, aukera asko dituen eta ondo hornituta dagoen ikastetxe bat aurkitu genuen, baina utzi samarra eta antolamendu zailekoa, espazio eta gela dezente baitaude bi ikastetxeek erabiltzekoak direnak, eta hori kontraesan dago banatzeko erabakiarekin. Ikastetxeak banatu nahi badira, eta koherentziaz jokatu nahi bada, ez da egin behar banaketa formala soilik, baizik eta benetako, hezkuntza lerroak eraikin eta espazio ezberdin eta ongi mugatuetan ezarriz. Langileek ere ezberdinak izan behar dute, ikastetxe bakoitzak bere atezaina eta administraria behar baititu, behar den hizkuntza eskakizunarekin.

Horregatik diogu, banaketa egin den moduan eginda, zalantzarik gabe arazoak izanen direla berriro ere; hezkuntza administrazioak bitartekariarena egin beharko du, eta hori da hasieran egin behar zuena ikastetxeak formalki banatu ordeztu.

Aipatuko dugu, amaitzeko, ikastetxeko zuzendaritzak hutsuneetako batzuk konpontzeko Atarrabiako Udalean eginiko urrats ugariak azaldu dizkigula, baina orain arte udalak ez du ezer egin, eta, beraz, egokia litzateke Hezkuntza eta Kultura Departamentuak dituen ahalmenak erabiltzea egoera konpontzeko, bera baita, azken batean, hezkuntza zerbitzuko agintari arduraduna.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Departamentuari GOMENDIO bat egin behar zitzaioala iritzi genion: 2003/2004 ikasturtean berrazterte zezala ikastetxea banatzeko erabakia eta lehengo egoerara itzul zedila, eta, edozein modutan, aipatu ditugun hutsuneen konponbidea susta zezala.

Hezkuntza eta Kultura kontseilariak eman zigun erantzunean, beste afera batzuk aipatzeaz gain, berriro jakinarazi zigun ikastetxea banatzea onuragarria izan dela, lehen zeuden bizikidetasun arazoak konpondu baititu; kontseilariak esan zigun konponbide horrek ikastetxe bakoitzaren autonomia pedagogikoa eta administratiboa ahalbidetzen duela eta, beraz, ez diola egoki irizten ikastetxea berriro batzea aztertzeari.

Kontseilariak ohartarazi zuen, halaber, udalek dutela ikastetxeen mantentze-lanen ardura; izan ere, zenbait inbertsionerako dirulaguntzak ematen zaizkie udalei, eta azken urteetan eginikoak

zehaztu zituen; egiteko daude jantokiaren handitzea eta eraberritze obrak eta "Lorenzo Goicoa I" ikastetxearen handitzea. Esaten zuen, amaitzeko, Haur Hezkuntzako ikasleentzako jolaserako patioa eraberritu eginen dela aurrekontuan horretarako dirua dagoenean; aparkalekua ez zegoela jolaserako patio izateko pentsatua, nahiz eta "Lorenzo Goicoa II" ikastetxeko zuzendaritzak horretarako erabili nahi duen; liburutegiari dagokionez, ikastetxeko zuzendaritzak erabilera aldatu eta beste jarduera batzuetarako erabiltzen omen duela; eta ikastetxeak, jadanik, atezain eta administrari elebidunak omen dituela.

Ondorioz, gure gomendioa ez zela aintzat hartu iritzi genion, eta, horregatik, horren berri ematen dugu urteko txostenean. Gainera, banatu aurreko egoerara itzultzearekin ez zeuden ados, eta, nahiz eta hutsune batzuk konpondu, ez zuten konponbide orokorrik hartu; izan ere, Hezkuntza eta Kultura Departamentuak jardun behar du, ez baitira mantentze-lan hutsak, baizik eta ikastetxea eraberritzeko lanak, hau da, Nafarroan horrelako edozein ikastetxek behar dituen diseinu eta kalitate mailak egokitzeko lanak.

BHI BATEKO ZUZENDARIAK PROPOSATUTAKO ORDUTEGIAREN KONTRA AURKEZTUTAKO ERREKURTSOARI ERANTZUNIK EZ EMATEA.

AURREKARIAK

Bigarren Hezkuntzako Institutu bateko irakasle batek kexa bat aurkeztu zuen (13/92/E espedientea), 2003ko urtarrilaren 23an jarritako errekurtso bati ez ziotelako erantzunik eman.

Kexa-idazki horretan interesdunak azaltzen ziguenez, errekurtsoa Hezkuntza Departamentuko ikuskatzaile [...] jaunak 2003ko urtarrilaren 10ean emandako ebazpenaren aurka jarri zen; ebazpen horretan ezetsi egiten ziren BHIko zuzendariak 2002/2003 ikasturterako proposatutako ordutegiaren aurka aurkeztutako erreklamazioak.

Aurkeztutako kexaren muina, interesdunak espresuki esan zigun moduan, errekurtsoa jarri eta administrazioak ez erantzun izana zen. Behin gai hori aztertuta, eta erakunde honek esku hartzeko zituen aukera zehatzak erabakitze asmoz, arartekoa arautzen duen uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legean ezarritakoarekin bat, Hezkuntza kontseilariarengana jo genuen kexan aurkeztutako gaiari buruzko informazioa eman ziezagun; hain zuzen ere, galdetu genion zergatik ez zen espresuki ebatzi eta ez zitzaion ebazpena interesdunari jakinarazi, bete gabe utziz, horrela, Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio

prozedura erkidearen Legeko 42. artikulua administrazioari ezarritako betebeharra.

Hezkuntza kontseilariak, gure eskariari erantzunez, txosten hau helarazi zigun; hona hitzez hitz:

“1. Zerbitzu publikoen funtzionamendu arau orokorrekin bat, ebatzi behar diren gaitan sarrera hurrenkeraren arabera jokatu da, hau da, erregistro publikoan izandako inskripzio ofizialaren arabera.

2. 2002. eta 2003. urteen artean gora jotzeko errekurtsoen kopuru handia izan zen, 550 inguru, eta atzerapenak sortu dira hori dela eta. Atzerapen horiek mota askotako errekurtsoei eragin diete; besteak beste, administrazio publikoan bai behin betikoz bai aldi baterako sartzeko deialdien aurka ezarritako errekurtsoei.

3. Administrazio publikoen araubide juridikoaren eta administrazio prozedura erkidearen azaroren 26ko 30/1992 Legeko 43. eta 115.2 artikuluetan, prozedura bat ezartzen da aukera ematen diona errekurtsua jarri duenari errekurtsua ezetsitzat hartu –gora jotzeko errekurtsua jarri eta hiru hilabete pasatzen direnetik– eta justizia auzitegitara jotzeko babes bila.

4. Aurrekoa gorabehera, administrazioak ebazteko betebeharra izaten jarraitzen du, eta lehenbailehen eginen dugu.”

Idazki hori jaso ondoren, kexa-egileak berriro jo zuen erakunde honetara jakinarazteko administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri zuela, auzitegitan erabaki dadin bere ordutegia arauzkoa den ala ez, eta, ez bada, ordain ekonomikoa eman diezaitoten eginiko aparteko orduengatik.

Aurreko horiek horrela eta Nafarroako Foru Komunitateko arartekoaren uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 23.2 artikuluan xedatutakoa oinarri hartuta (“Epai irmoa jaso duten edo ebazpen judizialaren zain dauden kexak banan-banan aztertzen ez da hasiko Nafarroako Foru Komunitateko arartekoa, eta azterketa eten eginen du, baldin eta kexak aztertzen hasi ondoren interesatu batek salaketa, kereila, demanda edo errekurtsu bat aurkezten badu auzitegi arruntetan, edo horietan autoak irekitzen badira. Horrek ez du oztopatuko, dena den, aurkeztutako kexetan planteatzen diren arazo orokorre buruz ikertzen jarraitzea. Beti ere, foru administrazioari zuzendutako eskaerak eta errekurtsuak hark, behar den denboran eta moduan, berariaz ebatz ditzan zainduko du arartekoak.”), Hezkuntza Departamentuari LEGEKO BETEBEHARREN GOGORARAZPENA egin genion, hau da, esan genion interesdunak jarritako errekurtsua

espresuki ebatzi behar zuela, hala ezartzen baitu 30/1992 Legeko 42. artikulua. Gainera, gora jotzeko errekurtsuak ebatzean gertatzen ari den atzerapen larria dela eta –departamentuak berak onartzen du–, neurriak hartu beharko liriteke errekurtsu horiek lehenbailehen ebatz daitezela, eta administrazioak etorkizunean hartu beharreko ebazpenak lege ezarritako epe eta moduan eman daitezela.

LAGUNTZAK ETA IKASTETXEETAKO MATRIKULAZIOA

TESTULIBURUAK EROSTEKO DIRULAGUNTZEI BURUZKO INFORMAZIO URRIA ETA LAGUNTZAK ATZERAPENEZ ORDAINITZEA.

AURREKARIAK

Pertsona batek jakinarazi zigun (02/254/E espedientea) informazio urria jaso zuela Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako testuliburuak erosteko laguntzak eskatzeari buruz eta ezin izan zituela laguntza horiek epean eskatu; departamentuak laguntza horien deialdia maiatzaren 21eko 166/2002 Foru Agindua bidez egin zuen. Kexan esaten zen, halaber, laguntza horiek 2001/2002 ikasturtean ere atzerapen handiz ordaindu zirela.

Zioenez, lege ezarritako epea ekainaren 29an amaitzen zen eta, egunkarian ere argitaratu zenez, semearen ikastetxera joan zen eskaera orriak jasotzera. Ohartu zen, orduan, alde aurretik Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari liburuak erosteko beka bat eskatu izana egiaztatu behar zela. Adierazten duenez, hala ere, deialdi hori ez zen argitaratu Nafarroako egunkarietan, eta eskaerak onartzeko epea ekainaren 14an amaitu zen; hori zela kausa, interesa zuen jende asko gelditu omen zen Nafarroako Gobernuak eginiko deialdiko laguntzak gabe, ez baitzekiten zein zen estatuko beka eskatzeko epea.

Hori horrela, kexa-egilearen ustez, bi laguntzen deialdiak egun beretan egin beharko liriteke, edo, gutxienez, nahikoa informazioa eman laguntza batzuk nahiz besteak eskatzeko epeei buruz, baldintzak betetzen dituzten familiek laguntza horiek eskura ahal ditzaten benetan.

Azkenik, salatzen zuen aurreko ikasturtean emaniko bekak ordaindu gabe zeudela artean, eta atzerapen ulergaitz horretaz kexatzen zen.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuak gure informazio eskari erantzun eta honakoa adierazi zigun:

“Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2002ko maiatzaren 6ko Ebazpenaren bidez

(2002ko maiatzaren 14ko 115. EAO) onetsi zuen testuliburuak eta ikasmaterial osagarria erosteko laguntzen deialdia. Deialdi horretan, eskariak egiteko eta laguntzak tramitzeko prozedura ezartzen zen; eskarien inprimakiak aurkezteko azken egun gisa ekainaren 14a finkatu zen, eta inprimaki horiek aurkeztu behar ziren eskatzaileek 2002/2003 ikasturtean ikasi behar zuteneko ikastetxeetako idazkaritzetan.

Ikastetxeak, eskariak ongi beteta zeudela egiaztatu ondoren, ekainaren 25a baino lehenago Hezkuntza Departamentuko Beka Bulegora igorri behar zituen, ministeriora igor zitezten.

Nafarroako Gobernuaren deialdia, berriz, maiatzaren 21eko 166/2002 Foru Aginduen bidez onetsi zen (2002ko ekainaren 5eko 68. NAO). Aurreko kasuan bezala, eskariak ikastetxeetako bulegoetan aurkeztu behar ziren, eta ekainaren 28a zen eskari horiek hartzeko azken eguna. Nafarroako Gobernuaren deialdia ministerioak egiten duenaren osagarria da. Horrenbestez, bi deialdietako eskari orriak bete behar dituztenei tramiteak errazte aldera, ahalegina egin da eskatutako datuak, ahal zen ataletan, bertsuak izan zitezten.

Hala ere, nahiz eta osagarriak izan, bi deialdi dira. Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzua, urtero, saiatzeko jakiten Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren deialdia noiz argitaratuko den eta zer epe jarriko dituen, baina ez da beti modurik izaten deialdiak bateratzeko, nahiz eta hori litzatekeen egokiena.

Hezkuntza Departamentuak egunkariaren bidez ematen du deialdiaren berri.

Gure ustez, Nafarroako Foru Komunitateko Hezkuntzaren Goi-ikuskaritzako Arloak prozedura bera erabil dezake, edo egoki iritzitako beste edozein, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren deialdia ezagutzera emateko.

Hala ere, eskariak ikastetxeetan aurkezten direnez, eraginkorrago iruditzen zaigu ikastetxeek ematea laguntzen berri (iragarki oholen bidez, ikasleei informazioa zuzenean emanaz, informazioa familiei gurasoen elkarrekin bidez helaraziz, etab.). Horregatik, behin deialdiak onetsita, Beka Bulegoak urtero Nafarroako ikastetxe publiko nahiz pribatuei deialdiaren kopia osoa igortzen die, eta, horrekin batera, idazki bat, non eskariak zuzen tramitzeko interesgarriak jotzen diren puntuak azpimarratzen baitira.

Ikasturte honetan, honako egunetan egin ziren jakinarazpenak: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren deialdiarena, 2002ko maiatzaren 21ean, eta Nafarroako Gobernuaren deialdiarena,

2002ko maiatzaren 22an. Pentsatzekoa da ikastetxeek aldi berean emanen zutela bi deialdien berri. Ikastetxeen bidezko informazio hori bereziki garrantzitsua da gizarte- eta ekonomia-egoera larrian dauden familietako ikasleen kasuan, ez baitute, seguruenik, beste informazio iturririk izanen.

Hizpide dugun kasuan, [...] andreak, 2000/2001 ikasturtean, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak eta Nafarroako Gobernuak ikasliburuak erosteko jarritako laguntzak eskatu zituen semearentzat. Bi laguntzak eman zizkieten, eta, gainera, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren espedientearen ageri da berritutako beka dela; horrek esan nahi du aurreko ikasturtean, 1999/2000n alegia, laguntza horiek jaso zituela. Badirudi, beraz, 2002/2003 ikasturtean ez badu laguntza eskatu ez dela eskaera prozedura ezagutzen ez duelako. Ikasle batek Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren laguntza eskuratzen badu, eta Nafarroako Gobernuarena ere baldin badagokio, Nafarroako Gobernuak laguntza txikiena handienarekin berdintzeko behar den kopurua emanen du.

Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren laguntzen zenbatekoa 75,13 eurokoa da. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren baldintza ekonomikoak betetzen ez dituzten eskatzaileek betetzen badituzte, aldiz, Nafarroako Gobernuak ezarritakoak, azken horrek ezarritako laguntzaren zenbateko osoa jasoko dute. Begi-bistakoa da, beraz, estatuko deialdiko laguntzak nola ebatzen diren ezagutu arte Nafarroako laguntzak ezin direla ordaindu.

Aurten dezente atzeratu da Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak ateratako deialdiaren ebazpena; laguntzarik gehienak abuztuan ordaindu ziren. Nafarroako Gobernuak bi ordainketa egin ditu. Lehenbizikoa 2002ko urtarrilaren 9an egin zuen: 373.933,91 euro, 9.720 laguntza guztira; bigarrena, berriz, 2002ko irailaren 9an: 114.182,78 euro, deialdiaren arabera lehentasun irizpide bat edo gehiago betetzen zuten eskatzaileentzat. Hirugarren ordainketa bat dago egiteko; gutxi barru egingen da, eta horren bidez ordainduko dira emantiko gainerako laguntzak. Aurrekontuan eskura dagoen diruak ezartzen du horrelako jokabidea."

ANALISIA:

Bai kexa, bai Hezkuntza eta Kultura Departamentuak igorritako txostena aztertutik, gai honetan kontuan hartu beharreko bi alderdi zeudela iritziz genion: herritarrei informazioa heltzen zaien modua, eskabideak aurkezteari begira, eta aipatutako departamentuaren atzerapena laguntzak ordaintzean.

Maiatzaren 21eko 166/2002 Foru Aginduan, laguntzak izateko baldintzen artean hurrengo ezartzen da, 4. arauko 4. idatz-zatian hain zuzen: “2002/2003 ikasturtean liburuak eskatzeko beka eskatua izatea Hezkuntza eta Kultura Ministerioari (horretarako eskatutako baldintzak betetzen badira), dagokion deialdian ezarritako epeetan.”

Departamentuak baldintza hori justifikatzen du esanez Nafarroako Gobernuaren deialdia ministerioarenaren osagarria dela; izan ere, ikasleek ministerioaren laguntza jasotzen badute, 75,13 euro hain zuzen, Nafarroako Gobernuak foru aginduan ezarritako kopuruaren artekoa ordainduko die (Lehen Hezkuntzako ikasleentzat, foru aginduan, 95,70 euroko laguntza ezartzen da, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoentzat, berriz, 117,30 eurokoa). Laguntzak ez badira ministerioaren bidez hartzen, ikasleek diru kopuru hori osorik jasoko dute, Nafarroako aurrekontuen kargura.

Horregatik, izaera osagarri hori oinarri, gurasoek Hezkuntza Ministerioari eskaera egin izana frogatzeko baldintza erabat justifikatuta dago.

Laguntzen deialdi horietako bakoitzak epe bat du eskaerak egiteko, eta hor sortzen da arazoa: deialdiak bi administrazio publikok egiten dituzte, eta ez da beti haien arteko koordinaziorik izaten.

Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren esanetan, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak testuliburuak eta ikasmaterial osagarria erosteko laguntzen deialdia 2002ko maiatzaren 6ko Ebazpen baten bidez onetsi zen (2002ko maiatzaren 14ko 115. EAO), eta eskariak ikastetxeetako idazkaritzetan, beranduenez, 2002ko ekainaren 14an aurkeztu behar zirela ezarri zuen.

Departamentuaren deialdia, berriz, maiatzaren 21eko 166/2002 Foru Aginduaren bidez onetsi zen (2002ko ekainaren 5eko 68. NAO). Aurreko kasuan bezala, eskariak ikastetxeetako bulegoetan aurkeztu behar ziren, eta 2002ko ekainaren 28a zen eskari horiek hartzeko azken eguna.

Administrazioak dio deialdi osagarriak direnez saiatzun dela jakiten Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren deialdia noiz argitaratuko den eta zer epe jarriko dituen, baina ez dela beti modurik izaten deialdiak bateratzeko, nahiz eta hori litzatekeen egokiena. Hala ere, gerta litezkeen hutsak konpontzeko, departamentuak bi deialdien kopia osoa igortzen omen du Nafarroako ikastetxeetara, eta, 2002/2003 ikasturtean ere hala egin omen zuen, gurasoek deialdien berri izan eta nahikoa denbora izan zezaten laguntzak eskatzeko; hain zuzen ere, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren deialdia 2002ko maiatzaren 21ean bidali

zuen, eta Nafarroako Gobernuaren deialdia 2002ko maiatzaren 22an.

Jokabide hori egokia iruditzen zaigu eta Hezkuntza eta Kultura Departamentuak, eskatutako agirien aurkezpena errazteari dagokionez, zuzen jokatzun duela erakusten du; izan ere, ikastetxeen bidez, gurasoek ederki aski izan dezakete deialdi- en eta baldintzen berri.

Neurri hori eraginkorra izan dadin, gurasoek adi egon behar dute ikastetxeek zer informazio helarazten dieten, eta, gainera, eskaera behar bezala egiteko egoki iruditzen zaizkien azalpenak eska diezazkiekete ikastetxeetako arduradunei. Ez dugu uste, beraz, lehenbiziko arazoa departamentuaren jokabide okerraren ondorio denik. Interesdunaren familia unitateak, gainera, izan zituen beka horiek aurreko bi ikasturteetan (2000/2001 eta 2001/2002), eta orduan ere Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari laguntzak eskatu izana frogatzea eskatzen zen; ezagutzen zuen, beraz, lehenago ere egokitu baitzitzaion, baldintza hori eskatzen zela.

Bigarrenik, 2001/2002 ikasturteko beken ordainketak izaniko atzerapena aipatu behar da, kexaren arazoietako bat izan baita.

Horri dagokionez, departamentuak dio Foru Komunitateak ezin dituela laguntzak ordaindu ministerioak deialdia ebatzi arte, eta, ebazpen hori atzeratuz gero, atzeratu egiten direla, nahitaez, foru administrazioak egin beharreko ordainketak. Gai horretan, uste dugu departamentuaren erantzuna zuzena dela; izan ere, prozeduraren logikak berak agintzen du jakitea zein ikaslek jasoko dituzten ministerioaren laguntzak, erabakitzeko laguntza horiek osatu egin behar diren edota osorik eman. Sistema horrek, diogunez, atzerapenak eragin ditzake Hezkuntza eta Kultura Departamentuaren ordainketetan, baina justifikatuta daude.

Hala ere, Nafarroako Gobernuaren txostenean, hau adierazten da: “Nafarroako Gobernuak bi ordainketa egin ditu. Lehenbizikoa 2002ko urtarrilaren 9an egin zuen: 373.933,91 euro, 9.720 laguntza guztira; bigarrena, berriz, 2002ko irailaren 9an: 114.182,78 euro, deialdiaren arabera lehentasun irizpide bat edo gehiago betetzen zuten eskatzaileentzat.”

Departamentua, horrenbestez, aitortzen ari da, inplizituki, 2002ko urtarrilaren 9a baino lehen ezagutzen zuela jadanik ministerioaren deialdiaren emaitza, egun horretan 2001/2002 ikasturteari zegozkion laguntzen lehen ordainketa egin baitzuen.

2001/2002 ikasturterako eginiko laguntzen deialdian agertzen zenez, Hezkuntza eta Kultura kontseilariaren maiatzaren 14ko 175/2001 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen (2001eko ekainaren 4ko NAO), finantzaketa Nafarroako 2001eko aurrekontu orokorreko gaitutako kredituen kargura eginen zen, 41620-4800-422203 kontusaila, eta ezinen zen, inola ere, 571.081,71 euroko kopurua gainditu, hori baitzen horretarako zegoen gehieneko kopurua.

Hau da, 2001eko ekitaldian, aurrekontuan dirua bazen, eta 2002ko urtarrilaren 9an, lehenbiziko ordainketa egin zen egunean, nahikoa diru egon behar zuen laguntzak Nafarroako 2001eko aurrekontuen kargura ordaintzeko, ekitaldia amaituta baitzegoen eta aurreikus zitezkeen dirusarrerak, berriz, eginak ia denak, kobratzeko zeudenak izan ezik. Laburbilduz, departamentuak, ministerioaren laguntzak eman edo ukatu zirenetik, laguntzak osorik ordaintzeko behar zituen elementu guztiak zituen. Hala ere, laguntzak osorik ez ordaintzeaz gain, urtarrilean eginiko ordainketaren ondotik bederlatzi hilabete iragan ziren bigarren ordainketa egin arte. Eta 2002ko urriaren 3an, oraindik, ordainketa bat gelditzen zen egiteko. Departamentuak, hori justifikatzeko, "aurrekontuan eskura dagoen diruak ezartzen du horrelako jokabidea" esaten du, eta hori aurrekontua gaizki eta zorrotasun gutxiz betetzearen seinale da. 2001ean dirua baldin bazegoen aurrekontuan, ekitaldi horren amaieran, nahitaez, egon behar zuen urte horri egotz zekiokkeen funtsik, eta onuradunei berehala ordaindu behar zitzairen.

Gure ustez, arintasun handiagoa behar da ordainketan; orain arte bezala jokatzeari, izan ere, laguntzen helburuaren beraren aurka doa, hau da, familia behartsuei ikasliburuak eta ikasmateriala erosteko laguntza ematea ikasturte bakoitzaren hasieran. Paradoxikoki, laguntzak hurrengo ikasturtean ordaintzen dira; onuradunak, lehenbizi, ordaintzera behartuta daude, eta gastu hori askoz ere beranduago konpentsatzen zaie; horrela, laguntzek ez dituzte arintzen familiek ikasturte hasieran dituzten zailtasun ekonomikoak, eta, beraz, ez dute funtsezko helburua betetzen.

Ondorioz, uste dugu egokia dela Hezkuntza eta Kultura Departamentuari honako GOMENDIOA egitea: lehenbailehen ordain ditzala oraindik ordaindu gabe dauzkan 2001/2002 ikasturteko laguntzak, testuliburuak eta ikasmaterial osagarria erostekoak alegia, eta, hurrengo ikasturteetan, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak emaniko laguntzak ezagutzeari, laguntzak osorik ordain ditzala.

Hezkuntza Departamentuak, kontseilariaren bidez, onartu zuen gomendioa, eta aipatu zigun Hezkuntza Ministerioak Nafarroan duen Hezkuntzaren Goi-ikuskaritzari eskaera egin zitzaiola laguntzak ikasturte bakoitzaren hasieran eman ditzan eta lehenbailehen jakinaraz daitezzen emaitzak, horrela departamentuak ere bizkortasunez erabili ahal izanen baititu arlo honetan dituen eskumenak.

IKASLE BAT UDAL MUSIKA ESKOLA BATEAN MATRIKULATZERAKOAN KONTUAN HARTU BEHARRERAKO INGURUABARRAK EZ EGIAZTATZEA.

Kexa, kasu honetan (02/261/E espediente), Tuterako Castel-Ruiz Kulturguneko "Fernando Remacha" musika eskolan ikasle bat ez hartzeari buruzkoa zen: ama ez zetorren bat.

Esaten zuenez, semearen izena eman aurretik, Castel-Ruiz Kulturgunera joan omen zen jakiteko zer baldintza eskatzen ziren matrikula egiteko. Familia beste herri batean bizi denez, galdetu zuen ea semeak Tuteran erroldatu behar ote zuen; ez omen zuen horretarako arazorik, etxe bat zuelako herri horretan.

Une horretan ez zitzaion esan erroldatu behar zuenik, eta izena arazorik gabe eman zuen. Eskariak tokiak baino gehiago zirenez, zozketa egin eta semeak tokietako bat lortu zuen; zozketaren inongo arduradunek ez zuen aipatu, zozketa egiten ari zen bitartean, arazorik zegoenik semearen eskarari.

Interesdunak, gero, semearen matrikula egin eta ez zioten inongo oztoporik jarri. Behin matrikula eginda, musika eskolak jakinarazi zien ezin zutelara haurra hartu ez zegoelako erroldatuta; alabaina, akats hori, ordurako, konponduta zegoen.

Baldintza guztiak betetzen bazituen ere, semea ez zuten musika eskolan hartu, eta, beraz, espediente berrikusi eta haurra har dezaten eskatzen du.

Tuterako alkate udalburuak, gai hori zela eta, hau jakinarazi zigun:

"1. Publizitatearen bidez, "Fernando Remacha" udal eskolan matrikula egiteko eta izena emateko epeak irekita daudela jakinarazten da.

2. Eskabideak Castel-Ruiz Kulturguneko bulegoetan jasotzen dira, eta eskabide horietan ezarritako egoten dira "Fernando Remacha" musika eskolan izena emateko eta matrikula egiteko egunak. (Honekin batera doa eskabidearen fotokopia).

3. Izena emateko fitxa ematen denean, ahoz jakinarazten zaie gurasoei, ikasle berria izanez gero, eskaria handiegia bada tokien zozketa eginen dela, eta lehentasuna izanen dutela Tuterako ikasleek eta 4, 5 eta 6 urtekoek, musika tresnarik ez baitute.

4. 2002ko ekainaren 17an, 18:00etan, 4 urteko ikasleentzako tokien zozketa egin zen, eta, akats baten ondorioz, hor sartu zen [...], izena eman zuen fitxaren arabera [...](e)n bizi baita. Eta zozketan tokietako bat lortu zuen.

5. Asteazken goizean, ekainak 19, [...](r)en gurasoei telefonoz jakinarazi zitzaien akatsa gertatu zela, bizilekua ez baitzuen Tuteran. Egun horretan bertan, arratsaldean, [...] jaunak semea matrikulatu zuen. Honekin batera doa matrikularen fotokopia.

6. 2002ko ekainaren 21ean, udal musika eskolako zuzendariak txosten bat egin zuen eta Castel-Ruiz Kulturguneko zuzendaritzak, gutun bidez -261 zk. irteera erregistroan, ekainak 21-, matrikula ez zela zuzena eta baliogabetu eginen zutela jakinarazi zion [...] jaunari. Honekin batera doaz musika eskolako zuzendariaren txostenaren fotokopia eta Castel-Ruiz Kulturguneko zuzendaritzak igorritako gutunarena.

Aurrerago, [...] jaunak Castel-Ruiz Kulturguneko bulegoetara jo zuen ahoz eskatzeko egoera aztertu eta semearen matrikula onar zezaten; orduan, bulegoan ahaztu zuen ekainaren 21eko irteera erregistroa zuen gutuna.

8. Uztailaren 2ko idazki baten bidez, 226. zk. irteera erregistroan, matrikula baliogabetu zela berretsi zitzaion [...] jaunari. Honekin batera doa gutunaren fotokopia.

9. Honekin batera doaz matrikula ordaindu izana eta ordainketa hori itzuli izanaren frogagiriak; azken diru itzulketa 2002ko abuztuaren 1ean egin zen”.

ANALISIA:

Informazio horren arabera, begi-bistakoa da, lehenbizi, izen ematean akats formala egin zuela Castel-Ruiz Kulturgunek, tokien zozketan bereziki; izan ere, eskari gehiegi egotearen ondorioz zozketa egin behar bada eta Tuterako ikasleek lehentasuna badute, kexa-egilearen semea zozketatik kanpo utzi behar zen.

Horrekin batera, eta nahiz eta gurasoei akatsaren berri berehala eman eta, zozketan tokia egokituta ere, matrikula ezin zutela egin ohartarazi, matrikula egiten utzi zitzaien arratsaldean.

Begi-bistakoa da, aipatutako aurrekariak aztertuta, kasu honetan izan den jokabidea akats administratibo baten ondorio izan dela, eta, beraz, nabarmen hobetu daitekeela, hala izena emandako haurren egoera egiaztatzeari dagokionez, nola prozesuan parte hartzen duten pertsonen koordinazioari dagokionez, ez daitezen kasu honetan bezalako egoerak gertatu, hau da, goizean akatsa egiaztatu eta egin beharreko kudeaketak egin ondoren, arratsaldean indargabetuta gelditzea kudeaketa horiek, haurrari matrikula egiten utziz.

Hori horrela, eta nahiz eta Castel-Ruiz Kulturgunek bazuen ezarrita irizpide bat musika eskolako matrikulazioei buruz -horretarako zituen arauen arabera jokatu zuen, beraz-, horrelakoak zuzendu egin beharko lirake aurrerantzean; kulturgunek, izena emateko eta matrikula egiteko eskatzen dituen datuak egiaztatzean, ahalik eta zorrotzen jokatu behar luke.

Aurrekoaz gain, dauden tokiak baino eskari gehiago izanez gero Tuterako ikasleei, hots, Tuterako herritarrei lehentasuna emateko irizpidea baliokoa ote den ere hor dago; izan ere, udalak berak jakinarazten duenez, Tuterako ikasleek lehentasuna dute zozketan.

Gai honek lotura estua du Konstituzioko 14. artikuluan instituzionalizatutako berdintasunaren printzipioarekin, eta, beraz, Konstituzio Auzitegiak artikulua horri buruz zer interpretazio egin duen aztertu beharra daukagu. Printzipio hori, horrela, herritarrek tratu analogoa izateko duten eskubide subjektibotzat hartu izan da, eta horrek egoera berdina juridikoki berdina tratatzera behartzen du; egoerak berdintzat hartu behar dira, baldin eta egoera bien arteko aldea eragiten duen elementuak edo faktoreak ez badu oinarri arrazionalik, hau da, ezberdintasun faktore hori ez bada beharrezkoa legegileak babestu nahi dituen ondasunak eta eskubideak babesteko; bestela esanda, printzipio hori aplikatzeak ez du esan nahi erabat debekatuta dagoenik herritar mota ezberdinei tratu ezberdina ematea, baizik eta pertsona moten edo taldeen arteko diskriminazioa dagoela debekatuta, eta diskriminaziorik ez dagoela baldin eta ezartzen den bereizketa arrazional edo juridikoa egokia bada.

Herri bateko biztanlea izatea edo ez izatea ere aztertu izan du gure jurisprudentziak, erabakitzeke ea alde arrazional juridiko egokia den trataera ezberdina izateko.

Alde hori, berez, ez da justifikazio nahikoa trataera ezberdina emateko; herritarra izateaz gain, beste datu edo baldintza gehigarriren bat behar

da, arrazoizko oinarri bat, herri bateko biztanleari trataera ezberdina eta onuragarriagoa emateko; bidezko arrazoi bat nola baita, adibidez, herriko biztanleentzat eta ez beste inorentzat ezarritako kontraprestazio bat.

Kontuan izan behar da, honetaz ari garela, herri bateko biztanleen estatutua dei genezakeenak, hots, aplikatzekoak zaizkien xedapenen multzoak, herritarrei eskubide eta betebeharrak ezartzen dizkiela. Azken horien barruan ditugu, alderdi ekonomikoei dagokienez, besteak beste udal eskumenak gauzatzen laguntzea legezkoak diren prestazio ekonomiko eta pertsonalen bidez; hitz batean, udalaren eskumeneak diren zerbitzuak finantzatzea. Eta, eskubideei dagokienez, haiei bakarrik aitortzen zaie, herrikoei, prestazioa eskatzeko eta, kasua bada, behar den zerbitzu publikoa ezartzeko eskatzeko ahalmena.

Horrenbestez, horrelako kasuetan, non udalaren zerbitzuei buruz ari baikara, bai berak bai erakunde autonomo baten bidez emanak –Castel-Ruiz Kulturgunearen bidez, kasu honetan–, Tuterako herritarrek egiten dute aurrekontuaren zati handi baten finantzaketa, udalak ekarpen dezentekoa egiten baitu Kulturgunearen aurrekontuan; beraz, arrazoizkoa eta justifikatua dirudi lehentasuna izan dezaten herriko biztanleek baldin eta eskariak tokiak baino gehiago badira.

Zozketaren ondoren erroldatu izanak (2002-06-02) ez ditu onartze-prozesuari buruzko hausnaraketak aldatzen; izan ere, zozketaren egunak izan behar du erreferentzia (2002-06-17), egun horretan izan behar zuen Tuterako biztanle. Ezin dira balioztatu, beraz, geroztik eginikoak; ulergarria da ezarritako arau guztiak betez tokia izaten saiatzea, baina saio horiek, nolabait ere, arauak behar ziren unean ez betetzearen ondorio dira.

Beraz, bigarren gai hori dela-eta ez dugu uste, azaldu dugunez, Tuterako Udalari ezer adierazi behar zaionik; hala ere, GOMENDIO formal bat egin genion udal horri aztertutako lehenengo gaiari buruz: hemendik aurrera, Castel-Ruiz Kulturgunearak zorrotz egiazta ditzala musika eskolan izena emateko eta matrikula egiteko eskatzen dituen baldintzak, eta egiaztatze-lan horren ondorioz sor daitezkeen gorabeherak egoki eta behar den unean jakinaraz diezazkiela matrikula egin behar dutenei.

Udalak, azkenik, alkate udalburuaren bidez, eginiko gomendioa onartzen zuela adierazi zigen.

FAMILIA UGARIKO KIDEAK MATRIKULATZERA-KOAN ONURAK EZ APLIKATZEA NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO HIZKUNTZEN GOI MAILAKO ESKOLAN.

AURREKARIAK:

Kasu honetan (03/132/E espedientea), ikasle baten aitak kexa bat aurkeztu zuen familia ugarietako buruzko legedian ezarritako onura ekonomikoak –Nafarroako Unibertsitate Publikoan lizentziadun titulua lortzeko hizkuntzak ikasteagatik zegozkion– ez aplikatu izateagatik.

Interesdunak adierazitakoaren arabera, aurreko udazkenean, semearen zuzenbide ikasketen matrikula eskubideak ordaintzean, hizkuntzaren ikasketari zegozkion zatian ez omen zitzaizkion aplikatu familia ugarietako ezarritako beherapenak; hala ere, atzerriko hizkuntza bat ikasteak lizentziatura hori lortzeko beharrezkoak diren kredituak ematen ditu. Horrela, dioenez, semeak ordaindu zituen tasei edo matrikulari ez zitzaizkion familia ugaria izateagatik zegozkion beherapenak aplikatu Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle izan eta unibertsitate horretako Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan alemana ikasteko izena emateagatik, eta hori zuzenbide lizentziatura lortzeko eskatzen zaizkion kredituak lortzeko egin zuen.

Kexaren oinarri juridiko gisa Familia ugarien babesari buruzko ekainaren 19ko 25/1971 Legean ezarritakoa justifikaziorik gabe urratu izana aipatzen da. Izan ere, lege horretan, 10.1 a) artikuluko 5. idatz-zatian hain zuzen, hau ezartzen da: “Familia ugarietako kideek, hezkuntza gaitan, honako onurak izanen dituzte: salbuespena edo beherapena tasa eta eskubide akademikoetan nahiz administratiboetan... Hor sartuko dira mota guztietako matrikula eskubideak eta tituluak, azterketa eskubideak, ikasketekin jarraitzeko eskubideak eta praktikak, eta eskubide eta tasa administratibo nahiz akademikoak. Onura horiek ondoko zentroetan egiten diren hezkuntza maila, ziklo eta mota guztietan aplikatuko dira: fakultateetan, unibertsitate-institutuetan, -eskoletan eta -kolegioetan, eta goi mailako eskola teknikoetan, horiek estatukoak, erkidegoetakoak edo pribatuak izan, hain zuzen horietan egiten diren ziklo eta ikasketen mota guztietan.”

Arau horrekin bat, interesdunak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren irizpidearekin bat ez zetorrela azaldu zigen, hau da, Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan eginiko matrikulan onura horiek ez aplikatzeko irizpidearekin, legearen aurkakoa zela uste baitzuen: “legearen agindua argia bada ere, unibertsitateak ez ditu hizkuntzen ikasketak zuzenbide lizentziaturan sartu nahi. Hala ere,

nabarmena da hizkuntzak aurreikusita daudela zuzenbide ikasketen planean, lizentziatura hori lortzeko kredituak sortzen dituen beste irakasgai bat dela. Aukerakoa izateak, beste ikasgai batzuk bezala, ez dio benetako izaera aldatzen, hots, ikasketa ofizial baten zati bat izaten jarraitzen du.

Interesdunak Unibertsitatera jo zuen informazio eske; jokabide hori justifika zezaketen arrazoiak zein izan zitezkeen jakiten saiatu zen. Gero, Hizkuntzen Goi Mailako Eskolako zuzendariak, interesdunari idatziz helarazitako erantzunean, azaldu zuen beherapena ez zela aplikatu Hizkuntzen Eskolak ematen duena delako “prestakuntza eskaintza osagarria, titulu ofizialak lortzera bideratua ez dagoena...”, eta horregatik justifikatuta dago beherapena ez aplikatzea, ez baitago aitorturik beherapena izateko eskubidea.”

Behin kexa aztertuta, unibertsitateko errektore-arengana jo genuen, gai horri buruzko informazioa eman ziezagun; hain zuzen ere, azal ziezagun zergatik ez ziren aplikatzen aipatutako beherapenak, eta zergatik urratzen zen, hortaz, familia ugarien babesari buruzko araudian ezarritakoa.

Erantzunean, errektoreak hau adierazi zigon:

“Hizkuntzen Goi Mailako Eskola Unibertsitateko Gobernu Batzordeak 1997ko azaroaren 21ean hartutako erabakiaren bidez sortu zen, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Estatutuetako 19. artikuluan ezarritakoaren babesean; izan ere, artikulua horrek aukera ematen du Unibertsitatearen helburu akademiko eta sozialetarako interes berezikoak diren zentroak sortzeko.

Eskolaren helburua da hizkuntza ikasketak antolatzea eta ematea; hain zuzen ere, euskarazkoak, frantsesezkoak, ingelesezkoak eta atzerriarrentzako espainierazkoak.

Goi mailako eskola horretan ez da ikasketa ofizialik ematen, ez da titulu ofizialik lortzen; ikasturtea aprobetxatu izana aitortu besterik ez da egiten, zuzendariak sinatutako agiri baten bidez.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Hizkuntzen Goi Mailako Eskolak eskaintzen dituen alemanezko, euskarazko, frantsesezko eta ingelesezko ikastaroen izaera akademikoa dute, eta ikasle bakoitzaren hautapen libreko kredituen kargura homologa daitezke.

Familia ugarien babesari buruzko ekainaren 19ko 25/1971 Legean xedatzen denez, 10. artikuluan hain zuzen, familia ugarietako kideek, hezkuntzari dagokionez, salbuespena edo beherapena izanen dute tasa eta eskubide akademikoetan. Hor sartuko dira mota guztietako matrikula eskubideak eta tituluak, azterketa eskubideak, ikasketek

kin jarraitzeko eskubideak eta praktikak; onura horiek, besteak beste, ondoko zentroetan egiten diren hezkuntza maila, ziklo eta mota guztietan aplikatuko dira: fakultateetan, unibertsitate-instituetan, -eskoletan eta -kolegioetan, eta goi mailako eskola teknikoetan, horiek estatukoak, erkidegoetakoak edo pribatuak izan, hain zuzen horietan egiten diren ziklo eta ikasketa mota guztietan.

Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan ez da unibertsitate ikasketarik ematen; baldintza jakin batzuekin, hautapen libreko kreditu gisa onartzen dira, besterik ez, beste jarduera batzuekin gertatzen den bezala.

Hautapen libreko kredituak emateari buruzko araudiaren arabera –araudia 1996ko martxoaren 1ean onetsi zuen Gobernu Batzordeak eta 2000ko urtarrilaren 27ko eta 2001eko maiatzaren 17ko erabakiaren bidez aldatu zuen–, Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleek unibertsitatean ematen den edozein irakasgai hautatu ahalko dute, muga eta baldintza batzuekin.

Baina irakasgai horiez gain, Nafarroako Unibertsitate Publikoak hautapen libreko kredituak aitortu ahalko ditu, akademikoki zuzendutako praktikak, jarduerak eta lanak badira. Era berean, halakotzat hartu ahalko dira kirol eta musika jarduerak, hizkuntzen ikasketak, beste kultura-jarduera batzuk eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko gobernu organoetan eta batzordeetan ikasleen ordezkari gisa eginiko jarduerak, aipatutako erabakian ezarritako moduan betiere.

Unibertsitateak eskainitako hautapen libreko kredituen kargura eginiko irakasgaien matrikulan, eta “venia docendi” duten irakasleek emanak direnean, legedian ezarritako salbuespen edo beherapenak aplikatuko dira eskubide eta tasa akademikoetan; izan ere, irakasgai horiek ikasketa planeko gainerako ikasgaien prozedura dute matrikulari, kudeaketa akademikoari eta irakaskuntza prozedurari dagokienez.

Hautapen libreko irakasgaien eskaintzarekin batera, hautapen libreko kredituak ematea ere baimentzen da, ikasgai, mintegi eta jarduera akademikoak eginez gero.

Hautapen libreko kredituak emateari buruzko araudian xedatzen denez, aurreko horiek egiteko, hots, praktikak, kirolak, kultura-jarduerak edo hizkuntzak ikasteko, behin-behinekoz izena emanda egon behar da horiek eskaintzen dituen zentro, departamentu edo zerbitzuan. Behin-behineko izen-emate hori gauzatzeko, jarduera horietako bakoitzari dagokion prezioa ordaindu behar da.

Jarduera horien ordainketan ez da salbuespenik edo beherapenik aplikatzen, ez baitira, berez, inongo ikasketa planetako irakasgaiak. Jarduera horiek direla-eta hautapen libreko kredituak aitortzea eskatu eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan matrikula egiten denean, bai aplikatzen dira familia ugarien babesari buruzko araudian jasotako salbuespenak edo beherapenak.

Zuzenbideko ikasketa planean, atzerriko hizkuntza ez da enborreko irakasgaia, derrigorrezkoa edo aukerakoa; hautapen libreko sei kreditu lortzeko aukera aurreikusten da hizkuntzetako titulu ofizialengatik (frantsesa, ingelesa, alemana eta italierra). Gainera, lehen esan denez, konfigurazio libreko kredituak lor daitezke kirolak, kultur jarduerak edo hizkuntzak direla-eta, edozein ikasketa planetan gertatzen den bezala.

Horrela, legean aurreikusitako salbuespenak edo beherapenak aplikatu behar dira hizkuntzetako titulu ofizial bat izan eta hautapen libreko kredituak aitortzeko eskatzen zaionean Nafarroako Unibertsitate Publikoari, eta ez titulu horiek lortzeko ikasleek egokitzen jotzen dituzten prestatze bideak erabiltzen dituztenean. Beste horrenbeste gertatzen da kirolei, kultura-jarduerari edo hizkuntzen ikasketari dagokienez: kasuko salbuespenak Nafarroako Unibertsitate Publikoko hautapen libreko kredituak matrikulatzean aplikatzen dira.

Horiek horrela, ondorioa da Nafarroako Unibertsitate Publikoan aplikatzen direla familia ugarietako kideentzat aurreikusitako salbuespenak edo beherapenak; hain zuzen ere, hautapen libreko irakasgaietan matrikula egitean bai eta matrikula egiten denean hizkuntzak ikasteagatik kredituak aitortzeko edo titulu ofizialen bat izateagatik.”

ANALISIA:

Interesdunak, kexa-idazkian, bere ustez gertatzen den egoera paradoxikoa nabarmentzen du: unibertsitateak ez ditu aplikatzen legeak familia ugarietaz ezarritako onurak Unibertsitateko Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan matrikula egitean, eta hizkuntza bat ikasteak kredituak ematen ditu unibertsitate titulua lortzeko, zuzenbide lizentziaturara kasu honetan.

Itxuraz kontraesana dirudi; hala ere, aztertuz gero unibertsitate titulu bat lortzeko diseinatutako sistema eta sistema horretan nola aplikatzen diren familia ugarietaz legean aurreikusitako beherapenak edo onurak, kontraesanik ez dagoela egiaztatuko dugu.

Interesdunak kexa-idazkian adierazitakoari helduko diogu berriro. Hau zioen, hain zuzen ere: “..Unibertsitateak ez ditu hizkuntzen ikasketak

zuzenbide lizentziaturan sartu nahi. Hala ere, nabarmena da hizkuntzak aurreikusita daudela zuzenbide ikasketen planean, lizentziatura hori lortzeko kredituak sortzen dituen beste irakasgai bat dela. Aukerakoa izateak, beste irakasgai batzuk bezala, ez dio benetako izaera aldatzen, hots, ikasketa ofizial baten zati bat izaten jarraitzen du.”

Baieztapen hori, ordea, ez da zehatza, ondoren azalduko dugunez: zuzenbideko lizentziatura lortzeko, beste edozein lizentziaturarekin gertatzen den bezala, ikasleak zenbait irakasgai gainditu behar ditu, ikasketa planean ezarritakoak hain zuzen, eta irakasgai horiek honela daude sailkatuta: enborrekoak, derrigorrezkoak, aukerakoak eta hautapen librekoak.

Enborreko irakasgaiak dira Hezkuntza Ministerioak ezarri eta unibertsitate guztietako ikasketa planetan titulu ofizial jakin bat lortzeko derrigorrez sartu beharrekoak; horrenbestez, ikasleak nahitaez ikasi eta gainditu behar ditu kasuan kasuko titulua lortzeko.

Nahitaezko irakasgaiak dira Unibertsitateak ikasketa plan bakoitzerako ezarritakoak, eta ikasleak, horiek ere, nahitaez gainditu beharko ditu lizentziatura lortu nahi badu.

Ikasle bakoitzak bere unibertsitate-curriculuma modu pertsonalizatuagoan eratu eta hari norabide jakin bat eman ahal izateko, aukerako irakasgai batzuk ere ezartzen dira, unibertsitate karrera horretakoak diren gaien artean hautatzeko bidea ematen diotenak ikasleari, bai eta, halaber, hautapen libreko beste irakasgai batzuk ere –hautapen libreko irakasgai irekiak eta hautapen libreko irakasgai berariazkoak bereizten dira–, eta horiek beste unibertsitate-karrera batzuetako beste irakasgai batzuk ikasteko bidea ematen diote.

Aipatutako kasu guztietan, bai enborreko irakasgaiak direnean bai derrigorrezkoak, aukerakoak edo hautapen librekoak, ikasleak matrikula egin beharra dauka kasuko irakasgaietan, eta matrikula egitean aplikatzen zaizkio, hala egokituz gero, matrikula eskubidean dagozkion salbuespenak edo beherapenak, familia ugarietaz ezarritakoak ere bai, beraz.

Aurrekoaren osagarri den beste ikuspuntu batetik, ikasleak, unibertsitate-titulu bat lortzeko, lizentziatura bakoitzerako ezarritako kreditu kopurua lortu beharko du guztira. Orain dagokigunari helduz, hautapen librekoak deituriko kreditu kopuru bat lortu behar da karrera bakoitzean: gutxi, guztira lortu beharrekoen ehuneko 15 inguru. Eta ikasleak horiek ere lortu behar ditu lizentziatura eskuratzeko.

Hautapen libreko kreditu horiek lortzeko bide bat baino gehiago dago. Ikasleak, esan dugunez, curriculuma eratzeko interesatzen zaizkion hautapen libreko irakasgaietan egin dezake matrikula, eta horrela lortuko ditu lizentziatura eskuratzeko behar dituen hautapen libreko kredituak. Hala ere, unibertsitateak ikasleari aukera ematen dio curriculumetik kanpoko deritzen jarduerak eginez kredituak lortzeko. Horrela, unibertsitateak hautapen libreko kredituak aitor ditzake hurrengo jarduerak egiteagatik, berak horri buruz duen araudiari jarraikiz, zuzendaritza akademikoaren pean eginda betiere: kirol eta musika jarduerak, kultura jarduerak, hizkuntzen ikasketak, enpresa eta erakundee-tan egiten diren praktikak eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko gobernu organoetan eta batzordeetan ikasleen ordezkari gisa eginiko jarduerak.

Horrelakoetan, errektoretzak txostenean dienez, ikasleak unibertsitateari jarduera horiek direla-eta eskatzen dionean hautapen libreko kredituak aitortzea aplikatzen da, hain zuzen ere, dagokiokeen beherapena. Hautapen libreko kreditu horien aitortza, bistan denez, ikasleak hautatutako jarduera gauzatu ondotik egiten da; izan ere, jardueraren ondotik baino ezin daiteke egiaztatu ikasleak eginiko jarduera horiek hautapen libreko kreditu gisa aitor edo baliozta daitezkeen.

Hizkuntzei dagokienez, gerta daiteke, gainera, ikasleak hizkuntza bat unibertsitatean sartu aurretik ikasi izana. Ohikoa izaten da, gurean, Bigarren Hezkuntzan zehar hizkuntzen ikasketa ofizialak egitea, eta unibertsitateak hizkuntzen titulu ofiziala izateagatik kredituak lortzeko aukera ematen du. Logikoa denez, ordea, errektoretzaren txostenean azaltzen den moduan, salbuespenak eta beherapenak aplikatuko dira ikasleak, hautapen libreko kredituak lortzeko helburuz, hizkuntza bat ikasi izana aitortzeko eskatzen duenean unibertsitatean eta kreditu horietan matrikula egitean, eta ez titulu horiek lortzeko ikasleek egokitzen dituzten prestatze bideak erabiltzen dituztenean.

Esan dezakegu aurreko horien ondorioa dela atzerriko hizkuntza bat ez dela "aukerako irakasgaia", zuzenbideko ikasketa planean jaso eta ikasleak zuzenbideko titulua lortzeko ikas dezakeena. Hala izanez gero, familia ugariako kidea izateagatik legez dagozkion beherapenak eska litzake matrikula egitean.

Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan atzerriko hizkuntza bat ikasteko izena ematen duen ikasleak egin dezake gehiago jakiteko edo egin dezake ikasketa horiek balioztatzeko edo aitortzeko eta, horrenbestez, hautapen libreko kredituak lortzeko. Azken kasu horretan, eskolan matrikulatzeaz gain,

ikastaroa amaitzean egiaztatu beharko du, unibertsitateak ezarritako bideak erabiliz, ikastaroa aprobetxatu duela. Orduan, bai, ikasketa horiek direla-eta hautapen libreko kredituak aitortzea eskatu eta unibertsitatean matrikula egitean, bai aplikatzen dira familia ugarien babesari buruzko araudian jasotako salbuespenak edo beherapenak.

Aurreko horiek horrela, kontuan izanik bi kontzeptu ezberdin direla "hautapen libreko irakasgaiak" eta "hautapen libreko kredituak", eta trataera ezberdina justifikatuta dagoenez horrenbestez, uste dugu Nafarroako Unibertsitate Publikoak ez duela legea urratzen duen ezer egin familia ugari-entzat aurreikusitako beherapenak eta onurak aplikatzean.

Hala ere, unibertsitateak eginikoak, betiere, legediaren arabera izan direla abiapuntu hartuz, espediente honetan aurkeztutako gaiek zenbait hausnarketa eginarazi dizkigute. Hona hemen.

Familia ugarien babesari buruzko ekainaren 19ko 25/1971 Legearen zioen azalpenean esaten zen, jadanik, gizartearen zelula nagusia eta oinarritzko egitura zela familia, eta bermatu beharra zegoela haren babesa. Eta, azpimarratzen zenez, babeste-ekintza hori egitean kontuan hartu behar dira zenbait familia-nukleoren egoera eta berezitasunak, seme-alaben kopuruari dagokionez bereziki.

Familia babestu beharra, 1978ko Konstituzioa onestean, agindu konstituzional bihurtu zen botere publikoentzat. Horrela, Espainiako Konstituzioaren 39.1. artikulua hauxe dio: "Botere publikoek familiaren babes sozial, ekonomiko eta juridikoa ziurtatzen dituzte." Babes hori, zalantzarik gabe, familia-laguntzak eta -sorospenak ezarri gauzatu daiteke, eta hala adierazi du Konstituzio Auzitegiak (289/1999 Autoa). Gure erkidegoan familiari laguntza emateko berriki onetsi den araudiak ere ildo horri berari jarraitzen dio. Horrela, Familia ugari-entzat buruzko martxoaren 25eko 20/2003 Foru Legean nabarmentzen denez, familia politika orokor bati ekin behar zaio, neurri zehatz eta aldi bateko ez gairi. "Beharrezkoa da zuzenketak egitea familien zuzeneko fiskalitatean, baina berehalako jarduketan helburua izan behar da familia horientzako zerbitzuen prestazioa hobetzea, zuzeneko laguntza ekonomikoen bitartez, zerbitzu publikoak eta pribatuak ere -irakaskuntza- eskuratzeko erraztasunak emanez eta, batez ere, gastuak murrizten laguntzea."

Konstituzioko agindua betez Foru Komunitateko legegileak berriki adierazitako iritziekin bat, eta kontuan hartuz, errektoretzaren txostenean adierazten den moduan, Unibertsitateko Gobernu

Batzordeak Estatutueto 19. artikuluan ezarritakoaren babesean sortu zuela Hizkuntzen Goi Mailako Eskola, artikuluko horrek aukera ematen baitu unibertsitatearen helburu akademiko eta sozialetarako interes berezikoak diren zentroak sortzeko, badirudi ondorioa dela aipatutako lege testuek oinarri dituzten printzipioekin bat datorrela ikasleek, familia ugarietakoak badira, Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan ikasteagatik ordaindu beharreko matrikula eskubideetan beherapenak izatea, are gehiago aintzat hartzen badugu unibertsitatea sortu zuen foru legean esaten zela "Nafarroako goi mailako hezkuntzaren zerbitzu publikoa esleitzen zaion entitatea" dela unibertsitatea.

Hori horrela, egoki iritzi genion Nafarroako Unibertsitate Publikoari IRADOKIZUN hau egiteari: azter dezala familia ugarietako kideei tasetan edo matri-

kula eskubideetan beherapenak edo kenketak egiteko aukera Hizkuntzen Goi Mailako Eskolan, unibertsitatearen menpeko eskola baita.

Gure oharrari erantzunez, unibertsitateko errektoreak hau adierazi zigun: "jakinarazten dizut, atsegin handiz, gure aldetik ez dela inongo arazorik eginiko iradokizuna onartzeko; betiere, Nafarroako Gobernuarekin egiten den hurrengo finantzaketa hitzarmenean behar diren neurriak jartzen badira unibertsitateari dirusarrera hori galtzearen ordaina emateko."

Horren ondorioz, eta gai honi buruzko gure jarduketak amaitutzat eman baditugu ere –oraingoz, gutxienez–, errektoreari esan genion iradokizunean proposatutako neurriaren aplikazioari buruzko informazioa helaraztea nahiko genukeela.



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 41,00 euro Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,05 » Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,23 »	